

mitoen bilakatzea

ANUNTXI ARANA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ANUNTXI ARANA

mitoen bilakatzea

Mitoak historian eta historia mitoetan - akaberak eta iraupena

AURKIBIDEA

HITZAURREA

BASAJAUNA

- I. AUTORE KLASIKOEN DESKRIPZIOA
- II. GARAZIKO BASAJAUNA
- III. TOPAKETA ARRISKUTSUAK
- IV. BASAJAUN ENGAINATUA
- V. SALBATOREKO GANDERAILU EBATSIA
- VI. EBASLEARI EBATSI
- VII. SALBATOREN SALBATUAK
- VIII. GAUEZKO EGUZKIZALEAK
- IX. BASAJAUN LAGUNTZAILEA
- X. JARRAITZAILE IZUGARRIA
- XI. BAHITZAILEAREN AZKENA
- XII. BASAJAUNAREN GARRANTZIA
- XIII. GAURKO LITERATURAN

NATURAZ GAINEKO EZKONTIDEA

- I. ERDI AROKO KONDAIRAK
- II. EHIZA MIRESGARRIA
- III. MELUSINA
- IV. FAMILIEN JOKOA
- V. JOKO BORTITZAK
- VI. LAMIAK ETA SOBERANIA
- VII. LAMIAK ETA OPAROTASUNA
- VIII. LAMINAREN AMORANTEA
- IX. OINEKO ANOMALIA
- X. EROS ETA PSIKE
- XI. HILEZKORTASUNA, LAMIEN ETSIPENA
- XII. ANDERE ALA DEABRU?
- XIII. ANDEREA ETA LAMINAK

LAMINAK ETA ENPARAUAK

- I. LAMINAK ETA BASANDEREA
- II. GAUEKO LAMINAK
- III. GILLEN TIKIAK
- IV. ANDERE ERAIKITZAILEAK
- V. JENTILAK ETA MAIRUAK

- VI. LAMINAK ETA HILAK
- VII. LAMINAK ETA BAZTERTUAK
- VIII. LAMINAK ETA INAUTERIA
- IX. IZAERA ALDAKORRA

SORGINAK JENDARTEAN

- I. SORGINAK ETA LAMINAK
- II. ONGILEAK EDO KALTEGILEAK
- III. AUZOAREN BEGIZKOA
- IV. HOBENDUNAREN BILA
- V. SORGINEN IHARDUERAK ETA ITXURAK
- VI. HAURREN GALARAZLEAK ETA EMAGINAK
- VII. AMAREN HOBENA
- VIII. APEZAK ETA SORGINAK
- IX. SORGIN EKAITZEGILEAK
- X. PERTSEKUZIOA

AKELARREAREN ITURBURU MITIKOAK

- I. SORGINAK ETA XAMANAK
- II. OSAGILEAK ETA ERIARAZLEAK
- III. HILAK, DEABRUA ETA BESTE IZAKI MITIKOAK
- IV. AKELARREA: ENTZUNAK ETA BIZITUAK
- V. SORGINBERRI ETA ZUHAIZPEKO SEKRETUAK
- VI. ANBOTOKO ANDEREA ETA SORGINAK
- VII. LAMINEN DANTZALDIAK
- VIII. AKELARREA AKELARRE

PRAKAGORRI FAMILIARIAK

- I. ZER ETA ZERTARAKO
- II. BARGOTAKO ETA AXPURUKO ABADE FAMILIARIDUNAK
- III. AIREAN ZEZENKETARA ETA BAHEAN URA
- IV. ZEZENKETA ETA AKELARREA
- V. ZUBEROAKO EULI UZTATZAILEAK
- VI. EULI SEGALARIAK
- VII. UZTA ETA BAHEA, GOGOAREN JOSTAILU
- VIII. EZINEZKO BETEBEHARRAK ETA BAHEA
- IX. FAMILIARIAK, HODEIA ETA KONJURATZAILEAK
- X. SORGIN-APRENDIZA
- XI. FAMILIARIS
- XII. IRA-HAZIA

XIII. MAIRU-BESOA ETA MANDRAGORA

XIV. DEABRUAK ETA HIL EZINA

XV. IDEOLOGIAK

XVI. KONTUAK KONTU

MITOEN ARRABERRITZEA: EGITURA ETA GERTAKARIA

I. KONTALARIA ETA LEKUKOA

II. KONTALARIA ETA PROTAGONISTA

III. MITOA BIZIBERRITUA: KRIADA BAT

IV. SAN ANTOLINGO ZEZENKATA

V. AHUNTZARI EMAN

VI. JAKOA, ANBOTOKO ANDEREAREN URRATSETAN

VII. ESPERIENTZIA, MITOAREN ALDATZAILE

VIII. GIZA KATUA ARANEKO HIL-BEILAN

IX. FRAIDEAK, MEZA-LIBURUA ETA LAMINAREN ESTALGIA

X. KATU-SORGINAREN LAPURRETA ETA ZAURIA

XI. NORK BERE BAITAN MITOA HARAGITU

XII. ERABILPENA

XIII. ARIKETA EZ HUTSALAK

DEABRUA ETA AMA BIRGINA

I. DEABRUAREN ZUBIAK

II. SAN MARTIN ETA OILARRA

III. DEABRUAK ETA FAMILIARIAK

IV. AMA BIRGINA ETA DEABRUA

V. DEABRU ELIZAGILEAK

VI. LAMINEN ZUBIAK ETA ELIZAK

VII. JENTILEN ELIZAK

VIII. MELUSINA, ERAIKITZAILE MITIKOEN EREDUA

IX. DEABRUAREN ARTOA ETA AMA BIRGINAREN PAXA

X. ANTAGONISMOAK

XI. SINKRETISMOA ETA BALIOBITASUNA

XII. ERLIGIO-ORDEZKAPENA ETA NAGUSITASUNA

BALIABIDEAK ETA ARMAK

I. ARGIA ETA ZEINUAK

II. OILARRA ETA LIBURUA

III. ARGIA ETA HITZA

IV. JESUSEN IZENA

V. HITZ IDATZIA: LIBURUA

VI. ENIGMAK ETA AZERIKERIAK

VII. LIHOAREN NEKEAK

VIII. SUA ETA ARGIZARIA

IX. SU SUNTSITZAILEA ETA KEA

X. MAKILAK, LANABESAK, SU-ARMAK

XI. BURDINA, ZORROZTUNAK ETA ZIZTAK

XII. LANDAREAK ETA URA

XIII. PARADOXAK ETA AHO BIKO ARMAK

LAMINEN ETA JENTILEN AZKENA

I. KRISTO AURREKO JENTIL ZAHARRA

II. INTERPRETAZIO HISTORIKOA

III. APEZAK, ERMITAK, LITANIAK

IV. BOLBORA, ARMAK ETA ARMADUNAK

V. AKABERA GAURKOTUAK: ERROGATIBETATIK BONBA ATOMIKORA

VI. AREZKO SARRASKIA

VII. BURDINA BURDINAREN AURKA

VIII. ITSUAK ETA ITSUTUAK

BIBLIOGRAFIA

HITZAURREA

Mitoak nahiko egonkorrak baldin badira beren egituran, eraldaketak izan dituzte denboran barna, kontatzaileek beren garaiko testuinguru ekonomiko, sozial edo izpiritualean gertatzen ziren aldaketak sartu baitituzte haietan.

Bostehun urte dituzten kondaira batzuek oraingoekin duten antza nabaria da. Erdi Aroko mito multzo batean Melusina Lusignan familiaren amasoa zen bezala, Bizkaiko jaunen leinuak ere bazuen naturaz gaineko arbaso bat, eta haren irudia igartzen dugu XX. mendeko Anbotoko Anderearen kondairetan.

Sorginkeriaren prozesuek txosten eta literatura ugari utzi dute, eta haietan deskribatuak diren akelarreak alderatzen ahal ditugu ahozko tradizioaren bitartez gureganaino heldu diren istorioekin; bide batez ikusten dugu nola uztartzen diren orduko sorginen sinesteak eta azken mendeetakoak.

Gertakari historikoak modu anitzez sartu dira mitoetan. Benetan bizi izan diren pertsonaia ezagun batzuei mito bat eratxiki zaie. Sarako erretor izan zen Atsular idazlea, adibidez, apez sorgin bilakatu da Lapurdiko kondairetan; eta halaber Atarrabio. Era horretan garaikideturik mitoa “biziberritu” egiten da, eta bermatu ere. Mekanismo zahar hori azken mendera arte ibili da, eta orduko zenbait istoriotako protagonistek daramatzate kontalariak ezagutu dituzten jendeen izan-abizenak.

Arraberritze berak ahalbidetu du historikoak diren beste elementuak tradizioko egituretan sartu izana. Haren bidez heldu dira herri mitologiara erligio kristauko izakiak, hala nola deabrua eta Ama Birgina. Aldaketa teknologikoak ere ageri dira mitoetan, eta funtzio garrantzitsua betetzen dute maiz, arma berriak izan baitaitezke izaki mitikoetatik begiratzeko, edo berdin akabatzeke erabilgarriak.

Elementu berriak edota arrotzak bereganatuta ere, oso kondaira zaharrak ekartzen dizkigu herri mitologiak. Maileguak hartu ditu ugari, baina bere funtsa aldatu gabe, hau da, bildu duen guztia bere erara moldatuz. Horrela, bere moduko sinkretismoa sortu du, eta apez, benedikazioz eta otoitzez bete dira istorioak, hargatik kristau teologiaren izpiritura makurtu gabe.

Jentilen akabera kristianismoren etorrerak eragin omen zuen; edo gertakari askoz zaharrago batek, lehen elurraren agerkerak. Horrek ez du galarazten oraingo baserri zehatz eta ezagun batzuetara jentilak bisitan etortzen zirela kontatu eta sinetsi izana. Laminak, beren aldetik, bolbora fabrikatzen denetik hona galdu dira eta, halarik ere, gaurko berriemaileen aitita-amamen etxeko tximiniatik sartzen ei ziren. Akaberarik akabera iraun dute mitoek.

BASAJAUNA

Euskal Herriko izaki mitiko gehienak eta gorenak femininoak direla kasik dogma bat bihurtu delarik, bazter geratzen da usu pertsonaia oso garrantzitsua, Basajauna. Alta, Euskal Herriko ekialdetik mendebalderaino azaltzen da, bereziki Baigorri-Garazi aldean, eta biziki garrantzitsua zen Agosti Xaho idazle zuberotarraren ustez. Haren *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques 1830-1835* liburukoa da segur aski Basajaunaren lehen aipamen idatzia:

Pirinioetako mito hauetatik ospetsuena, Basajauna, jende irudi duen munstro bat da; euskaldunek leize ilunenetan eta oihan zolan kokatzen dute. Handia da Basajauna, indar harrigarria du eta soin osoa ile leunak estalia, adats bat bailitzan; zutik ibiltzen da jende bat bezala, makila bat eskuan eta oreina baino zaluago. Haranean barna urrats biziz dabilen bidaiariak edo ekaitzetik ihesi artaldea sartzen ari den artzainak entzuten badu norbait deika ari zaiola, haren izena tontor batetik bestera oihukatuz, Basajauna da. Urubi arrotzak nahasten bazaizkio haizearen murmurioei, basoaren auhen sorrei eta lehen ortzantzen karraskei, horiek ere Basajauna. Tximist iheskor baten argitara mamu beltz bat ageri bada, izaien erdian tente edo enbor usteldu baten gainean kiribildurik, haren kalpar luzearen artean begi batzuk hautematen badira dirdirka: Basajauna. Eta ezin ikusizko norbaiten oin-hotsak aditzen badituzu gibelean, zure abiadurarekin batera dabiltzan urratsak... berriz ere Basajauna!

Euskaldunak kontatzen du nola, artzain gaztea zelarik, topo egin zuen Basajauna. Non eta noiz gertatu zen xeheki zehazten du, inguruak nolakoak ziren, eta nola ikaratu zen ere aitortzen du. Eta berdin ikaran dira haren erranetara adi-adi dauden haurrak.

“Neguko gau bat zen, ilun hotza, haizea zuhaitzen adarretan xixtuka, elurra mara-mara, eta artzaina bortu gorenetik behera zetorren bakarrik. Gauerdiraino ibili zen, noiz eta, lainoak bidea ezkutatu baitzuen, basoaren erdian gelditu behar izan baitzen. Haren aitzinean enbor bat, zutik, adabururik gabea eta elurrez zuritua; oharkabea makilaz jotzen du, elurra erori eta oihal baten gisan estaltzen zuena agertzen da artzain ikaratuaren begien aurrean: Basajauna, lehoi bat bezala orroaka, begietan su eta biloa laztu”.

Ele egokiak eta hizkera egatia erabiltzen ditu supazterreko kontalariak, entzuleen biltzeko eta sinestarazteko bera izan zela abenturako heroia. Nahiz eta aitari aditua dion, eta hark ere bere aititari... (euskaratua, Xaho 1979: 260).

I. AUTORE KLASIKOEN DESKRIPZIOA

Basajaunaren ezaugarriak zerrendatu ditu Azkuek (1959: 354-358). Barkoxen diotenez, “oro bilho et oro bizar düzü”. Arnegin, jendeen taiua omen du eta itsusia da. Eta Xahok eman zion eiteari, hau gaineratu zion Iturralde y Suit-ek, *Las grandes ruinas monásticas de Navarra* liburuan:

Fuerte como los graníticos peñascales del Roncal, inexorable como el Destino, monstruo cuyos puños de acero arrancan de cuajo robles seculares que blande a guisa de *makilla*, cuyos ojos, cuando la cólera le agita, lanzan rayos, y cuya voz retumba, ensordece y aterra, como la de las tempestades de los mares de Cantabria (Azkuek zitatua).

Garazi aldean alde onak ere baditu, halarik ere: Arnegin uste dute “Basajaunak ikuturiko ardi ez bildotsik ez duela jaten otsoak egun egin artio”. “Basajaunak joaldun aharia bizkarrean eramaten zuen eta artaldeak jarraiki”. Barkoxen, “Basajaunak unkitu dien ardi edo aharia ez dizü ez otsoak ez hartzak jaten”. Luzaiden diotenez, Mailuxeko harpean bizi da Basajauna, eta haren oina borobila da, “kotxu ipurdia bezala” (Satrustegi 1980: 136-137). Gaur egungo berriemaileek ez dakite zehazten nolakoak diren Basajaun eta Basandereak, eta batek dio: “Ez dizit intzun: bazirela bai, (baina) ez zuten erraiten nola eginak ziren”. Lapurdin berri eskas dugu Basajaunaz, salbu ogro gisa azaltzen den ipuin miresgarri batzuetan (Webster 1993 I: 9) eta Barbierren beste batean (1931: 25); beherago ikusiko dira.

Bizkaian, Zeanuriko gizon batek Azkueri esan zion bernak estu, mehe eta gorriak dauzkala Basajaunak; beste batek, Atxondo inguruan ikusi zuela behin eta ahuntzak iheska hasi zirela, infernuko deabruak ere ez baitzituzkeen (biri)bilduko. Azkuek ohartarazi du Alemaniako izaki mitiko batek “Basagizon” (*Waldmensch*) izena duela (1959: 354-357).

Barandiaranek Ataunen bereziki bildu du Basajaunen berri, zerbait Bizkaian ere. Haren ezaugarriek jentilenak gogorarazten dituzte:

Ser terrorífico, de carácter maligno, que habita en lo más profundo de los bosques. (...)
Háblase de él algunas veces como si realmente existiese en nuestros días. Tampoco faltan leyendas en que aparecen los Baxajaunas como una raza de hombres que en época muy antigua vivieron en nuestras montañas, y que solo se distinguían de los demás por la mayor robustez y agilidad de su cuerpo, por su religión y por sus superiores conocimientos agrícolas (Barandiaran 1960: 63-66).

II. GARAZIKO BASAJAUNA

Garazi inguruko eta XX. mende erditsuko erranak argitaratu ditu Duny-Pétrék, 1960ko *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* aldizkariko artikulua sorta batean. Hona hemen zenbait zati laburtuak.

Oraingo euskaldunen gogoan, izaki oiher bat da Basajauna; beldurra eta aldi berean errespetu eragiten dizkie. Ez zaio gaitzitu behar, beraz, eta bai haren apetak kontuan hartu. Basajaunak ez du nahitaez despota anker baten itxura, alderdi on zenbait badiu eta gisakoa ere izan daiteke.

Leku batzuetan Antxo goitizena ematen diote, baita Tantugu ere, biak Antonioren diminutiboak beharbada.

Bakartasuna, gaua eta bide txarrak ditu lagun eta, gaur egunean, ibar sobera jendeztatuak utzirik, urrunera joan da, oihan eta arroila malkor iritsiezinetan gordetzera. Herriko mutikoek egiten zioten laidoaz ahalketurik joana da: mukizu lotsagabeok kuia haundi bat husten zuten eta hartan begiak, ahoa eta sudurra zulaturik, barnean kandela puxka bat pizten zuten. Gero, gauaz ibiltariak iziarazteko, hesi baten gainean ezartzen zuten irudi irringarri hori eta Basajauna deitzen zioten. Zer afrontua basoetako Jaunarentzat...

Halere, beheretarrek kutsatu ibar horietatik urrunago eta gorago joan arau, jendeek begirune handiago erakusten diote Basajaunari, eta seriooki aipatzen dute gauaz supazterrean. Haiei esker jakin dezakegu, aro hotza heldu delarik, basapizti gosetu batek

bezala jotzen duela Oriuneko maldetan behera Iratiko oihan bazterrerraino eta Beherobi zolaraino. Oihanketariak ikusi dituzte haren aztarna bitxiak: jende oin bat eta haren alboan zaldi zango bat. Naski, noizbehinka kabalak eramaten dituzte kontrabandistek haran horietan gaindi, baina halako herexak Basajaunarenak ziren, seguru. Eta gisa guztiz, gau beila bururatzekoan, haurren zalapartak asperturik, amatxi xahar batek serio demonio gaztigatuko die: “Ixilik egoten ez bazarete, Basajauna deituko dut eta bere zilora eramane zaituzte”.

Basajauna ez baita urrun. Eguzkia gorde ondoan ibiltzen da borden inguruetan. Artzainak entzuten dute batzuetan, Orreagako gainetan ufatzen duen haizearen marrumekin nahasian edo, ekaitza zartatu eta, ate kolokak kurrinka eta xakurrak uluka ari direnean. Aterpe bila dabil doaikabe; eta gaixo ordu berant horietan oraino kanpoan dabilena!... Baina artzainak badaki Basajaunak artoski begiratuko dituela ardiak gauean, haien artean babesturik, janari eta bero poxi baten truke.

Kondairek diote bi Nafarroen arteko mendiak direla Basajaunaren azken kokalekua, erreka sakonek eta oihan trinkoek zatituak baitira Erronkaritik Ibañetaraino eta Izpegiraino hedatzen diren bortuko alhagiak (Duny-Pétre 1960: 91-97, laburtua eta euskaratua).

Mitoa arrazionalizatzen du Duny-Pétrék; guarden familia batean sortua zen idazleak bazekikeen basajaun-zaldien herexen berri.

Jeanne Zuaznabar-Aphal lekunberritarra bizi izan den Gasnategiko etxolan, Salvatore azpiko erreka zolan, baziren Basajaun-Basandereen kontuak:

Lehenago basajauna, basandereak eta denak baziren. Lehenago gure amama zenak kondatu ukan du frangotan, goiti heldu zelarik segiturik, norbait gibeletik eta zerbaitetarik basa, basa horietarik, seguru. Ba, amama, ene amama zena. Haren urratsak eta hola (*makilaz "tan-tan" eginez*) hautematen zitien, eta ez zien nehor ikusten... Nehor ez ikusten bena urratsak... Eta jakizazu ez zela agertu, gauaz segurik, ez da... Jinkoa! Ez dakit noraino segitu haren urratsa. Oi ai, ez nien irri egingen ez, ordian. Jinkoa!... baziren, ba, lehenago. (*Basajauna nolakoa zen ez daki*,) bestea, anderea segurik, hek hain segurik, ontsa beztiturik eta avec des zer batzu, brazeleta eta ba, kolier eta. Ba, basanderea, oui. Ederra, segur, ederra.

(Jeannek ez daki non bizi ziren, baina Gasnategitik ez urrun badira harpeak, eta han) intzun dizit ba, ikusirik, ba, han (Basanderea), hala erraten zizien segurik. Orrazia ederra eskuan omen. Ba. Basanderea, bilo luze batzuekin eta omen, izi... Jinkua! Ederra zela erraiten zuten. Ederra zela intzun dut bena ez dakit nolakoa zen (Izura Launanian kontatuak 1998an).

III. TOPAKETA ARRISKUTSUAK

Mendietan eta basoetan ibiltzen direnek dute aurrez aurre egiten Basajaunarekin, egurginek eta bortuan gaua ematen duten artzainek bereziki; nahi gabe, naski, beti haren beldur baitira denak, eta topaketa horietatik makurrik gabe nola atera izaten da koxka; Baxenabarren eta Zuberoan bildu kondaira batzuetan, hiru egia pentsatu behar dituzte beren burua salbatu nahi dutenek. Hona Muskildiko bertsoia:

Larrazkenean artzainak gaineko oletarik pekoetarat jautsi eta, gauaz ohartzen dira pastetxan (taloen) egiteko grisila ahortzi dutela goian. Inork ez baitzuen joan nahi, erabaki dute bost sos emanen diotela joaten denari. Bat joan da eta Basajauna atxeman du pastetx baten errearazten. Basajaunak:

- Hiru egia erraiten badeiztadak, emanen dauat grisila eta ützi haut joatera.

Artzainak, apur bat pentsamentükan egon ondoan:

- Zunbait jentek erraiten dizie (dute), gaiaz (gauaz) argizagi xuri denan, egünaz bezain argi dela; bena eni ez zitazü (zait) seküla egüna bezain argi gaia. Jauna, hanitz jentek, mestüra (tremesa) hun bat düenean, erraiten dizie ogia bezain hun zaiela; bena eni beti ogia hobe zitazü. Jauna, uste üken banü zü heben arrakuntratüko züntüdala, ez nüdüzü (nintzen) segür ni gaur hunako.

Orduan Basajaunak:

- Üzten haut joiten hire grisilareki. Bena nahi dauat eman abis bat: ez hadila seküla haboro juan pakamentüa gatik gaiaz kanporat, habiloa lehenagorik ere dohainik (Cerquand 2017: 50 zb, moldatua).

Eihalarreko bertsioko Basajauna ere ez da oso tzarra, azkenean (Cerquand 2017: 49 zb): artzainak kotxua (kaikua) ahanzi du bordan eta haren bila doa; ardien artean Basajauna aurkitu du, eta hark gizona “kuraiastatzen du” hiru egia esatera, horrela “batere minik gabe” joatera utziko baitu; eta hala egin du.

Dena dela, enigmak ez dira inoiz txantxetakoak eta, Edipok Esfingeren aurrean bizia jokatu eta irabazi bazuen ere, asmatzeak ez du beti salbatzen (ikus “Baliabideak” kapituluan). Haatik, trufa aire du Basajaunari esaten zaion hirugarren egia eta azeriak isekaz erabili ohi du:

Azeriak ibaia iragan behar zuen eta bidaia ordaintzeko dirurik ez. Barkeruari eskaintza egin zion: ontzian bestaldera eramaten bazuen hiru egia esango zizkiola. Eta baietz. Ontziratu eta esan zuen lehen egia:

- Esaten daudie (dute) iletargi denean: “Hau da gauaro ederra.” Baina ez da gaurik eguna langorik.
- Egia dok, esan zuen barkeruak. “Orain beste egia bat”.
- Bai, askok esaten daudie: “Ai, zer bedar ederra eta zer bedar ederra”. Baina ez da bedar ederragorik garia baino.
- Hori bere egia. Hirugarrena.

Eta bestaldera helduta, zango bat lehorrean zuela:

- Fraka zaharrak eta arropa zaharra badaukozak, baina nilango asko pasetan badok, osteria bere eukingo dozak! (Arana 1996: 379).

Azeriaren hiru egia askotan azaltzen dira gure bilduma klasikoetako istorioetan (Webster 1887: 42-45; 1993 I: 7; 1993 II: 47 eta 201; Barbier 1932: 138; Azkue 1966: 414 eta 382; Barandiaran 1961: 132). Aarne & Thompson-en katalogoko T 150 “Advise of the Fox” motiboaren hirugarren egia hau da: “When you have a fox don’t let him loose”. Eskandinaviatik Greziara zabalduta da Europan, baita Turkian, Arabian, Indian, Indonesian... Esopok ere kontatu zuen, eta oso ugariak dira Frantziako bertsiok (Delarue & Ténèze 1976: 411). Mitologian oso gai hedatua da enigma edo galderei erantzun beharra; deabrutik libratzeko ezagunak dira San Martinen “Hamabi misterio (edo egia) handiak” (ikus “Deabrua” eta “Baliabideak” kapituluak).

IV. BASAJAUN ENGAINATUA

Azerien eta amerindioen mitoetako “Trickster” en antzera, maiz erridikulua erabiltzen dute maltzurrek izaki mitikoetatik ihes egiteko edo onuraren bat lortzeko. Eta orobat San Martinek, falta dituen haziak edo teknikak Basajauni hartzeko:

Ataungo Basajaunak eta jentilak Muskia mendian egoten ziren eta han sekulako gariak biltzen zituzten; bitartean beheko kristauek ez omen zeukaten galazirik. San Martin Txikik, bota nasaiak jantzi eta hango gari-pila handiaren gainean zeinek jauzi handiago egin apustu egin zuen: Basajaunek berealdiko erruan eragin, eta San Martin erdi-erdian erori, baita botak galaziz bete eta korrika alde egin; ordutik zabaldu omen zan garia herri denetan (laburtua, Barandiaran 1960: 66).

Biziki ospetsuak dira horrelako kondairak. Zerainen artoa ebatsi zion Basajaunari San Martinek; beste anitzetan jentilei edo deabruei hartzen die haziak, edo teknika garrantzitsu bat. Kortezubin, kalda ateratzeko (burdina lotzeko) arria beharrezkoa dela esanarazi zion infernuko deabruari, eta Dohoztirin eiheraren sekretua; Oihartzunen, zerra egiteko hortzak okertu behar direla; Saran, eiherako kalakaren kokotsa altzez egiten dela... (Barandiaran 1960: 63-67 eta 152; 1962: 103; 1984: 39; Etxebarria, 1995: 252).

Engainatua ez ezik, zauritua ere izaten da Basajauna. Istorio hau jaso du Azkuek Zeanurin:

Legoaldai izena daben koba ondoan Ipinako (Zeanuri, Bizkaia) gizon batek haizkora bategaz pagoa zatituten eragoion (ari zen). Basajaun bat agertu jakon: “Erdu kobara neugaz”, esan eutsan. Gizonak: “Itxaron hau zatitu arte, erantzun eutsan Basajaunari. Eutsiozu mesedez honeri”. Basajaunak esku biak pago arrailatuan sartu ebazenean, besteak estutu eta hantxe itxi eban (Azkue 1959: 356).

Zeanuriko bertsio bat bildu du Barandiaranek; eta Idiazabalgo beste batean jentila da astrilan (arrailean) harrapatua (1960: 65). Aostan lamina lapur bati egin zioten jukutria (Sébillot 1968 I: 453). Bestela, basa animalia bati (“La patte prise dans la fente d'arbre”, Delarue & Ténèze

1976: 312). Aarne & Thompson katalogoan bitan azaltzen da motiboa: T 38 “Claw in the split tree. The fox (or man) persuades the bear to stick his claw in the cleft of a split tree”; eta T 151: “The man teaches tears to play the fiddle. He tricks them by catching their claws in a cleft tree”.

V. SALBATOREKO GANDERAILU EBATSIA

Jakintzen eta bai ondasunen jabe ere da Basajauna, urrezko ganderailu bat nola kendu zioten kontatzen baitute Baxenabarren. Irati Salbatoreko kaperan, Mendibekoan, bada tramankulu bitxi bat, beila egunean hartan ezartzen baitzituzten beilariek ezko-xirioak edo kandelak. Cerquand-ek eta Barbierrek (1931: 150) deskribatu dute: bi metro gora da, eta hiru-zango baten gaineko kobrezko zutoin bat du ardatz; ardatzaren inguruan, sei uztai horizontal ditu, goitik behera sei zafla hestu bertikalek loturik, zilindro bat osatzeko maneran; eta gainean beso mugikor bat. Ganderailu horren jatorriaz, Mendibeko eta Gamueko kondairak bildu zituen Cerquand-ek. Hona Mendibekoa:

Duela zazpi ehun urte, ez zuzun (zen) Mendiben bi etxe baizen: Lohibarria eta Mikelaberroa. Egun batez, Lohibarreko mutila, izengoitiz Haxerihargaitz, joan zuzun behika Galharbeko potxara. Han harrapatzen dizu (du) basandere bat, ganderailua garbiturik, urre orraziarekin iresten ari dela; eta gogoan pasatzen dizu ganderailu ederra behar duela ebatsi. Bi aldiz saiatu zen alferrik eta, hirugarrenean, Basanderea tronpatu eta abiatu zuzun bere ganderailuarekin. Basandereak aita deitu zuen. Basajauna, ezteietan baitzen Behorlegimendin, bi jauziz jin eta Haxerihargaitzi jarraiki zitzaion Salbatoreraino. Kaperak ikusi eta mutilak oihu egiten du:

- Jondone Salbatore, zuretzat ekartzen dizut present bat ederra.

Hoinbertzenarekin Salbatoreko zeinua bere baitarik hasten da mintzatzen, eta Basajaunak erraiten:

- Baliatzen zauk joare-tzar hori mintzatu baita, bertzenaz jaten hindudan. Lehenbiziko barurik harrapatzen haudanean, janen haut.

Handik zenbait denboraren buruan, ogi joiten ari izanik, Haxerihargaitz abiatzen duzu (da) goiz batez barurik behi batzuen bila eta Basajaunari ohartu. Haren desafioa oroiturik, hasten duzu buruari hatzez eta harrapatzen dizu bizpalau ogi bihi biloen artean kokaturik. Berehala

ahoa ezartzen ditizu (ditu) eta jaten. Ordu beretik Basajauna urtu izan zuzun eta ez zizun (zuen) gehiago ikusi.

Handik harat Haxerihargaitz ez zuzun sekula etxetik ateratzen barurik.

Ganderailu hori lehen urrea bezain horia zen, baina gerlan espainolek kapera erre zuten eta orain beltza da. Orduan nahi izan zuten Mendibera ekarri, baina inoiz ezin izan dute Haizkurutxeko lepotik pasatu ahal izan (Cerquand 2017: 53 zb, laburtua).

Barura haustek onura dakar istorio honetan. Laster azalduko den beste batean, aitzitik, atxiki izanak du salbatzen. Hurrengo kapituluko bi kondairatan ere ikusiko da baruraren balio aldakorra, ondorio kontrajarriak ekartzen dituela. Osterantzean, Haxerihargaitz ez zela orratz zalea ageri da – Basanderea ez bezala – eta, batez ere, jestu eragingarria egin zuela: ogi bihi xumea Salbatoreko zeinua baino indartsuagoa izan zen hainbestearaino non, Barbierren bertsioan, Basajauna “itzali zen eta ez gehiago agertu”. Lohibarreko mutila azeri moduko maltzurra dela salatzen du izenak; itxuraz, larritasunak bultzaturik eskaini zion Salbatoreri ganderailua eta ez, Gamueko bertsioan eta Barbierrenean bezala (1931: 126), debozioaz.

VI. EBASLEARI EBATSI

Ganderailuarena ez zela lapurreta esaten dute kondairaren aldaera batzuek, hala J. M. Iraburuk *Boiras* liburuan (Iruña 1922) argitaratu zuenak:

Jaun handi batek eskaini zion urrezko ganderailua Salbatoreri eta Basajaunak handik ebatsi zuen, Basandereak beren haitzuloa argitzeko nahi zuelako. Eliztarrek berriz eskuratu nahi zuten. Bazen artzain bat, Basajauna gurutzatzen zuen bakoitzean agurtu egiten baitzuen, ihes egin gabe; gasnak ere eskaintzen zizkion eta haren bildotsekin laketzen zen Basajauna. Artzainak holakoa eskaini zion batean, hiruentzako apairua prestatu zuen Basandereak, atso itsusiak. Ondo jan eta mozkorturik loak hartu zituenean jaun-andere horiek, mutilak ganderailua eraman zuen; laster Basajauna baitzuen gibeletik, Salbatoreri laguntza eskatu zion. Orduan zeinuak jo zuen eta Basajaunak oihu egin: “Hobe duk joal tzar horrek soinatu dien, hobe duk!” (Barandiaranek zitatua, 1961: 88, laburtua eta euskaratua).

Mendiben 1985ean Maia Unasobizkaik esan zigun ganderailua “eliza zerbaitetarik” ebatsi zutela “Basajaun eta horiek”; gero jendeek ikusten zutela bere leizearen hegian ganderailu horrekilan, eta deliberatu zuten hartu behar zutela eta herriko elizara ekarri; Basajauna kanpoan zelarik joan ziren eta atera zuten leize hegiraino, baina Basajauna jin zen eta ez zien handik higitzen utzi; orduan oihu egin zuten: “Oi Salvatore gaixoa, salba gaitzak eta, laguntzen bagaituk hau ekartzen, kapera horrendako izanen duk”. Eta geroztik Salvatoreren dagoela eta ezin dela handik herriko elizara eraman, “Salvatoren ofreditua izan zelakotz”.

Lapurrari egin lapurreta hau interesgarria da egituraren aldetik ere, bideratzen duelako hirugarren aldaera batera, urte berean Kaiet Lako mendibetarrak kontatu zuena: Salvatoreko elizatik ebatsi zuten laminek ganderailu bat, eta beren Labeko Ziloan zeukaten - edo daukate, inork ez badu gibelera ekarri. Bertsio honek ez du azaltzen nondik datorren kaperako ganderailua, soilik lehen bertsioaren alderantzizkoa da, simetrikoa: batean Salvatorentzat ebasten du artzainak, bestean Salvatoreri ebasten diote laminek; hein berekoak dira Salvatore eta Basajaun/laminak, bata zein besteak izan daitezkeela ganderailuaren jabe ez-zilegi.

VII. SALBATOREN SALBATUAK

Saindu bat bada Salvatoreren, Saindia izenekoa, Haxerihargaitz bezala otoitz eginda salbatu zen neska.

Bithiriñako etxe batean (Baxenabarre) artoxuriketan ari ziren. Burdi-arrastela eskas zutelakoan arta-buruen hurbiltzeko, etxeke mutilak erran zion etxeke alabari:

- Landan ahantzi dinagu arrastelua, ez haizela joaten haren bila?

Etxeko alabak ihardesten dio:

- Zer nahi duk jokatu banoala?

- Emanen daunat hamar sos joaten bahaiz

Neskatxak hitzean harturik joan zen landarat. Eta Basajaunak bere adarrez buruko iletik harturik, eraman zuen neskatxa doakabea airez aire, Lartzabalen gaindi, Salvatore mendiraino. Han goizalderat argi-zeinua entzunik, otoitz hau neskatxak egin omen zuen:

- (Salbatore) otoi, salba nazazu.

Ordu berean Basajaunak utzi zuen neskaxa bere adarretarik eta neskaxa jautsi zen
Salbatoreko leize ondora (eliza ondora esan nahi al du) (Barandiaran 1962b: 12).

Kondaira honek aldaera asko dauzka, eta amaieran gaineratu ohi da neskaren irudia kaperan jarri zutela eta Saindia deitu dutela. Bertsio batean, neskaren otoitzari ahots batek erantzun zion, galdetuz ea barur atxikia zuenez; neskak dio berak ezetz baina amak bai, eta horrek salbatu zuen.

Bestela, bertsio gehienetan izpiritu gaiztoak du neska eramaten, ez Basajaunak (Arana, 2003). Usu bahitzailea izan arren, Basajauna ez da airean ibiltzen eta ez adarduna izaten; aldi honetan, ordea, deabruaren itxura eta joera hartu ditu. Beti ere, ganderailuaren ebaslearen kondairak eta Saindiarenak egitura antzekoa dute: mutila ganderailuarekin, neska haitzurrotzarekin, lehena Basajaunak pertsegitua lurrian, bigarrena izpiritu gaiztoak eramana airean, Salbatorera buruz doaz biok eta otoitz bera egiten dute, “Salbatore salba nazazu!”; eta bietan, otoitzari zeinu-hotsa batzen zaionean, izaki gaiztoak bere harrapakina utzi behar du. Bi istorioak parekatu zituen Jeanne Zuaznabarrek: Lohibarreko mutila “ogia joiten ari izanik eta ogi-bihi batzuk sakelan” mendira joan zenean, “zerbaitek hartu” zuen eta, “Salbatoren parrean gertatu zelarik, ‘Jondone Salbatore, otoi urrikal zaizkit’” oihu eginda, onik eta osorik hantxe gelditu zen. Beste berriemaile batek, Jeanne Irigoinek, irriz ohartarazten du: “Denak Salbatoreren eta beldur ziren doaikabe, Basajaun eta holako horiek”.

Ikusi dugu, baina, Salbatorek bezain beste zeinuak salbatzen duela, Basajaunak aitortzen duenez: “Hobe duk joal zar horrek soinatu din”, “Eskerrak emazkik joare tzarra hasi baita”, “Baliatzen zauk joal-zar hori hasi baita mintzatzen”. Gamueko bertsioan, eguzkia da salbatzailea: ganderailuaren ebaslea laminatik ihesi zihoanean, ekia ageri zen, lamina galdu eta ganderailua Salbatoreraino iritsi. “Baliabideak” kapituluan azalduko da nola elkarrekin lotuak diren zeinua, ekia eta egunarekin zerikusia duten beste sinboloak.

VIII. GAUEZKO EGUZKIZALEAK

Eguzkiak uxatu ohi dituen izaki mitikoak eguzkitan laketzen dira. Orozkon, zuloetan bizi diren laminak eguzkitan egoten ziren orrazten edo beren oihal ederrak zabaltzen; eta berdin Anbotoko

Anderea bere haitzuloaren atarian. Basajauna “ekhitala” jartzen zen leizearen hegian, bahitua zeukan Behorlegiko neska batekin eta, haren altzoan burua pausaturik, lokartzen ere zen (Cerquand 2017: 58 zb). Salvatore inguruko Basajaun-Basandereek ganderailua garbitu eta eguzkitarat xukatzera ateratzen dute, eta anderea urrezko orraziaz orrazten da. Izaki mitikoek, gauekoak eta ktonikoak direlarik ere, eguzkia maite dute, eta ez da baitezpada paradoxa: goizaldeko argiak edo eguzkiak ditu uxatzen, ez eguerdikoak. Gaueko horiek argia izaten dute beren lurpeko egoitzetan, eta urrezko ganderailuak, eguzkitan dir-dir egin ez ezik, eguzkiak haina argitzen du leize barne osoa. Lurpe/lur-gain, gau/egun eta ilun/argi bikoteen korrelazio ez da orotan eta osoki ibiltzen. Bi nozio horien arteko oposizioa ez da kristianismo eta paganismoaren artekoa, baizik eta edozein sistema sinbolikoren barnekoa. Ganderailu distiratsuak, bere harat-honatetan, Basajaunetik Salvatoretera eta alderantziz ibiltzen delarik, lehenaren leizea argitzen du eta bigarrenari beilariek eskaintzen dizkioten xirioen euskailua da. Sinkretismoko tresna dela esan daiteke. Cerquand-en ustez, aldiz, erligio baten garaipena eta bestearen menderakuntza adierazten ditu:

Leize batetik bahitu ganderailua Salvatoreko kaperara eraman izanak funts historikoa du, nire ustez. Gurtze baten amaiera eta beste baten garaipena iragartzen ditu. Ez dut esan nahi ganderailu edo delako tresna hori Basajaunaren gurtzeko erabilia izan dela; baina leize batean itzaltzen eta kapera kristau batean pizten den argia sinbolo gardena da. Eta da zalantza handirik euskaldunen sineste zaharrean Basajauna gurtua izan dela (Cerquand 1875: 251).

Cerquand-en garaian ganderailua Salvatoretik hartua izan zela dioten bertsioak argitaratu gabe ziren. Dena den, eguzkiko eta urrezko zer pagano hura belztu egin zen elizan sartu ondian. Eguzki Sainduari itzalik ez egiteko ote? Edo, besterik gabe, izaki mitikoen urrea ikatz bilakatu ohi delako, hala laminena nola Anbotoko Andererena, edo berdin deabruarena. Beltz gelditu da betiko, eta betiko Salvatorean. Mendibetarrek diote handik ezin dela eraman: “Arotz eta behi eta gehiagorekila ere naski entseatu zirela, baina ez zutela behin ere ekarri ahal izan beheiti” (Jeanne Irigoin). Horretan ere bat egiten dute ganderailuak eta Saindiak, Kaiet Lakoren ustez, neskaren irudia baita ezin eramana: “Horrek ere ene irudiko bere konparantza badu, Saindu horren lekua ez da Mendibeko elizan, Salvatorean da, hain segur, e?”.

Horrelako legenda Ama Birginaz kontatzen da maiz, besteak beste, Otsagabiako Muskildan (Nafarroa); Landetako Buglos-en, Santutegiko berinetan marraztuak dira idiak Ama Birginaren

irudia ezin garraiatuz. Dibinitate tematsua berriz aurkituko dugu “Deabrua” kapituluari, eliza egin behar diotela berak hautatu lekuan, ez beste.

IX. BASAJAUN LAGUNTZAILEA

Basajaunak sentimendu kontrajarriak sustatzen dituela azaltzen dute Xahok, Duny-Pétrék edo Satrustegik, beldurgarri izanik ere ongile izan daitekeela. Etxola batean jatekoa eta beroa aurkituz gero, beste gaberik joaten da, Arhantsusiko (Baxenabarre) kondaira honetan bezala.

Behin baziren ola batean bi artzain. Afal ondoan gaztainak ezarri zituzten suan erretzen eta, akituak baitziren, loak hartu zituen. Bortako harrabots batek iratzarri zituen baina, ixil-ixila, egiten dute alegia lo. Ikusten dute sartzen Basajaun bat, beltz-beltza, dena biloz betea, eta esku latz ikaragarri bat sentitzen dute bisaian: janen zituela erraiten dute beren baitan, eta ez dira higitzen. Basajauna supazterrean berotu eta gaztaina guztiak jan ondoan, olan beretako on diren guztiak hartu eta joan zen, nehoi minik egin gabe (Cerquand 2017: 55 zb, laburtua).

Engainurik gabe eta truke zuzenean ematen du Basajaunak. Zuberoan, artzain mutiko bati erakutsi zion hagineta mina behatza bihurtuz sendatzen zela, Junes Casenavek Txomin Peilleni kontatu dionez:

Lehen ziozüen (zioten) artzain zaharrak bortüala joaiten zirelarik hanitxetan potiko bat berekin eroaiten zütela. Potiko hari artzain lana erakusten zizüen (zuten) eta üsü ola-etxean üzten zizüen, berak ardiekin builtara (bazka jirara) zoatzalarik saldoaren ondotik. Gazte harek huraren xerka (bila) joan behar zizün (zuen), egür bila ere bai, peko oihañetara ta holako: hola lehen ikasgoa edo ikastaldia egiten zizüen, artzain-müthil.

Behin, holako artzañ lagün bat, hagineta minez olan (etxolan) egon züzün (zen); ordüan, bera (bakarrik) zelarik, Basajauna agertü ziozün (zitzaion) eta barnerat sartü; zonbaitek dioenez, hor ziren gaztain erreak jan zitizün (zituen), baita hoiñak hauts beroan sartu ere, potikoa, gaztea, beti etzanik egoiten zelarik. Basajaunak galdatü ziozün (zion) zertako zen

hala egoiten, eta jakin züalarik zergatik hala zen, eta artzañer hartüen ordari gisa, erran ziozün gazteari hagineta mina sendotüko zeiola: zanko behatza bühürtü ziozün, bi zankoetan edo batean zonbaiten arabera, eta gazteari hagineta mina hola igaran ziozün (Peillen 1994: 42).

Baxenabarren, Garaziko “Antxo eta ulainak” kondaira politean, arrunt gisakoa da Basajauna artzain mutiko batekin, eta sariztatzen ere du, haren nagusiak xifriarazi ondoan.

Bertzorduz, bazituzun (ziren) Ezterenzubiko bazterrean, Espainiako limitan, bigezpalaur ulain (unai), bat motiko gaztea. Heien etxolara, heiek lokartu zirenean, jiten zuzun (zen) Antxo, Basajauna, berotzera, eta jaten zizun (zuen) heien jatekoetarik, gau guziz uzten zioten puska: Antxoren partea. Gau batez, parte hura ez zela zatitzen ikustearekin, motiko ttipi harek erraiten dizu (du):

- Non duzie Antxoren partea?

-Emaiok heurea nahi baduk -ihardesten diakozie (diote).

Motikoak bere partea uzten dizu usatu taularen gainean. Basajauna jiten duzu bere usa kostuman. Berotu denean jaten dizu motikoaren partea eta partitzen duzu eramaiten dituelarik ulainen arropa guziak, motikoarenak salbu. Gau hartan elur bat egin zizun gaitza eta, biheramun goizean, ulainek erraiten diakozie motikoari arropen bila joan dadila Antxorengana. Harek ea zer emango dioten ordainez; eta biga xar bat baitzuten, hura hitz ematen diakozie. Joan da motikoa leizera:

- Antxo, otoi, eman izkadatzu lagunen arropak: bila igorri nizie (naute).

- Zer eman dauiate saritzat?

- Biga txar bat.

- Tozkik arropak eta to ere urritz-xaharo hau: markazak heure biga eta emazkok huntaz ehun eta bat zarta, ehun eta batgarrena handiena.

Motikoak egiten dizu Antxok errana eta, denbora laburrik barnean, biga harek eman ziazkozun ehun eta bat abelgorri ederrak. Denbora haietan Basajaunak elekatzen zituzun giristinekin (Cerquand 2017: 54 zb, laburtua).

Duny-Pétrék Donibane Garaziko Salaberri-Petre etxean euskal esku izkribu bat atxeman du 1880-1900ko testuekin, eta 1960an frantsesez argitaratu ditu, haien artean “Une légende de

Tantugu“. Hots, Tantugou Bigorreko Luchon inguruko pertsonaia da (Marliave 1996: 123) eta haren legenda beren hizkuntzara itzultzeko eskatu zien Sacaze linguistak gaskoin eta euskaldun andanari (Aurrekoetxea & Videgain & Iglesias, *Lapurdum*, 2019-4). Hona, moldatua, Arnegiko batek egin zuena.

Tantugou da zahar bat, oihanetan gordetzen dena. Alorrak eta pentzeak begiratzen ditu, ez dezaten deus ere ebats. Ogiak pikatuak eta belarrak ebakiak direnean, nagusiak oro sartu artio, Tantugouk ez du lorik egiten, iratzarturik dago beti. Hura ager beldurak atxikitzen ditu ohoinak. Ona da, sinets zazie, bainan basa. Laborari batek gauza anitz zekienak erraiten zien ardura bere semei Tantugou zela segurki lurreko fruitien zaintzalerik hoberena.

Uztaileko hilabetearen eguerdi ondo batez, ardi tropa bat alhan ari zen mendi baten gainean; artzaina lokartu zen; iratzartu zenean ohartu zen Tantugou ihes egiten ziela oihanetarat. Berdin ezagutia izan zen artzainez ordoki pollit batean, harroka baten gainean.

Egun oraino, Pirinioetako zonbait herritan, haurrak haren beldur dira. Mutiko ttipi batek ez dielarik obeditu nahi bere amari, erraiten dako: “Begira hiri! Deitzen diat Tantugu, eta berehala jinen duk oihanetarik!”

X. JARRAITZAILE IZUGARRIA

Garazin Basajaunak sortzen duen beldurra kontatu du Duny-Pétrék, “Ezterenzubin 1923garren urtean ene haur lagunaren ahotik ikasia”.

Agorrileko arratsalde batez lanoa hedatu zen Errozateko bortietan. Bi artzain ardi batzuk ezin bilduz ari ziren erreka malkar batean, bakotxa bere aldapetik ibiliz.

Iguzkia apaltzen ari zen itsas aldean eta artzain batek eman zien zinka labur bat bere lagunari adierazteko itzuli behar zutela etxolarat. Beraz, joan ziren gaineko alderat, bidexka baten atxemaiteko xedearekin. Handik laster, ilun beltza hedatu zen lanoaren ondotik.

Etzuten gehiago ikusten ahal norat zebiltzan eta, elgarretaratu nahiz, irrintzinaka hasi ziren aldizka malda batetik besterat, noiz eta ere bat ohartu baitzen izigarriko leize

baten hegian zela!... Urrats bat aintzina egin balu eroriko zen zilo ilun horren barnerat...

Eta irrintzina beti heldu... leizearen aldetik, oihartzun bat bezala!...

Beste artzainari ere gauza bera gertatu baitzakon, bixtan zen gizon horiek Basajauna kexarazi zutela gau hortan, haren egoitzaren ondoan ibiliz uste gabe, eta hau ere irrintzika hasi zela gaxtakeriaz, biak eroriarazteko leziaren barnerat. Zorionez, bakotxak bere aldetik, ihes-leku bat atxeman zien harpe zoko batian. Han, untsa gordeturik, ixil-ixila, igurikatu zuten goizargia, eta azkenean etxolarat agertu ziren, arrunt leher eginak baina makurrik gabe (Duny-Pétre 2011, laburtua).

Zuberotar bat eri zen Basajauna ikusi ondoren:

Nire kosi batek, dio Mariana Elhar barkoxtarrak, gai batez Basajauna ikusi zizün (zuen) kabalaren artean eta lotsatürrik (iziturik) olhara joan züzün (zen) eta hantik eri etxerat ekharri zizien (zuten) eta luzaz ohean egon züzün (Azkue 1959: 358).

Gauaz ibiltzen direnek atzetik sumatzen duten Basajauna lazarria izaten da. Batez ere, oihu eta zinka ibiltzen denari jarraitzen zaio. Hala Zuberoan, Liginagako bati:

Ene anaia bortiala (bortüra) jua eta ilhuntu ziozun (zitzaion). Eta zinka bat egin zizun (zuen). Eta oihanetik errapostia uken zizun. Aitzina jua zuzun (zen) eta beste zinka bat egin zizun. Errapostia uken zizun berak lehena egin zian lekutik. Inarrondoko olhara heltzian arra egin zizun beste zinka bat. Eta olhara heltu zenian, erran ziezun beste artzainer:

- Zuin zionden eni errapostu-emaila hori?

Ez guntia (gintukan) gu, Basajauna zian. Guk egin bageneza hemen, Basajauna huna jin liteke (Barandiaran 1984: 170).

Holakoetan, Basajauna bera hiltzaile izan gabe, haren beldurra da hilgarria.

Bizkaian, Zeanuri Buztinzuriko alabea Andramortun (Lekandapean) egoala auntzetara joanda. Eta gaube ilundu zanean etorri zen atzerantza. Eta Susunean oihu egin ei oan (zuen) neskeak eta Basajaunek erantzun eutzela (ziola) Andramortun. Gero neskeak barriro oihu Azpunten eta Basajaunek kontestau Susunean. Neskeak oiua Azpean eta Basajaunek

Azpunten erantzun. Barriro neskeak oihu Topetaganean eta Basajaunek oihu Azpeko pagatzen. Neskeak oiu San Justun eta Basajaunek Topetaganean.

Behin ilundu ezkerro persegidu egiten ei eudien (zuten) seguru. Gero etorri zen etzera neskaxie eta atea zabaldute sue ikusi oanean, bertan behera jausi eta hil egin ei zen (Manterola & Etxebarria 1979: 66).

Mitologian kontatzen diren esturazko heriotzen adibidea da hau. Gupidagabe atzetik jarraitzen eta beti erantzuten duen Basajaunak oihartzun aire badu; edo ibiltariaren doblea, unerik une eta zehazki biok ibilbide bera daramatela; gaueko tipikoa da, desafio egilearen zigortzaile. Joko bertsua erabiltzen du Britainiako *Ian an Od* ("Jon Ibaibazter") oihukariak: behin erantzuten dion bidariari bide erdira hurbiltzen zaio, bi aldiz egiten dionari bide erdiaren erdira, eta hiru aldiz erantzuten ausartzen denari oratu eta ito egiten du; *Hoppers* eta *houpoux* deitzen diren gauekoek ehotzen dute behin baino gehiagotan erantzun diena (Sébillot 1968 II: 347; 1968 I: 158 eta 316).

Bizkaiko beste batean, Anbotoko Andrearen egoitzan zegoen Basajaunak hil egin zuen gizon bat.

Arratia eta Orozko bitartean bada koba bat, Supelegor du izena eta Arrabako Landan dauka atea. Ipiñara (Zeanuriko auzunea) Santiagoetan Faustino Goia deritzon mutilzahar aberats- aberats bat urtero etorten zen. Behin lagun batzuekaz (Ibarra abadea eta beste bi), Supelegorrera joan zen. Barru-barrura sartu zanean baten batek (Basajaunak, ustez) oratu eta estutu, eta zuziturik utzi zuen. Handik Ipiñazar etxera ekarri zuten lagunek Faustino gizagaixoa eta zortzigarren egunean hil zen (Azkue 1959: 356, laburtua).

Elizaren indarraren aurrean ere ez omen da beldur Basajauna.

Nafarroan, Arnegiko Peñuneko ziloan bizi zen Basajauna; behin apezka (Mus zuen berak izena) sakramendu eta guzti joan zen harenganat eta jeikirik erran zakon: "Mus: urrats bat aitzinago jiten bazira, hila zira". Izututa atera zen apezka (Azkue 1959: 357).

Gorago ikusi dugunez, Arhantsusiko artzain batzuen ustez jendejale da Basajauna. Eta haren izena ematen diote ogroari ipuin honetan:

Hiru anaia Basajaunaren gaztelura heldu dira eta haren emazteari lehorra eskatu; erantzuten die senarra etortzen denean janen dituela. Eta bai, haien usaina sentitu du Basajaunak, baina ez ditu jaten, eta haren mutil paratzen dira hiruak. Anaien bila joan zen arreba eta, aurkitutakoan, bera ere neska paratzen de gaztelu berean: kontent dira haurrideak elkarrekin. Baina arreba arras mehatzen ari da, jaunak arrats guztiez erhi pittina zurgatzen dio eta. Orduan Basajauna hiltzea hitzartzen dute nabarrebek, baita egin ere. Haren emazteak hiru agin kentzen dizkio hilari, eta neskari diotso haietaz hiru anaien zangoak garbitzeko; eta hiruak idi bilakatzen dira. Neskak anderea mehatxatzen du labean erreko duela ez baditu berriz gizon bilakarazten. Eta hark, beldurturik, erantzun: “Zoazte halako erreka eta handik ekar hiru abraska (abartxo) urritza eta bakotxari emozu bizkarrean hiru zartako.” Neskak hala egiten du eta anaiak jende bilakatzen dira lehengo manera berean. Gero haurride guztiak elkarrekin egon ziren Basajaunen gaztelu hartan, eta ongi bizi baziren, ongi hil ziren (Webster 1993 I: 9, oso laburtua).

Basajaun hau ez da gure mendiko etxoletara hurbiltzen dena, baina haren emazteak zaharoaren magia ezagutzen du, “Antxo eta ulainak” kondairakoak bezala. Eta aginak zangoei lotuak berriz ere...

XI. BAHITZAILEAREN AZKENA

Goragoko deskripzioetan aipatzen ez den arren, Basajaunak neskak bahitzen ditu bere leizera - Orozkoko jentilen antzera (ikus “Azkena”). Hortaz piriniotar tradizioko hartz bahitzailearekin nahasten da, hainbestearaino non bahituaren eta Basajaunaren haurra “Harzko” edo “Haxko” deitzen baita. Hona Barbierrek bildua:

Nabarrako herri batean aitalaba batzuk joan ziren egurka oihanerat. Oihanetik atheraturik heldu zaie Basa-Jauna, neska hartuta eremaiten baitu berekin, lurpean egina zuen egoitzarat.

Denboraren buruan, Basa-Jaunaren ziloan sortu zen beraz Haxko. Haur bat zen ezin gehiago azkarra, gorphutz guzia dena ile, hainbertzeraino non, larruaren estaltzeko, ez baitzuen soineko beharrik batere. Urtheak hola egon ziren ama-semeak lurpetik atheratu gabe. Ordukotz, haurrak zazpi urthe eginak zituen. Egun batez, abiatzen da Haxko, Basa-Jauna norat gaten den ikusi beharrez. Gora eta gora doa eta, ikusten alimaleko argi eder bat. Ikusi duen argiaz arras hartua, erraiten dio amari behar dutela handik gan. - “Bainan nork highi harri handia?” - “Nik, ama!” - “Ezin dirok, haurra! - “Bai, ama, bai, eginen dut”.

Badoazi beraz ziloari gora. Haxkok bere esku iletsuetan hartzen du harria eta, biraka, biraka, lerrarazten du mendiari beheiti. Harria badoha oldar gaitzean, bidean atxemanak oro porroskatzen dituela. Harrabots izigarri hori aditurik, amari eta haurrari ondotik abiatzen zaie Gizon basa. Herrirat ja hurbilduxeak direlarik, ohartzen da ama gaixoa Basa-Jauna ondotik dutela eta lotzen da garrasiarik saminenetan...

Garrasia hek entzutearekin, zerbeit debrukeria bazitekela, herriko atabal eta ezkila errepikak hasten dira zapartaka, eta basa gizona, hek oro aditzearekin, ihesari eman zen, eta toki hek hustu ere zituen behin betikotz (Barbier 1931: 129, “Haxko” istorioaren hastapen laburtua).

Ipuin tipo hau Europa osoan ezaguna da, Euskal Herrian bezala (Cerquand 2017: 102 zb; Azkue 1966: 196; Barandiaran 1962: 108). Barbierren bertsio honen segidak Haxkoren indarrak eta balentriak kontatzen ditu, Herkules haurraren heinekoak. Zuberoako bertsio zenbaitetan haurra Arrolan da (Cerquand 2017: 103, 104 zb). Beste batzuetan ez da haurrik aipatzen, edo bakarrik amak ihes egin artean (Cerquand 2017: 57 zb). Arhantsusin, artzain batek erreskatatu zuen neska, eta Basajauna, emaztearen bila abiaturik eta ezin kausituz, xangrinez hil zen. Besterik da Behorlegin (Baxenabarre):

Egun batez Basajaun batek harrapatu zizun (zuen) Behorlegi Etxepareko alaba bat Elhorrietan eta leizerat eramane. Zenbait egunen buruan handik jalgi Behorlegiko bistara, eta han jarri zitzun (ziren) ekitara. Neskatoaren altzoan Basajaunak burua pausatzen dizu (du) eta lokartzen duzu (da): neskak, emekiño tablierra mozturik, barnean emekiño pausatzen dizu Basajaunaren burua eta ihes egin; baina bahitzaileak, oharturik, burhau egin ziakozun (zian): “Balinba leher eginen dun etxean sartzearekin”. Eta hala gertatu zen.

Behorlegi lthurburuko alaba Elhortan artzain zebilela, Basajaun batek - Antxok - bahitu zuen. Noizpait agertu zen Antxoren Xilon, lezearen beheko muturrean, bi orenen bidean Elhortatik. Beti han ikusten zuten, Basajaunaren biloa arraniatzen ari zela, eta ez zekiten nola aterarazi. Azkenean kurutzearekin eta bertze gauza sailduekin joaten dira eta neskatoa Basajaunaren eskuetatik kentzen dute. Basajaunak erran zion etxean heltzean gibelerat beha zezan: hala egin zuen eta hil hotza erori zen. Geroztik zilo hura deitzen dute Antxoren Xiloa (Cerquand 2017: 58, 59 zb, laburtuak).

Elhortan (Elhorrietan) 1985an, artzain batek esan zigun entzutea zuela bahituaren istorioa: ama dendaria zela eta haren haizturak atxeman zituztela Gantxon-Xiloko urbegian, hau da Antxon-Xilon, Etxepareborda aitzinean, hango alaba baitzen neska. Bahituen gauza zerbait (eraztuna usu) beheko iturri batean aurkitzea maizko motibo da, sinestea baita goiko leizeak azpiko iturbegiekin komunikatuak direla.

Ogroen kondaira zenbaitetan, neska askatzen duen mutil gazteak haren laguntzaz akabatzen du bahitzailea. Basajaunaren bahitua, berriz, bahitzailearen paredro edo emazte bilaka daiteke, Basandere manierak hartuz: orrazten egoten da, batzuetan “argia pizturik” (ganderailukoa agian, ikus Cerquand 2017: 56 zb). Jende bat izaki mitiko bilakatzen ahal da, beraz, bi izaeren arteko muga ez da iragangaitza.

Giro horretan kokatuak, Basajaunaren eta Basanderearen arteko harremanak korapilatzen dira noizbehinka. Gamueko bertsioan (Cerquand 2017: 52 zb), artzainak “andere lamina” gogatu zuen bakarrik zegoelarik, ganderailua bildu ahal izateko. Luzaidek idatzi zuenez (1922: 68-71), Basajaun-andereek beren harpera bazkaltzera gomitatu zuten artzain lagun bat eta hark ebatsi zien tresna bitxia. Beste batean, Basajaunak “seduzitu” zuen Baigorriko artzaintsa bat eta Basandereak, jelosturik, ibaira bota zuen enbor baten barnean sartuta; Baigorriko zubian aurkitu omen zuten hila, bere haur sortu berriarekin; ume hori etxe on batean hazi zuten eta Baionako apezpiku izan zen. Bertrand de Etxauz da Baionako apezpiku baigorriar ezagun bakarra eta, beste noble asko bezala, natura gaineko arbasoaz jantziko zuten. Bestela, istorio horrek Bibliako Moises dakar gogora. Are gehiago Greziako Danae-Perseo ama-semeak. Baiki, Hera eta Zeusen arteko iskanbila olinpikoen moldeak erabiltzen ziren Garaziko bortuetan.

Anartean, jendeek ez diote atsedunik eman Basajaunari: zeinua, ogi bihia, eskua harrapatzen dion enbor arraildua... bere gaiztakeriengatik ohildu zuten arte.

Antxo bera, lthurburuko alaba galdu eta, joan zen Aldudera eta han beti zerbait gaizki egiten zuen. Istudiante batek madarikatu nahi zuen, baina Antxo gordetzen. Agertarazteko oihu egin zion: “So egik Antxo, Xapel baten barnean bi buru! - Nik bazakiat mirakulu bat hori baino handiagoa, bazakiat Alduden zonbat iturri den eta guzietan edan diat!” Antxok erantzun. “Behin edan baduk ez duk berriz edanen”, erran zion istudianteak, eta orduan madarikatu zuen sekulakotz (Cerquand 2017: 60 zb).

Apezgaia zatekeen istudiantea, eta haren madarikazioa konjuru. Larrainen (Zuberoa) Basajaunak anitz kalte eragiten baitzizkien laborariei eta laboreei, apezak urrunarazi zuen, larunbat oroz *Salve Regina* kantatuz (Cerquand 2017: 61 zb; Azkue 1959: 358). Eta Bizkaian:

Basajaunaren bildurrez ermitak egin ebezan (zituzten) eta Asentsio-letaniak (errogatibak). Harrezkero Basajaunik ez jauku ageri (Azkue 1959: 357).

Modu bertsuan baztertuak izan omen ziren jentilak, laminak eta beste izaki mitikoak (ikus “Azkena” kapitulua).

XII. BASAJAUNAREN GARRANTZIA

Euskal Herriko ekialdetik mendebalderaino azaltzen da Basajauna eta ugari dira haren istorioak Zuberoan eta Baxenabarren: Altzürükün, Barkoxen, Larrainen, Liginagan, Mendiben, Luzaiden, Baigorri bildu dira. Gipuzkoan eta Bizkaian, Basajaunaz guti entzun duela diosku Azkuek (1959: 354-57), baina Azpeitia eta Matxinbenta bitartean Basajaundegi izendun mendi bat bada. Barandiaranek Ataunen aipatu du, eta Gorbeia aldean badela ikusi dugu. Zeanuriko kondaira batean “Basajaun” deitzen diote mutil baten lamina moduko emaztegaiari (Barandiaran 1960: 64). Basanderea Basajauna baino gutxiagotan azaltzen da, Garazi-Baigorri aldean batez ere; Lapurdin, Mondarrain mendian kokatu du Barbierrek (1931: 26 eta 25) lamina eite duen bat, Basajaunik gabe.

Nortasun handiko pertsonaia da Basajauna eta haren garrantzia ezagun da izendatzean singularrean egiten baita, Anbotoko Anderearekin partekatzen duen ohorea. Nahiz eta

Barandiaranek “los baxajaunas” aipatu, Cerquand-ek “Basajaunak elekatzen zituzun giristinekin” idatzi, baita “Basajaun batek” bahitu egin zuen... Ezaugarri hori azpimarratzekoa da, gure mitologiako pertsonaia gehienak pluralean eta indibidualizatu gabe azaltzen diren testuinguruan (laminak, mairuak, jentilak, familiariak...). Tartaroa ere holakoa da - haren antza du istorio bateko Basajaunak (Cerquand 2017: 95 zb). Soilik Anbotoko Anderea da beti bat eta bera, salbuespenik gabe, nire ustez. Eta kondaira batzuetako Anbotoko Anderearen antzera (ikus hurrengo kapitulua), Nafarroan, Garraaldako Basajaunak kondena batean du jatorria: Urbereko jauna omen zen, basoetan ibiltzera zigortua bere emaztearen maitalea erahil ondoan (Goizueta 1856: 75-93; Satrustegi 1980: 133).

Bata jauna eta bestea anderea, biok goiko harpeetan eta eremuetan agertzen dira. Baina Basajaunak ez du Andereak bezala zerua zeharkatzen, nahiz kondaira batean airean eraman zuen Saindia eta haizearen harramantzarekin nahasten duten. Anbotokoa ez bezala, artzain etxoletara sartzen da Basajauna, laminen antzera janari bila, eta beste izaki mitikoen ezaugarri asko ditu: jentilen moduan bahitzaile da, Tartaroaren edo Orozkoko jentilen antzera begibakarra du Altzürükün; deabru eta jentilekin batera teknika emailea da. Eta batzuetan engainatzen dute. Goianderea sekula ez!

Bortuko oihanetan babestu omen da, petar ibarretatik ihesi. Istorioek, baina, ez ohi dute herrietan kokatu – laminena izaten da beheko eremua - eta garaztarrek Salvatore aldeko malkarretan irudikatzen dute, Galharbeko edo Ilhunatzeko potxetan (Cerquand 2017: 53 zb; Azkuek 1966: 385). Mendibeko Lakok ere entzuna du inguru pendoitz horietako “Labeko Ziloan” egoten zela, eta haren beldur zirela artzain batzuk; ez bera, ordea, hamar urtetan lasai egin baitzuen lehenbiziko gaua bortuan bakar-bakarrik. Oroit da Ilhunhatzen zer jostetak erabiltzen zituzten artzain gazteek: bat, alegia norabait joana zela, gorderik gelditzen zen gauaz etxolaren inguruan ibiltzeko eta barnekoei sinestarazteko Basajauna hurbil zela. Haurren beldurgarria izan da, baita jostailua ere Basajaun deitzen zutenean Halloween tankerako kuia. Arima herratuen zerbait baitu pertsonaiak, etxoletara sartzen denean jatera eta hautsean zangoak berotzera. Gaueko maskaradetan etxez etxe ibiltzen ziren mutilek Basajauna gogoratzen zutela esaten zen Zuberoan, eta jakina da inauteriko eskale mozorrotuek hilak irudikatu izan dituztela.

XIII. GAURKO LITERATURAN

Modernitatera ere heldu da Basajauna. “OK Korral” taldeak “Baserriko neskatilak” kantatzen zuen 1986an: “Baso barrura sartzen dira / Basajaun bat bilatzera / Iluntzean entzuten dira / Atsegin intziriak”. Hara, gure bahitzailea alderantzikatua, nesken gizon-objektu bilakatua.

Garazi aldean, non bestela, Basajauna ekarri du Antton Lukuk 1998an bere ipuin batera (“Bertzetan”, *Botoiletan* liburuan). Narratzaileak Lekunberriko ostatuan entzun dio ehiztari bati nola galdu zen haren aitaren ttantta bat hamalau urte zituela: bordan ardiak marraz ari baitziren gau batez, zer ote zen joan zen nexka eta sekula ez itzuli. Otsoari edo hartzari pentsatu zuten eta txakurrak erretoan eman, baina dardara batek harturik biribilkatu ziren animaliak, eta gizonek elurrean sekulan ikusi gabeko herexak atxeman zituzten: zango borobil batena, pertz batek egina bezala, eta bestea jende oinarena, alimalekoa eta bilotsua. Hori ipuinaren hastapena.

Testutik kanpo, zehaztasun batzuk eman zizkigun Lukuk: Zanponi artzain garaztarak - Biarnoko bortuan hartza ikusia zuela Iparralde osoan jakin da - kontatu zion artzanorak izitzen direla piztiaren aztarnak sumatzen dituztenean. Basajaunaren eta hartzaren arteko tradizioko lotura.

“Bertzetan” ipuinean, balio literarioaz gain, mitoaren bilakaera eta interpretazio desberdinak kausitzen ditugu:

- 1) Tradizioko bildumetan azaltzen den mito sinetsia. Basajaunak neskak bahitzen ditu, etxe ezagunetako alabak (Ithurburukoa, Etxeparekoa...); hortaz, gertakaria aski hurbil sentitzen da.
- 2) Tradizio horri jarraikiz Lekunberriko ehiztariak ostatuan kontatu duenak (Basajauna ardizalea da, neska bat eraman du) mitoa pertsona ezagun batengan berraragitzen du iragan hurbilean, aitatxiren gaztaroan (ikus “Arraberritze” kapitulua).
- 3) Gertakariaren interpretazio arrazionala dator gero. Eszeptiko batek dio neska hura, zazpi mutikoren arreba, eskas aire batekin jina zela; ama zendu ondoan utzikieriaz hilko zen edo berdin kalitua, eta ehorzketarik gabe botako zuten leize batera. Basajaun istorioa pentsatuko zuten eta, nehor ez baitzen gezurtatzera menturatu, hori zen herrian hedatu. Mitoak krimen bat estali du eta mitoa iraunarazten du bere erabilera interesatuak.
- 4) Ipuineko hirugarren pertsonaia, Lekunberrin ibiltzen den baiones durduzatua, erreka bertz batean arrantzan ari zelarik aienatu zen. Narratzaileak bilo odoleztatuak eta zango borobilaren herexak atxeman ditu hantxeko harpe bateko sartzean eta ulertu du nork galdu duen baionesa. Narratzaileri orainaldian berritu zaio mitoa.

Kontatu izan balu erreka zuloan ikusia zuena, Basajaunaren kondaira biziberrituko zuen. Ez du egin, ez zion-eta inork sinetsiko, ahozko transmisio katea etena da. Baina bestelako bideak badira, eta literatura modernora ere ekar daitezke mito zaharrak, tradizioa traditu gabe.

NATURAZ GAINEKO EZKONTIDEA

Sailkapena egiteko arazoa sortzen da mitologian maiz, tipo bereko motibo edo kondairek protagonista desberdinak dituztenean. Nor da urrezko orraziaz orrazten, Anbotoko Anderea, Basanderea, laminak? Zeinek du anomalia bat oinetan, Basajaunaz eta deabruaz gain? Eta zeinek ezartzen dio gizon bati baldintza bat harekin ezkontzeko? Galderek ez dute erantzun bakarra; erredundantzien, eraldaketen eta motibo gurutzatuen erresuman, rolak ez dira eskluianteak, ez eta eiteak pertsonaia baten monopolioa.

Hala da beste munduko ezkontidearen gaia; testuinguru desberdinetan aurkitzen da eta batetik bestera pasatzen. Euskal Herrian laminak eta Anbotoko Anderea aipatuko dira gehien bat, izaki hauek amankomun dituzten ezaugarrien artean delarik gizon batekin ezkondu nahi eta ezina, edo ezkontzaren huts egina.

Anbotoko Anderearen jatorria kontatzen duten istorio anitzetarik bi tipo dira bereziki azaltzen gaur egun. Bata Barandiaranen bertsio askotan dugu (1973a: 400-407), eta hartan gaztetxo bat izan zen Andrea. Hona laburbildurik:

Anbotoko Dama neskatila ederra izan omen zen, eta beti egoten zen orrazten ari. Horretaz haserreturik, egun batez amak esan zion: “Tximistak eramango al hau!”, edo “Deabruak eraman baheza!” Eta berehala airean joan zen Anbotora, eta airean ibiltzen da geroztik batetik bestera, inon gelditu ezinean.

Bigarren tipoan, emazte ezkondua zen Anderea:

Anbotoko Señoreak eleizara joan gura ez, eta eroan eudien (zuten) hestuta, idiakaz, eleiza ondoraino. Baia hark, eleizako atetara heldu orduan, su eta gar eskapatu. Nork eroan euan (zuen), ba, ez dakit gizona eukin baeuan ala baten batzuek eroan eudien. Eta eleizara joan ez egitearren, ba, sutan eskapatu euala. Eta hor dabilela bueltaka esaten eudien. Zazpi urte Gorbeian egon eta gero beste zazpi Anboton egiten euezala (zituela).

Horrela esanda 1987an Orozkon, motza da kondaira. Zorionez, hogeita hamar urte lehenago ale osoago bat bildu zuen Barandiaranek:

Beasaingo Murugueneko (edo Burugueneko) semeak omen zion, infernuko deabrua bazen ere, neska ederra behar zuela. Behin, Muruan artzai zebilela, neska eder bat ikusi zuen, eserita ileak orrazten. Berarekin hizketa hasi eta elkarrekin ezkontzeko lana hartu. Ezkondu omen ziren eta baita zazpi ume izan ere. Andre hori ez omen zen elizara joaten. Gizonak behin gurdian hartu omen zuen sokaz lotuta. Baina eliza-aurrera iritsi zirenean, andre hori su-ta-gar jarri eta sokak erreta airatu omen zen eta Muru aldera joan. (*Seme bat apez egin zen, beste bat, aldiz, ekaitzegile: bigarren honek uzta xehatu nahi duenean, lehenak konjuratuko du*) (Ordizian kontatua 1956an, Barandiaran 1973a: 438).

I. ERDI AROKO KONDAIRAK

Istorio honen egitura guti aldatu da zortzi mendean, oso antzekoak dira oraingo bertsioak eta Erdi Arotik heldu zaizkigunak. Ingalaterrako, Proventzako eta Hego Italiako tradizioen biltzailea izan zen Tilbury-ko Gervase ingelesak hauxe utzi zigun, bere *Otia Imperialia* bilduman (1209-1214).

Dauphiné eskualdean, Esperver-ko andrea berandu heltzen zen mezara eta ezin zuen Gure Jauna altxatzen ikusi. Behin senarrak eta sehiak atxiki zuten elizaren barnean; baina, sagarako hitzak entzutean, hegaldatu zen, kaperako horma bat hautsi eta handik joan zen. Ez zen gehiago ageri. Kaperak horren alboan dorre hondatu bat bazen Tilbury-ren garaian, gertakariaren lekukoa (Le Goff-en 1977ko lanetik).

Beste kondairetan suge-lamia¹ bat da emaztea, halakoa da Rousset gazteluko andrea, Gervase berak idatzi zuenez, “herriko jendeek kontatzen zuten” bezala.

¹ 'Lamia' eta 'lamina' hitzak etimologia berekoak dira. Hemen, 'lamina' erabiliko da euskal mitologiako izakientzat; 'lamia', berriz, Erdi Aroko testuetan eta Aarne & Thompson katalogoan agertzen baita, zentzu zabalagoan hartuko da, 'fata', 'hada' edo 'fée' adierazteko.

Aix-en-Provence-tik ez urrun, Arc ibai bazterrean, aurkitu zuen Rousset-eko Raymond-ek andere eder bat, biziki ongi jantzia. Gizonari bere izenez hots egin eta harekin ezkonduko zela hitz eman zion, agintzen bazuen inoiz ez zela biluzik ikusten saiatuko. Zoriontsu eta aberats bizi ziren, baita haur askoren guraso izan ere. Baina egun batez Raymondek bainu gelako oihala kendu zuen: emaztea berehala suge bilakatu zen eta urean aienatu, betirako. Bakarrik inudeek entzuten zuten, ikusezin etortzen zenean bere haurrak ikustera. Haren ondorengo andre bat, oso ederra hura ere, bizi omen zen oraino Proventzan Tilbury-ren garaian (Le Goff-en 1977ko lanetik).

Beauvais-eko Vincent-ek 1250 inguruan argitaratu zuen kondaira berdintsua, segur aski Saintonge-ekoa (Akitania). Eta Ingalaterrako gortean bizi zen Walter Map-ek “Henno Hortz Handiaren emaztearen istorioa” jaso zuen *De Nugis curialium* liburuan (1181-1193); ez ditu bere iturriak salatzen, baina ezagutzen zituen Elizako aitak, latindar klasikoak eta ahozko tradizioa.

Eguerdi batez Normandiako oihan batean neska eder bat aurkitu du Hennok, erregina gisa jantzia. Negarrez dago, Frantziako erregerekin ezkontzera zeraman itsas ontziaren hondatzetik salbu den bakarra delako. Henno harekin maitemindu eta ezkondu ziren, baita haur anitz ukan ere. Baina Hennoren ama ohartuko da errainak mezaren hasiera eta bukaera utz egiten dituela, eta ur bedeinkatuari eta Jaun-hartzeari ihes egiten diela. Haren gelako murruan zulo bat egin eta handik ikusten du herensuge itxuran bainatzen; eta gero, txabusina berri bat hortzez txiki-txiki egin ondoan, berriz jende itxura hartzen du. Hennok, hori jakin zuenean, apez baten laguntzaz ur bedeinkatua bota zion emazteari. Hark jauzi egin zuen, sabaia zeharkatu eta airean joan zen oihu handi bat eginez. Senar-emazte horien enda ugari bizi zen Map-ek kondaira idatzi zuenean (Le Goff 1977ko lanetik).

Istorio mota hau gutxienez Normandiatik Proventzaraino hedatua da, Saintonge eta Poitou-tik pasatuz. Bizkaian ere aldaera batzuk badira, bertako jaurgoari lotuak. Garcia de Salazarrek idatzi zuen bat, 1454ko *Crónica de siete casas de Bizcaya y Castilla* liburuan eta, Hennoren emaztearen antzera, itsasotik dator printzesa...

Eskoziako erregeren alaba legezko bat Mundakara heldu zen lagun askogaz eta, ekaitza baitzen, han pausatu nahi izan zuten. Gernikatik behera harrotua zetorren ur arrea, eta esan zuten “aca munda ca”: gramatikariak ziren eta “aca munda” esaten zioten ur garbiari. Joan ziren ibaian gora eta orain Mundaka den lekuan jarri ziren, eta horregatik deitu zuten Mundaka. Neska hori ernalduek zen eta ez zuen esan nahi nork ernalduek zen, eta bere aitak deserriratu zuen eta lagunak han utzi zuten eta Eskoziara itzuli ziren, salbu haregaz gelditu zirenak.

Eta beste modu batez istorioak dio neskaren aitak, Eskoziakoak, hiltzerakoan erregetza eman ziola semeari, eta haren arreba ez zuela han egon nahi eta itsas ontziz Mundakara heldu zela esan den moduan; eta lagun batzuk itzuli zirela eta beste gehienak printzesagaz gelditu eta bertan finkatu zirela. Eta, han zeudelarik, neska horregaz lo egin zuela ametsetan deabru batek, Bizkaian Suge deitzen duten Etxejaunak, eta neska ernalduek zuela, eta bi gauza hauetarik zein den egiagoa ez dakigu. Dena dela, printzesa haurdun zen eta seme batez erditu zen; gizon ederra izan zen eta lerdena, eta Zuria eman zioten izena (laburtua eta euskaratua, Garcia de Salazar 1914: 6).

Dima Baltzolako sugoia litzateke Zuriaren aita, Barandiaranen ustez (1984a: 131). Eta suge-harra (Sugar) Anbotoko Anderearen senarra - edo Andere ekaitzegile horren sugetasunaren irudikapena, hierogamiaren bidez adierazia, ekaitza sortzen baita senarrak emaztea bisitatzen duenean (ibid.: 125, 189).

Mundakako mito honen garrantziaz ohartzeko da, Bizkaiko jaurerriaren sorrera eta legea azaltzen dituelako gaineratzen duenean, merindadeek Jaun Zuria konde izendatu ondoan, bizkaitarrek leonesak garaitu zituztela Padurako (Arrigorriaga) gudaldi mitikoan eta etsaiei jarraiki joan zirela Luiaondoko “Arbol Gafo”raino (oraingo “Arbol Malato”), eta bertan erabaki zutela muga hartatik ordainduta baizik ez zutela gerra egingo, 1452ko “Foru Zaharrak” bermatu zuena.

II. EHIZA MIRESGARRIA

Lamiazaleak ziren Bizkaiko etxeokak. Salazarren kronika baino mende bat lehenago Diego Lopez jaunaren emaztearen kondaira kontatu zion Juan Nuñez de Larak (Maria Lopez de Haroren senarrak) Barcelos-ko kondeari, eta hark *Livro dos Linhagens*-ean (1344) idatzi, portugesez

Diego Lopez jauna ehiztaria zen oso, eta egun batez, basurdearen zain zegoela, emakume bat entzun zuen haitz baten gainean jarririk goi ahotsaz abesten. Hurbildu zitzaion eta oso ederra zela ikusi zuen, eta dotore jantzia. Harekin maitemindu zen itsutuki eta galdegina zion nor zen, eta hark erantzun oso andre gora zela. Diego Lopezek esan zion, lur hartako jauna baitzen, harekin ezkonduko zela, berak nahi bazuen. Andereak, bai egingo zuela, agintzen bazion ez zela inoiz zeinatu. Eta hori onarturik, harekin joan zen.

Andre hura guztiz ederra zen eta ondo egina bere soinean, salbu oin bat oker bazuela, ahuntzarena bezalakoa. Elkarrekin bizi izan ziren luzaz eta bi haur izan zituzten, seme bat, Iñigo Ezkerra deitua, eta alaba bat.

Diego jaunak eta emazteak elkarrekin apairu egiten zutenean, semea aitaren ondoan jartzen zen eta alaba amaren ondoan. Egun batez, mendira joan zen, basurde handi bat hil zuen eta etxera ekarri. Emaztearekin eta haurrekin ihizia jaten ari zelarik, hezur bat bota zuten mahaitik eta, hura harrapatzeko, borrokan sartu ziren bi zakur, erbi-txakur bat eta artzanor handi bat, eta erbi-txakurrak lepotik eutsi zion artzanorari eta bertan akabatu. Mirakulua zelakoan, harriturik Diego jauna zeinatu zen esanez:

- Andre Deuna Maria balia dakidala! Egundaino ez du inork ikusi holakorik!

Emazteak senarra zeinatzen zela ikusirik, bere alabari eskua ezarri zion; eta Diego Lopezek semeari eutsi eta ez zuen utzi hura ere eraman zezan. Orduan andrea jauregiko leiho batetik atera zen alabarekin, eta mendi aldera joan zen. Eta ez zuten gehiago ikusi ama, ez alaba.

Ahuntz oina Sabako erreginak omen zuen, eta deabru folklorikoak ere, noski; eliza-fobia gaur ezagutzen dugun Anbotoko Andereren ezaugarria da. Ez dakigu kondaira hau Bizkaira ekarri berria zenez idatzi zenean ala bertako substratu zaharragoan errotua zen; dena dela, ondoan ikusiko dugun Presinarena baino lehenago argitaratua da.

Naturaz gaineko arbasoaren bidez beren leinua gorestea bilatzen zuten nobleek, eta badirudi asaba mitikoari zinez atxikiak zirela Bizkaiko etxeokak: Busturian zeudenean, hari uzten

zizkioten hiltzen zituzten behien erraiak haitz baten gainean, ezpabere zoritxarrak jo zezakeen etxea. Augustok eta haren ondokoek Venusi sakrifikatzen zioten, beren aurretikotzat baitzeukaten. Hamabi mende geroago Wace idazleak, *Brut* eleberrian, Antzinatearen prestigioa ekarri zion Britainiari, erresuma horren sortzaile titulua esleituz Brutus erromatarrari eta, aldi berean, Arthur-en legenda zabalduz.

Bretainiako “materia”ren gauza miresgarriak ekartzen ditu gogora Diego Lopezen ehizak. Basurdea Lug jainkoaren animalia da zeltar eremuan - hemen Atharratze Maidalenako erromatar harriko “Herauscorritsehe” dugu. Hamahirugarren mendeko *Guingamor* kondairan (“lai”) eta *Partenopeus de Blois* eleberrian, basurdeak erakartzen du ehiztaria lamiarengana; *Partenopeus*-en, gainera, zakur batek lehoia akabatzen du. Diego Lopezen istorioan erbi-txakurrak artzanora akabatu zuen, eta bi aldiz aipatzen da basurdea, andrea agertu aurretik eta betiko ezkutatu aurretik. Azkuek (1966: 131) Ainhoan jaso zuen ipuin batean, herensugea zatikatu zuen artzain zakur batek.

Marie de France-ren *Guigemar* “lai”an, ehiztariak pertsegitzen duen orein ('biche') zuria da lamia - ehiza eta amodiozko konkista parekatzen dituen iruditeria sexista... Hots, frantsesezko 'biche' latinezko 'bestia'tik dator, italierazko 'biscia' eta espainierazko 'bicha' bezala, eta bi izen hauen esanahia ‘suge’ da. Hamabosgarren mendeko *Ponzella Gaia* italiar kantuko protagonista 'serpa' bat da, Fata Morganaren alababixia eta amak suge bilakarazia (Ruggieri 1969: 1103), Melusina bezala.

III. MELUSINA

Hamalagarren mendearen bukaeran frantsesez argitaratu dira suge-anderearen legendaren bertsio ospetsuenak, Melusinaren eleberriak: bat Jean d'Arras-ek idatzi zuen hitz lauz (1394) eta bestea Couldrette-k bertusuz (1405). Oso antzekoak dira biak, iturri beretik ateraiak, hurrean, eta Lusignan etxeari asaba mitikoa ematen diote. Kondaira luzexka horiek protagonistaren gurasoekin hasten dira:

Elinas Albaniako (Eskozia) erregeak, itsas aldeko basoan ehizean zebilela, kantuz ari zen andre eder bat aurkitu zuen iturri baten ondoan. Instantean maitemindu zen eta

ezkontzeko eskatu zion. Hark, Presinak, baietza eman zion honako baldintzapean: ez zuela ikusiko erditzeko unean. Ezkondu eta hiru alaba izan zituzten. Baina senarrak agindua hautsi zuen eta ondorioz ama-alabek Avalon-era ihes egin zuten (Morganaren uhartera). Hamabost urte geroago jakin zuten alabek aitaren saldukeria eta, punizione gisa, mendi baten azpian itxi zuten. Presina biziki haserretu zen, senarra maite zuelako, eta alaba bakoitzari zigor bana ezarri zion. Melusinari jakinarazi zion bere aita-haziaren bertuteari esker libratu behar zela amaren izaeratik; baina ez dela hala gertatuko, engoitik zilborretik behera suge izango zen larunbat guztiz, eta ez zen patu horretaz gabetuko non ez zuen aurkitzen larunbatean hari ez begiratzeko hitz ematen zion senarra, orduan bere kondena saihetsiko baitzuen eta hilkor bilakatuko; aldiz, gizonak hitza hausten bazuen, atzera itzuliko zen lamia izatera.

Forez-eko kontearen seme Raimondin, ehizan bere osaba nahi gabe hil eta, iturri sorgin baten ondoan iragan zen, han zeuden hiru andre ederrak ikusi ere gabe. Haietarik batek, Melusinak, hots egin zion, bai eta agindu jaun ahaltsu bilakaraziko zuela berarekin ezkontzen bazen eta hitz ematen bazion inoiz ez zela larunbatean ikusten saiatuko. Mutilak hitz eman bai, eta ezkondu ziren. Senar-emazteen fortuna gora eta gora zihoan, Melusinak lur berriak landatzen eta gazteluak eraikitzen baitzituen etengabe. Hamar seme ukan zituzten, baina denak akastunak. Denboraren buruan anaiak Raimondini salatu zion esamesak ibiltzen zirela Melusinari buruz, ez ote zebilen maitale batekin larunbatero erretiratzen zenean, non ez zuen penitentzia egiten lamia zelako. Raimondin, haserreturik, badoa emazteari sorostera gazteluko zolara; ate bat itxia aurkitu eta ezpataz zulatu zuen, eta ikusi marmolezko dupa batean Melusina zegoela orrazten ari, eta sugea zela zilborretik behera. Senarrak ez zuen deusik esan. Bitartean, bikotearen semeak ez baitira eredugarriak, haietarik batek, monastegi bat erre zuen fraileak barruan zeudela. Eta Raimondinek emazteari bota: “A, suge zitala! Hi eta hire egintzak mamuak baizik ez zarete, eta hire sabeleko haurretarik bat ere ez dun zerurako!” Orduan Melusinak leihotik alde egin zuen suge hegaldun itxuran, auhen-oihuak eginez. Geroztik inudeek bakarrik ikusi zuten, isilean bere haur tikienak artatzeko itzultzen zenean (Dontenville 1998: 219 eta Le Goff 1977: 312 lanetatik hartua).

Melusinaren patuak Presinarena errepikatzen du: zigor baten pean zegoen amak zigortu zuen alaba, amaren egoera berean ezartzeko, bere zorte gaiztoaren preso. Amaierarik gabe

errepika zitekeen istorioa non hasi den ez dakigu, baina katea Melusinarekin eten egin zen, ez baitzuen alabarik izan, bakarrik semeak. Diego Lopezen emazteak bai, alaba zuen, eta berekin eraman zuen mendira. Berdin egingo dute beherago aipatuko diren beste ama zenbaitek.

IV. FAMILIEN JOKOA

Anbotoko Anderearen jatorriaren bertsio desberdinak nola giltzatzen ahal diren argitzen du Melusinareen kondairak. Hemen ez ditugu bi zigorrak istorio berean bilduak, bitan banatuak baizik: batean amak alaba madarikatzen du, bestean senarrak emaztea elizara bortxaz eramaten. Baina zantzu nahiko bada pentsatzeko bi gertakariak pertsonaia beraren bizitzako bi une direla, eta amak madarikatu zuen neska bera izango zela gero, ezkondu ondoan, senarrak elizara eraman zuena. Bederik, menditik heldu zen Murugueneko Andrea, suge edo ahuntz markarik ez izan arren, jadanik “deabruarena” zen, lehengotik madarikatua edo; elizara eramateak kondenara berriz itzularazi zuen.

Emazte ezkonduak elizarekin duen elkarrezina alabak du Amezketako kondaira batean: neska ez da mezara joaten, eta horregatik hain zuzen madarikatu zuen amak. (Barandiaran 1962b: 115).

Beste ezaugarriak ere trukutzen dituzte alaba madarikatuak eta ama madarikatzaileak, batzuetan alaba delarik gaiztoa, besteetan ama; Oñatin bi aukerak ditugu: batean neska zen oso txarra; bestean amak arrazoi gaberik bota zion alabatxoari “Deabruak eramango al hau”, eta deabruak hartua, Aloñako Gaiztozulon dago geroztik, Anbotoko Anderea baita (Barandiaran 1972: 283; 1973a: 407). Alde berekoak ziren, beraz, ama madarikatzailea (emailea) eta deabru eramailea. Halaber elkarlanean aritzen dira deabrua eta Anbotoko Mari Urrika Sarriko (Bizkaia) kondaira batean: amak ez zuen alaba madarikatu, baina bai deabruari eman, erreka bat etxearen ondoan iraganaraztearen truke; ondorioz Mari Urrika bere zulotik atera baitzen eta neska eraman (Barandiaran 1973a: 398).

Azkenean, bahitua eta bahitzailea, orraztu zaleak biak, asimilatu egin dira: Anbotoko Anderearen zulora eramana den neska Anbotoko Anderea bera da, Barandiaranek “Mariren gatibua” deitu duen egituran:

Además de la innumerable servidumbre de genios que Mari tiene a su servicio, aparece a veces en su antro una joven cautiva. (...) La cautiva se llama también Mari (Barandiaran 1972: 426).

Horietatik guztietatik ondoriozta daiteke Melusinaren eta Anbotoko Anderearen kondairetako hiru emazte protagonistek (hiruak gutxi-aski deabruzkoak) bat egiten dutela nonbait. Azkuek Zeanurin jaso zuen bertsio honetan, bilduak dira ama, alaba eta Anderea.

(Anbotoko Anderea) zazpi urte Anboton eta beste zazpi Oizko kobau baten egoten ei da. Lazkaon jaio ei zan. Nebarrebak zirean. Gaztetxoa zela kobau bateko andragana eroaten eban (zuen) bere amak. Aitak “hoa elizara” esan arren, amak elizarako egunetan beti kobaura eroaten eban. Bere nebea abade egin zan. Eta ez zala elizara joaten jakin ebanean, burdi baten sartu ta lotu eta eroan eban neba abadeak. Sakristeian estolara zan artean, bere arreba gaiztoa su eta gar burdian bertan airean joan zan. Ordura ezkeror hor dabil Mari Urraka (Azkue 1959: 367; 1966: 437).

Kondaira honetako Anderearen kobako bisitak neskaren lehen madarikazioaren baliokide dirateke (Melusinaren zigorra), eta bigarrena nebak eragingo du, arreba elizara eramanez. Kondairako bi gizonak (elizkoiak eta emazteen aurkakoak) amaren senarra eta semea dira, alegia, neska gaztearen aita eta neba. Melusinaren istoriokoak, aita eta senarra.

Sexuak eta belaunaldiak gurutzatuz, bi aurkaritza hartuko ditugu kontuan: bat, sexu desberdinekoen eta belaunaldi berekoen artekoa (emaztea vs senarra, arreba vs neba); bestea, sexu berekoen eta belaunaldi desberdinekoen artekoa (ama vs alaba). Nabarmenduko dugu haurrideen arteko aurkaritzak (Zeanuriko arreba vs neba eta Lopez de Haroren emaztearen alaba vs semea) Murugueneko andrearen bi seme “de signo contrario” iragartzen dituela, bata ekaitzegile dela eta bestea apez konjurtzaile (Arana 2000: 22, 39); eta, maiz, sexu femeninoa eta maskulinoa ekaitzaren eta konjuruaren korrelatiboak direla.

Ahaideen arteko aurkakotasun suminduek jende bat dibinitate bilakarazten dute, baina Anderea izango denak jadanik haren izaera zerbait bazuen. Anderea Anderetik sortzen da, bere burua ekoizten du nolabait. Nahiz eta horretarako honaindiko munduan iragan behar duen, madarikazio edo saldukeriak atzera haraindika bidal dezan, bi aldeen arteko joan-jin etengabeetan.

V. JOKO BORTITZAK

Ikusi diren liskarrak etxeko indarkeriaren testuinguruan ekarriak dira, amaren, senarraren edo nebaren eskutik. Psikoanalisian sartu gabe, sexuen arteko harremanak nolakoak diren ikusten saiatuko gara. Gizonek, familia buru izan zein ez izan, larderikeriaz erabiltzen dituzte emakumeak. Emazteari une zehatz batean ez begiratzeko debekua haustea hitza jatea da, baina bortizkeria da gurdi batean hestutua eramatea. Bortizkeria horren segida tristea gogorarazten dute ama-alaben kondena errekkurrenteek. Haurrek gurasoen jarrerak errepikatzeko joera baldin badute eta ezkontidearen tratatu txarrak pairatu dituen emaztearen alabak gaizki tratatua izateko arrisku handia badu, Melusinen kasua paradigmaticoa da: Presinak senarrari barkatu, alabak zigortu eta Melusina bere senarrak laidoztatua izateko kinkan jarri zuen. Kondaira horietako ama-alabek zerikusi guti dute Demeter-Persefonekin. Bereziki ankerra da Orozkoko ama madarikatzaile hau:

(Alaba) egoten ei zan beti orraztuten eta amak bota ei eutsan (zion) maldiziñoa:

- Hik joan beharko dona kueba batera eta hantxe heure bizimodua eroan, Anbotoko kueba baten sartuta!

Eta zazpi urte han eta ama joan zan bisitetan eta zer jaten preguntatu. Eta, ba, topetan euana (zuen), muskerrak bere, parrillaren ganean erre eta jan; ogia bere baten batzuk eroaten eutsiela (ziotela) eta halangoxe gauza batzuk...

- Hemen beti ez zagoz ondo, ei eragoion (ari zen) ama horrek. Eta berriro bota maldiziñoa, beste kuebaren batera; hil egitea gura euan, hil daiten.

Eta joan ei zan Gorbeira eta han bere gero pastoreak laguntan ei eutsien. Gaztaia bere eroaten eutsien, putxea (gaztanbera) bere bai, eta gatzura egarri daukanean.

Eta han beste zazpi urte. Baina zazpi urte egiten zituazenean urte txarrak etorten ei ziran. Gero ama horrek bisitatu euan barriro, urte txarrak dirala eta barriro beste maldiziño bategaz bota ei euan Anbotora.

Eta gero, holan dabilela esaten euden (zuten), urte askoan holan zala. Orain ez dakit bizi bada! (laburtua, Etxebarria 1995: 249).

Edurne Zuriren amaizunaren arketipoa sumatzen da ama horretan, beharbada bekaizti da lamien atributu diren ispiluz eta orraziz apaintzen den alaba galantaz. Badirudi, ordea, Anderearen sorreran garrantzitsuena ez dela nor den borrero eta nor biktima, baizik eta bortxa bera. Eta Abadianoko istorio batean neska ez da biktima hiltzailea baizik:

Muntxaraz-en erregea egoala, seme-alaba bi ei eukezan hango erregeak. Semearentzat ei zan erreinu guztia eta ez ei egoan diru asko arrearentzat. Egun batean arrebeak nebea eroan ei eban beragaz Anbora eta han bota ei eban (horregaitik dau izena Anboto). Gero Andastora joan ei zan eta han estu aurkitu ei zan (horregaitik Andasto) (Gorostiza 1978).

Barandiaranek dakarren bertsio luzeago batean (1984a: 147) Nafarroako printzesa batekin ezkondu zen Muntxaraz. Haien haurretatik lehena Ibon zen, eta azkena Mariurrika. Ibon etxeko oinordekoa baitzen, arrebak gorroto zuen eta egun baten Anbora eraman zuen, han ardoa edanarazi eta, loak hartua zegoela, mendian behera amildu zuen neskame baten laguntzaz; gero, bera erori zela esan zion aitari. Gau hartan deabruzko ximelgorriak ageri ziren Muntxarazen, eta Mariurrika ezkutatu zen; Anboton eta Sarrimendin bizi da, eta airean ikusten dute Oiz mendira joaten denean. Azkuek diosku (1959: 368) XII. mendean Muntxarazgo jaun batekin ezkondu zela Urraka printzesa nafarra eta, senarra hil zenean, ihesi joan zela gau baten, inork ere ez zekiela nora, eta herriari buruan sartu zitzaion Anbotoko hartzulora joan zela. Iturriak ematen du ezkontza horren berri, eta Labayruk uste du ez dela egiazkoa. Beti ere, kondaira tipo honetan neba eta senarra trukagarriak direla egiaztatzen dute Muntxarazgo kondairak.

Osterantzean, haurrideen arteko etsaigoa eta Mariurrikaren mendekua oinordetzaren inguruko gatazkan oinarrituak dira, primantzagatik menturaz. Mundakara heldu zen Eskoziako printzesak ere holako desadostasunagatik ihes egin zuen bere nebarengandik. Zuzenbidearen kodea (sexuen arabeko eskubideak) aukeratu dute bi kondairak horiek aurkaritza adierazteko, maizago aurkitzen den erligioaren kodearen orde (elizarekiko areriotasuna). Eta erligioari begira hain zuzen, dibinitate bati egiten zaizkion opariak dakartzate gogora Orozkoko neskatila madarikatuari artzainek eramaten zizkieten janari eskaintzek.

VI. LAMIAK ETA SOBERANIA

Erdi Aroko istorioek suge-andereek sortutako askazien iraupena azpimarratu ohi dute, haien ospea handitu eta xede politikoak justifikatu. Eskoziako printzesak ekarritako errege odolak eta naturaz gaineko sugearen autoktoniak sortu zuten Bizkaiko jaun zilegia, inbasoreen aurkako garaipena lortuko zuena. Kondaira horretako sugea maskulino eta bertakoa da, besteetan feminino eta arrotza. Gehienetan emazteek dute senarren jite noblea azkartzen; senarrek, nola gerta...

Jura eta Alpe inguruko folkloean, diamantezko koroa buruan daramala irudikatzen da suge hegalduna eta, uretan bainatu edo edan aitzin pitxia belarrean pausatzen duenean, gizon batek ebasten dio (Sébillot 1968 II: 206). Baina lamiek ez dute beti laidoa saritzat, ez bederen zeltar tradizioan soberania edo koroa ematen dutenek. Irlandako Medb erregina gerrari eta gizakoia zen. Haren Britainiako bertsioak, Ginebrak, Lancelot zaldun bihoztun, eta bihozbera, hautatu zuen maitaletzat, Arthuro bere senar erregeak baino hobeki defendatuko ziolako erresuma; gure laminek bezala, iturri batean ahantzirik utzia zuen Ginebrak orrazia; Lancelotek atxeman bai eta, hartan kiribilduak ziren ile horien kontenplazioan, gutik egin zuen ez baitzen kordegabetu, hura zen bezalako amorante fin bati doakion maneran (Chrétien de Troyes 1975: 44-46).

Jaun Zuriaren ama eskoziarra zen, Presinaren antzera, eta ausaz ez da txiripa, Euskal Herriak lotura mitikorik izan duelako mundu zeltikoarekin: Cymru-ko Giraldus (Cambrensis) idazleak *Topographia Hiberniae* liburuan (1188) aipatu zuen legenda baten arabera, euskaldunek Irlanda konkistatu zuten behiala, eta hori izan omen zen estakurua Henri II Plantagenet uharteaz berriz jabetzeko, Akitaniako eta Waskoniako konde baitzen.

VII. LAMIAK ETA OPAROTASUNA

Gure garairaino heldu den ahozko tradizioan, Anbotoko Anderearen ondorengo bakarrak bi semeak dira, bera bezain mitikoak: batek, Mikelatsek, ekaitza egiten du eta besteak, apezak, ekaitzetik begiratzen. Anderearen funtzio nagusia meteorologikoa da; noizbait eguraldi ona ekar lezakeela entzun du Barandiaranek, baina txarra eragiten du batez ere (ikus Arana 2000: 20) eta,

haren kalteak ekiditeko, eskaintzak egiten zizkieten (Barandiaran 1984a: 134-135). Onerako edo txarrerako, ekoizpenari eta oparotasunari lotua da: olagizon bati aholkatu zion burdinola nola konpondu; eta “mekaguen la Señora de Anboto” esan zuen gizonari errota geldiarazi zion, harik eta bakeske joan zitzaion arte (Etxebarria 1995: 186 eta 219).

Melusina, aristokraten arbaso eta eraikitzaile gisa da ospetsua Aro Modernoan, eta haren izena daramate Poitou eskualdeko monumentu ederrek; baina haren laborari lana gero eta gehiago azpimarratzen eta goستن zen, lurberriak lantzen zituelako, indibabaren kultiboa ere sartu zuelako (Le Roy Ladurie 1971: 608 eta 613). Bilakaera horren zergatiaz galdera egiten du Le Roy Ladurie-k. Nekazariak beren kezkei lehentasuna emanda, Amerikatik ekarritako jaki garrantzitsuari natura gaineko jatorria itsatsiko zioten, bertako tradizio mitikoa erabiliz. Gaurko Anbotoko Dama ere Bizkaiko anderea izatetik uztak baldintzatzen iragan da.

Laborantxari eta emankortasunari uztartuak diren lamien kondairak asko dira gure auzo herrietan. Gaskoiniako bat bildu zuen Bladé-k (1976: 7-11), “Bi bizkiak eta bi lamiak”.

Anaia bizki batzuek basoan topatu zituzten bi neska eder, eta hitz eman zioten elkarri biharamun goizean ezkonduko zirela, ordu arte mutilak deus edan eta jan gabe egoten baziren, bestela zorigaitz handia gertatuko zela. Etxean gaua pasatu eta, argia gabe abiatu ziren anaiak andregaiengana. Garitza baten ondoan pasatzean, kaletak galburu bat eskuan hartu eta ale bat hortzetan kraskatu zuen, ea ondua zenez. Baselizara heldu zenean emaztegaiak esan zion:

- Zure promesa ahantzirik zerbait jan duzu eta zorigaitz handi baten kausa zara, zurekin ezkondurik besteak bezalako emazte bilaka bainintekeen.

Eta aienatu zen. Beste anaia bere emaztegaiarekin ezkondu zen, sekula ez ziola “lamia” edo “eroa” deituko aginduta, bestela zorigaitz handia gertatuko zelako:

- *Se tengues a jo, hè cas de m'aperar mas jamès ni hada ni hòla. Autrement arriberé un gran malur.*

Aberats eta pozik bizi ziren zazpi urtean beren zazpi haurrekin. Egun batez senarra feriara joan zen. Uztail erdia zen, eguraldi ederra, uzta onduxa. Etxekanderea zerura begira egon ondoan, mutil eta bordariei agindu zien arin-arin garia motz zezaten eta azaoak lot, ekaitza eta babazuza hurbiltzen ari baitziren:

- *Anem, vaillets, ça digoc era. Anem, bordilèrs. Viste, viste, segatz lo blat. Sarratz las garbas. Viste, viste. La granissa et l'auratge s'avança.*

- Ez ba, andrea. Eguraldi ederra dugu eta uzta zortzi egun barru baizik ez da ondua izango.

- Egizue nik agindu bezala!

Lanean ari zirenean heldu da ugazaba. Haserreturik, emazteari bota zion, ondu gabeko garia mozteko, eroa izan behar zela:

- *Hemna, lo blat segat n'es pas anquèra madur. Cau que sias hòla.*

Instantean alde egin zuen emazteak; eta arratsalde hartan berean babazuzak eta ekaitzak inguru osoa xehatu zuten: *Astanlèu, la hemna partiscot. Le medish ser, la granissa et la periglèra arrinen tot lo país.*

Lamia etxekoen isilean itzultzen zen bere zazpi haurrak orraztatzeke urrezko orraziaz. Senarrak gau batez sorotsi zion eta bai deitu ere. Lamia tximista bezala joan zen (*la hada partiscot come un lambret*), eta ez zuten gehiago ikusi.

Beste bertsio batean, gari alea jan izanak du ezkontza ahalbidetzen (baruraren balio aldakorra berriz ere, aurreko kapituluan jadanik azaldua):

Azun ibarrean (Pirinioetan) lamia bat kondenatua zen aintzira bateko zolan egotera, harekin ezkontzera gizon bat barur baina zerbait janik etorri arte. Handik iragan zen mutil gazte batek gari ale bat hartu eta, ondua zenez ikusteko, hortzetan kraskatu zuen. Lamiarekin ezkondu zen eta haur anitz ukan ere, baina egun batez, ohartu gabe, “lamia” edo “ur-anderea” deitu zion emazteari. Orduan andrea bere antzinako zorte gaiztoaren pean paratu zen berriz, inoiz ez delako izpiritu bat bere izenez deitu behar (Sébillot 1968 II: 412).

VIII. LAMINAREN AMORANTEA

Zorigaitzeko ondorioa dakar lamien antzara-zangoei begiratzeko debekua haustek:

Behiala Anjou eskualdean, Mas gazteluko jauna herrialde urrunetan luzaz ibili ondoan, ezkondata itzuli zen etxera. Emaztea biziki ederra zen eta beti gona luze-luzeak janzten zituen, senarrak ere ez baitzitzakeen haren oinak ikus; alabaina, zin egina baitzen ez zela inoiz haien ikusten saiatuko. Zoriontsu bizi ziren urte askoan, baina egun batez senarrak, agindua

ahantzita, errautsa bota zuen ohera igotzeko mailetan - oholtza baten gainean baitzegoen. Andreak errautsean oina pausatu eta oihu handi bat egin zuen itxindu batek erre zionean; eta senarrak ere oihu, antzara zango baten herexa ikusi zuenean errautsean. Mas-eko anderea lamia ahaltzua zen eta, erresumindurik, madarikazioa bota zuen:

- *Du Mas: / tu m'épiais / tu périras, / toi et ton Mas, / puisque tu as / vu ma patte d'oie* (Mas-ekoa: sorotzi nauk eta hilko haiz, eta hirekin hire Mas, antzara-zangoa ikusi baitidak).

Lurrak irentsi zuen gaztelua bere funts eta biztanle guztiekin, eta urak estali zituen denak. Orain laku bat da, hondorik gabea, omen (Sébillot 1968 II: 402).

Euskal kondaira tipo batean, gizonak du lamina zapuzten: andregai ederraren ahate-oinei begiratuta ezkontzari uko egin zion eta ondorioz hil zen. Istorio horren bertsio argitaratuak bizkaieraz dira; Otxandianon bildu du Azkuek (ikus beherago), eta Barandiaranek (1960: 64; 1961: 54-56) Zeanurin, Kortezubin, Orozkon eta Arrasaten. Hona Orozkoko Sofi Etxebarriaren 1985eko bertsioa.

Lehen asko ibiltzen zireala Uribarrin eta Urigoitin eta, laminak asko lehen ibiltzen zirean. Ba, ei egoan (zegoen) Urigoitin bat, enamoratu zan holango neskatoategaz. Neskato galanta izan ei zan. Eta esaten ei eutsien (zioten) mutilari, hori gero jentila edo lamina edo holangoa zala.

Eta mutilak:

- Bai zera esatea bere.

Eta holango batean, ba, ezkontuteko zerean eta, abadeak esan eutsela:

- Hau ez da zera, e? Kristiñau ez da hori gero, e?

Eta mutilak baietz. Eta abadeak:

- Aditu egiozu zuk hanketan eta, hatzazalak zuk letxe eukin barik, eukingo dau erpea.

Eta ha ikusi euanean (zuenean), mutila gaixotu eta hil egin zan, disgustuz.

Eta hil orduan, ba, atxina egoten zan gauean hilbegirea, hildakoaren etxean, auzoak. Eta errezetan egozala (zeudela), etorri zala neskatoa - atea zabaldu barik sartu ei zan, ez dakit nondik; sartu eta barruan ikusi eudiela (zutela). Intxaur kaskaratik atara euala sobrekama elegante bat eta tapatu euala ohea, dana - lehen ohean egoten zan gorpua. Eta andraren batzuk esan eudiela:

- Ez jona (din) eroango, ba, sobrekama, ez jona eroango.

Eta orratzakaz ohera josi sobrekamea - gustatu egin jakoen (zitzaien) eta! Baia, gorpua atautarako denboran, etorri zan neska eta, orratzakaz josita egon zein ez egon, dana batu ei euan eta atzera, intxaur kaskaran sartu (laburtua, Arana 1996: 244).

Zeberioko beste bertsio bateko andregaia elegantea zen, mutila ere bai, eta lagunek esaten zioten “hori badok laminea”, eta ondo begiratzeko hanketara, gona luzeak jantzita ez baitzituen ageri. Eta ahate zangoak zituela ikusirik...

...mutila hasi zan pentsetan ezkontuteko laster eta gero holan bere burua lamiñeagaz, pertsona txar bategaz dabilela eta, ba, disgustutik hil egin zan. (...) Eta eroan eudien entierruan, baia ez atautan, eskileran (andetan). Eta kapea bota gura eutsen (zion) hak (laminak gorpuari). Lehenago, elxpetik kanposantura joaten ziran, baia (aldi hartan) abadearen partez sartu ziran arin barrura: elxpean (gorpua) itxi (utzi) barik mahaiaren ganean, (jendeak) sartu zituen arin barrura. Eta lamin hori paratu zan irrintzi batean. Bota egin gura eutsen elxpean kapea, arimea eroateko, baia besteak ez eutsien astirik itxi. Zer, entierruan joan zan ostean segun, itxurea (Etxebarria 1995: 181).

Otxandianokoan, Arangioko atxetan ibiltzen zen artzain bati laminek urteten zioten eta “danak dantzan aidean erabilten eben”. Batek etxeraino laguntzen zuen eta, elkarregaz ezkontzeko tratua egin zutenean, eraztun bat ipini zion. Amak semea eroan zuen abadearengana, eta hark agindu zion neskaren hankei erreparatzeko eta, ahatearenak baziren, eraztuna atzera emateko. Ahate zangoak ikusi bai, baina eraztuna ezin atera; azkenean, hatzamarra ebaki eta, eraztuna eta guzti, laminari aurtiki zion. Lamina atzetik jarraitu zitzaion mutilari, hau ohera joan zen eta ez zen gehiago jagi (Azkue 1966: 53, 426).

Azken bi istorio hauetako laminei izaki mitiko tzarren egintzak leporatzen zaizkie. Kendu ezinezko eraztun eta atzamar moztuaren motiboa Tartaroaren kondairetan azaltzen da (Kaltzakorta 1997: 88-89); hilaren arima eramateko ahalegina deabruak egin ohi dute, eta apezak galarazten.

Lamiez mesfidatzen ziren jendeak. Aarne-Thompson-en katalogoko T 411: “The King and the Lamia” tipoa, lamiak gizona engainatzen du berarekin ezkontzeko, baina laster alde egingo du senarrak, emaztea sugea dela ohartzen denean. Melusina germaniar bat, ezin ederragoa, erdi-suge bilakatu zen maitalearen besoetan eta, gizonak ihes egin nahi izan zuenean, azken besarkada

batean pozoitu eta hil egin zuen (Le Roy Ladurie 1971: 615). Lamia liluratzailer eta hiltzaileen zerrendan, Britainiako Ys hiri mitikoko Dahut dugu, bere maitaleak hiltzen zituen printzesa (Sébillot 1968 II: 49). Bizkaian, Arakaldoko sorgin batek mutilak bere lurpeko gaztelura erakartzen zituen eta, haiekaz gura zuena egin ondoan, bere txakurrei edo lehoiei jaten ematen zizkien (Arana 1996: 252).

IX. OINEKO ANOMALIA

Lamien sugetasunak eta animali-zangoak balio antzekoa dute. Hennoren emaztea suge bilakatzen da; Melusina sugea da ziletik behera larunbatetan. Beheraxeago azalduko den Eros jainkoa herensugea dela derasate Psike-ren ahizpek, eta hala da “Senarraren Xerka” ipuineko jauna ere. Okzitanian ezagunak dira “Pedauca” (Antzara zango) izeneko lamiak; Frantziako “la Reine Pédauque” Sabako erreginarekin nahasten da, edota Karlo-Handiaren emaztea den Bertha-Oin-Handiarekin; eta “Contes de ma Mère l'Oye” deitzen zitzairen ipuin miresgarriari, Perrault-ek idatzi zituenei besteak beste.

Anitz dira zangoan oker zer bait dutenak: Edipok, Tetis-ek eta haren seme Akiles-ek zauria dute; Medeak, Didok eta Mari Errauskinek oinetakoa erantzi edo galdu dute; *Perceval* eleberrian, Graal-eko gazteluko erregea herrena da. Bizkaiko Andereak ahuntz zangoa du; Basajaunak, zaldiarena; deabru herrenak ospetsuak dira eta lamina txikien antzekoak (ikus “Deabrua”). Apez konjurtzaile batzuek zapata sakadiz daramate hodeiari botatzeko, eta hodeiak eramaten du (Arana 2000: 23-26 eta 88); Atsularrek aztal edo takoin bat falta du, deabruak kendurik; eta deabruak Atsularri nola, laminek jende bati eragin diezaiokete oinetakoan makurra, hala gertatu baitzitzaion Barantoli:

(Zuberoan) Barantol santagraztarra Iruinera joan züzün (zen); han batü zien (zuen) jaun batek hirur ogi eman diozü (dio) eta erraiten diozü joan dadin Jorako bortetara (Ibarreskuin eta Ibarrezker artean den Jora mendian) eta ogi bana eman diezaion barnean dauden hiru andereri, baina ogi haietarik batere ez hasteko. Etxera sartü eta emazteak ogi batetarik poxiñi bat hartü zizün (zuen).

Biharamenean Jorako bortetara joan eta jo zizün borta. Andere bat agertü eta, hari emaiten diozü ogietarik bat. Eta andereak erraiten:

- Jinkoa dela laidatü. Eta mendian gora bistatik galdü züzün.

Berriz jotzen dizü borta eta bigarren andereari beste ogi bat emaiten diozü, eta hura ere eskapatzen düzü. Hirugarren aldian jotzen dizü eta hirugarren andereari emaiten diozü ogi hasia. Andereak berehala:

- A Barantol, Barantol! Ükenen dük beti eskalapoa desgantzol! (lotu gabe)

Eta hain sarri borta zerratü ziozün eta barnera sartü. Kanbera hura ürrez beterik züzün eta Barantolek libratü balü hirugarren anderea, dirü hurak oro haren izanen zütüzün (laburtua, Cerquand 2017: 87).

Beste bertsio batean, Jorako laminak gaztigatua zion Barantoli: “Ni naiz printzesa inkantatia; hemen egon behar dut ehun urte; ez zazula erran nehor, zeren bestela, sekulakoz hemen egon beharko dut.” Gizonak emazteari salatu zion eta geroztik sekula “ez zuen eskalapoin brida aski untsa itzatzen ahal eskalapoari loturik egonarazteko”.

Ginzburg-en ustez (1992: 218-233), pertsonaia mitikoen oinetako akatsak oro zentzu berdinean doaz eta arketipo transkultural bakar baten inguruan bil daitezke - arketipoa, ez inkontziente kolektiboak eratua, baizik eta esperientzia biologikotik ezinbestean datorren metafora gisa; mainguak koloka ibiltzen dira bi munduen artean, beste mundutik datoz edo hara doaz. Gorputzeko asimetria ez da baitezpada ahulgarria eta bai esanguratsua: Odin jainko betokerrak ikusmen bikaina du; makilarekin monokuloa janzten dutenak ez ohi dira erren edo begi-lauso, baina badute debruen irudikapenetik zerbait.

X. EROS ETA PSIKE

Ixilean so egitea arriskutsua izan daiteke eta zitalki zigortu izan da Greziako mitologian: Akteonek ikusi zuenean Artemisa biluzik bainatzen, orein bilakarazi zuen goiandereak, bere ehiza-txakur propioek eho zezaten. Aitzitik, Apuleioren *Metamorphosi*-etako Psike eta Eros-en mitoak amaiera ona du. Hona laburtua:

Erregeren alaba zen Psike guztiz ederra. Hartaz bekaizti zen Venus-ek bere seme Eros-i agindu zion herensuge batekin maiteminaraz zezan. Baina Eros bera zen neskatilaz maitemindu, bai eta bere jauregi miresgarrira eraman eta bere maitale egin. Jainkoak, ordea, gauazko ilunpean bakarrik bisitatzen zuen laguna eta debekatu zion inoiz ikusten saiatzea. Jauregiko aberastasunez jelosturi, ahizpek Psike-ri salatu zioten haren senarra sugea zela, jan egingo zuela, eta hori gertatu gabe hobe zuela labana batez hil zezan lo zegoenean. Psike-k sinetsi zuen eta begiratu zion maitaleari kriseiluaren argiaz; hain ederra ikustean durduzatu zen eta sorta bat olio irakin isurarazi zion sorbaldara. Eros iratzarri zen eta airean aienatu zen, haserre. Bila abiatu zitzaion Psike eta hainbat peripezia iragan zituen: ahizpez mendekatu zen, Venus-en larderia jasan... Eros ere zorigaitzeko baitzen, laguntza eskatu zion Jupiterri eta, azkenean, Psike-k jainkoen ardoa edanda hilezko bilakaturik, elkarrekin ezkondu ziren.

Kondaira mota hau oso zabalduta da Europako folklorea eta Melusinaren zikloari lotua da Aarne & Thompson-en katalogoan. Ildo berekoak dira 425 tipoa ("The Search for the Lost Husband") eta Thompson-en hainbat motibo (C 32: "Taboo. Offending Supernatural Husband", C 32.1: "Looking at Supernatural Husband"). Horietakoa da Arhantsusiko "Senarraren xerka" ipuina:

Herensugeak gizon bati erran zion jango zuela haren hiru alabetarik bat ez bazen berekin ezkontzen. Gazteena, aita salbatzeko, herensugearen jauregira joan da, baita han uros bizi ere senarrarekin, eguna kanpoan iragan eta, jaun ederra bilakatzen baitzen gauaz. Denboraren buruan etxekoan ikusteko desira etorri zitzaion andereari. Senarrak erraiten dio:

- Utziko zaitut joatera, baina ez zazula erran nehorik ikusi nauzula jendearen forman.

Hitz ematen du eta badoa. Ahizpen galderei ihardesten die uros bizi dela, baina haiek erraiten:

- Zer nahi izanik, herensugearen emaztea haiz, ez ginduken nahi hire lekuan izan!

- Ez naiz, ez, herensugearen emaztea, baina bai ontsa jaun ederrarena!

Jauregira itzuli denean senarrak diotso:

- Orizu, gaur finitzen nituen ene penak, bainan zu zarela kausa, oraino bertze zazpi urtez kurritu behar dut. Xerkatuko nauzu eta ez nauzu kausituko: zapetak burdinaz bazintu ere higa zintzazke lehen.

Urre ardatz bat, urre kilo bat eta urre kotxera bat ematen dizkio eta partitzen da. Haren bila ibili eta ibili zen anderea. Azkenean eguzkiaren etxera heldu eta jakin du, zazpi urteak pasaturik, herensugea ezkontzera doala biharamunean. Haren etxera jo du, bere burua ezagutarazten du ardatza, kiloa eta koxera erakutsiz, eta jaunak, bigarren emaztea utzirik, lehena hartzen du (laburtua, Cerquand 2017: 37 zb).

Amaiera zoriontsua du “Ithurralaba” kondairak ere, naturaz gaineko ezkontide lamia izan arren (Duvoisin 1978: 53).

XI. HILEZKORTASUNA, LAMIEN ETSIPENA

Tematiak dira lamiak. Bizkaian, Dima Baltzolakoak andereñoak bailiran jausten ziren erromerietara, beti oinak ongi estalirik inork ezagut ez zitzan (Barandiaran 1961: 56). Senar baten bila ote, ezkondu nahi eta ezinean ibiltzen omen direlako, Paracelsok XVI. mendean azaldu zuenez:

Melusinak errege alabak dira, beren bekatuengatik desesperatuak. Satanek bahitu eta mamu, izpiritu gaizto, arima herratu izugarri edo munstro itsusi bilakarazi zituen. Arimarik gabe eta gorputz fantastikoetan bizi direla uste izaten da; haien hazkurri elementuak baitira, elementuekin batera deuseztatuko dira Azken Judizioan, non ez diren gizon batekin ezkontzen. Orduan, ezkon-lokarriaren bertutez, bizi naturala lortzen ahal dute. Pentsatzen da mamu hauetarik zenbait badirela desertu eta oihanetan, hondamen eta hilarrietan, bobeda hutsetan eta itsas bazterretan (Paracelso, Le Roy Laduriek zitatua, 1971: 617; ikus ere Le Goff 1977: 324-326).

Gaskoiniako ipotxez esaten da, kristau arrazakoak ez direnez, ez direla hilko munduaren azkenera arte, baina gero ere ez zirela berpiztuko betiereko bizira (Bladé 2008: 335). Heriotza

naturalak zeruko zoriona erdiestea baitakar, oroz gainetik hara iritsi nahi omen dute kristandadeko lamiek. Eta hori da haien patua, ezin direla jende hilkor bilakatu, ustez lortua dutenean gizonak huts egiten diela, batzuetan bere biziaz ordainduz, haren heriotza lamiaren hilezinaren prezioa bailitzan.

Zenbait kondairatako laminek, ezinezko ezkontza gabe, laguntza eskatzen diete gizonei, urre eta aberastasunen truke atera ditzaten beren zori gaiztotik, hau da, beren leize edo iturri zolatik. Xede horretan artzain batek Orhiko leizeko anderea bizkarrean hartu eta kanpora abiatu zen, harik eta zernahi suge eta munstro bidera jalgi zitzaizkion arte, orduan utzi baitzuen lamina bertan erortzen; eta gaixoak oihu egin zion: “Madarikatü dela ene zorthea, orano mila urtheren heben nüzü” (Cerquand 2017: 85, 86 zb). Kinka berdinean Behorlegimendiko Basandereak: “Madarikatua ni, mila urtez egon behar baitut zilo honetan!” (Barbier 1931: 26).

Lamiei beti gaizki itzulikatzen zaie eginbidea, halabeharra dela (ogi-bihia jan), edo bortxa (elizara eraman) edo jeloskeria eta hitz hautsia (begiratu). Bitxia da haien patua, hain ahaltsuak eta hain zorigaitzekoak, leinu noble baten arbaso direnean ere beren zorteari kateatuak egoten dira, naturaz gaineko hilezkortasuna ezin jasanez.

Satanek hartuak eta beren bekatuengatik etsituak, dio Paracelsok. Zer bekatu, ordea? Eder eta aberats izatea? Edertasuna zama izan daiteke, Orozkon zaharrek mutilei gaztigatzen zieten: “Ez fidatu neska polit bat ikusita, zer izan liteke laminea” (Arana 1996: 193). Hortaz emazteenganako beldurra eta jelosen aiherkundera patitzen dituzte. Baita ama bekaiztiaren mendekua ere; jakina da sistema patriarkalean emakume zaharrak izan daitezkeela gazteen menpekotasunaren bermea. Eta jendeak ez dira fida laminek dakarten ondasunaz, haiekin batera joaten delako maiz, edo haien urrea ikatz bilakatzen.

XII. ANDERE ALA DEABRU?

Anbotoko Andereak daraman zoritxarra okertu ere egin daiteke. Aholku eske joan zitzaion Orozko Olarteko olagizonari sagardoa eskaini zion, eta hark edan aurretik ‘Jesus’ esan eta edalontzia atzera eman zionean, Andereak ez zion hartu: “Hau baso hau eroan egizu, ze honegaz lehen badaukat penitentziagatik, handiagoak daukadaz, ze hau baso hau zuk egin dozu bendezidu ‘Jesus’ esan dozunean” (Etxebarria 1995: 219). Baso hura ez zen ikatz bihurtu.

Pentsa daiteke noizbait lamien halabeharra izan zena hoben eta kondena bihurtu zela, mitoa kristau logikan kokatuta: desobedientzia dago Anbotoko Anderearen jatorrian eta desobedientziagatik Sugarrek neska bat bere leizera bahitu zuen (Barandiaran 1973a: 380).

Melusinak historian jasan duen deabrutzeaz ohartarazi du Le Roy Ladurie-k (1971: 614). Andere guztiz errespetagarria da Jean d'Arrasen eleberrian (1394), apezpiku batek benedikatzen dio ezkon-ohea eta ez du tipo bereko lamien eliza-fobiarik - Hennoren emaztea ur benedikatuak uxatzen du, Esperver-ko andereak ez du mezako sagara jasaten. Deabrutze aldera doan bilakaera ez da lineala izan, Erdi Aroan desberdinak ziratekeelako erligioari buruzko jokaerak. Marie de France-ren "Yonec" kondairan (1973: 107), aztore-zaldunak, deabruzkoa ez dela erakusteko, komunioa hartu eta "Credo"aren egiak esaten ditu maite duen andere ezkonduaren aurrean, harekin oheratu aitzin; paganismo zerbait admititzen zuen giroaren erakusgarri, hain segur.

Aristokrata zen Marie, eta garai hartan handikiek ere ez zizkieten asaben sineste zaharrei muzin egiten. Lamiak sailduak bezain estimatzen zituztela eta ez zeudela beti Elizaren erranetara dio Le Goff-ek (1971: 328). Herritar anitzek ez zuten antzinako mitologia baztertzen eta arazorik gabe uztartuko zuten kristianismoarekin. Historiagileek uste izanagatik Europako kristianizazioa jadanik bururatua zela, folkloristen iritziz Erdi Aroan mamitu ziren gureganaino heldu diren kondaira mitiko herrikoiak, eta zantzuak badira orduko erligio praktikatuena sinkretikoa zela, erligio zaharraren eta berriaren osagaiak batzen zituena, talde bakoitza kristau ortodoxiatik guti edo gehiago urrundurik.

Elizak bere opilari su. Eta herriak orobat, doktrina berria onartuko zuen abantaila ekartzen zion ber eta antzinakoa atxikiko balio zitzaion ber. Kristianismoak izaki mitikoen alderdi ezkorra puztu eta azpimarratu duen arren, kostatu zaio ezabatzea, eta XX. mendean oraino, "Anbotokoa ez da sorgina, Señorea baino" larderiatu zuen ama batek alaba, andere ordeztu 'sorgin' hitza erabili zuelako; hala entzun zuen Ander Manterolak eta loriaturik kontatzen du Mikel Duvertrek.

Ikusi ditugun hainbat kondairaren egiturak ez dira biziki aldatu Eros eta Psike mitotik hona. Psike dibinitate bihurtu eta lamiak deabrutu edo ez, kontua da jainkoen eta deabruen arteko mugak ez direla baitezpada garbiak, haien funtzioak trukagarriak izan daitezkeela, are gehiago erligio ordezkapenaren testuinguruan, dibinitate garaituak demonio bilakarazten direnean, eta alderantziz. Anbotoko Damaz ere, "deabru ala goiandere?" galdegin barik, egokiagoa litzateke adieraztea "Anbotoko Dama, deabru edo goiandere".

XIII. ANDEREA ETA LAMINAK

Naturaz gaineko ezkontideen hainbat ezaugarri kondaira askotan aurkitzen da, eta euskal herriko andereek elkarren eraldaketa dirudite. Basajaunak bahitu eta mutil batek erreskatatu duen neska; Basandere-antza den neska bahitua; bere zortetik eta leizetik ateratzeko gizonari laguntza eskatzen dion anderea; artzain bat maitemindu duen lamina; Bizkaiko Anderea...

Halere nahiko desberdinak dira Anbotoko Anderea eta laminak. Tradizioan goianderea ezaguna den lekuetan - ez baita hala izan Euskal Herri osoan - airean ibiltzen itxuratzen da batik bat, eta ez ohi da jendeengana hurbiltzen, urrun egoten da zeruko dibinitatei doakien legez (Eliade 1975: 52); goiko urari lotua da, euriari eta ekaitzari, eta hortaz lurraren emankortasuna baldintzatzen du. Zazpi lurraldeetako laminak, berriz, beheko uretan kokatzen dira, iturri eta erreketan. Eta, funtsezko desberdintasuna: laminak pluralean edo zenbatzaile batez aipatzen dira, Anderea, singularrean; sekula ez da “Anbotoko Andere bat” esaten, ez baitu parerik. Nahiz beste lurraldeetako lamia handiak binaka edo hirunaka agertzen ahal diren (Melusina bere bi ahizpekin).

Izaki mitiko anitz bezala, Anbotoko Anderea hilei lotzen zaie noizbehinka: arima herratu gisa ibiltzen dela zioten Baranbion (Arana 1996: 294); gorpu-hezur itxuran ere agertzen da (Barandiaran 1960: 25); Zeberion, “kandela berdeakaz eta kateak ere tarraz” ibiltzen ei da, eta marka erreak uzten ditu eskuaren ordeztuz luzatzen zaion mokanesean (Etxebarria 1995: 168, 271), arima erratuak ohi duten legezt. Melusina Lusignango dorre gainean agertzen zen haren askaziko norbait hil behar zenean (Markale 1983: 60), arimek egin ohi duten iragarpena (Le Braz 1994: 104). Walter Map-ek *De Nugis Curialium* liburuan kontatzen du zaldun batek, emaztea ehortzi ondoan, dantza biribil baten erdian atxeman zuela gau batez; handik atera, etxera eraman eta elkarrekin haurrak eta bilobak izan zituztela: elfoek eramana zatekeen, jendeak bahitzen dituztenean haien lekuan gorpu faltsu bat ezartzen baitute; eta elfoak hilei hurbil dira (Lecouteux: 1999: 46 eta 1986: 109), lamiak bezala. Arima batzuk, andere madarikatu eta inkantatuen antzera, zorte batek lotuta leudekeela uste du Varagnac-ek (1948: 221); hartatik askatzen laguntzen baditu norbaitek, berak hartzen du arimaren lekua eta, kontakizun batzuetan, laster hiltzen da (Le Braz 1994: 299, 346). Zaila da abentura horietatik onik ateratzea.

Laminek ere badute hilekin ahaiko esangarria. Baina klase anitzetakoak dira, Melusinaren deabruzko harginak bezalako eraikitzaileak, eta enparauak, handiak eta tikiak.

Error! Bookmark not defined.LAMINAK ETA ENPARAUAK

Lamina deitzen diren pertsonaiak dirateke gure mitologian ugariak. Eta ez dira denak berdinak, eskualde batzuetakoek ez dute eite handia bestekoekin. Badira lamina harginak, gizon txikiak, gehien bat Zuberoan eta Baxenabarren. Badira emazte eder itxurakoak, eguzkitan orrazten egoten direnak, Zuberoatik Bizkairaino. Bien ezaugarriak eta gehiago biltzen dituztenak ere badira: emazte lamina eraikitzaileak edo harri ekarle handiak, jentilen eta gizandi harri-jaurtitzailen modukoak. Eremu bakoitzean ere laminak zein diren ez da argia. Bizkaian sorginekin nahasteko joera bada, baita familiariekin ere, nahiz eta hauek euli itxurakoak diren. Berriemaileei galdegiten zaielarik nola irudikatzen dituzten, gehienek ez dute zehazten; beharbada ez du axola handirik, edo mitoa higaturik heldu zaie. Orozkoar batek, “laminak eta enparauak” multzo lainotsua aipatzen duenean, badirudi jentilak ere dituela gogoan: “Jentilak eta laminak diferenteak ete dirazan... Horreek danak bardin antzekoak izango ziren”. Baina laster zehaztu: “Laminak zirean, (...) tximiniatik behera etorten zireanak”. Aurreko kapituluaz azaldu diren batzuk Basanderearen berdintsuak dira. Nazkagarriak eta ilun zaleak Isturitz Otsozelaikoak, Oxobik “Dorre Mendi” olerkian dioenez:

Iguzkiaren etsai, debruxka higuinak
Dena gaixtakeria, sorgin beltz, ohoinak
Bainan, obrak lekuko, hargintzan harginak.
Dorre Mendiko barnek ez dute parerik
Erroman ez Parisen ez da Jauretzerik
Holako edergailu zaharrez betherik
(Oxobi, “Dorre Mendi”, 1966: 26).

Hortaz, tipologian barnatzea izango da kapitulu honen eginkizun bat, nola uztartzen diren lamina desberdinak beren artean eta gaineratiko izaki mitikoekin; horretarako gure auzo mitologiei begiratuko diegu, eta Melusinari berriz ere, suge-lamia izateaz gain, eraikitzailea delako, deabruzko hargin tikiak dituela bere zerbitzuko. Ez dira hartara mugatzen laminen funtzioak, are gehiago dira, batzuk jadanik azalduak beste lan batean (Arana 2000: 63-69).

Lamina izena Antzinatetik heldu da; ordutik honakoan elementu batzuk galduz eta besteak bilduz, bidean gurutzatu dituen beste pertsonaiei izena emanez eta haiengandik ezaugarriak

hartuz, oraingo izaera anizkoira heldu da. Libiako errege baten alaba zen Lamia; Zeusek seduzitu zuen eta harekin izandako haurrak hilarazi zizkion Herak, jeloskeriaz – Luzaideko Basanderearen mainak. Lamia, etsiturik, harpe batean ezkutatu zen eta munstro bat bilakatu: hura baino zoriontsuago ziren emazteen haurrak ezin jasan eta jan egiten zituen. Haren oinazeak areagotzeko, loa ere galarazi zion Herak, eta Zeusek berriz, hain sufrikario handiak doi bat eztitzeko lo egin zezakeentzat, gauez begiak kentzeko dohaina eman zion; orduan, bereziki edanda bazegoen, ez zen zertan haren beldurrik izan.

Europako folklorera pasatu da Lamia eta haren izen berezia izen arrunta bilakatu da; Aarne & Thompson-ek “The King and the Lamia” 411 tipoaren erreferentziak idazle greko-latinoetan aurkitu dituzte, bai eta Biblian, San Agustinen eta San Jeronimoan; Erdi Aroan Tilbury-ko Gervase-ren lanetan da (Le Goff 1977: 317). Elhuyar-en hiztegiak horrela aurkezten du: “Alegiazko munstroa, emakumearen gorputza eta sugearen buztana zuena”. ‘Melusina’, izen arrunt gisa erabiltzen denean, lamiaren sinonimoa da. Haien ildo berean, Euskal Herriko lamina batzuek animalia marka dute zangoetan.

I. LAMINAK ETA BASANDEREA

Ekialdetik mendebalderaino hedatzen dira Euskal Herrian lamina andereak eta, usu, ahate edo oilo zangodun irudikatzen dituzte kondairek, eguzkitan orrazten mendiko haitzetan jarririk, edo ur bazterrean beren oihaleria ikuzten eta hedatzen. Harpeetan edo ur azpian izaten dute egoitza. Zuberoan, Gamereko iturri termalean egoten dira (Barandiaran 1974: 213); eta Liginagako Azkarreta mendian, “ekitatzera” jalgitzen ziren Intxastoiko leize batean (Barandiaran 1974: 213). Jakes Casaubon izurataz Urruñean entzuna dauka bertako zulo batean bizi zirela eta andere eder bat ere ateratzen zela hilargitara orraztera. Senperen, Utsaleko zubiaren azpian egoten ziren (Barbier 1931: 22). Lamin hitzaz osatu toponimoak zenbatezinak dira Euskal Herrian.

Cerquand-en bilduman ‘andere-eder’ ere deitzen lamina politei, mendebaldekoen antzekoei. “Garazin *Basandere* da laminen izena”, dio Azkuek (1959: 366) eta, nahiz lehena singularrean aipatua izaten den eta bigarrenak pluralean, trukagarriak dira hainbat istoriotan. Berriemaile batzuen ustean eta Gamueko bertsioan, Salbatoreko ganderailua ez zen Basajaunarena baina laminena (Cerquand 2017: 52 zb); Barbierrek laminen zulo batean kokatzen

du Basanderea (1931: 25 eta 26). Laminak, andere ederrak eta Basanderea gurutzatzen dira Cerquand-en bildumako zenbait kondairatan (2017: 81-89 zb), eta gehienak urrezko orraziaren kentzeaz eta gibelera emateaz mintzo dira.

Ederrak ez, baizik eta ezin itsusiagoak dira Tillac-ek marraztu zituenak Barbierren liburuko “Mondarraingo Laminak” eta “Laminak Behorlegimendin” kondairetan (1931: 19). Luzaiden zioten Salbatoreko urrezko ganderailua zeukan Basandereak herriko atso itsusienaren antza zuela (Barandiaran 1961: 88).

Orozkoar batzuek galantak direla diote, besteek aldiz itsusiak, handi-argalak eta azazkal luzeak, jentil aire batekin; baina dilematik nola atera kaustu dute: ederrak dira beren artean daudenean, eta itsusi bilakatzen dira jendeek begiratzen dietenean edo haien etxeetara sartzen direnean (Arana 1996: 207-214). “Lamina zauritua” istorio ezagunak kontatzen baitu gauaz lamina bat tximiniatik sartzen zela etxeko andre bati janaria eskatzen eta, senarrak burruntziz edo jaki irakinez zauritu zuenean, oihuka abiatu zela, eta lagunen galdetuta “Nork egin din?” erantzun ziela “Neure Buruk”, gizonak “Neure Buru” zuela izena esanez engainatu zuelako (Arana 2000: 65-67).

II. GAUEKO LAMINAK

Ur bazterreko lamina batzuk hilargi zuritan aritzen dira dantzan edo latsean. Baxenabarren Izurako Ithurbeltzen entzuten zituzten gauaz:

Gure amamak erraten zizin (zuen) entzun zitiela laminak. Gure baratzea baino urruntxeagoño latsagiak bazitzun (ziren), latsa-harriak, publikoak. Ithurbeltzen hori: surtza bat zen, baina ura ez duzu gehiago ona, badakizu, pentzetarik joaiten den ur eta arrunt kutsatia da, ba. Eta gero, ordian, gauaz intzuten zitzen (zituzten) eta, ba, latsan ari. Eta gero ordian hek laminak entzuten zitzen.

Ba! Badakizu zer zitakeen, gaixoa? Lehenago, ez beitzuten biziki eta soñekorik, pobrea baitzen jendea, ordian ez beitzuten erakutsi nahi, beren nortasuna bazizien... Horiek ez zituzten laminak, e? Zeren eta gero konprenitu beitate, ez zitzen erakutsi nahi ez zutela eta arroparik aldatzeko. Eta ordian erdi biluzik han aritzen ziren gauaz, garbitzen eta. Ba, gauaz joaten zituzten eta xahutzerat (garbitzera), gero ukaiteko ordainak (mudak) garbiturik. Voilà. Besterik ez

zutelakoan eta (Maddi Casaubon, 1998).

Urepelen eta lholdin ere entzuten zituzten gaueko laminak (Barandiaran 1973a: 426 eta 1984: 119). Ataunen diote Artzate aldean sorginek arropa ikuzten zutela gauaz (Barandiaran 1984b: 125).

Bedaioiko Maurizio uztar-behiarekin zihoala gaueko ordu bietan, ibaira iritsi zenean lixiba jotzeak egiten duen hotsa entzuten omen zuen.

- Hau da ordua egiten ari zaretena egiteko?

- Bai, Maurizio. Heldu egiok gogor arropa honeri bihurtzeko.

Eta gauza beltz bat jarri omen zion sorginak. Heldu omen zion Mauriziok eskuarekin gogor eta... ote-mordoa arantzekin.

- Hauxe den arropa latza!

- Bai, ja, ja - esanda, aldegin omen zion (Barandiaran 1984b: 113, oso laburtua).

Joko bertsua darabilte Britainiako latsariak: arropa xukatzen laguntza ematen dienari oihalekin batera besoak bihurrikatzen dizkiote, hautsi arte; edo oihala hazten da eta hilotz bat bilakatzen. Arima herratuak ere izan daitezke gaueko latsariak, ehortzeko jantzi zieten mihise lohituak ikuztera itzuliak (Sébillot 1968 II: 253 eta 426).

Ondarroako gizon batek, dibertitzera zihoala Markinara, gauaz, Iturriberri ondoan pasatzean lamina goikoa eta bekoa entzun zituen hizketan:

- Lamina muna bekoa! Egiozu horrerri gizon horrerri lakioa!

- Zelan egingo dotzat lakio? Bere emazte onak ipinita dauzka apio eta kopio! (Barandiaran 1961: 63).

Badirudi jendeek debekatua dutela gauaz kanpoan ibiltzea, beste mundukoen monopolioa-edo dela, haietako batzuek esaera ospetsu hau esaten baitiote kanpoan desorduan dabilenari: "Gaua gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzat". Ageri da "gauezko" ez dela izaki zehatz baten izen propioa, baizik eta askori doakien kalifikatiboa: lamina, sorgin, jentil, arima herratu...

III. GILLEN TIKIAK

Baxenabarren, Kaiet Lako mendibetarrak dio laminak “jende ttipi batzu zirela, deabriek hartu batzu” eta badutela zubia ere eginik gau bakar batez. Paracelsoren “Satanek hartuak” bezalakoak, eta hargin txikiak, Melusinaren langileen antzera. Haien lanek Aladinoren jauregi miresgarriak gogorarazten dituztela zioen Cerquand-ek (2017: 68 zb-nota).

Euskal Herriko tradizioan ugari dira deabruak, jentilek edo laminek egindako eraikinak, “Deabrua” kapituluan azalduko dira bereziki. Baxenabarren, Manex Pagolak ez du ahantzia Landibarre Agerreko oihan zolan den Lamin-zubia, pistolet eta kokina, hantxe erori baitzen haurretan, bizikleta lasterketa batean. Zuberoan, Urdiñarbeko Pethe Berrogain oroit da, sutondo xokoan entzunik, Ligiko zubia laminek eginik zela gau batez, eta harri bat ments duela beti. Kondaira Cerquand-ek (2017: 68-69 zb) eta Azkuek argitaratu dute.

Jakintsuek diote Erromatarrek eginik dela Ligiko zübia. Nik badakit, axamari entzünik, laminek egina dela zübi izigarri hori. Ez uste ükhen lamiña güziak gaxto direla, bada hetan ere orotarik. Diela aspaldi Lexarantzü mendiko laminek hitz hartu zien (zuten) Ligin, ühaitz handian, zübi baten egitea. Gai ülhün bat haitatü zien ez beitie nahi so egilerik. Ixil eta zalhe lanari lotu ziren, argia gabe urhentzeko. Hantik ez hürrün okin batek argia piztu zuen gauerditik laster eta oilar gazte bat, argidüra haren ikhustez, hasi zen kükürrüküz eta hegal zaflaka. Laminek, azken harria eskietan, brau! urtuki (jaurtiki) zien ühaitza behera eta marraka ozen batekin galdü ziren ülhünpian. Zübiaren hegatz zolan zilo bat da, azken harriak bete behar ziana (laburtua Azkue 1966: 233).

Lamina eraikitzaileak, komunzki, saldoka agertzen dira eta oro deitzen Gillen. Arrosako zubiaren istorioan (Azkue 1966: 377) deabruak dira Gillen horiek, eta harginaren arimaren truke lan egiten dute. Halatsuak dira Bizkaiko “Mikolas” deabru zubigileak.

Elizak ere egin omen dituzte laminek, hala nola Ezpeizekoa eta Lartabale Arrozekoa (Cerquand 2017: 67, 70) - Lartabaleko Arroz auzo horrek ez du zerikusia lamin-zubia duen Arroza herriarekin (Barandiaran 1962b: 9).

Beti bada erran zahar bat Arrozeko eliza laminek egin dela. Arrozeko habitanteek nahi zuten egin eliza plazan, eta horretarako bazituzten harat ekarriak behar ziren tresna guziak. Baina laminek eramaiten zituzten gau guziez taulak, harriak eta bertze herrementak denak mendi bixkar batera. Batek erraiten du:

- Ikusi behar diagu eia gaur zer egingen duten, behar ditiat goaitatu.

Eta erran bezala kanpo egoiten da gau hartan. Beti beha dago noiz jinen diren laminak eta habe somera batean jarriarik igurikatzen ditu. Ez baitziren sekula ageri, azkenean loak hartu zuen. Memento baten buruan jiten dira eta edireiten dute gizon hori lo. Erraiten dute:

- Ah, nahi gintuan gu hik tronpatu, baina guk hi egingen haigu (haugu).

Hartzen dute somerarekin eta, batere senditu gabe, eramaiten mendi gainera; eta ordukoz egin baitzituzten murrak, plantatu zuten heien gainean. Goizean, iratzarri zenean, estonatu da gure gizona han bere buruaren kausitzeaz, eta ahal den bezala jausten da.

Arrozeko jendeek ikusi zuten ez zutela bururik emaiten ahal, laminak beti nagusitzen zirela, eta utzi zituzten nahi zutenen egitera. Beraz laminak hasi eta finitu zuten beren eliza, erran dugun bezala, mendi baten gainean (Cerquand 2017: 70 zb).

Tipo bereko beste kondairetan, jentilek, aingeruek edo Ama Birginak dituzte lanak gora eramaten.

Zuberoan, laminei zor zaizkie Urdiñarbeko eliza eta Jentania jauregia. Jentania, “gai batez eginik zela, gaiaz zirela aritzen hor lanean”, eta murrak izigarriak ditu, dio Michel Barreixek 1997an. Kapera bat bazen ondoan, eta hara biltzen ziren jendeak San Gregoriko beilatik landa. Baxenabarren, laminena da Donamartiriko dorrea, Oxobiren olerkian gorago aipatua; Otsozelaiko harpeen gainean da, eta barnean badu urre eta zilarra ausarki (Cerquand, 2017: 72 zb). Barandiaranek ere eman zuen haren berri:

Guillaume Pin (...) iholditarrak esan zidan laminak bizi zirela behiala Gaztelumendiko dorrean, Donamartiri eta Isturitzen artean. Dorre zolan zen ate batetik joaten zen mendi barnean zabaltzen diren toki handietara. Han, hamalau gela miragarri zeuzkaten laminek. Jende kurios anitz sartzen ziren, ezko benedikatua eskuetan eta lurrean lastoa ihaurririk, gero atera buruz gidatzen ahal izateko (Barandiaran “Fragments d'ethnographie basque” Kaltzakortak zitatua, 1997: 43; euskaratua).

Lamina eraikitzaile guztiak ez dira Gillen, emazteak ere badira.

IV. ANDERE ERAIKITZAILEAK

Badira monumentu handiak andereek eginak, Euskal Herrian dolmenak batez ere. Mendiben (Baxenabarre), Gazteineko Mairuetxe gaineko harria lamina batek, “iruten ari zelarik, (...) Armiagatik ekarria (da), buruan edo erhi kintxarretik dilindan”. Dolmenetik ez urrun atxeman zuten ustez urrezkoa zen ganderailu bat, Cerquand-en berriemaileak ikusia (2017: 71 zb). Lako mendibetarrak 1985ean zehaztu zigun harria ferrata moduan karreatu zuela laminak, eta Pettan Erdozaintzi erretoreak irribarrez gaineratu zuen: “Ez zukezun entrebalekoa (kaskarra) holako emaztea”.

Nafarroan, Urdiaingo Iturri-Zaharrak duen harri handiena jentil emazte batek ekarri zuen, besoan haur bat zeramala eta, bidean itxaron zuenez galdegin ziotenean, erantzun zuen trukoa jakin izan balu bi harri ekarriko zituela (Satrustegi 1980: 44; ikus “Azkena” kap.). Araban, Aguraingo “Sorginetxe” dolmena eta Elvillar-ko “Sorginaren etxola” lamiak eginak dirateke (Barandiaran 1960: 80).

Gaskoiniako Landetan, Rion herritik Tartaseko bidean sei kilometrora, bazen *peyre guayante* deitzen zuten harri eskerga, harrobirik batere ez den inguru batean; hona nola heldu zen haraino:

Harri hura lamia batek - herrian *hade* deitzen da - ekarri zuen buru gainean, iruten ari zelarik. Harrian hautematen omen zen lamiaren buruak utzitako koska. Garai hartan, Jainkoaren lekuan jarri eta agindu nahi zuten lamiak hasiak ziren indarra galtzen. Lamia hark, beraz, gizon bat topatu zuen, nor eta Jainkoa bera. Galdegin zion:

Jainkoa.- *Oun portes aquère peyre?* (Nora daraman harri hori?)

Lamia.- *A Dax* (Akizera).

J.- *Dis dounc “se Diou plats”* (Errazan “Jainkoak nahi badu”).

L.- *Plats ou nou plats, peyre guayante qu’an ira à Dax* (Nahi edo ez, harria Akizera joanen da).

J.- *Paouse le aqui set plats* (Utz ezan hemen, mesedez).

Eta lamiak han bertan ezarri behar izan zuen harria, jadanik bere ardatzaz marratua.

Orain dela hogeit hamar urte (1854), harria puskatu zuen soroaren jabeak, ogi labea egiteko. Baina diotenez eraitsi beharko dute labe hori, hartan ogia ez delako egosten (Cuzacq 1874).

Anitz dira Frantzian lamiek egin dituzten dolmenak (Markale 1983: 42); haietarik batzuk “Lamien harriak” (*Roche aux Féés*) deitzen dira eta barnean altxorrak omen dituzte (Sébillot 1968 IV: 21 eta 44).

Hainbat garai eta lekutan bildu lekukotasun anitzek lamiei eratxikitzen diete menhirren eraikuntza. (...) Menhirren formak ardatzarena eta kiloarena iradokitzen baititu, naturaz gaineko iruleek ekarriak edo jarriak direla (esaten da). (...) Harria bera ardatza ez denean, lamiak edo Ama Birginak ekarri dutela diote, ardatzez iruten ari zirela (Sébillot 1968 IV: 5).

Megalito-egilea da Galemelle, Grantgosier-en (edota Gargantuaren) emazte handia:

Morbihan-go menhir bat omen da haren kiloa. Andere (Galemelle) horrek Gironde itsasadarraren gainean zubi bat eraikitzeke harriak zekartzalarik, mantaleko kordioak hautsi zitzaizkion eta karga hantxe erori: hala sortu zen estuario hegian den Beaumont-eko lur meta. (...) Jatorri berdina dute “Mirelon Harriek” (Saint-Lyphard, Loire-Atlantique), eta ibaian goraxeago den harri handi bat deabruaren emazteari erori zitzaion. Bourges aldean itzelezko emazte haundi bat mendian behera zetorrela, mantaleko lokarriak hautsi eta lurrean finkatua gelditu zen menhir bat (Dontenville 1998: 223).

Kondaira askotan, Melusinak ditu materialak karreatzen eta hainbeste muino sortarazten ere, mantaleko kordioak hautsi eta harriak lurrera jausten direnean (Markale 1983: 101); Jean d'Arras-en nobelakoa eraikitzaile da eta, lekuz aldatzen baita usu, gazteluak eta hiriak ereiten joaten da bideetan gaindi (Le Goff 1977: 326). Melusinak bere baitan biltzen ditu hargin tikien motiboa eta emazte harri ekarlearena, ahozko tradizioan berak baititu garraioa eta hargin lana egiten; Erdi Aroko nobelan, aldiz, langile parrasta ditu bere manupean, inork ez daki nondik etorriak (Dontenville 1998: 217). Okzitaniako “Pedauca” (Antzara-zangoa) erregina ere monumentu erromatar eta akueduktuen egiletzat zeukaten (Markale 1983: 155).

Lamina harri ekarleak urrezko orraziaren motiboari uztartuak aurkitzen dira Mendiben.

Amatxi zenak erraiten zizin (zuen) berriz, Olhaberriko pentzea, zubiaren eta arteko pentze hori... Beti laminak bazitzun (ziren) ordian, eta laminek izigarriko gauza pollitak bazitzien (zituzten): orraze eta ez diakizut (dakit) zer. Eta ordian gauaz argizagi zuritan ari omen zitzun jantzan. Eta... ez baitakit, enfin, galdu zizien (zuten) orrazea eta ez zizien gehiago harrapatu, urrezkoa edo preziotako. Eta gero Olhaberrikoek atxeman, doaikabe, eta ez nahi itzuli. Eta zer egin zuten laminek? Erraiten zizin hark, bakotxak harri batez, pentze guzia gau hartan bete omen ziezien, ai, ai (irriz). Eta doaikabe zerbait gisetarat, erraiten zizien eta orrazearen penaz ezarri zutela harriz beterik, hola. Eta gero turnatu zizien orrazea eta, lamina bakotxak harri bat kenduz, pentze guztia garbitu, gauaz (irriz). A, ba, amatxik kontatzen zizin. Voilà, ordian bazizien sinestea, ordian (Jeanne Irigoinek kontatua, 1985ean).

Cerquand-ek tipo horretako bi istorio bildu ditu (2017: 45-46) eta batean andere ederra zen orraziduna. Beti ere, ikus daiteke Iparraldeko Gillen gixontxo harginak eta andere laminak, itxura desberdina izan arren, ez direla elkarrezinak, denak izan daitezke harri garraiatzaileak eta eraikitzaileak. Bi sexuetako laminak elkarrekin azaltzen dira “Lamina haur minetan” kondairan, Zugarramurdiko eta Behorlegiko bertsioetan senarra heldu baita emaginari laguntza eskatzera. Eta tximiniatik oihuka joaten den lamina zaurituari lagunek toka egiten badiete batzuetan, gehienetan noka ari dira (ikus Barandiaran 1973a: 449; Cerquand 2017: 78-79, 92-94 zb).

V. JENTILAK ETA MAIRUAK

“Jentilak ondo eroaten ziren laminekaz”, esaten zuen Santos Orozkoarrak (Arana 1996: 214). Orobat Zuberoako mairuak eta laminak: Altzürükün zioten mairuak “basagizon eder, handi, azkar eta aberatsak” zirela, eta “aste oroz mairiak eta laminak biltzen zütüzün (ziren) libertitzera Mendikolandala” (Cerquand 2017: 57 zb). Liginagan erran zioten Barandiarani laminak emazteak zirela eta maideak gizonak (1962b: 9). Pentsa daiteke ‘maide’ ez ote den ‘mairü’ hitzaren aldaera fonetiko bat. Dena dela, ‘mairiak’ (edo ‘maidiak’) zein laminak eraikitzaileak izan daitezke: Maidekorralia deitu cromlech bat bada Altzain; Mairuetxeko harria lamina batek ekarri zuen; eta alderantziz, maideek eraiki zuten Lakarriko Lamindania eihera (Barandiaran 1974: 213).

Jentilek Jentilbaratz izeneko cromlech-ak egin dituzte. Edo berdin elizak (Satrustegi 1980: 141-47), hala nola Elkanokoa (Peña Santiago 1989: 136), Ataungoa, Oihartzungoa, Zumarragakoa eta Xemeingoa. Azken honetako harriak ekartzeko teknika xelebrea erabili zuten: abailaz botatzen zituzten Santa Eufemiako menditik herriraino (Barandiaran 1961: 79-80).

Harria jaurtitzeko jaidura ludikoa da batzuetan: Orozkoko jentilak pilota jokoan aritzen ziren mendi batetik bestera kanoiko harrizko bolak boteaz (Barandiaran 1960: 112). Bestela herri edo eliza bat suntsitzeko asmoan ere botatzen dituzte harri handiak, eta ugari dira mendi eta zelaietako “jentilharriak”, Barandiaranek dozena bat aipatzen du (1984: 100).

Zuberoan eta Nafarroan, Arrolan ahalegintzen da begitan dituen herriak harrikatzen, alferrik, lekuz kanpo erortzen baitira “Arrolan Harriak” (Cerquand 2017: 104, 105, 106 zb.). Bat aurtiki nahi zuen Atharratzeko Maidalena menditik Espainiaraino, Karlomagnoarekin hara sartu aitzin etsaiak iziarazteko, baina lerratu zen eta Anthulan (Hauze) erori zen harria; beste batean Baxenabarreko Donaixti herria zigortu gogo zuen, bertakoek ez ziotelako zergarik ordaintzen, eta orduan ere lerratu eta erreka bazterrean gelditu zen harri handia, Arrolanen erhie markatua. Arrolan berak harrika eho omen zituen Pirinioetako laminak denak, geroztik ez baita han gehiagorik. Nafarroan, Aldude eta Irurita arteko Argibel mendian den Harri Kilinka Arrolanek bota zuela Auzatik esan zioten Peña Santiagori (1980: 29).

Sanson da beste harrikari bat:

Sansonek Donostia suntsitu nahi zuen Aizkorritik harri handi bat abailaz jaurtiz; baina, ardi kaka batean labaindu zen eta Segurako Arrabiola baserri aldera bidali zuen. Aiako Harriko maldan diren haitz batzuk Sansonen sakelatik erori ziren, Oihartzunera botatzeko zeramatzala.

Nafarroan, Monrealeko Higara igo zen Erroldan, handik haitz handi bat aurtikitzeko eta Zalba herriko eliza botatzeko, baina bekorotz batean lerratu zen: harria eta gizona biribilka jausi ziren Urrotz herriraino, eta harria han dago beti (laburtua, Barandiaran 1960: 115-118).

Frantziako tradizioko harri jaurtitzaille batzuk erraldoiak dira, bereziki Gargantua, menhirrak erabiltzen baitzituen “Palet” (harri xabal) jokoan (Sébillot 1968 IV: 8).

VI. LAMINAK ETA HILAK

Gargan(t) izeneko mendiek Gargantuarekin zerikusia dute, eta Frantzian zenbait badira, ospetsuena Normandiako Mont Saint-Michel. Halaber Italian Apuliako Monte Sant-Angelo. Denetan ehorzketak hautematen dira, menhir edo harri-kutxei lotuak. Mont Saint-Michel antzinako Mont Tombe da: han ehortzi zuen Merlinek Gargantuaren aita, *Grandes Chroniques de France* liburuak dionez (Dontenville 1998: 77-84).

Lamiek arima herratuekin duten erlazioa ezagun da sineste batzuetan, gutitan esplizitua bada ere. Pirinioetako Comminges aldean, Domu Saindu egunean debekatua zen arropa hedatzea, oihal zuriek fantasmak irudikatzen zituztelako, edota lamien mihiseak: “Que sembla eras tendas d'eras hadas!” (Gratacos 1995: 243).

Laminen moduan hilak kebidetik sartzen dira etxeetara bero eta janari bila. Mendiben, “Saindi-maindiak” (Saindu-mainduak) etxeok utzi jakiak hartzera heldu dira, eta arbasoen arimak izan zitezkeen Barandiaranen iritziz (1984: 161 eta 1973a: 421). “Lamina zauritua” istorioaren antzeran, Bretainian etxe bateko neskatoak jarleku goritua paratu zion supazterrera hurbiltzen zen arima herratuari, eta ipurdia erre zion (Sébillot 1980 I: 137) . Bizkaiko “Arimea berbaz tximiniatik” kontakizunean, andre bati etortzen zitzaion seme edo senar hila, baina emakumeak ezin zuen ikusi eta deitoratzen zuen lehen begi zoli-eder bi bazituela eta orduko horretan bat eta iluna... (Etxebarria 1995: 152).

Lamien eta hilen lotura asko bien ordezkari diren jende baztertu eta txiroen bidez irudikatzen dira.

VII. LAMINAK ETA BAZTERTUAK

“Sol y lloviendo, las brujas cosiendo...” kantatzen genuen euria eta eguzkia egiten zuenean. Euskaraz “Axeriaren ezteiak” esaten da, eta berdin Japonian, Kurosawaren *Ametsak* (1990) filmeko “Euria eta eguzkia” atalak erakutsi zigunez. Frantzian, euria eguzkiarekin batera ikusteak esaera animistak sortu ditu leku askotan, legenda ahantzien aztarnak beharbada. Korsikan hurrek diote azeriak amodioa egiten duela; Gaskoinian, deabrua eta emaztea gatazkan ari direla, edo

deabruak bere alaba ezkontzen duela; Loiran, bogada egiten duela Ama Birginak; Aveyronen, lamiak dutela bogada egiten; eta Provenzan, sorginek (Sébillot 1968 I: 82 eta 84).

Ama Birginak pribilegio bat bazuen:

Herri askotan esaten dute larunbat guztiz badela eguzki izpi bat. Picardian diote Ama Birginak behar duela, Jesus Haurrak igandean jantziko duen atorra xukatzeko. Limousinen, Ama Birginaren atorrarentzako da. Eta Haute-Bretagnen, haren bokatarentzako (Sébillot 1968 I: 67).

Abantaila berdina zuten, Baxenabarren, Landibarre Jaun-Dohosti auzoko biztanleek, buhameak-edo zirelako.

Pobreak ziren, ez zuten arropa bat baizik aste guziko, eta Jinkoak edo zeruak, egiten zien larunbat arratsaldetan tarte bat: euriak gelditzen ziren eta iguzkia ateratzen zen jende haien arropak xukatzeko. (...) Hori amatxik kontatu daute. (...) Euria baldin bazen larunbatean, segur zen arratsaldean, bietarik lauak arte edo, euria geldituko zela. (...) Eta hori deitzen zuten “Axeraren ezteiak” (Manex Pagolak 1997an kontatua).

Izurako Ithurbeltzeko latsariak, Jaun-Dohostikoak bezala, mudatzeko arroparik ez zeukaten jende pobreak ziren, edo laminak. Eskaleak, ibilkariak, muga bazterretan egoten direnak, izaki mitikoekin alderatuak izan dira usu, onerako zein txarrerako. Adibide anitz badira Britainiako tradizioan. Istorio batean, oihan ertzean bizi den eskale zaharra sorgintzat daukate; aldiz, harekin dagoen neskabila ederra, lamintzat. Beste batean, buhame eder batez esaten da printzesa miresgarri eta lamiaren pare dela, aingeru bat bezain liluragarria demonioa balitz ere. Alderantziz, pertsonaia mitikoek eskale itxura hartzen ahal zuten, eta haien madarikazioen beldur ziren jendeak, maiz betetzen zirelako, laminenak bezala. Beila batetik etxerakoan neska batek agure zarpailtsu bat oso bitxia aterpetu zuen euritik bere parasolapean; sorginkeriarik ote zen beldurtu zen gaztea, baina sartu zenean etxeko xaharrek lasaitu zuten esanez Gralon zela, Ys hiri mitikoko errege ona (Le Braz 1994: 543, 556, 1000).

Iruzurrak egiten omen ziren Britainian laminen estakuruz; haien itxuraz janzten ziren lapurrak, berekeriak lasaiago egiteko. Laminak berak ikusezin bilakatu eta lapurretan aritzen ziren

(Sébillot I: 367 eta 1968 II: 113); edo ukendu bati esker jende itxura hartuta ferietan ibiltzen ziren, zorte-on eta sos-jokoetan dirua ateratzen baserritarrei, buhameei leporatu ohi zaizkien jokaeretan (Morvan 1998: 93). Laminei alderatzen ziren eskaleak:

Ziren bezalako eskale, mokokari hamikatu zirelakotz emana izan behar zitzaion izena Laminak. Ezen gutartean ere erraiten ohi dugu beti galdekan eta ozarkerian dabilanari: zer zara zu, Lamina zilokoa? Bethi eta bethi galdez eta ozarkerian hola ibiltzeko? (Kaltzakorta 1997: 207).

Laminak jendeetatik bestelakoak eta maiz basabazterretan irudikatzen baitira, haien mitoa arrazionalizatuz berriemaile batzuek diote lehen existitu diren jende desberdinak izan zitezkeela. Saratar batek zioenez, “lehengo denboretan, orain duela mende bat edo bietarainokoan, bazen Eskual Herrietan orain ez den jende mota xehe bat, zoinak deitzen baitziren laminak” (Kaltzakorta: 207). Geroago, Orozkon entzun dut, egun laminarik ez baldin bada, “ba, igual da arraza bat desaparezidu duena guztiz” (Arana 1996: 508).

Baztertuak izan dira agotak: legendun kiratsak zirela esaten zen eta antzara-zangoa eraman behar zuten soinekoan, sanbenito gisa. Ricauk (1999: 133) azaltzen du lamiekin duten zerikusia: tradizioak “Pedauca” erregina, Bertha lamia eta Bertha Karlomagnoren emaztea uztartzen zituen, eta hirugarren honi kiratsa zeriola esaten zen, lonbardiarra zelako.

VIII. LAMINAK ETA INAUTERIA

Baztertuak dira hilak, bazterturik bada, eta bizien munduan inork ez litzake hobekien itxura nola jendartean erabat gorpuztuak ez diren jendeek: emazteek, juduek, heretikoek... (Ginzburg 1992: 274-275).

Kristau tradizioan eskaleek irudikatzen dituzte hilak. Erdi Aroko hainbat *Exempla* bildumek irakasten dute pobreei emandakoak, hilei eskainia delako, sufragioa balio duela; adibidez, bere bizian eskale bati soineko bat eman diona arropa hori jantzita agertzen da hil ondoan; eta alderantziz, arropa ukatu diona, biluzik eta hotzez (Schmitt 1994: 81, 108, 202, 230).

Zenduak bizi izan diren lekuetara itzultzen dira, hartze dituzten berotasun eta jakien bila, bereziki Domu Sainduz, Eguberriz eta Inauteriz. Data horietan eske dabiltzan gazteak hilen ordezkariak direla ez du dudarik Ginzburg-ek (1992: 179 eta 194); Caro Barojak ere ez: “Begi bistakoa da neguko maskarada batzuek badutela zerikusia solstizioan lur gainera ageri ohi diren deabru, zomorro eta hilekin” (1965: 256). Bada, mozorrotuen eske erritualetan hiru irudikapen bederen bateratzen dira: hilak, txiro edo baztertuak eta izaki mitikoak. Eta neguko jaietako pertsonaia batzuek langile ibiltari eta arrotzen izena daramaten legez (kaldereroak, xorrotzak, buhameak, ijitoak, haurrak, gizon gonadunak...), beste batzuek izaki mitikoen izena daramate.

Garaziko inauterietako emazte jantzitako mutil dantzari batzuk Basandere deitzen dira. Antton Lukuren ustez, Basajaunak lirатеke bi ziganteak: alabaina, haien azpian ibiltzen diren mutil “zigantepekoek” Basandereen aitzinean dantzatzen dutenean, bikotekide gisa naski, xahar zenbaiti ‘basajaun’ hitza aditu izan die. Basandereek aurpegia oihal batek ezkutatua dute orain, baina aitzineko argazkietan buhame edo agota itxura dute. Zuberoako inauterietan ere sumatzen da Basajaunaren itzala; gaueko maskaradetan, mutilak lukainka eta tripota eske ibiltzen zirenean, Basajaunaren aipua entzuten zela esan zion berriemaile batek Duvert-i (1989).

Lesakan mairuak ateratzen dira inauteriz, eta Jondone Joane egunean “Tantitu mairu” dantza egiten zen, mairu errege eta kristau errege itxurako bi panpinekin (Caro 1974: 313). Mundakako haratuztean sorginak badira, eta Altsasukoan laminak. Mitoetan tximiniatik urdai eske sartzen diren laminen jokaera eta inauterian “puska biltzen” ibiltzen diren gazteena alderantzikoak dira eta, egituraz, simetrikoak: biok ozarki eskatzen dutela, lamina burruntziaz zauritzen du emaille faltsuak, eta alderantziz mutilek, txerrikiak sartzeko daramaten burruntziaz mehatxatzen dute deus ematen ez duena (Arana 1996: 698-700).

Izaki mitikoen eta kakarro maskaratuen arteko asimilazioa nabariagoa da Bavierako eta Tiroleko inauterian. Bertha-Antzara-Zango legez, Frau Perchta lamia germanikoa tximiniatik sartzen da Eguberriz, etxea garbi dutenak sariztatzeko eta zikin dutenak zigortzeko (Van Gennep 1958: 3019-22). Eta Perchten dira Inauterian eta Gabonetan ateratzen diren maskaratuak, hilekin lotuak eta bi taldetan banatuak: itsusiak eta ederrak (Caro 1965: 256; Ginzburg 1992: 190).

Esaten da Halloween-go mamuak arrotzak direla, Amerikatik ekarriak. Ez arras. Kuia hustu batez egiten diren maskarak hemen-hemengoak dira, gure xaharrek gogoratzen dute haiekin jalgitzen zirela haur eta gazte denboran Domu Saindu gauaz, auzoak izutzeko asmoan; Mutrikun 1997an ekin zioten berriz antzinako ohitura galduari. “Basajauna” kapituluan ikusi da Europa osoan hilen irudia den kuia hustuari Basajauna deitzen ziotela Garazin.

IX. IZAERA ALDAKORRA

Jutsi Larramendiko eta Izura Latsako mairuek ikaran omen zeukaten Euskal Herri osoa, nahiz jauregi horiek laminek eraikiak diren (Barandiaran 1962b: 9). Larrun mendiko laminen beldur ziren inguruko etxeok (Cerquand 2017: 104, 90, 91 zb). Laminekin partekatzen ditu hainbat funtzio Basajaunak eta, jentilek bezala, neskak bahitzen ditu. Halere, berriemaile batek Satrustegiri esan zion (1980: 147) ez zuela jentilez deus txarrik entzun, oraingo jendeak baino hobeak zirela: harginak ziren, harriak lepoan ekarrita jentiletxe eta jentil baratzak egin zituzten, baita elizak eta ermitak ere, haien inguruan bizia antolatuz. Arotzak, errotariak eta gari eraileak ziren, eta jendeek haiengandik ikasi zuten zenbait teknika. Basajaunarengandik ere bai.

Gutxi edo asko, gehien ezaugarria da bikoiztasuna - hilak ere noiz mesedegarriak, noiz banpiroak izan daitezke, eta laminez denetarik entzuten da. Oxobik ez ditu estimuan, “bainan hargintzan harginak” direla aitortu behar du. Dohoztiko inkestan Barandiaranek dio (1962b: 85): “La lamina no es representada en general como genio maléfico”; eta Ligiko zubiaren kondairan esaten denez, “bada haietan orotarik”. Tipo bereko istorioetan ere aurkituko ditugu zentzu kontraesankorreko bertsioak. Ezkondu nahi duten antzara-zangodunetan badira gisakoak eta badira lanjerosak. Tximiniatik jatekoaren bila datozenak Altzürükütik Orozkoraino aurkitzen dira; batzuek ozarki eta mehatxuka eskatzen dute (Cerquand 2017: 90 zb); noizbehinka, oster, janariaren truke alorreko lanak eginez etxeko joritasuna bermatzen dute (Barbier 1931: 26), eta eskaini zitzaiena ordaintzeko egin zuten lana ikusia zuela erraten zuen Jutsiko emazte batek (Barandiaran 1962: 10; 1973a: 454). Orrazia hartu eta gero gibelera eman dietenei laminek barkatzen dietela azaldu da gorago. Ez beti, Orozkon, orrazia itzulita ere hartzailearen etxeari biraoa bota zioten, bertan “ez zela erorik eta zororik faltako”.

Haurren iziarazteko erabili izan dira laminak, eta Jakes Casaubon oroitzen da, gauaz kanpora atera orduan, erraten zietela: “Kasu emak, laminek janen hute”. Barbierren bildumako (1931) “Dominixtikun” istorioko laminak haur sortu berriak hiltzen ditu, Libiako Lamiaren antzera. Horrelako krimenak, ordea, sorginei leporatu ohi zaizkie, ondoko kapituluan azalduko denez.

SORGINAK JENDARTEAN

*Zure begi ederrek, ene laztana
sorgindurik naukate, libre nintzana*

Bertsu honetaz erantzun zion irrati-entzule batek esatariaren galderari, “ea gaiztoak diren sorginak”. ‘Sorgindu’ horrek, ‘gatibatu’ ordeztu erabilia, “graziaz zein limurkeriaz hurkoa gogatu” esan nahi du, ez batere “naturaz gaineko indarrez kaltetu”. Alta, bigarren hau da sorgindu hitzaren zentzu propioa, eta irudizko zentzua lehena. Sedukzioa magiarekin uztartu ohi da, maiz literaturan; Virgiliok bere zortzigarren bukolan aipatzen ditu maitale galdua itzularazteko erabiltzen ziren maneiak eta inbokazioak, errealtatean inspiratuak, hurrean. Orain, gure hirietako azti afrikarrek gutun ontzietan uzten dizkiguten publizitatean “amodioaren berreskuratzeko” erremedioa eskaintzen dute beti.

Bikote arriskutsua da amodio eta sorginkeriarena, eta infernuko hirukote bihur daiteke hil bat tarteko denean. Fallaren *El amor brujo* ez da maitasun xoragarria, baizik eta gizon baten jeloskeria, lagun ohiaren amodio berria galaraztera itzuli den arima herratua, albako ezkiek uxatzen duten parte-txarrekoa (“Sonad campanas sonad, que llega la luz del día”).

Hemen zentzu propioan erabilia da sorgin hitza, jakinik ere ez duela beti esanahi berdina: “Alrededor de este nombre aparecen agrupados diversos temas”, ohartarazten du Barandiaranek (1984a: 184). Hortaz, hiru sorgin mota nagusi bereiziko dira.

1. Berriemaileek sorgintzat daukaten pertsona, ustez min egiten duen auzo bat, komunzki. Figura hori dateke hedatuena, sorginkeriaren oinarria.
 2. Inkisidoreek eta epaileek utzi duten irudikoa: sorgin hori deabruarekin harremanetan ibiltzen da, haren manuz kalte egiten du eta Jainkoa eta Eliza ernegatzen ditu.
 3. Folkloreko kondairetan azaltzen diren sorginak, akelarre moduko dantzaldietako kideak; gehienetan ez dira kaltegiletzat jotzen. Multzo hau hurrengo kapituluan aztertuko da batez ere.
- Sailkapenak sailkapen, hiru sorgin mota hauek etengabe gurutzatzen eta giltzatzen dira istorioetan eta dokumentuetan. Lehen biak bateratuak ohi dira Aro Modernoko pertsekuzio prozesuetan; hirugarrenek egiten dituzten jaialdi eta akelarreek antza handia dute epaileek berek irudikatzen zuten sabbatarekin.

I. SORGINAK ETA LAMINAK

Herri mitologiako akelarreko partaideei laminak deitzen zaie batzuetan, eta elkarren antza zerbait badutela pentsatzekoa da, nahiz eta biak bereizteko irizpideak ez diren falta: sorginak mundu honetako jendeak dira, jendeengandik sortu eta haien artean bizi diren “gu bezalako” izakiak, beren ahal bereziak beste mundukoen eskutik dauzkatenean ere. Kasu batzuetan sorgingoa herentziaz jasotzen ahal den arren, esan daiteke ez dela sorgin sortzen, bilakatzen baizik. Laminak, aldiz, beste natura batekoak dira.

‘Kristau’ eta ‘jende’ hitzak sinonimotzat hartzen diren tradizioan, adigai horretan aurki daiteke laminak eta sorginak bereizteko irizpidea: Baztanen eta Barkoxen diote “sorginak bateatuak (direla), laminak ez” (Azkue 1959: 386). Zuberoan, belagileak (sorginak) dira ondo bataiatuak izan ez diren pertsonak, erritualak ez zaielako ondo bete edo aitama pontekoek gaizki esan dituztelako “Credo”ko hitzak, zehazten du Barandiaranek (1984b: 35, 134) baina, irizpide garbia ukanagatik, “brujas-genio” izena ematen die jende ez direnei:

Llamo brujería a aquella manifestación del espíritu popular que supone a ciertas personas dotadas de propiedades extraordinarias en virtud de su ciencia mágica o de su comunicación con potencias infernales. (...) Aquí no hablo, pues, de brujas-genio, de aquellos personajes malignos (*gauaz irrintzika ibiltzen eta jendeak eramaten dituztenak*). Las brujas a las que ahora me refiero son de carne y hueso, personas conocidas en el pueblo. (...) Son el *subjetum patiens* de esa idealidad particular que llamo brujería (Barandiaran 1960: 87-88).

Zalantzari beste irtenbide bat topatu zion Orozkoko Sofi Etxebarria Zaballak: akelarre moduko jaietan dantzari ibiltzen direnak laminak behar ziren, ez baitziren gaiztoak (ikus “Akelarre” kap.); aldiz, beherago azalduko den Peñako emakumea, auzoaren umeak hilarazten zituen, “sorgina izango zen, zer sorginak diraz dañuinoak” (Arana 1996: 604). Halere, Sofik berak kontatu zuen laminek madarikazioa bota ziotela etxe bati, han “ez zela faltako zoro eta erorik”, eta zigorrak belaunaldiz belaunaldi iraun duela, sorginen begizkoak baino luzeago.

Ondoriozta daiteke sorgina izateko jende izan behar dela, eta gaiztoa. Xamanak ere mundu honetako jende dira eta beste mundukoekin ibiltzen dira, hemengoentzako onura ekartzeko, ontsalaz; baina alderantziz egin dezakete, beherago ikusiko dugunez.

II. ONGILEAK EDO KALTEGILEAK

Zentzu etnologikoan sorgina da “ustez indar galgarriak erabiltzen dituen pertsona” (Perrin 1995: 82). Kontzeptu zabalagoan, sorgina esan ohi zaio magiari edo beste baliabide ezkutuei esker ahal bereziak dauzkan pertsonari, nahiz eta onerako erabili; halakoa da, adibidez, zain tiratua sendatzen duena, “zain tiratu zain urratu, zaina bere lekuan sartu” esanez - bizkaieraz, “san tiritu, san urratu” ahoskatua baita, tartean santuren bat badela irudi lezake. Halaber onerako iharduten du garatxoak kontatu eta kentzen dituenak; non ez dizkion beste norbaiti pasarazten. Teorian bereizten ahal badira sorgin onak eta gaiztoak, besterik da praktikan:

Magia zuriaren eta beltzaren artean egin ohi den bereizketa erudizio kontua da, dudarik gabe. (...) Herriko laborari guztiek egunero dituzte begien aurrean gertakari magiko bikoitzak, norbait babesten zein kaltetzen ahal dutenak. (...) Arlo horretan pertsona batek beste herritarrek baino indar handiagoa duela uste izaten denean, hura da azti sendatzailea, (...) hau da, baserri-sorgin bat (Muchembled 1979: 49).

Gure denboran, anitzetan entzun dugu sorginak sendagileak baizik ez direla izan herri kulturan, eta Elizak zituela gaizkiletzat harrarazi. Ahozko tradizioan, ordea, zitalak izan ohi dira. Eta berdin kristauak ez diren herrialdeetan, Europako Antzinate paganoan eta munduan gaindi Ozeaniatik (Malinowski 1989: 131) Amerikaraino (Talayesva 1982), eta Afrikatik (Evans-Pritchard 1969: 124) Groenlandiaraino (Quppersimaan 1992: 172).

Bizkitartean, sorgin gaiztoen sinestearen froga hoberena dira haien zorte gaiztoak desegiten dituzten sorgin-gabetzaileak, XX. mendean oso errealak eta ikertuak, Frantzian Mayenne-ko *bocage*-an, besteak beste:

Inork ez du esaten sorgina dela. (...) Sorginak ez ditu inoiz bere krimenak aitortzen, ez eta ospitale psikiatrikoan deliratzen duenean ere. (...) Sorgina da sorginkeriaz mintzo direnek (sorginduek eta sorgin-gabetzaileek) aipatzen duten izakia. (...) Eta oso inprobablea da sorginen batek egiazki zorte gaiztorik bota izana. Baina, bistan dena, hori ez da beharrezkoa sistema ongi ibil dadin (Favret-Saada 1977: 39).

Eta, “deus ez baita sorgin-gabetzeko erritoei hurbilago nola sorgintzeko errito bat” (ibid.: 321), aldi batean osagileak direnak kaltegile bilaka daitezke hurrengo aldian. Auzo gaiztoak sorgindua dena beste herriko sorgin batengana joango da, hark sorgin-gabe dezan; eta sorgin-gabetzaile horrek, sorgin gaiztoaren kaltea deuseztatzeko, hari erasoko dio: sorgina sorginduko du. Horrelako ahalak dituenak ez ote ditu inoiz bere auzoen kontra erabiliko? Sorginduak sendatzeko gai izatea eta sorgin izatea bat dira; sekula kalterik egin ez duen sendatzaile batek bekaizkeria pitz dezake, edo berdin susmoak eta, azkenean, salaketa eta pertsekuzioa jasan.

III. AUZOAREN BEGIZKOA

Begizkoa posiblea denez eta kausa naturalek eragin ote lezaketenez erabiltzen zuten gogoan Aristotelesek eta antzinateko beste zenbait filosofok. Benetakoa da sorgin gaiztoen kezka; horretaz nahigabetuak izan diren sorginduen eta sorgin-gabetzaileen solasetan igartzen da zerk ahalbidetzen duen sinestea, eta nola. Azken mendeko adibideak ikusiko ditugu, hasteko bi orozkoarren esperientziak, 1985ean eta 1990ean kontatuak.

Arkotxako etxe batean, Bizkaian, ostatzuz egon zen batek kontatzen zuen nola etxekanderearen ahizpa goizero jaikitzen zen leher eginda; auzoko sorgin bat, alargun bat, gauaz etorri eta gainean jartzen zitzaion, eta bera ezin mugituz egoten zen; giltza zulotik sartzen

ei zen eta inork ez zuen ikusten, biktimaren senarrak ere ez. Inguma igartzen da sorgin horretan, hersturazko lokamutsa.

Sofi Etxebarriak beste kasu bat kontatu zuen:

Hemen, Beheko Etzean bizi zan Grabiela, krida egon zan Peñan (Bilbo ondoan), ume bat jagoten. Eta ugazandreak esaten eutsen (zian) auzo atso batek bere solora urten eta agurtzen eueanean (zuen), ez ekartzeko umea hark ikusteko lekura; haren bidera agertu orduko, umea negarrez. Zer umeok hil egiten jakozela (zitzaizkiola), asko, andre hareri, eta beldurrak eukiten eutsezan (zizkiola) atsoari, sorgina zala. Mokilitu egiten euala aldatzean (aldapan) “tti-ttau”, nekatu barik atsoak, mokil-porrea eskuz aldatzen ei euan eta, “din-daun”. Denak nekatu eta ha ez!

Grabiela preguntatu eutsen uzandreaki ea atsoa eleizara joaten zan. Eta hark: “Egon zatiz isilik, ez dagistazula (diezadazula) niri aitatu ere egin horren uzenik gero!”

Eta egun batez, Grabiela mezara joateko preparetan egoala (zegoela), leihopetik pasatu zala atso hori eta:

- Grabiela!

- Zeer?

- Bazatoz eleizara ala?

Eta gero Grabiela joan zela eta ez euala atsoa eleizan ikusi (Arana 1996: 195).

Peñako atsoa sorgin-gai hauta zen: zaharra eta ez aberatsa, soroko mokilak apurtzen ibili behar baitzen jo ta ke. Eta begizkoaz hilarazten baitzuen, nola frogatu ez ziela auzoaren haurrei begiratu? Anbotoko Anderea legez, elizazalea ez zela usnatu zuen Grabiela. Osterantzean, antzekoak dira Orozkoko sorginen ezaugarriak eta Frantziako Mayenne-koak. Hangoek ukimenaz eta hitzaz ere egiten duten arren, begiaz dute bereziki zorte gaiztoa botatzen: gizon batek auzoaren begirada izugarria gurutzatu ondoan autoa hartzen bazuen poltsikoan gatz eraman gabe, beti erretenean bukatzen zuen bidaia. Sorginduaren indarra eta ondasuna beretzat biltzen dituela sorginak, diote: bera bizkortzen eta aberasten joaten da, bestea

esmeriatu eta txirotu arau (Favret-Saada 1977: 150 eta 269). Hortik, beharbada, Peñakoaren nekaezina.

Mendiben (Baxenabarre) haur baten ustekabeko heriotza sorginei leporatu zieten. Gatuen bitartez zorte gaiztoa botatzen zieten laido zerbait egina zietenei, mendekatzeko:

Gatiak agertzen zirela eta ez zutela jo behar, ez zela kaxurik egin behar, unkitzen balin bazen gatia, zortea botatzen ziela, horra. (Gatu horiek) kontrako norbaitek igorriak (*ziren*), maite ez zuen norbaitek. Hola kontatzen zizien (zuten). Eta gatia ez omen zizien unkitu behar, hasteko, bestenaz irriskatzen ahal zizien. Hara. Eta gatia hola jiten zuzun (zen) doaikabe jendeen ondorat, ez dakit nik nola.

Makil ukaldi bat emaiten bazen, eta ordian zortea botatzen zizin (zuen), eta bigarren ukaldia ematen balin bazen berriz, ez ziela gehiago podererik... Ba omen zitzun (*ziren*) jendeak hola konjuraturik izan direnak eta hil direnak ere. Omen, omen, e? Nik ez dizit (*dut*) ikusi.

Haur bat Haranberriko parrean orgen gibeletik zohalarik, batere potretik (itxurarik) gabe urerat joan zuzun eta hil, biziki droleki. Orga egurrarekin ziozazun (zihoan) saltzerat, hementik ordian hori baitzen bizimolderik haundiena, egurra egin eta sal. Eta egurraren gibeletik edo zohalarik, horra, ez zekiezien (zekiten) soberarik zer gertatu zitzakon, urerat joan omen zuzun Haranberriko parrean, eta hil omen zuzun. Zerbait egina zien eta, horra, konjuratu zutela (Jeanne Irigoin, Mendibe, 1985).

Bigarren edo hirugarren graduko lekukotasun hauek ongi azaltzen dute nola ezbeharrak sorginkeriaaren sinestea bermatzen duen. Eta Mendibeko sorginaren motibazioa mendekua dela ulertzen da, etsaia hilarazten duen “eihar-meza” gomendatu batez gauzatua, menturaz (Arana 2000: 142).

IV. HOBENDUNAREN BILA

Heriotza, eritasun eta ezbeharren aurrean, zergatia aurkitzeko premia sentitzen ahal da.

Jakina da jendarte primitiboetan heriotza ez dela hartzen gertakari naturaltzat edo kausa fisikoek soilik ekarria; kasik beti sorgin baten eragin magikoari leporatzen zaio, eta hobenduna aurkitzea izaten da hileta erritoen osagai bat (Maus 1969: 24).

Kasualitatea ez dela existitzen “primitiboak” ez diren jendarteetan ere sinesten da, batez ere dohakaitzak uste gabeen heldu edo maiz errepikatzen direlarik. Orduan nork eragin dituen bilatzen hasten da, baita aurkitzen ere, auzo bat komunzki (Delumeau 1978: 52). Horren medioz zentzua hautematen zaio ezin jasanari eta dimentsio transzendentala erdiesten du zorigaitzak, natura gaineko jatorria duelako. Aldi berean, oinazea ez dela soilki gorputz atsekabetu batena ulertzen da, jatorri eta garrantzi sozialak dituelako; eta bide batez norberaren erruduntasuna beste baten bizkarrera pasatzen da. Sartre-ren “l'enfer c'est les autres” esanaren aldaera bat. Aurkiak badu iruntzia, beraz. Hurkoen arteko liskarrak pertsona batengan haragitzen badira, haztagarriago eta mingarriago egiten dira eta, elkarrenganako mesfidantzak eta jeloskeriak elikatuz eta justifikatuz, gaizkondu ere egiten ditu gatazkak.

Sorginen kontuek noraino pozoitzen ahal duten bizitza erakusten du Talayesva Hopi amerindioaren autobiografiak. Europakoek bezala, Arizonako sorgin “bihotz-bikoek” (*bowaka*) bilkurak egiten dituzte; eta haur-haurrean jadanik gaztigatzen zioten Talayesvari haiekin kontuz ibiltzeko, jende bat har eta lurpeko egoitzara eraman baitezakete beren elkarte tzarrean sarrarazteko: harrezkero, jende horrek ahaide eta haurrideak hil beharko ditu, bere bizi propioa luzatzeko. Ikaraturik egoten ziren haurrak eta helduak, ahaiderik hurbilena edo lagunik onena bihotz-bikoa izan zitekeelakoan, hainbesteraino non haiei egozten baitzizkieten jasaten zituzten eritasun guztiak. Talayesvak berak izeko bat sorgina dela ondorioztatu zuen, gerriko mina sendatzeko estakuruz eman zion masaiaren ondoan eri suertatu baitzen. Haur bat ere emaztearen familiako sorgin batek hil diola uste du; alderantziz, aurreko hiru haurrez gain laugarrena ere hil zaionean, emaztearen familiakoek aita (Talayesva) egin dute errudun; bera, bitartean, segur dela beste sorgin batek hil duela. Azkenean, ama bera ez ote den sorgina

etortzen zaio burura, semeari aitortu dionean ametsetan bere arbasoekin mintzatu eta heriotza hurbil ikusten duela (Talayesva 1982: 45, 111, 160, 282, 362, 401, 453).

Sorginen sinestearen oinarrian diren sentimenak konstanteak dira jendartean, gutxi edo gehiago garatuak, eta gaur egunean ere ez zaigu arrotza zorigaitzen erruduna bilatzeko beharra. Lehengo sorginek deabruak emandako hautsen bidez izurritea hedatzen omen zuten, eta oraingo eritasun batzuei nahitarako iturburua eratxiki izan zaie, HIESari kasu. Zenbatetan ez zaien sendagileei edo begiraleei leporatu sortu berri edo hurrei gertatu istripuen errua, antzina sorgin fama zeukaten emaginei bezala.

V. SORGINEN IHARDUERA ETA ITXURAK

Sorginen istorioak bezain ugari eta desberdinak dira haien inguruabarrak eta joerak: beren herrian atzematen dira, auzo etxeetan, akelarrean edo hegaz norabait bidaiatzen. Esakunek diote gauaz aritzen direla, ilun-ezkilan atera eta argi-ezkilan sar (Azkue 1959: 379). Eta asteko gau jakin batean elkartzen zirela: Orozkon eta Kortezubin ostiralean, Arrigorriagan asteartean, Baxenafarren eta Barkoxen asteazkenean eta ostiralean (Azkue 1959: 374). Egun horiek, Antzinatean, Mercurio eta Venusenak ziren, hurrenez hurren (Palou 1957: 69). Oso seinatuak dira urteko data zenbait, Europan batez ere Jondone Joaneko gaua (Caro 1975: 270) eta maiatzaren lehenekoa, Walpurgisnatch (Van Gennep 1949: 1434-37).

Elkarrekin biltzen dira akelarreko sorginak eta animali itxuraz joaten dira hara, horrela errazago zaiela gaiztakeriak egitea ere. Funtsezko ahal hori jadanik aipatua zen Antzinate klasikoan eta etengabe errepikatua pertsekuzio garaian.

Además de los bailes, se huelgan cuando están en aquelarre, saliendo a espantar y a hacer mal a los pasajeros, en figuras diferentes para que no puedan ser conocidos: que el demonio (al parecer) los transforma en aquellas figuras y apariencias y en las de puercos, cabras y ovejas y yeguas, y otros animales (Zugarramurdiko sorginen 1610ko auzia, Caro 1975: 98).

Animalia itxura azken mendeetan ere sorgin batzuen ezaugarria da: zaldi, euli, xerri edo beste bihurtzen ahal dira, eta batik bat katu, Mendiben bezala, kalte egiteko. Gaunako sorgin batek bere ile-xirikorda katu-buztan bilakatua erabiltzen zuen haur bat zigortzeko (Barandiaran 1984b: 40). Barkoxen, ontsa bataiatua ez zen emazte belagile batek etxe bateko haurrak oro hiltzen zituen, katu itxura hartuta, ixkilima (orratz) bat buruan sartuz; emazte hori sorgin-gabetzeko, arra-bataiatu zuten (Barandiaran 1973a: 491; 1984b: 33). Katuekin kontuz ibili behar den ustea biziki zabaldua da:

Kollartegiko Batista gauaz etxerat zohalarik, gatu bat beti ateratzen omen zitzaion bere landaburuan. Makilarekin golpia ematen omen zion, baina ezin hatxeman, beti huts egiten. Jaun bikarioari erran zion, eta harek erran “tiro bat emateko katuaren itzalari”. Hala egin zuen eta gatura marrumaka joan omen zen Egoaineko alderat. Biharamunean agonia (ezkila) aditu omen zuen; noren agonia zen galdetu omen zuen eta “Egoaineko andre zaharra gaizki zela”. “Ikusi behar dut haatik”; eta gan omen zen Egoainerat. Andre zaharraren ganbararat sartu zeneko, eria xoko alderat biratu omen zen eta hartan hil (Saran bildua 1941an, laburtua, Barandiaran 1984b: 141).

Istorio antzekoa bildu zuen Tilbury-ko Gervasek XIII. mendean, Sébillot-ek aipatua (1968 III: 146) eta Thomson-en katalogoko motiboak jasoak: G 252 “Witch, in form of cat has hand cut off. Recognized next morning by missing hand”. Leku batzuetan lapurretak leporatzen dizkiete horrelako sorginei; eta ezaguna da supazterrean iruten ari den emakumeari tximiniatik etortzen zaion katuaren ipuina (Azkue 1959: 387; Barandiaran 1973a: 493-498; 1984b: 41-45; Arratibel 1995: 165). Hona ale bat:

Eskoriatzan (Gipuzkoa), gauero katu bat etortzen zitzaion atso bati goruetan egoten zenean eta ikaratu egiten zen; gizonari kontatu zion eta hark erabaki “bera paratuko zela andrearen jantziakaz”. Katuak irulearen bizarra ikusi eta igarri zuen ez zela betiko andrea. “Gizona izan eta goruetan?” esan zion. Eta gizonak erantzun: “Katua izan eta barriketan?” Sutondoko burruntzia hartu, katua akabatu eta leihotik bota zuen. Biharamunean auzoko atso bat agertu zen han, hilda (Barandiaran 1960: 104).

Tipo bera bildu zuen Sébillotek Wallonian (1968 III: 146): iruleak morokil beroa bota zion katuari eta biharamunean aurpegi erreka ageri zen eskale bat. Sorgin kondaira hauek aurreko kapituluan aipatu den “Lamina zauritua”ren antza dute, salbu hartan etxeko gizona dela kolpe emailea (Arana 2000: 65).

Euli itxura dutenean, edozein zirrikitutatik sartzen dira sorginak beren biktimen etxera, Arkotxakoaren moduan. Berastegiko neska batek haur bat hil zuen haren eztarrian sartuz (Barandiaran 1984b: 54; 1973a: 501). Uste izaten zen intsektu itxuraz jalgitzen zaiola ahotik arima sorginari akelarrera joateko eta, horregatik, hura atzera sartu artean, lo edo konorte gabe eta hila bezala datza haren gorputza (Sébillot, 1968d: 332). Batek kontatu omen zion Lancreri (1982: 96), elizan gaubeila luzea egin ondoan, etxean loak hartu zuela eta akelarrera eramana izan zela Ziburuko meza nagusiaren bitartean. Xamana ere lo bezala egoten da, arima izpirituengana joaten zaionean. Arimaren urruntzeari eta loari berriz begiratuko diegu hurrengo kapituluan.

Intsektu gisa irudikatzen da arima usu, “Soul as Fly” motiboak adierazten duena. Txori gisa ere askotan: Atsularren arima usoaren itxuran hegaldatu zen zerura buruz. Infernura joan izan balitz, berriz, bele izango zen (Azkue: 1966 70). Sorginek bele gisa hegan egiten dutela zioen Lancrek (Caro 1966: 235).

VI. HAURREN GALARAZLEAK ETA EMAGINAK

Sorgin kaltegileen obsesioa jadanik Erdi Aroan igartzen da, baina orduko pertsekuzioa ez zen Berpizkunde garaikoa bezain odoltsua. Nabarmenezkoak dira Tomas Akinokoaren ele mikatzak, bere aurreragoko eszeptizismoaren kontra argudiatzen baitu, Jainkoaren baimenarekin bada ere, deabruak gaizkia egin dezakeela sorginen bitartez, eta hauek gizonei kopulazioa galarazten dietela, “bragetako kordioak lotuz” (“nouer l'aiguillette”), beldur handia sortzen zuen zorte gaiztoaz (Palou 1957: 36). Avellaneda inkisidoreak Nafarroako sorginez dio:

Saben hechizar que el hombre no tenga participación con su mujer y se ha hallado (...) haber ligado un hechizado a sus propios hijos al tiempo de sus casamientos (Caro 1975: 42).

Jakina izanagatik ez da gutiago ohargarria sorginkeria emazteekin uztartu dela eta

misoginia izan dela pertsekuzioaren osagaia. *Malleus maleficarum* liburuan (1486) arrazoibidea da emaztea, gizonaren saihets hezur oker batetik egina delako, hura baino lizunagoa dela, haragizkoagoa eta deabruaren menpekoago, haren erranetara dagoela beti (Palou 1957: 68). Frantzian, XVI. mendean, tratatu astunak argitaratu ziren emakumeen gutiagotasuna erakusteko, arimarik ba ote duten ere galdegiten baitzuten batzuek; erresumako Iparraldean, XVI. eta XVII. mendeetan sorginkeriaz akusatuetatik % 82 emazteak ziren (Muchembled 1979: 130; 1987: 6). Alemaniako pertsekuzioan, 1561etik 1584era, 1050 emazte hil zituzten eta 238 gizon (Ginzburg 1992: 396).

Eta paradoxa balirudike ere, haurrak izan dira maiz ustezko sorgin emazteen biktimak. Ernalkuntza oztopatzeaz gain, jaioberrien hiltzea leporatu zien Avellanedak:

Matan los niños de teta, y los desentierran y quitan los cuajos y corazones. (...) Si por desdicha a las que los crían acontece descuido de no santiguar, el demonio va a los brujos y brujas y les dice en tal parte han acostado a una criatura sin santiguar, que vayan a matarla, y así los hace ir el demonio (Caro 1975: 41).

Webster-ek (1993 II: 27 eta 41) eta Barbierrek (1931: 24) bildu hiru kondairetan agertzen dira haur-hiltzaileak. Lehenean sorgin batek familiako ume guztiak hiltzen zituen, gurasoek ikasi arte “Doministeko” (Dominus tecum: Jainkoa zurekin) esan behar zaiela sortu berriei urtintz egiten dutenean. Bigarrenekoak mandazain baten abentura kontatzen du: gizona mandoekin kanpoan zebilenean, emazteak haurra ukan zuen; bitartean, senarrak ostatz zegoen etxeke ama-alabei entzun zien ñiña galtzera joan gogo zutela; ama berehala abiatu zen, “edo guztien azpitik eta lahar guztien gainetik” esanda; eta haren atzetik joan zen mandazaina, bere haurra salbatzeko premian, baina formula alderantziz esan zuen, “edoien azpitik eta laharren azpitik ere”, eta fundituta heldu zen etxera; sorgina baino arinago, beharrik, handik laster katu zuri bat iritsi baitzen: mandazainak xehatu zuen eta atzera ostatura itzuli zen gau berean. Eta biharamun goizean hango andre zaharra gaixo zegoen ohean. Sorgin haur-hiltzaileen istorioak ugari dira Barandiaranen bildumetan, mandazainarena bezalakoak ere bai (1960: 104; 1984b: 54 eta 78; 1973a: 514).

Peñakoa bezalako sorginen begirada nolaz den hilgarria azaltzen du *Grand Albert* liburuak: emazte zaharren begietatik pozoina isurtzen da airera eta gero aireak haurrak infektatzen ditu. Caro Barojak kontatzen duenez (1966: 290), Nafarroako Arantzan haur batzuk ustez begizkoak

jota zirelarik, gizon batek esan zuen karrikan pasatuko zen lehen atsoa zela hobenduna, eta orduan ageri zen emakume zahar bat doi-doia salbatu zen lintxamendutik. Begizkoak jo dituen haurren sintomak hauek dira: “desgana, aplanamiento, amodorramiento, (la víctima) se debilita y enflaquece” (Barandiaran 1984a: 42).

(En Dohozti) se dice que los sorginak hacen mal de ojo (begi gaixtoa sartu) a los niños, y que, mediante la maldición, entronizan los gaixtoak en los cuerpos de algunas personas, causándoles graves enfermedades.

(...)

(Dohiztirin) Sorgina es el nombre con el que se designa una suerte de bruja, a la que se atribuyen facultades misteriosas o sobrenaturales sobre las personas, principalmente sobre los niños de corta edad. Sorgin es, pues un verdadero sorzain (el genio que vigila el nacimiento de los niños) (Barandiaran 1962b: 87).

“Sorzain” etimologiak ez lezake sorginen zintzotasuna berma, zaintzen ahal duenak heriotza ekar dezakeelako, eta hori leporatu zaie emaginei: akelarrean “hamazazpi serore eta bost emagiñ” bazirela abesten zuten Berako jaietan (Caro 1966: 282). Hain zuzen, emazte guztiak susmagarriak eta emaginak susmagarrienak zirela aldarrikatzen zuten Kraemer eta Sprenger-ek, *Malleus maleficorum* liburuaren egileek (Caro 1966: 129). Ustea baitzen deabruarentzat zirela haur bataiatu gabeak, eta haien zatikiak sartzen zituztela sorginek beren ukendu nazkagarrietan. Hil sortuak ugariak ziren garaian, laster ondorioztatzen ahal zen emaginak zirela etsaiaren hornitzaileak (Delumeau 1978: 53).

VII. AMAREN HOBENA

Amarekiko sentimendu kontrajarriak aztertu ditu Bettelheim psikoanalistak ipuin miresgarrietan, besteak beste “Hansel eta Gretel” kondairan (1976: 202, 281). Haren iritziz, edipo adinean amaz desilusiturik diren haurrek pentsatzen dute umeak etxetik bidali dituen ama eta basoko sorgin haur-jalea bat bera direla. Emazte sorginen gaiztakeria amatasunean finkatzen den ber, ulertzen da ama haurren aurkakoa izan dadin, eta hala ulertu zukeen Lancre-k, sinetsi

zuenean akelarretik landa sehaskako haur bati sorginek lepoa bihurtu ziotela eta gero gurasoen erdian etzanda ezarri zutela, amak ito zuela pentsa zezaten denek (Caro 1975: 163) - pentsa ezina baitzen aitzak ito zezakeela, soilik ama zen hori egiteko gauza.

Emaztetasunak gizonari ematen dien beldurrean eta hartatik sortzen den Ama izugarriaren arketipo misoginoan kokatzen da sorginen gaiztakeria; eta haren ondorioz irudimenak justifikatzen emaztearen erahiltzea ere, “Hiru uhinak” ipuinean gauzatzen dena (Vinson 1883: 20). Grillandus epaile italiarrak kontatzen du 1526an Erroma aldeko emazte batek akelarrera eraman zuela senarra; hango jakiak oro gezak baitziren, gatza eskatu zuen gizonak eta, eskuan eduki bezain laster “Jainkoari eskerrak, gatza heldu da!” esan zuenean, denak aienatu ziren; senar horrek salatu zuen emaztea eta erre egin zuten (Caro 1966: 141).

Arketipoa urrun joaten da seme batek ama errearazten duenean. Ipuin batzuetan aski ohizkoa da labera botatzea ama edo amaizun sorgina; Cerquand-en bildumako “Ama jelosa” horrela amaitzen da: “gorriarazten dute labe bat eta han errearazten da sorgina (heroinaren amatxi)” (2017: 39 zb). Orozkoko kondaira batean seme apezak hil ei zuen ama sorgina. Horren bertsio osatuagoa eta leundua ematen du Azkuek:

Durangon sorgin batek haur bat eriarazi zuen. Auzoek, oilasko bat jarri zuten egosten, sorgina bere burua salatzeri behartzeko: laster apezaren ama ageri zen, otoi lapikoa sutatik ken zezaten. Abadeak hori entzun eta, ama egiazko sorgina ote zuen jakin nahirik, mezea amaituta misala zabalik utzi zuen aldarearen gainean eta etxera joan, sorginek ezin baitute higitu misala itxi ezean. Laster etorri zitzaion etxeko neskatoa, amaren aginduz liburua hetsi zezan. Joan zen berriro elizara eta misala itxi eta gorde zueneko ama elizatik joan ahal izan zan. Abadeak ama konjuruaren konjuruz sorgingabetu ei zuen (laburtua, Azkue 1966: 333).

Ama errearazteari izugarria iritzi zion Orozkoko berriemaileak eta, durduzak harturik: “Bai, baina sorgina bazen...” (Arana 1996: 195).

Istorio honetan, bestalde, sorginak salatzei bi metodo aipagarri azaltzen dira. Lehena, oilaskoarena, gaur egunean ere erabiltzen dela erakusten dute Fravret-Saada-ren eta Camus-en lanek, eta hauxe da haren oinarria: ur irakinean sartzen den oilaskoa (edo behi-bihotza) sorgin ezezagunaren sinboloa da eta, okela horri egiten zaion mina sorginak sentitzen baitu bere haragian, operazioa geldiarazteko eskatzera azaldu behar du eta bere biktima askatu. Bigarren metodoa ere, meza liburuarena, ezaguna da; Azkuek aurkezten digu:

Sorginak ez omen dira elizatik elki ahal izaten apaizak meza-ondoan aldareko liburua hesten ez badu.

La Fascinación de España-ren egile Salillas-ek, sorginez dio: “Las que acudieran a misa no podrían salir de la iglesia hasta que cerraran el misal”. (...) Bizkaian gertatu zela “Abadianoko sorgina” deritzaion ipuin batean irakur daiteke. Horregatik Baztanen erraten zen apezak aise jakin zezakeela hirian sorgin nor zen eta nor ez (Azkue 1959: 376).

Antzeko sinestea bada ezkilari buruz: “Sorgina ezin higitu izaten ei da matutea (albakoa) jo ezker” (Azkue 1959: 379). Eta Frantzian bertute bera eransten zitzaion heliotropoari: landare hori elizan denean, senarra engainatu duten emazteak ezin dira handik higitu (*Grand Albert* 1981: 70). Metodo berdinak, beraz, sorginak eta emazte adulteroak salatzeke, batzuk zein bestek gizonen laidotzaile kontsideratuak direnez geroz.

VIII. APEZAK ETA SORGINAK

“Abadearen ama sorgina” izenburuak adierazten du bi pertsonaiak, kontrarioak izanagatik, ez direla gutiago elkarren hurbil; funtsean, beren ahalengatik, apezak ere sorginak izan daitezke, familiarien jabe ahaltsuak edota ekaitzegileak (ikus “Familiariak” kap. eta Arana 2000: 149). Sorginetan apezak datoz bigarren, emazteen ondoan; azken hauek erligio praktikan eta elizetan bete dituzten eginkizunek areagotu dukete kidetasun hori, Lancre-k gogorki arbuiaua, Lapurdiko seroren garrantziaz oharturik (1982: 91). Bere mandatuan, 1609an, zortzi apez auziperatu nahi izan zituen, baita lortu ere haietarik hiru sutan erretzea. Frantziako sorginkeria prozesu ezagunenetakoan, Loudun-ekoan, Grandier apeza erre zuten, 1634an (Palou 1957: 72).

Apezek, sorgin izan zein sorgin kontrako, liburuaren indarra baliatzen dute.

Frantziako Maine eskualdean apeza da sorginen etsai jaioa, eta hark ditu haien zorte gaiztoak galarazten, liburuan ikasi dituen sekretuen laguntzari esker (Sébillot 1968 IV: 240).

Camus-en iritziz (1988: 57), “abade sorgin” figuraren oinarrizko elementu sinboliko bat izan da sorgin-liburuak pertsegitzen dituen apeza: liburu horiek suntsitzen ahal baititu, ez da haien beldur, alderantziz, lan-tresna gisa erabiltzen ditu. Ahal bereziak dituzten apezek hotsa ia gaurdaino heldu da: beren erretorearen beldur ziren 1981ean Santa Graziko eliztar batzuk, pentsatzen baitzuten zigortzen ahal zituela begirune eskasa erakusten ziotenak (Ott 1993: 108).

Kondaira zenbaitetan gaiztoaren rola tokatzen zaie apezei, ez baitezpada sorginak direnean, baina haienganako amorruak itsutzen dituenen, “Kukubil” ipuinean bezala (Azkue 1966: 205). Kukubil neskatala artzaina da; Ama Birginak eman dio dantzarazten duen txilibitua, eta haurrak ardiekin erabili ohi zuen; holako batean, erbiaren barrandan sasietan gordea zegoen apez ehiztaria dantzan jarri zuen nahi gabe; jaun hark, arantzez eratzita eta haserretuta, sorginkeria leporatu zion txirulariari, eta urkatu behar zuen; baina urka lekuan ere Kukubilek herritarrak denak dantzarazi zituen, eta haiek, xoraturik, lokabe eta deslai utzi zuten.

Apeza eta ama sorgina bezalako bikotea osatzen dute Muruko Dama ekaitzegileak eta haren seme konjuratzaileak. Orobat, apez sorgin batzuek eta Martin Abade edo Mateo Txistu tipoko ehiztari kondenatuek Andere ekaitzegilearen ezaugarri zenbait dauzkate (Arana 2000: 25, 144). Frantzian, XX. mendearen hasieran,

Nahiko zabaldua den sineste batek apezei leporatzen die hodeian ibiltzea eta beste ekaitzegileek bezala ekaitza eta babazuza eragitea beren sorgingoa baliatuz. Aldi berean, ekaitza konjuratzeko, hodeia desegiteko eta haizea aldatzeko ahalak eransten zaizkie .

(...)

Behiala, Saintonge-n esaten zuten apezek berek eragiten ahal zutela kazkabarra, inoren laguntzarik gabe eta akelarrera joan gabe, horretarako aski zitzaizela zaharo magiko batez ura jotzea iturri, ibai edo urmael batean. Sineste hau S...n ere bada: hiru apez biltzen dira urmael baten hegian eta ura uhertzen dute lohiarekin nahasiz; horrela, eskualde osoa xehatuko duen babazuza-legamia sortzen dute (Sébillot, 1968 IV: 237 eta 1968 II: 438).

IX. SORGIN EKAITZEGILEAK

Sorginek ekaitzegile fama dute.

Sorginak, erreka bazterrean baino areago, urmaeletan biltzen dira (...) sorgin-ekaitzak sortzeko. (...) Ilun-ilunpetan babazuza-egileek, hirunaka beti eta alimaleko hagaz edo egurrezko palaz armaturik, ur azala jotzen dute erritmo indartsuaz. Laster, haien besoen kolpe frenetikoen ondorioz, sakreek eta oihu basatiek ere lagunduta, ura ziztuka jauzten da airera, goiko aldera iristen (...) eta eguna argitu orduko sortua da gaitza (Sébillot 1968 II: 438).

Beheko uraren egoerak goikoarena baldintzatzen duen printzipioa baliatua izan da, lehortea luzatzen denean, euria eragiteko iturrian ura isuriz; zenbait lekutan herriko zaindaria zuten uretan sartzen, Pirinioetako herri batzuetan besteak beste (Sébillot 1968 II: 376; Marliave 2006: 261). Ohiturak azken mende arte iraun du eta aspaldiko aurrekaria du. Broceliande oihan miresgarrian den Barenton iturriko ura isurtzeak euria ekartzen duela kontatu zuen XII. mendean Robert Wace-k *Roman de Rou* liburuan, eta haren ondoan, iturri bera aipatu zuen Chrétien de Troyes-ek *Yvain, le Chevalier au Lion* eleberrian:

S'au bacin viax de l'eve prandre / E desus le perron espandre / La verras une tele tanpeste / Qu'an ces bois ne remanra beste / (...) / Car tu verras si foudroier, / Venter et arbres peçoier, / Plover, toner et espartir... (Frappier 1969: 86).

(Iturriko askatik ura hartu nahi baduzu / eta harriaren gainean isurtzen, / halako ekaitza ikusiko duzu, / ez baita piztiarik geratuko baso hartan: / ikusiko dituzu orduan hango ortziak, / hango haizea eta zuhaitz hautsiak, / euri, ortzantza eta tximistak...)

Orrazten direnean sorginek botatzen dituzten ileek kazkabarra sortzen dute (Frazer 1981: 639); eta deabruaren ileak dauzkate txingor aleek... (Marliave 1996: 76, 175). Inkisizioak Tolosan (Okzitania) auziperatu bati aitorrarazi zionez:

Hacia caer granizo sobre los campos de aquellos a quien no quería, hacía que se pudrieran los trigos mediante una niebla pestilencial, y que se helaran las viñas (Caro 1966: 118).

Avellaneda inkisidoreak idatzi zuen Nafarroako sorginek adierazi zutela:

Que cuanto fruto de la tierra se pierde con tempestades y piedra en este reino y en otra cualquier parte es por los maleficios de los brujos y brujas (Caro 1975: 42).

Zugarramurdiko sorginen 1610eko auziaren txostenak dioenez, Donibane Lohitzuneko sorginak ontzien galtzera joan ziren; deabruarekin itsasoan sartu eta, ontziak topatu zituztenean, deabruak jauzi egin zuen eta esker eskuaz bere benedikazioa bota zuen, esanez: “Aire, aire, aire”; eta enbata itzela ekarri zuen. Akusatu batek esan zuen bere lehen akelarretik landa fruitu eta garitza suntsitzera eramane zutela airean sorginek, berrogei zaldizkoek galapan baino harrabots handiagoa eginez, ortzantzarena baino lazgarriagoa; sorgin berri hori ikaratu zela eta “Jesus” esan zuela eta, berehala, beste guztiak aienatu zirela; bera, lurrera erorita, ahal bezala etxera itzuli eta kordegabetu zen.

Subertsio aire duten ekaitz gogoangarriak ere eragin zituzten, 1616ko idazki baten arabera:

La pérdida de la armada del cargo del general don Antonio de Oquendo en la Barra de Bidarte en Francia según lo certificó la dicha Maria de Zozaya que ellas con sus compañeras levantaron la dicha tempestad. (...) Y últimamente en la llegada del Rey nuestro señor en el puerto de Pasaje ahora dos años y medio, sobrevino de repente tal tormenta de aguas y viento que se ha dicho públicamente se juntaron cuantas brujas había en la comarca y levantaron de repente aquella tempestad porque el Rey no viese el canal de las dependencias, (...) porque luego al otro día hizo buen tiempo y sol (Caro 1975: 255).

Sorgin-ekaitz xumeagoen sinesteak iraun du Euskal Herrian, barnealdean zein kostaldean:

Otsagin (Nafarroan), orain hirurogeita lau urte, hiru sorgin izan ziren. (...) (Bat) hil orduan apezari ez zakon mirarik ere egiten. Hil zenean kaskilagar erauntsi handi bat izan zen. (Besteak) hil zirenean ere harri erauntsiak izan zirela (Azkue 1959: 385).

Lekeitioko arrantzaleak, orain hirurogei bat urte, itsaso zabalean ebiltzenez behintzat, ez eben sorginik izen honez aitatur: “pendulen kontrakoak” izaten zen euren izena. (...) Orain Hondarribiko arrantzaleek ez dute itsasoan sorginik aipatzen; eta itsasoan diren artean bere etxeetako emakumeak sorginen kontuak esaten ari badira, arrainik ez dela izango uste dute berek (Azkue 1959: 383).

Bretainian tornadoak egiten dituzte:

Tréguier aurreko itsasoan deabrua ibiltzen omen da “herensugeak” deitzen dituzten zurrumbiloen erdian; sorginek eginak eta zuzenduak direla ere esaten da (Sébillot 1968 I: 113).

X. PERTSEKUZIOA

Sorginkeraren zergatia esplikatzeko, Luneau & Thomas-ek Togo egindako lana zitatzen du Delumeau-k (1978: 372). Alegia, jendeen artean ekidin ezinak diren gatazkak isilpean geratzen direnean bortizkeriaren edo instituzioen bitarteko irtenbidea aurkitu gabe, azkenean irudimenaren aldera (des)bideratzen direla, eta salaketa bihurtuta adierazten ahal dira, “ifrentzuzko instituzioa” den sorginkeraren bidez: jendarteak hobendun bat seinalatu eta bere aiherkundera haren bizkar ematen du. Sinboloaren eraginkortasunak tirabirak moteltzen ahal ditu, eta aterabidea ematen dio agresibitate isilari: sorginen aurkako bortizkeriak, espontaneo baina arautuak, ihes-taparen funtzioa betetzen du.

Bai, baina badirudi sinesteak berak dakarkeela alegiazko sorginen jazarpena. Gertatzen den hondamendia ezin denean naturaltzat hartu, izu amorratua bilakatzen da sorginen ohizko beldurra; eta sorginik ez bada, talde baztertuetan bilatzen da aker pekatzailea, judu, legendun edo heretiko (Delumeau 1978: 131-134). Akusatuak erretzen dituzten su erritualizatuetan sakrifizioa igartzen da, izurriteetan pizten ziren “miseriako su” batzuetan bezala, abereak bizirik

erretzen zirenean (Frazer 1984: 157-183). Berpizkunde eta Aro Klasikoan, krisi sozio-kultural garaian, noizbehinkako zigorretatik jazarpen instituzional sistematikora pasatzen da eta, agintari erasotzaileen ideologiak bultzaturik, dogma bezala predikatzen da deabruaren manuz jendartea eta erligioa deuseztatu nahi dituzten sorginei gerla egin behar zaiela akabatzeraino (Bechtel 2019: 109, 224).

Fenomenoak Europa osoa ukitu zuen eta, Delumeau-ren ustez, Berpizkundeak herriaren eta jakintsuen artean sakondu zuen erreka izan zitekeen kausa: irakurgai eta ezagutza berriak metatu zirenean, letradunak ahul senti zitezkeen arrotua zitzairen kultur baserritarrak inguratuta zeudela ohartu zirenean. Eliteak, nekazarietatik urrundu arau, mesfidantza gero eta handiagoaz begiratuko zien haien praktikei, aiherkundez ere. Sorginkeriaren auziak nagusien defentsa izan ziren, eliteen etika ezeztatzen zuten praktika kolektibo zaharren kontrako erasoa (Delumeau 1978: 384). Pertsona modernoak asmatu zuen europar zibilizazioaren belus-iraultza egiten ari zen unean gertatu zen sorginen errepresioa, gogorarazten du Muchembled-ek, eta paradoxa hori ahalbidetu zuten mekanismoak bilatu ditu. Nekazariak hasiak ziren sinesten sorginak deabruzkoak direla eta ez zela sendatzaileetara jo behar erremedioen bila. Orduan, ondoez ekonomiko, sozial eta mentalak jotako jende kulpabilizatu horiei sorgina seinatu zien errepresioak biktima pekatzaile gisa (Muchembled 1987: 8, 160).

Sorgina ez zen pertsona baztertu bat, ez eta matxinatua ere, baizik eta berak neur eta uler ez zezakeen aldaketa bortitz baten biktima. Bi mugimenduen artean harrapatua gertatu zen: alde batetik, baserri eremuan emeki baina segurki aurrera zihoan konkista kultural, erligioso eta politikoa, hau da, akulturazioa; beste aldetik, nekazal munduaren aldakuntza sozio-ekonomikoa, bertako nagusigoaren banaketa berria burutuko zuena (Muchembled 1979: 19).

Cambrésis-ko 1664ko auzietako akusatzailleek diote akusatuak, txiroagoak izanki, saiatu direla beren gabeziatik ateratzen, magiaren bidez aberatsen ontasunak bereganatuz eta aberatsak pobretuz; sorginkeriaren nozioak borroka sozialaren molde bat estali duela sumatzen du Muchembled-ek (1987: 159; 1979: 37). Silvia Federici-ren ikerketak (2017) erakusten du pertsekuzioak misoginia areagotuz emazteen dohaineko lana ekarri zuela metaketa kapitalistara. Agintariek eta Elizak, beren aldetik, herritarrak xaxatzen zituzten sorginen aurka.

Alabaina, sendalariek bi partida zituzten: misteriozko gauzetan lehiakiderik nahi ez zuten erligio ofizialeko ministroak eta sendagintza arloan nagusitasuna bilatzen zuten medikuak.

Horiek hola, Muchembled-ek azaldu bezala, agintariek meneko zenbaiten adostasunaz jabetuak ziren. Senpereko jaunak eskaturik etorri zen Lapurdira Lancre epailea 1609an, herritarrak sorginez arrangura zirelakoan (Caro 1966: 220; Villeneuve 1983: 65). De Coster-en *Ulenspiegel-en legenda* nobelak azaltzen du nola gerta zitekeen holakorik. Katheline-k, auzo baten abereak sendatu ondoan, ezin du deus egin beste baten behia salbatzeko, eta aberearen jabeak, hirugarren auzo jelos batek akuilaturik, leporatzen dio sorginkeriaz hil izana; salatu zuten eta, herritar batzuen lekukotasuna bildu ondoan, Katheline torturatua eta kondenatua izan zen.

Sorginen sinestearen motibazioak bezala, pertsekuzioaren ibilmoldeak iraun du politika mota zenbaitetan. Arthur Miller idazleak, *Salem-go sorginak* antzezlanean, makartismoaren gehiegikeriak salatzen ditu, hala agintetik zetorren eraso nola herritar zenbaiten erreakzioa, beren burua salbatu nahiz, akusatuak izatetik akusatzaile izatera pasatu zirenak. Berrikiago, zapalgailu judizialaren pisua ikertu du Carlo Ginzburg historiagileak *Considerazione in margine al processo Sofri* liburuan (1991), eta Italiako tribunaletan Inkisizioaren manierak atxeman ditu, hau da, egiaztatu gabeko akusazioen onespina eta bidegabeko kondenak. “Sorgin ehiza” esamoldeak ez du aktualitatea galdu.

AKELARREAREN ITURBURU MITIKOAK

Sorginen pertsekuzio prozesuetan akusatuek egiten zituzten aitorpenak torturaren ondorio izan direla ez da zalantza handirik, eta akelarreez eman zituzten deskripzioak epaileek berek iradokiak zirela uste dute ikerle gehienek. Lancre epailea harritu egiten da gero, baizik eta istorio bera derasatela Italiakoek, Alemaniakoek, Espainiakoek eta Frantziakoek, akelarre berdinak egiten dituztela denek eta denek begizkoa jaurtikitzen (Caro 1975: 225). Istorio horien modeloa Frantzia iparraldeko Arras eskualdean aurkitzen da lehenengoz, 1459-1461 urteetako “Vauderie” heresiaren kontrako auzietan (Palou 1957: 57); eta handik landa aldaketa gutirekin errepikatuko da XVII. mende arte. Haren elementu batzuk herri tradizioko akelarretara pasatu dira: hegaldarazten duen ukendua, inarra gaineko joan-jinak eta deabru-buruzagiari sorginek egin omenaldia.

Halako irudien iturburua izan da askotan eztabaidagai. Sinestea arrazionalizatu nahiz, esan da haluzinogenoen erabilera erritualak ekarritako ikuskizunak izan zitezkeela; eta Castañedak baieztatuz geroz Mexikoko xaman yaki-en bidaiak eta begitazioak peyotl-ek ematen zituela, maiz ondorioztatu da gure kondairetako sorginen ukenduak akelarrearen lilurapena sor zezakeen drogaren bat izango zuela. Baina droga hori inork ez du aurkitu hemen. Batez ere, drogak ez lezake irudien sorburua argitu, eldarnioen edukia eta interpretazioa norberaren inguruko kulturak baldintzatzen dituelako (ikus Talayesva: 161, 461). Epaileen irudikapenak beren sineskeretan oinarrituak ziren, orobat epaituenak, eta bietan osagai amankomunak behar ziren. Ustezko sorginei aitorrarazi zizkieten akelarreen hainbat atalek aurrekari zaharrak dituzte, eta batzuk orduko herri sinesteei hurbil ziren. Berriagoa zen sorginek deabruarekin egindako ituna, Eliza-gizon eta legelari misoginoek apailatua. Jendartearentzat arrisku izugarria zela predikatuz beldurra denetan sakatu zuten eta heresien eta juduen pertsekuzio bortitzaren ildoan eraman zuten sorginena, haien batzarrei eman zizkieten izenek (sinagoga, sabbat) salatzen duten bezala.

I. SORGINAK ETA XAMANAK

Xamanak eta sorginak desberdinak izanki eta ontsalaz oposatuak ere haien egitekoak, zerbait antzekoa badute, bidaia miragarriak. Sistema oso garrantzitsua da xamanismoa;

gertakariei eragiteko eta zentzu emateko pentsatua da eta pertsonaren eta munduaren irudikapen berezia eskaintzen du (Perrin 1995: 7). Eritasuna arimaren lekutzeak ekarria delakoan, arima hori izpirituengandik berreskuratzea eta gaixoari berriz itzultzea da xamanaren lana: horretarako izpirituen mundura joaten da, lehenengoz bere inimizazioa burutzeko, gero sendagile lana egiteko. Eta beste munduan dabilen bitartean birloratua bezala dago, korderik gabe, “estasian” Eliaderen terminologian. Akelarrera joana den sorgina bezala.

Ginzburg-en iritziz (1992: 274) gure kultur ondarearen zati garrantzitsuak Siberiako eta Ipar Asiako xamanismoarekin zerikusia du. Estasiak, beste mundurako bidaiak, hilen prozesioak, maskaratuen ateraldiak eta sorginen animalia itxurak, zein bere aldetik eta bereiztuta ikertu dira. Aitzitik, horiek guztiak lotzen dituzten hariak txirikordatu behar dira, Europan jadanik errotuak ziren xamandar ezaugarri horietan txertatuko zelako inkisidoreen sorginen irudia. Arima pixti itxuraz gorputzetik urruntzeak dakarren estasia eta animalien gainean egiten diren bidaiak baliokideak dira sinbolikoki; eta holakoak dira sabbat tipikoan eta gure akelarre folklorikoan sorginek egiten dituzten joan-jinak.

Hilen troparen gidatzaile zen Odin-ek ere egiten zituen:

Odin itxuraz aldatzen zen: haren gorputza hila edo lo bezala zetzan bitartean, bera txori, piztia edo sugea zen eta han-hemen batean joaten zen herrialde urrunetara. Xamanaren bidaia oroitarazten du horrek, beste mundura joaten denean izpirituak bisitatzeko eta galdekatzeko (Lecouteux 1986: 177).

Holako ibilaldi bat kontatu zuen VIII. mendean Paulo Diakono idazle lonbardiarrak:

Gunthramnus erregea ehizan zebilelarik zuhaitz baten azpian lokartu zen. Lo zegoelarik, ahotik animalia tiki bat atera zitzaiola ikusi zuen haren ezkutariak eta zubi bat egin zion bere ezpataz, erreka iragan zezan. Piztitxoa mendi barru ra sartu zen, gero ber bidetik atzera etorri eta erregearen ahora sartu zen. Iratzarri orduan Gunthramnus-ek kontatu zuen zubi batean pasatuz mendi zulo batera sartu zela eta barruan altxor bat ikusi zuela. Mutilak ere kontatu zuen zer ikusia zuen kanpotik. Animalia bezala joan ziren zuloan barna eta altxorra atxeman zuten (Lecouteux 1986: 178).

Frantzian hau bildu zuen Sébillot-ek XX. mendearen hasieran:

Arima intsektu baten itxuran azaltzen ahal da. Gehienetan zomorro hegalduna da eta pertsonaren ahotik ateratzen da, hura lo dagoelarik. Menton eskualdean, “masca”ri (sorginari) ahotik ateratzen zaio bere bikoitia, tximeleta edo eulitzar itxuran, begizkoak egitera joateko; arima kanpoan den bitartean gorputza lekuz aldatzen bada, sorgina hiltzen da. (...) Bretainian sinesten dute hilen arima ahotik jalgitzen dela euli edo tximeleta itxuran (Sébillot 1968d: 332).

Klase horretakoak ziratekeen aurreko kapituluan azaldu diren zenbait sorgin: euli itxuraz haurrak hiltzen zituen Berastegikoa eta giltza zulotik sartzen zen Arkotxakoa. Pertsekuzioko prozesuan, Zugarramurdiko akusatuen auzian,

La mayor parte de los preguntados decían que dormían antes de salir al aquelarre, (...) y que las más veces por el aire, y una moza dice que iba volando en figura de mosca y otras de cuervo y la mayor parte que salían por resquicios o agujeros muy pequeños (Caro 1975: 267).

Tartean gogoratzeko da zomorroak sorginen ibilgailua ere direla euskal mitologian: euli itxura duten deabru familiariek beren jabeak airean eramaten dituzte; eta, besteak beste, inarrasustarrean gordetzen baitira, haiek dirateke holako aire-ibilgailuen “motorra” (ikus “Familiariak” kap.). Deabrua bera egon daiteke arimaren lekuan eta arima bezala atera deabrutuaren gorputzetik, norabait bidaiatzeko.

(Baxenabarren) Mendibe Ihalorreko etxekandere xaharra hiltzen ari, ezin hilez ari. Eta Ezterenzubin bazen Xurienia, Ezterengibel auzoan. Eta han bazen deabruaz poseditua gizon bat, eta gizon hura lokartu zen eta zortzi egunez lo, hila bezala. Eta iratzarri zelarik galdetu zakoten etxekoek:

- Non hintzen, madarikatia, zortzi egun horietan non ibili haiz?
- Ba, Mendibe Ihalorreko etxekandere xaharra hiltzerat zoan eta guretako zian, eta bagintian zazpi, haren inguruan, eramaiteko infernurat. Eta apez tzar bat jin duk eta harek konfesatu dik eta ebatsi (lapurtu): ebatsi diaguk eta zerurat ereman dik (Eñaut Etxamendik kontatua 1997ean).

Arimaren bidaia ez da baitezpada aipatzen:

(Baxenabarren) Landibarreko Dendaletxera joan zen gau batez mutiko bat hango nexkato batengana. Leioa jo zin (...) bainan nexkatoa ez zitzakozun (zitzaion) mintzatzen. (...) Sartu zun (zuzun) eta nexkatoaren ganberara joan. Ohean harrapatu zin, eta nexkatoa ez higitzen: hila bezala zun. Hilarendako utzi zin mutikoak. (...) Eta biharamunean (...) jakin zin alhorrean ari zela. Orduan sorgina zela izitu zun eta ez zen gehiago joan Dendaletxerat (1936an bildua, Barandiaran 1962: 16).

II. OSAGILEAK ETA ERIARAZLEAK

Sorginek eta xamanek beren jendartean dituzten eginkizunak desberdinak dira, alderantzikoak eskimalen ustez: lehenek animalia fantastikoak (*tulipak*) fabrikatu eta kalte egitera igortzen dituzte; eta xamanek, izpiritu batzuen laguntzaz, *tulipak* horiek deusezten dituzte (Quppersimann 1992: 172). Batzuk eta besteak bereizteko, irizpide hau proposatzen du Perrin-ek.

Xamanismoaren arabera zorigaitza esplikatzen da haren biktima diren jendeen eta haren eragile diren beste munduko izakien arteko harreman berezien bidez; eta xamanak bien artekariak dira. Harreman horiek “zeharkakoak” dira nolabait, bi mundu desberdinak lotzen dituztelako. Sorginkerian, aldiz, gaizkiaren iturburuaren (sorginaren) eta biktimaren (sorginduaren) arteko harremanak “barnekoak” dira, batik bat: jendeek (sorginek) dute gaizkia eragiten eta jendeek (sorgin-gabetzaileek) sendatzen, nahiz eta sorginek beste munduko laguntza jaso, deabruena eta izpiritu gaiztoena edo haien aliatuena (Perrin 1995: 82).

Azalpen honetan ez da ohartematen simetrikoak direla xamanek izpirituen mundura egiten duten bidaia eta sorginek akelarrera egiten dutena, beherago azalduko denez. Xamana bikoitza izan daiteke eta sorgin jokaera har dezake, bere onerako ahalak txarrerako erabiliz; bere taldearen etsaien aurka iharduten duen maneran, taldekideen aurka ere egin dezake, arimak

lapurtuz adibidez: pertsona osasuntsu bati arima kendu eta izpiritu gaiztoei ematen ahal die, haren trukez itzul diezaioten berak sendatu nahi duen eriaeren arima; eta umekien arimak ere har ditzake, bere paziente antzuei ekartzeko. Ekuadorreko Axuarren xamanek eritasunak kentzen dizkiete beren taldekoei eta auzo taldekoei bidaltzen: horrela etengabe ibiltzen dira honat eta harat xamanak bakarrik ikusten ahal dituzten gezi patogenoak (Perrin 1995: 77, 84). Mexiko Chiapasko Tzotzilak "santu hiztunak" ere aski anbiguoak dira:

Como los chamanes, los santos parlantes se ocupan principalmente de curar las enfermedades. Algunos dueños de santos parlantes de Zinacantan son también chamanes. (...) Como los chamanes, los santos parlantes no sólo hacen el bien, sino que tienen la capacidad potencial de causar daño, pues constituyen un canal de comunicación entre los mundos sobrenatural y humano. (...) Se consideran (los santos parlantes) particularmente eficaces para diagnosticar y curar casos de brujería en que la víctima ha sido vendida a la Tierra, pero los que no son miembros de la familia de la víctima temen que el santo pueda recobrar el alma de su paciente sustituyéndola por una víctima inocente que sea enviada a trabajar en las fincas subterráneas. Algunos también temen que los que poseen santos parlantes practiquen abiertamente la brujería, aceptando dinero para vender un alma al señor de la Tierra (Reifler Bricker 1989: 319).

Italian, sorginkiaz akusatu Friul-go *benandanti*-ek esaten zuten berak xaman onak zirela; Livoniako gizon batek 1692an aitortu zuen gizotsoa zela eta beste munduan borrokatzen zela deabru eta sorginen kontra, haiek lapurtu haziak berreskuratzeko eta atzera ekartzeko; horrela uzta bermatzen zuen eta gosetea saihesten (Ginzburg 1992: 149 eta 151, ikus beheago).

III. HILAK, DEABRUA ETA BESTE IZAKI MITIKOAK

Akelarrea ez da beste mundutik urrun. Inkisidoreen arabera deabruak beste izaki mitikoen antzera jokatzen du, ematen duen urrea ikatz bilakatzen delarik, Hondarribiko 1611ko auzian akusatu batek deklaratu zuen legez:

Que la dicha Maria de Yllarra (...) le dio una moneda de oro que parecía doblón, y habiéndola puesto en el seno al otro día halló en su lugar que era un pedazo de carbón (Caro 1975: 231, 218).

Berdin gertatu zen Gabon Gau batez Leitorea-n (Lecture, Gaskoinian): “meza tzarra” eman aurretik, deabruak ustel urrea eman zien ordainsaritzat sorginei (Bladé 2008: 320). Mitologian, urrea ikatz bilakatu edo ikatza urre, biak gertatzen dira, lehena maizago, Baltzolako sugearen edo Anbotoko Anderearen kasuan legez (Etxebarria 1995: 155 eta 286). Otsozelaiko laminek, lansari gisa, hautara eman zioten emaginari urre ala ikatz; ikatza hartu zuen eta gero urre bilakatu zen (Kaltzakorta: 68); ikatza bezala beste zerbait izan daiteke (Barandiaran 1984a: 113, 208).

Folkloreko deabruak oin anomaloa izaten duela azaldu da “Ezkontidea” kapituluan. Zugarramurdiko akelarrekoei, laminei antzera,

(Tiene los dedos) aguzados hacia las puntas, con uñas raspantes y las manos corvas como de ave de rapiña, y los pies como si fuesen de ganso (Caro 1975: 79).

Eta herrentasuna pasatzen die berarekin harreman dutenei, berdin Atsularri edo sorginei, gizon batek Lancreri aitortu omen zionez:

Que había estado dos veces en el sabbat sin adorar al diablo, (...) porque había hecho un pacto con el diablo y entregado la mitad de su pie izquierdo, con objeto de tener la facultad de curar y la libertad de ver el sabbat (...) sin ser obligado a otra cosa (Caro 1975: 190).

Logroñon auziperatu batek ere kontatu zuen deabruak hiru behatz kendu zizkiola oinetik, eta Salazar y Frias epaileak, buruargia baitzen, gaineratu zuen “(que) fue convencida de su mentira” (Caro 1975: 270).

Alegrantzia gutxi deabruarekin. Heriotzaren itzalak estaltzen du Inkisidoreen akelarrea, eta epaileek nekromantzia eta nekrofagia leporatzen zizkieten sorginei: hilarrietara joaten zirela, gorpuak lurpetik atera eta oin hezur eta kurruskak, sudurmintzak eta burumuin kiratsak kentzen zizkietela, berek jateko eta deabruari emateko; eta beren ahaide hurbilenen hilkiak bilatzen zituztela akelarrean jateko, parte bat errea, beste bat egosia, hirugarrena gordina, eta bihotza deabruak jaten zuela (Caro 1975: 108 eta 117).

Airean pasatzen den hilen tropa andre batek eramaten du Normandian eta, norbaitek eskatzen badu “ehizaren partea”, jende hilki eta hezurak jaurtikitzen dizkio tximiniatik (Sébillot 1968 I: 174). Hilen tropa eta hegan ibiltzen diren sorginak berdindu egiten dira maiz (Thompson-en motibo E 501.3.6 “Witches in Wild Hunt”). Caro Barojaren ustez (1966: 164) adierazgarria da Alemaniako sorginak Walpurgis gauaz biltzea, hilen arimekin oso lotuak diren Walkyriak bezala.

Antzinateko Hekate sorginen eta hilen anderea zen bezala, deabrua sorginen eta infernuko kondenatuen jauna da. Haren eskua gorpu bat bezain hotza da, eta kandela berdea daramaten lagunen artean ibiltzen da – kandela berdea arima herratuen ezaugarria da Bermeon (Erkoreka 1986) eta Anbotoko Anderearena Zeberion (Etxebarria 1995: 168). Sorgin, deabru eta Anderearen moduan, ekaitza egiten ahal dute zenduek, bereziki ezbeharrez hil direlako Ehiztari Beltzaren tropan ibiltzen direnek.

Europako zenbait tradizioen arabera, hilen egonlekuetan egiten dira sabbatak. Galloway zela horietako bat, esaten zuten Britainiar batzuek, eta Galloway hori Galilea zen, hilak jumatuko diren lekua (Sébillot 1968 II: 149). Beherago azalduko den Orozkoko akelarrea “Josepetako landan” ospatzen da, hau da Josafateko landan. Preseski, XVI. mendearen bukaeran, Friul-go *benandante* batek epaileari kontatu zion Josafateko zelaian izana zela eta dena arrosa usaingarriz betea zegoela; gogoratzeko da *benandanti*-ek Josafaten berreskuratzen zituztela sorgin gaiztoek lapurtu eta hara eraman haziak (Ginzburg 1992: 164).

Joel-en profezia batek dio Jerusalem eta Olibamendiaren artean den Josafat-en bilduko eta punituko dituela Jainkoak Israelen etsaiak. Kristau eta musulman tradizioen arabera, hantxe egingo da Azken Judizioa. Josafatez oroitzen zen Senpelar Azken Judizioa aipatzerakoan; eta Etxahun “Ahaire deliziuz huntan” kantorean. Hil-hurren denak hitz hauekin agurtu ohi ditu bere lagunak: “Adios, Josefatako zelaira arte” (Azkue 1959: 228). Zeberion diote zelai hartan ordaindu beharko direla hemengo “mantzinkeriak”: “zeurea ez den soroko mimen bat ostuten (lapurtzen) badozu ere, han, Josafat-en landan, mimeagaz beragaz ematen omen dizute, askatu arterainoko lepokoak” (Etxebarria 1995: 230). Deabruak ere mimenaz eta arantzez zigortzen ditu zuzen ibiltzen ez diren sorginak.

Gainontzean, Zugarramurdiko sorginei deabruak esaten omen zien infernuko suek ez zutela akelarrekoek baino gehiago erretzen, ez batere minik ematen (Caro 1975: 83). Herri tradizioan, teologoen infernu ikaragarriaren kontrapuntua da akelarre alaia, oinazetik gabea, dena kanta, dantza eta jaia. Zuberoako batean deabruak segurtatzen zuen infernuan oro aberats eta zoriontsu bizi zirela, eta sorginek abesten zuten: “Jauzi, jauzi Maria! Etxean zaharra, larretan

gazia” (Cerquand 2017: 45d zb); Zestoan, “Egunez zahar eta gauez gazte” (Barandiaran 1960: 90); Abaurrepean: “Etxean zahar eta kanpoan gazte” (Azkue 1966: 238); eta Zugarramurdin, “Aquí mozas y en casa viejas” (Caro 1975: 88). Hilan munduan zahartzerik ez, naski eta, beherago ikusiko denez, paradisu aire bat hartzen dute sorginen jaialdiek, are gehiago zuhaitz baten pean kokatuak direnean, Genesi-ko Edem-aren irudi-antza.

IV. AKELARREA: ENTZUNAK ETA BIZITUAK

Jazarleek eratu zuten deabruzko sabbata, ez ordea haren osagai guztiak. Hegalaldiak eta ukendu magikoa ezagunak ziren Antzinatean, Caro Barojak (1966: 57) Apuleio eta Luzianoren aipamenak ekartzen ditu, nola magialari batzuk koipe likatsu batez igurtzi eta txori hegalarik bilakatzen ziren; berriz, garaiko jauregi eta elizako jaietatik hartuak zirela Lancreren idazkietako sabbaten ezaugarriak, aldarea, kandelak, intsentsua... Akelarreko zeremonia batzuetan deabru-meza ikusten du Palouk (1957: 28), ifrentzuzkoa: atzekoz aurrerako otoitza, ostiaren ordezkari arbi beltza, meza emailea, barur egon ordez, apairu oparoa eginda izan beharra... denak eihar-mezaren osagaiak (Sébillot (1968 IV: 238), denak kristau sineste eta erritoetan errotoak.

Antzinateko Diana edo Andere Onen gurtzarekin lotu zituzten inkisidoreek sorginen bilkurek (Caro 1966: 88, 163). Paganismoa eta folklore germanikoa hautematen ditu Palouk (1957: 69), walkyrien kabalkadak, Jondone Joaneko bezpera eta maiatzaren leheneko *Walpurgis* gauan sorginek Brocken mendian egiten dituzten batzarrak. Ginzburg-ek (1992: 90, 148) herri kultura eta inkisidoreen estereotipoak bat eginda ikusten ditu sabbata osatzen duten elementuetan; sorginen bidaiek, bilkurek eta itxuraldaketek, orok lukete jatorria Eurasia osoan hedatzen den substratu mitiko zabal batean, hartan sartuak direla biziak haraindik mundura eta hilek honaindikora egiten dituzten bisitak, Hilan Troparen edo Ehiztari Beltzaren mito herrikoiaz irudikatuak (ikus Arana 2015: 26, 65). Teoria horrekin ados ez izanagatik, Munchebled-ek (1987: 229, 234) onartzen du sorginen hegaldiak zerikusia duela Hilan Troparekin, halere azpimarratuz sabbatak ez duela zerikusirik kultu ez-kristau antolatu batekin, ez haren hondar mitikoekin ere.

Nago ez bai horretan ez ote den ‘mitiko’ hitza esanahi desberdinetan erabiltzen; ausaz Munchebled-ek ez ditu mitotzat hartzen ahozko kondaira folklorikoak. Ehiztari Beltza mito bat da, haren tropa irudikatzen zuten maskaratuen ateraldiak erritoak ziren, eta hargatik ez gutiago

folklore. Orogen buru ezerk ez du galarazten sineste horiek tradizio klasiko idatziari uztartu izana. Sorginen andereak, hala Antzinateko Diana edo Herodiade nola inkisidoreen idazkietako Holda, Bensozia, Abundia eta Andere Onak, ugaritasun dibinitateak ziren, haietarik batzuk orduko herri tradiziokoak. Halaber XX. mendean Italiako Befana, Jurako Tante Arie edo Tiroleko Perchta, Eguberri garaian etxeak bisitatzen dituzten lamiak (ikus "Laminak" kap.).

Sorginkeriaz akusatuek aitortu izana goianderea gurtzen zutela edo harekin bilkurak egiten zituztela ez da harrigarria. Euskal Herrian oraintsu arte kontatu da laminak tximiniatik zetoze eta etxekandere batek ematen zieten jatera, eta etxekandere bat tximiniatik joan zela laminek antolatu akelarre moduko jaira. Holako mitoak akelarre istorioen jatorri bat izan zitezkeen.

Gero, sekula bizitu ez baina benetan gauzatua bailitzan kontaturik entzun den erritu bat sinesgarria da, protagonista ezagunak baditu eta iragan ez oso urrunean kokatuak. Haren deskripzioa kondaira mitikoa da, eta ahozko transmisioan laster pasatzen baita "urliak kontatzen zuen" esatetik "urliari gertatu zitzaion" esatera eta, batzuetan, "niri gertatu zitzaidan" esateraino ere (ikus "Berraragitze" kap.), oso litekeena da aitorrarazteko torturatua den batek bere bizkar hartzea beste norbaitek egin omen duena eta bere burua mito baten protagonista egitea.

V. SORGINBERRI ETA ZUHAIZPEKO SEKRETUAK

Inkiszioaren akelarrean tradizioko elementurik bada, eta folkloreko akelarreetan ere bada Inkiszioarenetik. Euskal Herrian bi tipo dira hedatuak, "Sorginberri" eta "Zuhaizpeko sekretuak" deituko ditugunak. Lehenaren egitura 1610eko Zugarramurdiko sorginen auzian aurkitzen da: sorgin batek akelarrera eraman zuen lagun bat eta hark, zeremoniaren erdian hango buruzagia ikusirik, "tan feo, y que le besaban debajo de la cola, (...) santiguándose dijo "Jesús", y que luego al punto todo se hundió y desapareció" (Caro 1975: 101). Pasadizo hau tipo bateko kondairerako une gorena izaten da, oso arrakastatsua, eta beste zehaztasun iragarriez apaindurik. Hona Orozkoko bertsoa:

Bidaiari batek ostatuan pasatu behar du gaua eta, beste lekurik ezean, sukaldeko zizeiluan etzan da. Erdi lo denean, etxekoandre zaharra heldu da: supazterreko lauza bat

altzatu, handik lapikotxo bat hartu eta barruan zeukan ukendu batez ipurdia igurtzi du. Gero, “Sasi guztien ganeti eta laino guztien azpiti” esanda, kezulotik abiatu da akelarrentz. Mutilak dio: “Ba, neuk bere egin behar diat”. Ukenduaz igurtzi, bai, baina erdi lotzat eta, alderantziz esan du esatekoa: “Laino guztien ganeti eta sasi guztien azpiti”. Eta lainoa den lekuan gainera eta sasia den lekuan azpira, dena eratzita heldu zen Josepetako landara. Hantxe dira sorgin guztiak dantza eta dantza, beren buruzagiaren inguruan.

Gero buruzagi hori fondo gabeko aulki batean jarri da eta denak pasatzen zaizkio azpitik, ipurdian muñ egiten. Gure bidaiaria zapataria zen eta, pasatze orduan, eztenaz jotzen du. Eta buruzagiak oihuz: “Alto! Alto el baile! Hemen baten batek bizarrak latzak dituz!” Ordu berean denak aienatu ziren eta sorgin berria, bakarrik eta arantzen artean aurkitu zen; han egon zen eguna argitu arte eta xitun-xitun joan zen etxera (Sofi Etxebarria Zaballak 1985ean kontatua, moldatua, Arana 1996: 200).

Beste bertsioetan, akelarreko buruzagia akerra edo deabrua izaten da. Leintz ibarreko bertsio kasik berdina dakar Azkuek (1959: 389). Kortezubikoan Lusiperrek eztenkariari diotsa: “Sorginbarri, bizarrak gogorak daukazuz”; besteak erantzun: “Jesus eta credo, qué culo tan negro!”, eta “Jesus” hitzaz akelarrea sakabanatu zen (Barandiaran 1960: 99). Ligin, ziztakoa sentitu-eta deabruak galdegin zuen: “Nor zen hori? - Billankozeko (Bidankozeko?) arotza, erantzuten diote. - Errakozie geroko jinaldiko bizarra egin dezan” (Barandiaran 1973a: 509).

“Zuhaizpeko sekretuak” istorioan ere azaltzen da akelarrea. Italian, Beneventeko sabbat ospetsuak intxaurrondo baten pean biltzen omen ziren, eta atsoen kontu zaharretan oinarrituak ziren, Grillandus-en ustez (Caro 1966: 140). Hona Orozkoko bertsioa.

Behin Josepetako landan - ez dakit ba nik non den, pagoak behintzat egoten ziren... Baten bat joan zen, herri batetik bestera, eta gautu egin zitzaion han eta, “Ai ni hemen, piztiak gaitio, non egongo naz orain?... Pago ganera!” Igo zen eta han geldi-geldi-geldi. Sorginak etorri eta hasi ziren zuhaitz horren azpian beren dantzak eta komediak. Eta elkarri esan zioten:

- Badakin, erreginarene alaba gaixorik zegoen, eta inork ezin din osatu.
- Zer dauka, ba?

- Ba, elizara joan zunan eta ogi bedeinkatua hartu eta jausi lurrera; eta, ez makurtzearren, han utzi, zapoak jan eta saman daukala. Eta ez dun osatu bere egingo erreginarene alaba.

Eta gizonak pago gainean denak aditu eta isilik. Egunsentia baino lehenago sorginak danak zabaldu ziren eta bestea pozik. Herrira joan eta: “Erreginarene alabea gaixorik dagoela? - Bai, eta ez dago medikurik osatuko duenik. Txarto dago - Neuk osatuko neuke - Ene, ez dakit zer irabaziko zenuken”.

Elizara joan, harlauza bat altxatu eta han zegoen zapotzar hori. Hil, ogi bedeinkatua atera eta gaixoari eman. Osatu eta eman eutsien dirua hareri!...

Gero besteren batek aditu zelan aberastu zen eta: “Neuk bere osatuko banu holakoren bat?” Eta pago gainera. Heldu dira sorginak:

- Hemen zeozer pasatu zunan lehengo egunean: erreginarene alaba hil behar eta osatu dun; baten batek entzun din...

Denak gora aditu, eta han zegoen bestea. Orratzak hartu eta pika eta pika eta pika, harik eta zoruan hilik botatzeraino.

Eta zelango erromeriak egiten ei zituzten, zelango dantzak eta komediak! (Sofi Etxebarria Zaballak kontatua, laburtua, Arana 1996: 200).

Anitz dira istorio honen bertsioak: “Traidore punitua” (Cerquand 2017: 45 zb), “Sorginak akelarrean” (Webster 1993 I: 63), “Bi mandozainak” (Webster 1993 II: 31). Azkuek (1996: 295) Gorozikakoa jaso du, eta Barandiaranek (1960: 90-96) hainbat lekutan, Agurainen eta Orozkon, besteak beste. Aarne & Thompson-en katalogoan agertzen da (“Two Travellers”, T 613), eta Frantzian animaliak izan daitezke sekretuaren jabeak (Sébillot 1968 I: 298). Bertsio batzuetan zubipe batean biltzen dira sorginak. Cerquand-en alearen izenburuak nabarmenki adierazten du protagonista baten gaiztakeria baita ondoriozko bukaera moralista; Aguraingoan, meza entzuteagatik berandu egin eta gautu baitzitzaion mandazain sariztatuari, ikasbidea da: “Por oír misa y echar cebada no se pierde la jornada”.

Bi kondaira hauetan akelarre aurretik protagonistak lotzat edo logura egoteak oroitarazten du Gunthramnus erregearen loa arima bidaian den bitartean.

Ziztakoak behin eta berriz etortzen dira akelarre kontuetara. Sasipetan ibili eta, dena eratzita heldu zen Josepetako jaira Orozkoko sorginberria eta, dantzaldia barreiarazi ondoan, arantzen artean geratu zen; Zugarramurdikoa Berroskoberro deitu zelaian ageri zen (Caro 1966: 226). Orozkoko sorginek orratzen ziztaz hil zuten diruzalea; eta Webster-en bertsioak “sasiz

sasi, berhoz berho, laharrez lahar, othez othe, zirripo zarrapo” erabili zuten intrusoa. Deabruak berak zigorrazten ditu Zugarramurdiko sorginak “con unos manojos de mimbre retorcido, o con unos espinos muy ásperos” (Caro 1975: 96). Sorginberriak eztenaz jotzen du deabrua eta hark bizarra dela uste du: zertzelada esangarri bezain komikoa, ezagun delarik giza-sinbolo eta atributuak sorginen antidoto direla (Arana 2000: 107). Inkisidoreek, berriz, ziztadak sentitzen ez diren gorputz unean bilatzen zuten deabruaren marka (Caro 1966: 217).

VI. ANBOTOKO ANDEREA ETA SORGINAK

Akelarre tipikoaren sorburuan bi irudi bederen izan daitezke: alde batetik, izaki mitikoek beren artean egiten dituzten jaiak eta dantzaldiak eta, bestetik, sorginek lamien edo Andere Onen inguruan egiten dituzten bilkurak. Bietan hilen mundua sumatzen da. Eskozian XVI. mendean, ustezko sorgin batzuek deklaratu zuten:

Alison Peirsoun recibía las visitas del fantasma de un pariente muerto. Este la llevó a donde se hallaban las buenas hadas y la reina de los elfos (...) que le permitían asistir a la fabricación de sus ungüentos: con ellas recogía ciertas hierbas al salir el sol (Caro 1966: 166).

Inkisidoreen iritziz ere ezberdinak dira Diana edo Holda bezalako andereak eta haien debotoak diren sorginak – natura gaineko izakiak batzuk, besteak mundu honetako jendeak. Aldiz, Godelmann jurista demonologoak, XVI. mende berean, “lamiae” deitzen zien sorginei (Caro 1966: 163). Biak berdintzen dituen joera nonahikoa eta iraunkorra denez, aldizkatu egiten dira haien arteko bereizteak eta batzeak:

La creencia en una vieja divinidad protectora de las brujas ha estado extendidísima en Europa y (...) ha perdurado algo hasta nuestros días o hasta hace no mucho: a veces, según las tradiciones populares, las reuniones de las brujas mismas se confundieron con reuniones de seres míticos (Caro 1966: 163).

Barandiaranen ustez, Gorbeiko Supelegorren bizi diren sorginen eta laminen burua Anbotoko Anderea da; Aian sorginen nagusitzat daukate eta leku batzuetan “Anbotoko sorgina” deitzen diote (1960: 82 eta 88). Caro Barojaren ustez badauka inkisidoreen Dianaren antza (1966: 188, 293; 1975: 13), eta sorginen ugazabandrea izateko tankera ere, ekaitza egiten baitu. Gainera, 1500 urtean, Anbotoko sorginen auzia egin zen. Baina, inon ez da azaltzen auziperatuak Anbotoko Anderearen lagun edo gurtzaileak zirenik eta, gureganaino heldu diren sorgin istorioetan behintzat, ez da Anderea aipatzen. Arantzazun, bai, bada hein bateko lotura. Fray Juan de Luzuriagak XVII. mendeko testu batean dioenez, sorginkeriararen aurka egindako misio baten kari Ama Birginak sorginak konbertitu zituen, baita deabruaren menpe zeuden haurrei ageri, esanez:

Ene seme-alaba txipi laztantxoak, ofizio zital hori utzi egizu, bihurtu zaitez Jaungoiko Poderosoagana kristau onak bezela, sinisten dezula Jesu Kristo Kriadore Redentoreagan, eta haren fede santa katolikan, Eleiza ama santuak sinesten agintzen dituan moduan (Carok zitatua, 1975: 290-296).

Luzuriagak dio Arantzazun jende asko damutu zela eta hurrek egiaztatu zutela Ama Birginak hitz egin ziela, euskaraz. Bestalde, XX. mendean jaso kondaira baten arabera, Arantzazuko Ama Birginak Anderearen lekua hartu zuen:

Se cuenta que la Dama de Amboto se encerró en la profunda sima de Aloña, causando una sequía pertinaz de tres largos años, que asoló nuestra tierra; hasta que la Virgen tuvo en Aranzazu un techo donde guarecerse del agua que abundante quería llover (Barandiaran 1961: 31).

Ama Birginak era berean garaitu baitzituen Anbotoko Anderea eta sorginak, bi gertakariak baturik azal litezke eta akelarre gisa irudika Anderearekiko balizko bilkurak, hura deabruzeko ahalegina egiten zen ingurumenean. Horiek hola, folkloristek bildu datu zenbaitek ulertzera ematen dute Anderea nolabait gurtua izan dela eta eguraldi egokia erdiesteko opariak eramaten zizkiotela bere harpera (Barandiaran 1984a: 135; Etxebarria 1995: 232). Baina hortik akelarrera tartea bada eta, nik dakidanez, ez da Anbotoko Anderearen inguruko akelarrearen berri herri mitologian. Osterantzean, Andere hori ez da jendekina edo batzar zalea izaten: bere mendiko harpera sartzen denean ez omen du inguruan inor ikusi gura, Durangon entzun zuenez Eulali

Bilbao orozkoarrak (Arana 1996: 287); haren izeko Juana Larreak ere Etxeberriari kontatu zion (1995: 250) aitzak Gorbeian ikusi zuela Señorea pasatzen, oihuka “Ni bakarriik!”.

VII. LAMINEN DANTZALDIAK

Kondaira askotan azaltzen dira izaki mitikoen bilkurak, deabrurik edo akerrik gabeko jaiak. Zuberoako Mendi herrian, “aste oroz mairiak eta laminak biltzen zütüzün libertitzera Mendiko landala” (Cerquand 2017: 57 zb). Mendiben (Baxenabarre) laminak argizagi zuritan dantzatzeko zuten (ikus “Laminak”). Gaskoiniako Zazpi Andereño Ederrak, urte osoan latsagi handi bateko urpean egon ondoren, Jondone Joaneko gauerdian ateratzen ziren, urre eta zilar jantzita, egunsentira arte dantzatzera sahas barne-huts baten inguruan; behin, han zebilen desertore batek haien “ihihi,ahaha” entzun eta sahasaren barruan ezkutatu zen; laster lamiak kantuz hasi ziren “Napoleon garaitua dela”, eta mutila, pozik, etxera itzuli zen zazpi urtez sasian herratu ondoren (Bladé 2008: 340). Sébillot-ek ez du eragozpenik lamina dantzariak eta ninfak alderatzeko:

Hainbat legenda xarmantek lamiak erakusten dituzte Antzinateko ninfak bezala, irradan dantzatzeko hilargiaren argi gozoan edo egunsentian, oihan bazterrean eta ihintzaz heze belardietan. (...) Haizeak uhinka hedatzen ditu haien adats luzeak, eta haietarik bat, buruan urrezko koroa daramala, borobilaren erdian egoten da. Josteta horiek eteten ausartzen den ezikasía, handik kilometro batera egotzia izango litzateke, lapar eta arantzeta (Sébillot 1968 I: 201).

Dantza egiten dute sorginek ere eta parte hartzera gomiatu edo behartu ohi dute ondoren pasatzen dena; gero, hura zeinatzeko denean, denak barreiatu eta bakarrik gelditzen da ibiltaria (Barandiaran 1984b: 59; Azkue 1959: 384). Orozkoko istorioetan, laminek dituzte akelarre moduko jaiak egiten. Dimako Petralanda (Bizkaia) sorginen biltoki ezaguna da, baina iturriko laminak ere biltzen omen ziren han (Barandiaran 1984b: 88). Laminen eta sorginen dantzaldien parekatzeari esplikazio hau eman zaio Guernesey anglo-normandiar uhartean:

Guerneseyko legenda baten arabera, megalitoetako eta harpeetako lamiek, beren egoitzak eta dantzalekuak sorginek hartu zizkietela ikusirik, (...) bere buruaz beste egitea erabaki zuten (Sébillot 1968 II: 239).

Laminak eta sorginak nahasteko joerari arrazoi historikoa ere eman zaio:

Zenbait legendetan, akelarretara joaten dira lamiak dantzatzera; erran nahi baita, kristau madarikazioaren eraginez erdi sorgintzat joak direla (Sébillot 1968 I: 202).

VIII. AKELARREA AKELARRE

Konklusio moduan esan daiteke inkisidoreen akelarrean tradizioko hainbat osagai badirela, hala beste mundurako bidaiak nola izaki mitikoen dantzaldiak eta haiekiko bilkurak, guztiei deabruaren inguruko konspirazio goibela gaineratuta eta horren araberrako kodeaz interpretazioa eginda. Sabbath horren irudia jazarleek eratu eta jendartean sarrarazi zuten, sorginen ikara sustatzeko moldean. Alderantziz, akelarre herrikoa, inkisidoreen kopia bada ere, desberdina da: deabru desarmatua (edo kendua) erakusten du eta umore edo jai giroari ematen dio garrantzia. Gisa guztiz:

1) Akelarreak errito irudikatuak dirateke, ez praktikatuak, eta haien deskripzioak kondaira mitikoak, ez historikoak. Mitoak egiazki gertatuak bailira kontatzen direnez, haien sinestetik datorke akelarreak benetan egin izan diren ustea. Jazarleen hitza beste arrazoirik ez dugu benetako gertakarietan oinarrituak direla pentsatzeko; nahiz eta, mitoen elementu asko errealitatetik hartuak diren modu berean, akelarreko zeremonia batzuek ere egiazko jaiak edo erritoak antzeztzen dituzten, maiz inbertituak (ifrentzuzko meza).

2) Sorginkeriaz akusatatu eskoziar batzuk Andere Onekin biltzen omen ziren. Euskal Herrian, basoko laminen jaietara joaten direnak etxeko tximiniatik abiatzen dira; baina orozkoar batek ez die sorgin deitu nahi akelarre tipikoa den Josepetako landako festazaleei, argudiatuz “laminak gehiago egoten direla jenteagaz, ez daudie (dute) kalterik egiten, sorginek bai (...) Sorginak diraz

dañuinoak”. Dena dela, nahitara edo nahi gabe holako ospakizunera gerturatzen den intrusoak ez da beti zigorgabe itzultzen.

3) Beste kondaira multzo batean, laminak dira tximiniatik etortzen, gizonen isilean etxekandereek supazterrean prestatzen dituzten txirimartxo edo askarietara. Bertsio gehienetan lamina horiek eskale irrizkinak dira, beste batzuetan etxeko aberastasuna sustatzen duten gomitak; etxeko jaunak lamina zauritu-eta, holako bisitak bukatzen dira eta etxea peko errekarara joaten da (Arana 2000: 66). Sorginberrik sorginak bezala, laminak uxatzen dituzte gizonak.

Akelarrearen hariak munduko kultura askotara luzatzen ahal dira, Ipar Asiako xamanismoraino, Ginzburg-en ustez. Sorginen hegaldiak, arimen bidaiak eta ondoriozko gorputzaren loa ezagunak dira hemen. Baina sorginak ez doaz xamanak bezala herrikideen osasunaren bila, alderantziz, ez dute osasun ekarle izan nahi: zuhaizpeko dantzariak, ohartzen direnean norbaitek haien sendabide sekretua erabili duela, susmagarria hiltzen dute.

Bestela, sabbateko kideen zitalkeriak inkisidoreen idazkietan daude batik bat, azken mendean bildu diren akelarre kondairetan baino areago, horietan alde irrigarriei ematen zaie lehentasuna. Sorginberriren istorioko “ipurdian muñ” pasadizo ospetsua oso adierazgarria da. Epaileek sorginei seriozki leporatzen zieten *osculum infame* hori hoben larria zen, deabruarekiko menpetasun seinale gorena. Herri tradizioak deabruari garaitzera eta preziorik ez duen barre aldera bideratu du. Halere, durduzagarria da folklореko akelarrea, fortuna bezain itsua, bederen kondairei asmo moralista nahasten ez zaienean. Haraindiko mundua ez da gauza segurua, han osasuna eta aberastasunak biltzen ahal dira, edo berdin herioa.

PRAKAGORRI FAMILIARIAK

Gure mitologiako izaki xeblegreenetakoak dira familiariak eta hots handia daukate herri batzuetan. Orozkon gogotik gogoratzen dituzte, eta herri horretan bilduak dira hemen aipatuko diren kontu asko. Aldiz, auzo herrian, Zeberion Etxebarriak egin duen bilduman, ez dira azaltzen (1995). Eta, oro har, gutxitan izan dira aztergai.

Sorginen zerbitzari eta bidai-eramailatzat hartzen dira usu familiariak:

Se halla divulgada la especie de que las brujas de toda Germania, después de hacer su unto, son llevadas en cortísimo tiempo, durante la noche de las calendas de mayo al monte llamado Blocksberg (orain Brocken) y Heinberg, (...) parte por sus demonio familiares y dilectos, que adoptan la forma de machos cabríos, puerco, ternero y otros animales semejantes, parte sobre horcas y báculos, pasando luego toda la noche en juegos, comilonas y danzas con sus amantes (Caro 1966: 164).

Euskal Herrian, beren nagusiarentzat egiten dituzte lanengatik ere ezagunak dira. Haien ezaugarriak laburbiltzen ditu Barandiaranek:

Las extraordinarias virtudes atribuidas a las brujas, se supone que proceden o bien de la fuerza mágica de ciertas unturas y frases, (...) o bien de ciertos animalitos u hombres minúsculos que en todo les ayudan y sirven. (*Ondoren haien izenak aipatzen ditu: ikus beherago*).

Los brujos los llevan consigo en una alfiletera. En Añes (Aiara) los llevan en el mango de una hoz. Si se rompe el mango de la hoz, desaparecen ellos.

En Munguia (Bizkaya) dicen que los “prakagorri” se recogen cierta noche del año (...) en el monte Sollube, con solo tener abierta una alfiletera.

En Añes creen que, si la noche de San Juan se recoge la flor de helecho, se conocen los “prakagorri”.

Según datos de Artaza-Lakozmonte (Araba), se cogen a las doce de la noche de la víspera de San Juan.

En una leyenda de Zarauz se dice que antes los vendían en una tienda de Bayona por media onza. Servíanlos en alfileteras. Cada una de éstas contenía cuatro hombres muy pequeños, casi imperceptibles, de figura de diablo, vestidos de calzones rojos.

En Cortezubi me decían que al vender los “prakagorri”, se debe de hacer con ganancia. Añadían que tales extraños seres son de forma de insectos (Barandiaran 1960: 105).

I. ZER ETA ZERTARAKO

Izen anitz ematen zaie familiariei eta eskuarki pluralean. Ezagunenak, “galtzagorriak” Gipuzkoan, “prakagorriak” Bizkaian, eta hor bereziki, “famerialak” “pamerialak”, “famerijelak” edo, Orozkon, “jamerilak” (Azkue 1959: 371; Barandiaran 1960: 105; Arana 1996: 832).

Osterantzean, “los enemigos” Arbeizan; “los enemiguillos” Añesen, “bestemutilak” Gernikan; “gaizkinak” Bedian; “autzek” Zenarruzan; “patuek” Ibarrurin; “aidetikakoak” Saran; “aiarrak” Lapurdin, “ximelgorriak” Abadianon; “etxejaunak” Ithurrotxen (Barandiaran 1984: 126; 1984b: 117). Lhanderen hiztegian (1926) “aiharra-haioak” (“aiharra” deabrua da zubereraz).

Itxurari erreparatuz, “mamarroak” Orozkon, “mamurak” Lesakan, “mozorroak” Albisturren (Barandiaran ibid.); Zuberoan “ili (euli) langileak” (Cerquand 2017: 65 zb).

Horietaz gain, izen ez-espezifikokoak dituzte Orozkon: “sorginon indarrak”, “sorginak”, “laminak”; “deabruak” ere askotan, “espirituak” batzuetan, “parte-txarrekoak” eta “beste mundukoak”; eta, aski ez balitz, izen orokorrakoak ere ematen zaizkie: “zerok”, “gauzok”, “aparejuak”, “katxarrok”, “trasteok”, “bitxok”; berriemaile batek deiturak metatu zituen: “laminak edo zertzuk... beste zerok, demonio edo deabruak, sorgin edo deabruak”.

“Aidetikakoak” izena ondo doakiela dio Barandiaranek (1973a: 478), airean ibiltzen eta airean eramaten dituztelako gauzak eta jendeak. Intsektu hegaldun irudia ematen zaie maiz: euliak, Zuberoan eta Orozkon, baita zorriak, erleak; bestela tximeletak edo inurriak: “sarreran inurriak dirudie, hain dira txikiak!, urteeran barriz soldaduak langoxeak, kaltza gorridunak” (Azkue 1959: 302 eta 371). Bargetako Joanesen “enemiguillos” beltzak dira,

de forma indefinible y del tamaño de un mosquito. Salen precipitadamente en cuanto les destapan la caja donde se hallan, y revolotean velozmente sobre la cabeza de quién los posee y preguntan y esperan con gran impaciencia algún mandado (Barandiaran 1973a: 479).

Gordetzen diren ontziari erreferentzia eginez, “orrastokikoak” dira Murelagan, “orratzuntziak” Baztanen (Azkuek 1959: 371). Gorokizan diote: “(Sorginek) orratzontzian daukez euren eskubideak”; eta Zeanurin, “orratzontziko sorginak txikerrak izaten dira” (Azkue 1959: 379 eta 385). Orozkon jostorratzontzian, intxaur azalean, kajatxu edo botila batean edukitzen dituzten; Bargotako Juanis-ek, bere makilaren tutuan (cañute) (Barandiaran 1973a: 479); eta Orixek aipatu “izugarriak”, arto txurtenean (*Euskaldunak*, 373).

Zaila da familiariez jabetzea eta haietaz gabetzea. Elorrion, “norberak daukazan pamerailak saldu gura dituanak ez dau eurakatik zuriko bat baino gehiago eskatu behar” (Azkue 1959: 371). Besteetan, alderantziz:

Dícese que tales enemiguillos se adquieren en la ermita o iglesia de Santiespiritu en Francia. Se pueden revender, pero ha de ser a precio más subido que en el que fueron comprados. La diferencia ha de ser, por lo menos, de un maravedí. También pueden ser donados (Barandiaran 1973b: 57).

Orozkoko Sofi Etxebarriak esan zuenez, “donatu egin behar diraz horreek, (...) saldu bere ez”. Erleak ere ezin dira ez saldu, ez erosi, “zerbaiten ordezt hartu bai” (Azkue 1959: 431). Donoztirin (Baxenabarre) diote erleumea beste zerbaiten truke ematen dela (Barandiaran 1962b: 46).

Orozkon, Jentil Zulon harrapatzen dira familiariak, edo Supelegorren, Anbotoko Anderearen haitzuloan. Sofik dioenez, Jondone Joane goizean hartzen dira, ortozik egonda eta mantila bat zabaldua (“zorriak non dauden ikusteko edo”), “Aita Gurea” edo “Agur Maria” atzerantza esanez - deabruaren edo eihar-mezaren antzeko eran. Frantzian eta Alemanian oihal bat erabiltzen zen ira-hazia biltzeko. Eta Bilbon:

Donibane aurreko gabeen Bilboko emakume bermeotar bat, bere otseina (sehi) lagun ebala, Artxanda ganera joan ohi zan eta otatzetan zapia zabaltzen eban (zuen) gaberdi-gaberdian. Zoriona ekarten ei dabe (dute) gau eta ordu hartan baturiko pitxilotak (tximeletak), eurak hartzen gatx ei da baina. Andra haretxen otsein izandako Juana Aranzubia berriztarrari entzun dautsat hau (*Juanak ugazanderea laguntzen zuen pitxilotak harrapatzen*) (Azkue 1959: 302).

“Sorginon indarrak” dira familiariak Justo Respaldiza orozkoarraren hitzetan. Ematen dituzten ahalen arabera sailkatu zituen Sofik: badira listezakoak, beharrekoak (lanekoak), karra egitekoak... Eulali Bilbaok zioenez, egur lanak egiten dituzte: mokorrak ekarri, txondorrari “betegarri emon eta ikatz egiteko eukiten euezan Axpuruko abadeak”, laster azalduko dena.

Deman irabazteko, idien uztarrian sartzen zituen zaraustar batek (Barandiaran 1960: 104), eta Beizamako aizkolari famatu batek ere erabiltzen omen zituen (1984a: 144). Karta-jokoan asko irabazten duenari esaten zaio “hik poltxikoon moxorrook dauzkak”, eta sugandila buztana orratzontzian eduki behar dela ere esaten da (Azkue 1959: 460-61).

Hain zerbitzu on ez da kosturik gabea. Familiariak, beren kutxatik askaturik, ez dute bake ematen lan bat agintzen zaien arte, eta gero, berehala bukatzen baitute, “beste beharrik topatu ezik, galbaheaz ur-bila erabiltzen dabe” (Azkue 1959: 386). Bahean ura ekartzen jakin ez eta, atzera joan ziren Korte Zubiko familiariak (Barandiaran 1960: 106); arazoa da noizbehinka bai jakiten dutela. Eta akats larriagoa badaukate, heriotza txarra ematen dute, geroago ikusiko denez.

II. BARGOTAKO ETA AXPURUKO ABADE FAMILIARIDUNAK

Tzarrak dira familiariak baina familiaridunak ez, eta, apezak direnean, oso istorio irrigarriak protagonizatzen dituzte, peripeziez beteak. Halakoak dira Axpuruko abadea eta Bargotako Joanis. Axpurukoa, Orozkoko pertsonai mitiko ospetsuenetakoa, beti irribarrez aipatzen da, eta baliteke izena egiazki bizitu zen pertsona batena izana, Atsular edo Atarrabio apez sorginena bezala. Francisco Larrea de Axpuru Muruetako elizako “beneficiadoa” zen 1661 inguruan, eta apezpikuarekin arazoak izan zituen (Ojanguren 1975: 139). Murueta Axpururen aurrez aurre dago, erreka bestetik aldeko maldan, eta hango elizan ematen omen zuen meza abade mitikoak. Nafarroan, Bargotako Juanis da famatua; izen historikoa harena ere, XVI. mendeko apez batena; “enemiguillo”ak omen zeuzkan eta apez sorginen artean banatuak diren hainbat ezaugarri batzen ditu.

Estudió en Salamanca asistiendo a las famosas cuevas, en donde aprendió las artes mágicas (*Atarrabiok eta Atsularrek bezala*). (...) Una vez vuelto a su pueblo se dedicaba a viajar por los aires y así visitaba sus posesiones en Viana y otras situadas a orillas del Ebro. (...) Para asustar

a unos que venían a prenderle de orden de la Inquisición fingió que le habían arrancado una pierna, pierna que los otros se llevaron ante el tribunal, (mas que) resultó ser un tronco de árbol calzado. (...) Aún hoy día en Bargota (...) se señala la casa donde vivió el clérigo nigromante (que) fue edificada en una noche merced a los encantos de Joanes, y algunos dicen que en ella reside todavía el alma de éste y la de su ama (Caro 1975: 18-22).

Isekaria zen Juanis, beste pasadizo honetan ere erakusten denez:

Gran aficionado al juego de pelota era el cura de Bargota; pero un día se encontró sin ninguna para poder jugar y encargó a un muchacho que fuese a Viana, distante unas dos horas, y le comprase una. El recaudista le advirtió que, dada la distancia, tardaría mucho en volver. Pero Juanis le dijo: “Vete y no te importe la distancia, verás qué pronto vuelves”.

No había hecho más que salir del pueblo cuando el recaudista oyó unos bufidos detrás de él. Volvióse y asombrado vio un toro que a todo correr se le echaba encima. Asustado, se lanzó más que a galope. De vez en cuando volvía la vista atrás, pero siempre veía al toro a la misma distancia... Cansado y jadeante llega a Viana:

Compró la pelota y emprendió el regreso. De nuevo se le apareció el toro que le persiguió hasta Bargota.

Al recibir la pelota Juanis dijo al recaudista:

- ¿Ves cómo no es tan largo el camino cómo te parecía? (Barandiaran 1973a: 480).

Galtzagorriek bultzatuko zituzten entzierroko lasterkari hauek, zezenketa zaleak baitira familiaridunak.

III. AIREAN ZEZENKETARA ETA BAHEAN URA

Airean eta zitzu bizian eramaten dituzte familiariek beren jabeak, bidai zoragarrietan.

A las once y media del día de San Isidro estaba la criada de Juanis en el balcón de la casa cural de Bargota, y Juanis, que estaba en su cuarto, oyó un suspiro muy grande que echó la criada. Juanis le preguntó: “Pero chica, ¿qué te pasa?”

- ¡Ay! ¡Quién estuviera a estas horas en los toros de Madrid!

- Si es por eso prepárate, de tira vamos.

Y para las doce ya estaban los dos en la corrida de toros en Madrid. Al poco rato, se dio cuenta la criada de que le faltaba un zapato y no dijo nada; pero Juanis la encontraba muy apesurada y la dijo:

- ¿Qué te pasa?

- ¡Qué m’a de pasar! ¡Qué m’a de pasar! Que me falta un zapato.

- No te apures, veras que pronto te lo devuelven - le contestó Juanis.

Y al momento se vio a uno de los que estaban en la corrida con un cuerno en la frente. Era el que había robado el zapato. Al verse el ladrón adornado con tan raro apéndice, todo avergonzado devolvió el zapato robado. Juanis le había puesto el cuerno mediante sus enemiguillos y así paició el zapato.

Después, notando Juanis que hacía mucho calor, empezó a bambolear la capa que llevaba puesta y dijo:

- ¡Cómo nieva en los montes de Oca!

Y con gran asombro de los asistentes a la corrida, cayó una gran nevada que cubrió toda la plaza (Barandiaran 1973a: 478).

Axpuruko abadearen istorio oso antzekoa kontatu zion Jose Mari Sautua orozkoarrak Barandiarani 1923an. Hona bigarren zatia:

(Abade-krideak) Madrilgo zezenketara joan ei ziran. Eta Plazako Orientean gelditu ziran. Eta han, zezenketan, beste batzuk bere mamarradunak. Eta batek esan ei eben:

- Aiko han Aizpuruko abadea bere kriadeagaz.

Eta ez eutsen (zioten) sinestuten. Eta orduan berak:

- Ba, gure badozue, bere zapatea ekarriko dautzuet.

Eta esan eta egin, ekarri ei euen abadearen zapatea.

Baina gero Aizpuruko abadeak esan ei eutson (zion).

- Ez badaustazu ekarten zapatea, bekokian fundiduko dautzut adar bat.

Eta gero adar hori fundidu jakon (zitzaion) eta, nahi-ta-ez, lotzatu ez egotearren atzera eman eutson zapatea (Barandiaran 1960: 107).

Zezenketako bidaia eta hari lotua kontatzen da Orozkon “Bahean ura” pasadizoa, 1960ean Barandiaranek jasoa (1973a: 477). Hona 1985ean bildutakoa:

Behin Axpurun, Untzuetapiko azpian... Han etze bi dagoz, bat birena, bikoa. Eta han, orain urte asko, atxina, abadea ei egoan (zegoen): abadea eta krida, giltzaria. Eta ba, lamiak ei eukezan (zeuzkan), segun, leku txikitxu batean sartuta, intxaur azalean. Gorbeian kuxuten (hartzen) ei zirean, San Juan egunean, Aita gurea eta Ave Maria atzerantza esanda.

Eta ba, “Ocho Mayotan” Urduñan zezenak eta, krideak esan ei euan (zuen):

- Ai, oraintxe nor egon leiken Urduñako zezenak ikusten! Eta:

- Zer ba, joateko ganea dozula ala? -abadeak.

- Bai joango nintzateke.

Atera ei euezan besteok (familiariak) eta ensegida, lainoren bategaz plantatu Urduñako plazaren gan-ganean eta handik ikusi ei eudiezan (zituzten) gan-ganetik zezenak.

Abadeak esan eutsen (zion) ez ukututeko gauza hori, berak baekiela (zekiela) familiariak barrura sartuten atzera, baia krideak ez.

Eta abadeak, mezatik etorten zan orduan, leku batean kuxuten euan gauza bat. Krideak sorotzi egin euan eta, sorotzirik, kajatxu bat zen; ugazaba Muruetan meza emoten egoan eta zabaldu egin euan; eta zabaldu egin euan orduan dana ei zan moskeak eta aparejuak, eta beharra eskatuten eutsien enbra (emakume) horrerri. Eta beharra eskaturik, ba, egurretan ipini. Zugaitzak ekarten eutsiezan (zizkioten) arrapaka, atera zuztarretik eta pagoak osorik larrainera, egurra nahia. Eta gehiago beharra, eske, aurpegiaren inguruan hegalka eta ausika.

Axpurun urik ez, hor mendi puntan dago-eta: ura ekarteko! Ura urrun eta aldapa handia... Beheko errekatik, Nafarrondotik, “iiiiiea”, lainoan eta altzatu eutsien ura. Eta barriz beharra eskatu. Orduan galbahea emon eutsien, eta hartan ekarteko ura. Baia sorginak pekorotzagaz eta lupetzagaz bahearen zuloak tapatu, eta katxarroak danak bete: gehiago katxarrorik eukin

ez enbreak, eta ezin despatxatu, ez ei ekien barrura sartuten atzera, eta etze hori beteta uragaz.

Etorri zan gizona eta:

- Zer pasetan da, andrea?

- Zer pasatuko da, ba? Hau eta hau.

Eta gizon horrek, beharra eskatu eutsien orduan, ba, "Topatuko dautsiet!". Andreari tripapeko ulea (ilea) atara eta agindu eutsien haregaz katea egiteko. Eta baebiltzan ule horregaz, baia ezin. Orduan pakea egin eudien (zuten).

Eta abadeak meza emoten egoan lekutik igarri ei euan: etorri zan, baia ja pakeak eginik ei eukezan gizonak. Orduan danak (euliak) batu ei euazan abadeak eta akabatu zan asunto hori (Sofi Etxebarria, Pablo Aramendi eta Moises Larraondoren bertsioen bilduma, Arana 1996: 311 eta ondokoak).

Istorio honen aldaera batean bi krida ditu abadeak; haietako batekin Valladolideko zezenketan dagoen bitartean, bigarrenak familiariak askatu ditu etxean, eta "buuffhh, erleumea, urten eutsien lamiak". Sofiren bertsio bateko neskameak, oso lanpetua zebilen egun batez, familiariak deitu zituen: "Sikieran sorginak baletoz ura altzetako...!" Berehala ageri ziren eta beharra eskatu; bahea eman eta, hartan ere ura ekarri; emakumeak, "atzenean, ba, hor ardiak-eta eukin asko, esan eutsien ardi lana-kapa baltza zurituteko; eta baltza ezin zuritu, aburritu eskapatu ei eudien".

IV. ZEZENKETA ETA AKELARREA

Kondaira hauetako zezenketak akelarre aire du. Hantxe daude mamarrodunak beren familiariak airean eramanak. Familiariak sorginen inar-garraibidearen motorra dirateke, giderrean gordetzen baitira; edo ontzitxo batean, akelarrerantz hegaldatzeko ukendua bezala. Bakarrik akerra falta da ospakizunean, eta zezenak bete dezake haren rola. Non ez den abadea bera sorginen buruzagia: Orozkoar batek esan zuen apezek zituztela zuzentzen Garigortako akelarreak (Arana 1996: 205).

Zezenketan, Juanisen neskameari zapata kendu zioten. Bada, emaztea eta zapata parekatzen ditu Orozkoko berriemaile batek, irri egiteko esaten duenean abadeak bi kriada zituela, oinetakoak bezala aldatzen ahal izateko (Arana 1996: 338). Jadanik Gilgames heroi sumeriarrek, Ixtar goiandereak berarekin ezkontzeko eskatu zionean, azak emateaz gain aurpegira bota zion oina zauritzen duen zapata zela. Frantziako ezteietan, mutilek oinetakoa kentzen zioten andere esposari (Van Gennep 1946: 412) eta, Belmont-en ustez, jestu horren bidez andrea “lapurtzen” zioten senarrari (1973: 58). Adarra, ordea, lapurraren bekokian ezarri zuen Juanisek.

Axpuruko abadearen oinetakoa bere jabearen presentziaren adierazle da, haren bisita-txartela. Alabaina, apez konjurtzailearen atributua da zapata, eta hodeiari garaitzeko erabiltzen du, orratzarekin batera – zapatari batek eztenaz sakabanatzen du akelarrea; eta konjuru egileak hodeiari ematen dio zapata bereterra eraman ez dezan, haren truke edo (Arana 2000: 88). Zapatak, nonbait, pertsona balio duke: neskame, goiandere, andregai, beretter... hiru emazte eta morroi bat.

V. ZUBEROAKO EULI UZTATZAILEAK

Oso hedatuak dira European deabru familiaren istorioak. Halere, “bahean ura” motiboari uztartuak, Zuberokoak eta Gaskoiniakoak bakarrik aipatzen ditu Sébillot-ek (1968 III: 334). Bizkaikoak gaineratu behar, baita nabarmendu elkarren antza handia dutela Euskal Herriko ekialde eta mendebalde urrunekoek. Hona Eskiulako “Mendiondoko iliak (euliak)”:

Mendiondoko etxeko jauna alfer haundia zen eta, halere, hango lanak lehenetarik eginak ziren beti: igante egun batez, meza denboran, alor batetako ogia oro ebakirik. Mundua oro estonaturik zen, langilerik ez zelakoz ageri. Bere emaztea ere Mendiondori mesfida zitzaion.

Igande batez, elizara joan zelarik, borosta (sasi) batean Mendiondok zerbait gorde zuela ikusi zuen emazteak; aski kurios izan zen jakiteko han zer utzi ote zuen. Edireiten (aurkitzen) du estutxe bat. Zabaltzen du eta jalkiten dira hamar bat euli, begietara eta belarrietara joaten zaizkio, galdatzen diotelarik:

- Zer egin? Zer egin? Zer egin?

Harriturik emazteak erraiten die:

- Ber zilotik sar.

Eta berehala estutxan barnean sartu ziren berriz.

Senarrari dena erran zion eta hark aitortu euliak zirela hango lanen egileak. Hantik aitzina, emazteak agindu lanak oro egiten zizkioten.

Egun batez, “lan, lan, lan!” tormentatzen zuten. Eman zien bahe bat eta erran:

- Sotoko barrika huts hori bete ezazue eihera (errota) nazatik ura ekartez ontzi horretan, etxapeko soroan gora.

Memento baten buruko egina zen lana, eta berriz:

- Lan, lan, lan, lan!

Gehiago ezin jasanez, senarrari erran zion euli horiez gabetu behar zutela.

- Bai -arrapostua ematen dio- baina behar dute gage (lansari) bana.

- Hamar antzara etxegaraian baitira, haiek emazkiezu.

Berdenboran, antzara haiek kankaz airatu ziren hodeietara buruz, eta Mendiendoko euliak ez haboro (gehiago) agertu (moldatua, Cerquand 2017: 64 zk).

Gaskoiniako “Les treize moscas” argitaratu zuen Bladèr-ek.

Leitora (Lectoure) ondoko Monet-deu-Horn herria sorgin lekua omen da. Hango ehule bat oso alferra zen, ez zituen batere alorrak eta mahastiak lantzen baina auzoek halako hamahiru biltzen zuen gero; emazteak ere ezin zuen ulertu. Done Marti goiz batean, ehulea Leitorako feriara joana zelarik, emazteak barrandatu zuen, bai eta ikusi ere gizonak ipuru batean zerbait ezkutatu zuela; intxaur bat zen, antzara-arrautza bezain handia, eta barnean oihuak entzuten ziren:

- *Brrr. Draubís la notz. On es l’obrage?* (Zabal intxaurra. Non da lana?).

Intxaurra etxera eraman eta zabaldu zuen; hamahiru euli jalgi zitzaizkion hegaka eta oihuka:

- *Brrr. On es l’obrage?* Eta emakumeak: *Moscas, rentratz totas dens la notz* (Euliak, sar zaitetze denak intxaurrean).

Sartu ziren, baina barruan berdin oihuka. Emazteak senarrari kontatu zion, eta hark baietz, euliek ziotela lan egiten, eta emazteak ere nahi zuenean erabil zitzakeela. Handik aurrera emazteak ez zuen gehiago lan egin beharrik, baina pazientzia galtzen zuen eta zernahi agintzen zien. Behin erran zien:

- *Moscas, aquí siès crithes, siès sedacis e ua barrica desculada d'en haut e d'en bas. Volatz dinc au Gers e portatz-m'ací tota l'aiga de la ribèra* (Euliak, horra sei bahe, sei sare eta ipurdirik gabeko upel bat. Zoazte Gers ibaira eta hona ekar iezadazue hango ur guztia).

Berehala ibaia agortu eta herri osoa urpean jarri zuten. Eta gero intxaurrera sartu ziren. Emazteak ezin zuen gehiago eta, etsiturik, senarrari erran zion despeditu behar zituela. Gizonak baietz, eta esan zien:

- *Moscas, partissètz* (Zoazte, euliak).

Eta euliek:

- *Brrr. Compta-nos nòstes gatges. Partiram* (Ordain iezaguk saria eta joango gaituk).

- *Moscas, aquí tretze agraulas, tretze agraulas que volan enlà luènh, de caps au bosc de l'Arramer. Prenguètz-vos-las en pagement de vòstas penas* (Euliok, horra hamahiru bele, hamahiruak urrun hegan egiten dute, Arramer-ko oihanera buruz. Har itzazue lan saritzat).

Las Tretze Moscas s'envolèn, en s'amportant las tretze agraulas. E dempús, ni l'òme ni la hemna las tornèn pas jamès véser, jamès (Hamahiru euliak hegaldatu ziren berekin hamahiru beleak zeramatzatela. Geroztik ez gizonak ez eta emazteak ere ez zituzten berriz ikusi, sekula) (laburtua, Bladèr 1966 II (1886): 308).

VI. EULI SEGALARIAK

Berriz ere Gaskoinian, mamarrodun ospetsua zen Labriteko Tourène, apezarekin ikasia. Haren berri eman du Van Gennep-ek.

Behin, segalari talde bat belar mozten ari zen. Bi pentze egin zituzten bazkaldu aitzin eta handiena geroko utzi. Bazkaltzera joan zirenean, segalari bat gelditu zen tresnak aztertzeko eta Tourèneren igitaiaren kirtenean duxulu bat ikusi zuen; ireki zuen eta zulotik mamarro bat jalgi zen erranka: "Zer egingo dut? Zer egingo dut?". Harriturik langileak erran zion: "Sega ezak, sega ezak". Eta berehala pentze osoa moztu zuen. Eta mamarroak berriz: "Zer egingo dut? Zer egingo dut?" Besteak agindu zion: "Gibelera sar". Sartu zen kirtenera eta segalariak duxulua itxi. Gero, lagunek pentze handia moztu behar zela aipatu zutenean, erran zien:

“Egina da jadanik”. Eta Tourènek: “A, nire igitaia erabili duk, mirakulua duk ez baihaiz xehatua izan!” (...)

Beste batean, uzta biltzen ari zirela, zaldun bat iragan zen galsoroaren ondoan, eta Tourènek urrezko luis bat pariatu zion bera arinago iritsiko zela ildo muturrera gari moztzen, zein eta bestea bere zaldi gainean lau oinka. Eta Tourènek irabazi ixpixoa: ildoaren bururaino heldu zen, uzta ongi moztuta; irudi zuen tximista batek zuela lastoa ebakitzen, beti zaldiaren aurrean. (...)

Uzta igitaiaz ebakitzen zen garaian, galsoro batean bazen uztatzaile bat, jornaleroen taldekoa, inongo nekerik gabe lanean ari zena. Arinago joaten zen aurrera bere igitaiaz nagusia zaldi gainean baino. Egun batez, bazkal ondoko lo-kuluxkan zegoela, mutiko batek igitaia miatu zion, sumatzen zuen-eta sorginkeria zerbait ezkututzen zuela han. Eta bai, tapa batez itxia eta barruan hutsa zen igitaiaren kirtena: tapa kendu zuen eta eulixka saldo bat atera zen zulotik. Beharrik igitaiaren jabea atzarri zen, soroan dena dantzan hasia baitzen ordurako. Haserre bizian, bi ordu eman zituen euliak atzera igitaira biltzen, eta gero lekutu zen. Langile horren taldekideek zioten euli horiek “izpiritu gaiztoak” zirela (Van Gennep, 1951: 2201, 2331, 2333).

Zuberoako Inhase herrian, Biarnoko mugan, “Muneko iliak (euliak)” ekaitza baino arinago aritu ziren.

Egün batez tenpesta handi bat eraisten züzün (zen) bortün behera. Ogika (uzta garaia) betea züzün. Muneko alorrean ogia (garia) idorririk pailat (lurrean) züzün.

Memento batez, langilerik ez ageri eta, ikusten ditizie (dituzte) eskütak oro hersten, orgak (gurdiak) berak bordatik jelkiten, bueltan alorrean behera joaten eta, kargatürrik, petik gora burrunbaz bordan sartzen.

Ili langileak zütüzün etxe hartan mirakuilü horren egileak. Tenpesta heltü gabe, ogia oro barnen ezarririk izan züzün (Cerquand 2017: 65 zb)

Uzta ekaitzetik salbatzen ikusi dugu lamia bat, Anbotoko Andereren antzekoa, “Bi bizkiak eta bi lamiak” kondairan (“Ezkontidea” kap.).

VII. UZTA ETA BAHEA, GOGOAREN JOSTAILU

Familiarien ekialdeko kondairetan uztaren eta ekaitzaren arrangura ezagun bada, mendebaldekoetan uzta osteko lanak gomutatzen dira, bahearen erabilera dela-eta.

Oparotasunari lotua izan da bahea. Araba Entziako amialamiez esaten da: “Son rubias, inofensivas y poseen secretos maravillosos como el da sacar harina de un cedazo vacío” (Barandiaran 1973a: 426). Antzinako Grezian Dionisosen sehaska zen bahea - azpiria ere bai -, eta hartan ezartzen zituzten jaio berriak, opa zieten ondasunaren seinale gisa; berdin egiten zuten antzinako egiptiarrek, haurrengandik izpiritu gaiztoak uxatzeko xedean (Frazer 1983b: 27-30).

Sinbolo sare ludikoa bilbatzen da familiarien eta bahearen inguruan. Tresna ogiaren (janari antonomasikoaren) ekoizpenari lotua delarik, ura (edari antonomasikoa) garraiatzeko baliatzen dute; eta ifrentzuzko eginkizun hori bete dezakeentzat, buztinaz edo bekorotzaz (anti-janari antonomasikoaz) tapatzen dute. Laburzki, janaria iragazi ordez, edaria edukitzen du, anti-janariari esker. Irudimena kitzikatzen da gauzen ezaupide enpiriko eta birtualez espekulatuz: solido / likido, janari/edari, janari/gorotz, eduki/iragazi.

Finean, familiariak ez dute deus asmatu: erleak diren ber, bazekiketen buztin-bekorotzak erlauntz-saskia estaltzeko erabiltzen direla, baita etxegintzan ere, hurritz-zaharozko hormak emokatzeko. Istorioen kontalariek zein entzuleek ere bazekizkiten horiek guztiak eta denek gozatzen zuten horrelako jokoaz, uzta eta elikagaien kontu serioak barrez gogoetatuz. Orozkon arrakasta handia du “Bahean ura” pasadizoak, eta auzo herrietan bada haren zantzua; Luiaondon zioten: “Morroi berriak galbahean ere ekartzen du ura”; Zeberion: “Ezkonbarritan galbahean bere ura, gero erradan bere ez” (Etxebarria 1991: 323).

Bargotako Joanes-ek, maisua baitzen burutazioetan, bahe-larrain bat asmatua zuen, “Alferraren kolpea zuzena” atsotitzaren ilustrazioa:

Juanis tenía una era con el suelo lleno de agujeritos y, cuando trillaba, el grano iba cayendo al granero que tenía debajo, y arriba solo quedaba la paja limpia, sin necesidad de ablenar ni trigalar (Barandiaran 1973^a: 479).

Egiazko larrain batzuetan zuloak izan dira, familiariak gogoko dituzten gaiez tapatuak:

Komunzki larraina lur zanpatuaz egiten da eta azala leuntzen zaio buztinez eta bekorotzez. (...) Finistèren (Bretonian), buztin horizta oratu aitzin, zuloak egiten zituzten lurrean eta haietan burdinazko ontzi eta dupin zaharrak sartzen zituzten, ahoz behera. Horrela hutsa zen larrain azpiko lurra eta danbor-hotsa ateratzen zuen trailuz jotzen zutenean (Van Gennep 1953: 2681).

Orozkon bekorotzaz pasatzen zuten larrain osoa “eta paretan zen zementu letxe, gogor” (Arana 1996: 470).

VIII. EZINEZKO BETEBEHARRAK ETA BAHEA

Gehiegikeria da familiaren marka. Langile porrokatuak dira eta langilegi direlako, nardagarri. Ahalak ematen dituzte, eta haien jabeak ahaltsu izan behar du kalterik gabe baliatuko baditu; Orozkon, bakarrik Axpuruko abadeak eta hurrengo kapituluan azalduko den Itzingoitiko artzainak jakin zuten kontrolpean atxikitzen - bigarrenak ez arras halere. Besteei familiarek ez diete bakerik ematen, non ez diren aski erneak *ezinezko betebeharra* agintzeko, gehienetan bahean ura ekartzea. Gure mamarroek lortzen dute, eta ez dira bakarrak; Thompson-ek Ingalaterran eta Georgiako afro-amerikarren artean aurkitu du motiboa, H 1023. 2. O. 1. “Task: carrying water in a sieve; sieve filled with moss”.

Ataza bera baliatzen da familiarez beste izaki mitikoetatik begiratzeko, eta eraginkorra izaten da, denak ez baitira mamarroak bezain erneak: “Erpurutxo” ipuinaren bertsio batean, ogroari agindu zioten haurrek, harengandik ihes egiteko denbora izateko (“Le petit Poucet” - T 327 “The Children and the Ogre” - Delarue 1957: 306); Okzitaniako “Jan de l’Ors” ipuinean, hartzaren kontra erabilia da (Fabre & Lacroix 1974: 344). Eta Guyanako tradizioan, Tapir berekoi bat edateko ura bahe batez hartzera kondenatua da (Lévi-Strauss 1964: 193). Greziako Danaideek ere jasan zuten antzeko zigorra.

Ezinezko betebeharra izaki mitikoek ere erabil dezakete jendeen kontra (Sébillot 1968 II: 460). Legenda batean,

(Atsular) fue obligado por el diablo (...) a extraer el agua de un estanque con una caldera cuyo fondo era una criba. También estaba obligado a contestar “*Hemen nago*” al diablo que le preguntaba: “*Atsular nun haiz?*” Atsular enseñó a su caldera a decir “aquí estoy” (Barandiaran 1984a: 29).

Orozkon bigarren ataza, zinez ezinezkoa, ematen zaie bahean ura ekartzen kausitu duten familiariei: artile beltza zuritzeko agindu zien Axpuruko kriada batek; eta beste krida baten senarrak emaztearen tripapeko ileaz katea egiteko. Biak katalogatu ditu Thompson-ek: H 1023.6: “Task: washing black wool white” eta T 1175: “Task on the Devil: Straightening Curly Hair”; eta biak Europa guztian zabalduak dira, Eskandinaviatik Greziara eta Irlandatik Errusiara. Atera daitekeen ondorioa da ardi beltzaren eta emakumearen ilea oso bihurriak izan behar direla, familiariek ere ezin hezteko. Ilea ehun-gaia izanki eta bahea ehuna, lotuak dira familiaren hiru *ezinezko betebeharrak*.

Parte-txarrekoen kontrako beste erabilera du baheak. Grezia modernoan “kallikantzaro” izpiritu bihurriei ematen zaie, zuloak kontatzen denbora pasa dezaten oilarrak kukurrukua egin arte (Rey-Flaud 1985: 30). Orozkon, alderantziz, familiariez gabetu nahi duenak baheari ematen dizkio.

IX. FAMILIARIAK, HODEIA ETA KONJURATZAILEAK

Euri uharraren irudia da bahean iragazitako ura; elur eta kazkabarrena, eralgitako irina eta aleak. Leku askotan euli zuriak dira elur-maloak (Sébillot 1968 I: 85; Van Gennep 1958: 3020). Jainkoak malutak eta babazuza egin nahi dituenen bahea astintzen duela diote Grezian (Fremor 1999: 248). Lamia batzuek, elurra egiteko, beren kapa edo lumatxa astintzen dute, eta Frantziako Jura-n diote malutak Tante Arie lamiaren atorrako zirtzilak direla. Atarrabiok, Galtxagorriri esker “han-hemen” batean Erromako joan-jinak eginda, etxeko sukaldean kapa astinduz elurra bota zuen esanez: “Ama, Jakako portuetan elurra ari du” (Azkue 1966: 69; Barandiaran 1973a: 440-444). Halaber Bargetako Juanisek zezenketan: “Como nieva en los montes de Oca”. Bata Jakan, bestea Okan, antzeko izena duten lekuetan ibiltzen dira bi apez sorgin nafarrak.

Ekaitzak bezala jotzen dute familiariek zuhaitzak erauzten dituztenean eta airez aire Axpurura garraiatzen; ura ere “lainoan” altxatzen dute, uholdea eragin arte. Hori guztia kontatu zuen

orozkoiak gaineratu zuen apezak konjuratzen zuen hodeian “lamina fraka gorrikaz” egoten zirela (Arana 1996: 312). Eta ekaitzegileekin lokarri hestuek dituzte: haiek zuten Anbotoko Anderea airean eraman (ikus beheago) eta honen Supelegorreko haitzuloan biltzen zituzten orozkoarrek. Hain zuzen, harpe horretako hegaztien istorioek eta familiarienek egitura simetrikoak dituzte.

- ***Supelegorreko hegaztiak.*** Aizpuruko abadeak liburua ahantzita utzi zuen Supelegorren, eta saiek, kobara sartu ezinik, durundia handia egiten zuten; gero, apezaren mutilak liburua kendu zuenean, denak sartu ziren. Beste bertsio batean, artzainek kandela bedeinkatua ipini zutenean haitzuloko atean, hango beleak pikaka eta erpaka hasi zitzaizkien, harik eta kandela kendu arte. Laburki: apezak hegaztiei sartzea galarazi eta haiek, sartu nahi eta ezinean, pikaka ibili dira, morroiak sartzerantz utzi arte. (Barandiaran 1960: 82; 1980: 82; ikus “Baliabideak” kap.).

- ***Axpuruko abadearen familiariak.*** Axpuruko neskameak euliak askatu, haiek sartu nahi ez eta, ausikika ibili zaizkio, harik eta abadeak sarrarazi zituen arte.

Familiariak beren jabeak legez, Anbotoko Andereak bidai miragarrietan eramaten ditu bere lagunak edo semea:

Behin, biaje luze bat egin behar zuten batzuek asko sinesten zuten Anbotoko Señoreagaz. Eskoriatzan pasatu behar zuten Atxorrotx-ko kuebatik eta hor barruan zihoazela, axe-bolara moduko bat etorri ei zan eta bestelako puntaraino eroan ei zituezan. Handik urten auzenean esaten zuten Anbotoko Señorea zala (Barandiaran 1973a: 399).

Diego Lopezen emazteak bere seme Iñigo Ezkerrari zaldi miresgarri bat eman zion, haren gainean Toledoraino joan eta han preso zegoen aita askaturik etxera ekar zezan; eta dena egun berean burutu zuen (Barandiaran 1984a: 132). Baltzolak sugea bizia salbatu zion mutilari ageri zitzaion Gabon Gaueko egun batez gerlan zegoelarik etxeminaren minez, eta bere kuebaraino eraman zuen; han gizon bat artza (bahe) baten gainean lo zegoelarik, ikatz multzo bat eman zion eta, handik urten orduko, urre gorria zen (Etxebarria 1995: 284; Barandiaran 1960: 53). Antzeko bidaia oparitu zion Ama Birginak Itziarko gazte bati: Buenos Aireseko kartzelan zegoen eta Itziarko Ama Birginaren egunean hil behar zuten; bezperan otoitz egin zion, bere baitan zerabilela: “Ai, nor egon liteke hango erromerian!” Eta biharamunean eliza ondoko zumar handiaren azpian atzarri zen,

alboan zuela itsasoan ekarri zuen ontzia, gaur egunean elizan ikus baitaiteke (Barandiaran 1973b: 45). Sorginek ere egiten dituzte holakoak: Liginagako (Zuberoa) bi belagilek ontzi batean eraman zuten mutil bat Buenos Aireseraino eta handik ekarri, dena gau batez (Barandiaran 1984b: 92). Apez familiaridunek ekaitzegileen eta ekaitz-konjuratzaileen ezaugarriak dituzte. Bargotakoaren jaidurak Anbotoko Anderea eta beste melusinak gogorarazten ditu: “los sábados desaparecía y por la mañana del domingo, siempre en retardo, jadeante y sudoroso, volvía para asistir a los oficios divinos” (Caro 1975: 20). Inkisizioak deitu zuenean, txiri egin zion Joanisek, zango bat falta zueneko plantak eginez - oinaren anomalia, lamien, deabruaren eta Atsularren marka. Axpuruko abadea ere konjuratzailea izan behar da, haren brebiarioak hegazti ekaitzegileak uxatzen baititu; aitzitik, “Axpuruko abade kondenatua” deitzen denean, Mateo Txistu edo Martin abade ehiztarien moduan ibiltzen da, txakurren atzean, haize eta ekaitzekin, Anbotoko Anderearen antzera (ikus Arana 2000: 27).

X. SORGIN-APRENDIZA

Axpuruko neskameak badu kiderik, nahiko ezaguna da apez sorginaren sehi kuriosaren figura:

Frantziako Maine departamentuan, apeza sorginen etsai porrokatua da eta haien zorte gaiztoak galaraz ditzake, magia liburuan ikasi dituen sekretuei esker. Eskualde askotan kontatzen dute haren neskame batek liburua atxeman zuela apezetxeko gela batean, mahainaren gainean ahantzia edo; zabaldu egin zuen, kuxkuxeroa baitzen, eta deabruak eraman edo zoritxarren bat gertatu zitzaion. Beharrik, apeza garaiz heldu zen haren salbatzeko (Sébillot 1968 IV: 240).

Delako mirakusien hestutasunei doakie Aarne & Thompson-en T 325: “Apprentice and Ghost: Sorcerer’s apprentice having read verse from forbidden book evokes Ghost, but cannot make disappear. When sorcerer reads verse back-wards, Ghost disappears”.

Galtzagorriak bezala eten gabe lanean ari diren objektu magikoak azaltzen dira hainbat istoriotan: eskatzen zaien guztia ekoizten dute, baina hasiz gero ezin dira geldiarazi. Horrela Aarne & Thompson-en T 565 tipoa: “The magic Mill: The magic mill grinds an enormous amount of meal

or salt when the man who has stolen it cannot stop it". Eta Thompson-en, A 1115 motiboan: "Why the sea is salt. Magic salt mill is stolen by sea captain, who takes it aboard and orders it to grind. It will stop only for his master; ship sinks and mill keeps grinding salt". Halakoa da Frantziako "Le moulin magique" (Delarue & Tenèze 1964). Motibo hori oso ezaguna da Eskandinavian eta Finlandian, dio Sébillot-ek (1968 II: 20). Britainian Jondone Joanek eta Jondone Petrik, ostatu eman zien emakumea sariztatzeko, eskatu guztiak ematen dituen upela oparitu zioten; lehortea handia zen eta ura eskatu zuen andreak, baina gero ez jakin nola itxi kanila, eta hola sortu zen itsasoa (Belmont 1973: 43).

Axpuruko giltzariaren hurbilago da "Sorgin-aprendiza" ipuina ("Apprentice and Ghost") eta, batik bat, hortaz Goethe-k 1797an idatzi zuen balada. Hau da istorioa: sorginaren ikasleak, nagusiari aditu hitz magikoak errepikatuz, inar bati ura ekartzeko agindu dio bainu-ontzia betetzeko; baina geldiarazteko formula ahantzia du eta inarrak ur ekartzen segitzen du, etxea urpean ipintzeraino, harik eta sorginak dena konpondu arte. Samosatako Luzianok, II. mendeko idazle helenistikoak, gai bera erabili zuen "Gezuraren laguna" ipuinean, han ere aztiaren morroiak, Eukrates-ek, ezin zuen inar-kirtena geldiarazi.

Inar kirtena tresna polibalentea da, mamarroen gordeleku eta, haien indarrez, ur ekarle eta sorginen garraiatzaile.

Istoria hauetako bikoteei dagokienez, Axpuruko abade-kridak, Bargetako abade-morroiak, konjuruetako apez-bereterrak, sorgin-aprendizak edo maisu-ikasleak, denak dira egitura beraren aldaerak.

XI. FAMILIARIS

Zerbitzari direlako ote daukate familiariek sehiak nardatzeko joera? Latinezko "familiaris"tik dator haien izena, eta orobat frantseseko "familiars" eta gaztelerazko "familiares". Definitzeko orduan, Feijoo zitatzen du Caro Barojak: "Demonios que se dice estar ligados por alguna persona, la cual se sirve de ellos a su arbitrio" (1944: 126). Elhuyarren hiztegian: "(Bizkaieraz) Ustez norbaiten lagun eta zerbitzari den deabrua".

Erdi Aroan, Jeanne d'Arc-en prozesuko epaileek susmatzen zuten neskak deabru laguntzaile bat zeukala bere eraztunean. Espainian, XVI. eta XVII. mendeetan, Juanisen eta Atsularren garaian,

“era cosa general creer que los hechiceros solían tener un demonio familiar metido en una redoma” (Rodríguez Marín 1925: 19). Vélez de Guevara-ren *El diablo cojuelo* nobelako deabrutxo hori astrologo batena zen eta, botilatik askatu zuen ikasleari eskerrak bihurtzeko, airetik erakutsi zion “todo lo más notable que a estas horas pasa en la Babilonia española (Madril)”; bide batez jakinarazi zion Lucifer, Satanás, Bercebú eta Barrabas direla deabru nagusiak (“demonios mayores”), eta bera zela “demonio más por menudo, aunque me meto en todo. (...) Soy las pulgas del infierno, (...) el espíritu más travieso del infierno”. Alkimisten Mercurius-en ezaugarri dira horiek, eta Euskal Herriko prakagorrienak.

Europako folkloreko familiariak zomorroak izan ohi dira, Thompson-en G 225.1 motiboan bezala: “Insect as witch familiar (fly, bee, gnat, spider)”. Deabruak ere dira euliak, Erdi Aroko *Legenda Aurea*-k dioenez:

Jainkoak batzuetan baimena ematen die deabruei gureganaino jausteko eta gu probatzeko; euliak bezala inguruan hegaz ibiltzen zaizkigula erakutsi izan zaie pertsona saildu batzuei. Zenbatu ezinak dira eta mamarroen gisan betetzen dute airea, (...) eguzki izpi atomo txikiak betetzen duten moduan (Jondone Mikeleren legenda, Varazze II: 238).

Deabrua Eulien Aita da tradizio guztietan, baita ekialdekoetan ere (Palou 1957: 50). Gorroto zituen Luther-ek euliak, beren gorozkiez orbantzen zizkiotelako liburu orriak, Txerrenek bere eginkariez bihotz garbiak lohitzten dituen bezala (Munchebled 2000: 153). Deabru euliak dira familiariak.

XII. IRA-HAZIA

“En Añes creen que, si la noche de San Juan se recoge la flor de helecho, se conocen los prakagorri”, ikusi da gorago. Deabruaren gauza da lore edo hazi hori, Lancreren iritziz:

Jondone Joane gauean biltzen dute sorginek ira-hazia, berrogei egunez barur egin ondoan. Irak ez du zuztarrik, ez eta lorerik edo alerik, erroetatik sortzen da. Batzuek mihisezko edo kalamuzko oihal bat zabaltzen dute landarearen azpian, uste baitute ordu batez loratzen ikusiko dutela eta orduantxe hartzekoa dela hazia. Gero tafeta edo pergamino berri batean atxikitzen dute arta handiaz, ametsak interpretatzeko eta izpirituak agerrarazteko erabiltzen ahal

dutelakoan. Iseka egiten die deabruak sorginei eta, gaizoak oraindik gehiago ikaratzeko, munstro baten itxuran agertzen zaie gau horretan berean, ekaitzek inguratua (Van Gennep-ek zitatua, 1949: 1995).

Zeberioko sorginen prozesuan aipatu zen bi emakumek bildu zituztela izara batean gizon batek zuhaitz gainetik botatako hautsak, eta gariak usteltzeko zirela (Caro 1975: 58). Ira-hazia Jondone Joaneko belarretatik azkarrena da, XVI. mendeko *La maison rustique* liburuak dioenez: udako Jondone Joane gauean biltzen da, zeremonia handiekin eta xuxurlaka, hazia daukaten deabruak uxatzeko; hola jasoz gero balio handia du zorte gaiztoen aurka, baita jokoan irabazteko ere (Van Gennep-ek zitatua, 1949: 1971). Baina biltzeak badu arriskurik:

Courçay herrian (Touraine) gauerdian tanko joaten ziren ira-haziaren bila, esku-zapiak eta kandela bedeinkatuak eskuan; eta ezkilak ordua jotze unean bildu behar omen zen, bestela haritzek lehertuko zuten biltzailea, eta deabruak, haren gainean jarrita, lauhazka ibilaraziko zuen. Hazi horiek onak ziren gaixoentzako eta fortuna atxemateko (Van Gennep 1949: 1978).

Suabian, zorrotzagoak ziren ira-hazia biltzeko betebeharrekoak: Abendualdi osoa pasatu behar zen otoitzik egin gabe, elizara joan gabe, ur bedeinkatua ukitu gabe eta deabrua gogotik kendu gabe; gero, Gabon gauean, andabideko bidegurutze batean egon behar zen irmo, arbasoen arimen galderei erantzun gabe eta ireltxo jauzkarien aurrean irri egin gabe; hala eginez gero, deabrua agertzen da paperezko kukurutxo bat ematera ira-haziz betea; eta eskuratzen duenak hogeita hamar gizonek beste lan egin dezake egunean eta laster aberats daiteke; baina gutik daukate proba guztiei irauteko ausardia. Rotenbourg hirian, deabruak emandako ira-hazia omen zeukan ehule batek, larunbatetan bakarrik lan eginez, beste ehuleek baino aise oihal gehiago ekoizten zuen. Haren emaztea, oihala entregatzera zihoan batean, elizaren ondoan pasatu eta otoitzera sartu zen; eta bedeinkazioa hartu zuenean, saskian zeraman lan guztia hari bihurtu zen berriz (Frazer 1984 IV: 356-357). Ehule hau, Leitorako “Les tretze moscas” istoriokoa bezala, alferra da eta emaztearen bitartez gabetzen da familiariez.

Beti Frazer-i jarraikiz (1984 IV: 235-36), Ingalaterran, Frantzian, Errusian, Austrian, Alemanian eta Italian izan da ira-haziaren sinestea. Ukitu gabe eta lurrera erortzen utzi gabe jasotzen bada izara batean, itzelezko ahalak ematen ditu, hala nola ikusezina bilakatzeko eta altxorak non dauden jakiteko.

XIII. MAIRU-BESOA ETA MANDRAGORA

Bertute berdinak eransten zaizkio mandragorari: landare horren erroak zerrailuak irekitzen ditu eta mairu-beso gisa erabiltzen ahal da. Mairu besoa bataiatu gabeko haur batena da (Barandiaran 1984: 125) - ‘mairu’k ez-giristino esanahia du. Cerquand-en istorio batean honelakoa da: hiltzaile urkatu baten besoa keztu eta eskuan ezartzen zaio kandela bat, pizti baten edo haur bataiatu gabearen koipez egina; etxe batean norbait sartzen denean argi horrekin, lo direnak ez dira iratzartzen, lo ez direnak lokartzen dira eta lapurrak lasai har ditzake nahi dituenak oro (2017: 41 zb). Mexikoko aztekek uste zuten haur ukatetik hil ziren emazteen gorpuak lurpetik atera eta besoa mozten zietela sorginek, lapurretan erabiltzeko, lo eragiten zuelako (Duverger 1979: 191). Frantziako kondaira zenbaitetan, arima herratu batek, etxean sartzen denean, barnekoak kordegabetzen ditu hil baten eskuz ukituz (Lecouteux 1999: 53). Eta Britainian diote hil baten eskua daramanak gurina nahia kentzen ahal diela auzoei (Le Braz 1992: 1206). Delako eskuaren izena frantsesez “main de gloire” da, edo “mandegloir”. Esan ohi zen norbaitek holako eskua balu mihise zuritan etzanik, eta jaten eta edaten emango balio, aberats bihurtuko litzatekeela (Muchembled 1979: 30, *L’Evangile des quenouilles* zitaturaz).

“Mandegloir”en paronimoa da mandragora, urkamendietan hazten den landarea. Urkatuak lepoa itxia baitu, haren arima ezin da ahotik joan eta puzkarren edo espermaren bidez jalgitzen da; hartatik sortzen den sustraia gizon baten haurra da eta itxura antropomorfoa du, “homunculus” bat da. Eskuratzeko erraza ez da, negar egiten omen du lurretik ateratzen dutenean, eta biltzen duenak bizia gal lezake, erritual egokia ez betetzekotan; baina behin lortu eta, zerbitzari bikaina edukiko du, mairu-besoaren ahal berdinak baititu. Gero elikatu behar da mandragora, eta deus ez du haur jaio berrien koipea bezain onik: hori ematen diotenean, halako bi ekartzen du.

Bigorreko “Mandragor” eta Gaskoiniako “Mandagot” deitu piztitxoek urrea kakiten dute (Marliave & Pertuzé 1990: 135); Kataluniako “els minairons” ira-haziaren antzekoak dira. Denek beren jabeak aberasten dituzte, eta beste ahaidetasunik ere badute: hilen hazitik sortzen da mandragora eta hilen artean biltzen da ira-hazia; haur koipez egina da mairu-besoa eta hartaz elikatzen da mandragora; urrea kakiten du Mandagot-ek eta urre jaten dute Orozkoko familiari batzuek, ondoko kapituluan ikusiko denez.

XIV. DEABRUAK ETA HIL EZINA

Maiz azaltzen da heriotza familiaren ingurumarian. Orozkon diote prakagorriekin urtebete dabilena zazpi urtez zahartzen dela eta azkenean, ordua heltzen zionean, haiek ez dutela hiltzen uzten, “bat hil ezin ei leikela eurokaz”, Sofiren hitzetan, hil beharrean eta hil ezinean paratzen da. Hil ahal izateko, familiariak eman behar ditu, komunzki baheari, ahuntz bati edo jende bati; baina onartzen dituen airean eramaten dute familiariak berek eta airean ibiltzera kondenatzen da - Anbotoko Anderea ximelgorriek eraman zuten moduan bere sorrerako bertsio batzuetan (“Ezkontide” kap.). Familiariak ez dute barkatzen, beren gaitzondoa pasatzen diote hartzen dituenari. Irudiz, bakarrik apez-sorgin indartsuak eskapatzen ahal dira haien tzarkeriatik, eta hori ere ez da segurua, “Axpuruko abade kondenatu” bat ere ibiltzen baita alderrai, Mateo Txisturen antzera.

Bizkaian, Euba eta Dimako sinestean arabera, “sorgin bat ezin hil izaten da besteren bati eskubideak emon bagarik. (...) Sorgin bat hil orduan eskua ixten ari bada, esan nahi du bere sorgingoa beste norbaiti pasatu nahi diola. Orduan xuxki (inarra) giderra edo makila eman behar zaio eta inarra erre gero” (Azkue 1959: 377-378). Caro Barojak dio sorgin bilakatzeko modu arruntena dela beste sorgin bati objektu bat hartzea, kutun edo orratzontzi bat (1966: 286).

Gaskoinian, “lo Mandagot” duenak largatu behar du hil-hurrenean, bestela heriotza eta pasioa sufritzen ditu, inolaz hil ezinik: “*Lo cau largar au moment de l’agonia. Autrement, los praubes malaus sofrisson mòrt e passion, sense poder jamès trespasar*” (Bladèr 1976 II: 296).

Familiaren kondairek, bertsio garaikide arraberrituek bereziki, heriotzaren alderdi mingarrienetako bat gogoetatzen dute, hiltamu luzea (ikus “Arraberritzea” kap.). Hil ezinaren oinazea madarikazio edo kondena baten ondorioztat hartua izan da eta kinka laburtzeko otoitz eta erritoak eskaintzen zituen tradizioak; besteak beste, Zeanurin eta Orozkon meza bat ateratzen zuten “gaixoak atzera edo aurrera egin deien” (AEV 1995: 98-99; Arana 2000: 59).

XV. IDEOLOGIAK

Gaitza ez bide da suntsitzen, beste bati pasatzen baizik. Garatxoak kentzeko metodoa hurkoari ematea izan da (Frazer 1983b: 441-450). Orobat pozoina, Larraunen (Nafarroa), Haltsun (Lapurdi) eta Arratian (Bizkaia):

Subegorri batek norbaiti miztoa sartu dionean, honek berehala etxera joan behar du eta han oilo batzu harrapatu. Behatz zauritua sar bezaio oilo bati atzetik, gero beste bati eta gero hirugarrenari. Laugarren oilora ezkerreko haien atzean gelditzen da subegorriaren pozoia” (Azkue 1959: 442).

Modu berean, Itzingoitiko artzainak ahuntz bati sartu zion familiaren orratzontzia, eta airean joan zen aberea (ikus “Arraberritzea” kap.). Beti emalea izaten da irabazle, hartzailea galtzaile, eta gauza ez da ideologiarik gabea. Gudanaino heldu diren istorioetan, familiaren erabiltzaileak nagusi ahaltzuak izaten dira; eta petzeroak, berriz, menpekoak eta emakumeak, edo sinbolikoki emetasunari lotzen diren gauzak eta abereak (bahea, ahuntza).

Ahuntza emaztearen sinbolo ezkorra izaten da. Mikoletaren 165. erran zaharrak dio: “Esan daroe, mandako on bat, ahuntz on bat eta emazte on bat, hiru gauza gaizto direala” (Sarasola 1990: 194); eta Oztibarren (Baxenabarre) esaten dute “Ahuntza ez kabale, ametza ez mairan (zur), emaztia ez jende” (Videgain 1989: 281); Okzitaniako Arles-en: “Quan filho gardo, e cabro meno es pas senso peno” (Neska zaintzen eta ahuntz gidatzen duena ez da neke gabea) (Amiel 1987); Sigüenzako jota batek, berriz: “A la mujer y a la cabra / Para tenerlas contentas / Atarlas con cuerda larga / O si no dejarlas sueltas”. Eta biziki luza daiteke zerrenda.

Familiaren beste jasotzaile batek, baheak, esanahi femininoa du, bederen orratzontzi falikoaren eretxean: bahea orratzontzikoei kontrajartzen zaie, sarea eta ehuna orratzei bezala. Faloa baheari lotua da Dionisosen irudikapen batzuetan (Frazer 1983b: 31); eta falo “gulliverizatua” da hatzamarra, zion Jung—ek (Durand 1969: 241-243), jostorratzontzia bezala erabilia gaitza beste norbaiti pasatzeko.

Maiz maskulino-feminino kategorien aurkaritzan egituratuak diren familiaren istorioak inplizituki sexistak dira, eta kontatzaile batzuek topiko misogino esplizituak gaineratzen dituzte: emakumeak mirakusiak direla, beti baztarrakaz ibiltzen... (Arana 1996: 324, 336). Zorionez tradizioa ez da kolore batekoa eta gertatzen da, gertatu ere, emazteak laidotu dituen berriemaile berak, gezurrezkoztat

daukan Axpuruko abade-kriden pasadizoa esan ondoan, alderantzizko zentzua duen Santa Marinako kridarena kontatzea, hori bai egiazkotzat hartua:

Beste abade bat... Hura ez da lamina (familiari) asuntua, reala da baina. Santa Marinan egoten zen fraileak bazeukan krida. Egun batez, krida hori kanpoan zegoela, fraileak bere ahuntza deitzi zuen eta galdallatxo batean esne apur hori egosten ipini zuen. Irakiten hasi zenean gorantz egin zuen esneak, eta abadeak, hazten zitzaiola ikusirik, ez zekien non sartu. Eta ez bazan listo izan hura bere: beheko etxaldera joan zen, Izartzara, ontzi gehiagoren bila, eta etorri zeneko batere esnerik ez zen geratzen, dena ihes eginda. Eta gero horregatik esaten da: “Andra Santa Marina, gitxiagaz asko egina” (Moises Larraondo, moldatua, Arana 1996: 339).

Axpuruko neskamea ganorabakoa bezain ernea litzateke Santa Marinakoa, alderantzizkoak diren abadearekin eta frailearekin bikote bihur-simetrikoak osatzeko eran, bakoitzean ganorabakoa eta ernea bilduta. Parekotasunak ere badituzte gizonak: biok zeukaten krida, eta biok zituzten arazoak apezpikuarekin. Axpurukoak historikoki, agian; Santa Marinakoa, mihi antiklerikalek diotenez, gona kontuengatik zigortua zen ermitari belaunika buelta ematera Urduñatik hodeia zetorren bakoitzean, babazuza galarazteko.

Sofik, behin, Santa Marinan kokatu zuen Axpuruko neskamea. Lapsus bat, hurrean, bi lekuak simetrikoak baitira topografikoki ere: Axpururen aurrean, ibaiatz bestaldeko tontorrean dago Santa Marinako ermita, Murueta gainean, hau da, Axpuruko abadeak meza ematen zuen elizaren gainean.

XVI. KONTUAK KONTU

Mitoetan garrantzitsua da gertalekua, gehienak toki zehatzetan kokatzen izan dira eta familiarienek bereziki baliatzen dute orografia, kondairen egiturako aurkaritzak adierazteko. Erlikeak hezurdura fisikoa eta irudi bisuala ematen dizkie ur ekarleen harat-honatei. Axpuru etxaldea Untzuetapiko (765 m) azpian dago, eta Santa Marina ermita Jesuri (750 m) baino beheerexego. Bi mendien artean erreka dabil eta tontorrak bizkiak dira nolabait: batean

gaztelu bat bazen, jentilena, eta bestean beste bat, omen, Urduñako bidea jagoten. Jentilak, zango bat Untzuetan eta bestea Santa Marinan, pilota jokoan aritzen ziren batetik bestera harrizko bola handiak jaurtiz, gazteluko kanoi-balak (Barandiaran 1960: 113).

Paisaiarekin eta beren artean solastatzen dira kondairak. Erreka trokaren miniatura da Santa Marinako frailearen galdallatxoa, haren fondotik esnea gaineratzen da Nafarrondo zolatik Axpururaino familiariet ura altxatzen duten bezala; eta gero, etxe bakoitzak eskas duen likido preziatua debaldetan isuriko da.

Jendarte gaiak aurkitzen dira familiarien gorabeheretan. Sexuen arteko mailaketa nabaritu dugu, maizenean emakumeen kalte; eta apez-neskame bikotearen kariaz, sexu harremanak aipatzen dira noizean behin, solas antiklerikal-satirikoak lagun.

Ekonomia ere pentsatua da mitologian. Ogiari sorotik mahairainoko jarraipena egiten zaio: Zuberoako familiariet, ekaitzari aurre hartuz, tenoreko uzta bildu eta babazuzatik salbatzen dute; Bizkaikoek bahe lana gogorarazten dute, irinaren eralgiketa. Bestela, airez aire garraiatzen dituzte egurra eta ura etxeraino. Behialako urre-aro galdua iradokitzen ote dute, lan egin gabe bizitzen zenekoa? Azkuek (1959: 456) bildu esakera batek dio: “Lehenago egurrak dei eginda etorten ei zirean etxera. Moxonean (Teilerian) behin larregi etorri jakezan. Moxok atzera bihaldutuan eta egurrok ez dira gehiago etxeratu”. Batez ere uraz dira arrangura goi etxekoak: Axpuru gora da, badu “iturri bat, bostehun metro, eta udan ha bere sikitu”. Berrehun metro beherago dabilta Nafarrondoko erreka eta argindar errotako ubidea. Mendiondoko euliet “eiherako nazatik” (errotako ubidetik) hartu zuten ura, eta Gaskoiniakoek Gers ibaia agortu. Errotako ura ahitu ei zuten Orozkoko jentilek:

(Jentilak) hanka luzeren batzuk ei eukezan (zeuzkan) eta, Untzuetapikotik Santa Marinako puntara paratu ei zan ura edaten, egarri eukala eta. (...) Eta gero errotea bere ur faltan paratu, Torrelandako errotea sikitu euan (zuen) (Etxebarria 1995: 250).

Erraldioen balentria tipikoa - motibo F531.3.4.2. *Giant drinks up a river (lake, sea)*.

Menditarrek (Axpuruko edo Mendiondoko familiariet, Untzuetako jentilek) ura hartzen dutenean, behekoek dute eskasia jasaten (Gers-en eta Torrelandan). Menturaz, baserritarren eta errotarien arteko hika-miken oihartzuna ere bideratzen dute kondairek. Argindar ekoizleak ahortzi gabe.

Mamarroak dira familiariak, aldi batean lurpeko haitzuloetan egoten dira, eta gero ontzi hertsietan gordetzen. Baina aireko eramaileak dira eta, ausaz, sorginen inar hegalarren

motorra. Edo zomorro itxuraz kanpora abiatzen den sorginen arima. Sorginen indarrak eta, aldi berean, sorginak.

Gaineratiko izaki mitikoak baino tzarragoak, dongeak dira prakagorriak eta engainatu ezinak, beste deabru inozoak ez bezala (ikus “Deabrua” kap.). Haien kondairek sehi baten hestutasun barregarriak baino zerbait larriago adierazten dute, Mefistofeles-en zitalkeria; Marlowe-ren 1604ko *Doctor Faustus*-en heriotza oroitarazten dute eta, arima saltzearen motiboa aipatu gabe ere – deabru eraikitzaileen kondairetan aurkituko dugu hori -, heriotzaren eta hil osteko kondenaren kezka ageri dute.

Irudimen sinbolikoak errealitateko edozein objektu eta bizitzako edozein arlo har dezake eta, haien birtualitateak erabiliz, hausnarketak egin, noiz goibelak noiz laketak (“hil ezina”, “bahean ura”). Prakagorrien kontu fantastikoek fikzio-zientzia aire dute; bere garaian James Bond-en estilografikoak baino miresmen handiago sortzen zukeen industria aurreko jendartean familiaridunen orratzontziak; bestelako onurak ekartzen baitzituen: jatekoa, edatekoa, garraioa... Oro kemenik gabe, arin eta laster, “gitxiagaz asko egina” esaerako ametsa. Jende zuhurren josteta da, sineskorkeriarik gabe eginda eta ondo jakinik zein den lilurapenaren iruntzia.

MITOEN ARRABERRITZEA: EGITURA ETA GERTAKARIA

Noizean behin entzuten da izaki mitikoen itxura fisikoa jendeengan egiazki existitu izan diren anomalien isla direla, ez funts gabeko asmazioa. Horretaz adierazi nahi da mitoak ez direla zoro batzuen fantasiak. Zoroen lana bailitzan metaforak eta sinboloak erabiltzea eta haien bidez mundua eta bizitza pentsatzea. Lévi-Straussek bere *Basa pentsaera (La pensée sauvage)* lanean erakutsi du jendearen enteleguaren berezko lana dela lotura esangarriak kausitzea gauzak ezagutzeko eta sailkatzeko; fantasmak itxuratzea ere ez da psikopatia, ez ergelkeria. Psikeak zentzumenen bezain beste gaitasun baitu irudikapenak sortzeko, horiek elkarrekin nola uztartzen diren ikusten saiatuko gara, ez mitoen sorrerako sekretuak zulatzeko, baizik eta haien iraupena eta aldaerak ulertzeko.

Begiratuko dugu mitoak nola baldintzatzen ahal duen errealitatearen pertzepzioa eta, alderantziz, nola gertakari errealak eragiten duen mitoaren egituran, gai mitikoa nola moldatua izan daitekeen errealitateari egokitzeko. Lehen joera mitoen iraupenari dagokio, bigarrena aldatzeari. Kontu honek transmisioaren arloa ukitzen du, baita difusioarena ere. Ur handi horietara sartu gabe, eskura ditugun kondaira batzuk hartuko ditugu, bereziki interesgarriak jorratu nahi dugun eremua ikertzeko.

Adibideei heldu aitzin, atal honetan erabiliko diren kontzeptu eta ezaupide zenbait argitzekoak dira: 1- kondaira mitikoen bertsioen aniztasuna, 2- mitoen biziberritzea, 3- mitoen denbora.

1- Mitologiako bildumak irakurtzean, eta are gehiago lekuan lekuko inkesta egitean, konturatzen gara istorio “berak” bertsio asko izan ditzakeela, eta ez bakarrik berriemaile desberdinek emana denean, baizik eta pertsona berak une diferenteetan esaten duenean. Gertakari bat kontatzeko bakoitzak bere manera duela esatea pellokeria da; baina kontuan hartzekoa da horrek noraino ahalbidetzen duen mitoen aldagarritasuna. Eta hainbestearaino egiten du non, kondaira batetik abiatu aldaketa tikiak eginez eta bertsioz bertsio joanez, mito batetik bestera iragan baitaiteke, haustura bortitzik gabe. Ez da erraza mugak ezartzea eta erabakitzea noiz arte gauden kondaira beraren aldakin batean eta noiz sarten garen beste kondaira batera; zailtasun horren berri badakite katalogo eta sailkapen lanean aritzen direnek.

Berriemaileen jokaerak desberdinak izan daitezke. Gehienak fidelki jarraitzen zaizkio aditu dutenari, eta entzuleak erraz ezagutzen du zein den kondaira. Beste batzuek, aldiz, aldakuntzak sartzeko askatasun handia erabiltzen dute.

2- Mitoaren biziberritzea. Mito bat zaharra izan arren, elementu berriak biltzen ahal ditu eta protagonista garaikide batean berraragi daiteke, bertsio arraberrituak, aktualizatuak, sortuz. Gaurkotze horri *Réinvestissement du mythe* deitzen dio Xabier Ravier-ek (1986: 255), eta adibidetzat ekartzen du Suediako errege izatera iritsi zen Bernadotte mariskal biarnesak amaso zuela Azun haraneko lamina bat.

3- Mitoaren denbora. Jendarte arkaikoetako ikusmoldean, dio Mircéa Eliadek (1957: 21), mitoak *in illo tempore* jazo ziren, hasierako garai sakratuan; eta aroen goizaldeko gertakari sortaileak direlako, eredugarriak dira, esan nahi baita errepikagarriak eta antzezgarriak.

Hemen, alabaina, XX. mendean kontatu diren istorio anitz ez dira hain aspaldian kokatuak, haien protagonistak barriemaileen guraso edo aitita-amamek ezagutu dituzte. Hargatik, barriemaile horiek gogoangarri eta transzendentaltzat dauzkaute aipatzen dituzten gertaerak, apartekoak eta behin bakarrik agituak direlakoan, kondairek esaten duten aldian, hain zuzen.

Maila desberdineko arraberritzeak azalduko dira hemen. Gertaera arbaso hurbilen garaian kokatzea dateke mitoa berritzeko prozedura errazena, norberaren garaitik kanpo; horrek arazoak ekiditen ditu, adibidez hurkoari sorginkeria leporatzeak ekar ditzakeen ondorioak. Halere, batzuetan barriemaileen denbora eta inguru sozialekoak dira protagonistak, herrikideak, non ez diren auzoak. Holakoak badira Orozkon, eta hango lekukoengana itzuliko gara laster, baita familiariak aurkituko berriz. Hori baino lehen, azaltzekoak dira mitoen biziberritzeko hastapen zenbait.

I. KONTALARIA ETA LEKUKOA

“Gure lehengo zaharrek esaten zuten...” edo “gure antzinakoek zioten...” formulaz ekiten diote askok istorioak kontatzeari, hitz horien bidez arbasoen bermea-edo emateko beren solasei. Batzuetan, antzinako zahar horiek kondairetako gertaeren lekukotzat hartzen dira. Izan ere, norbaitek zahar bati entzuna dion istorioa gazteei transmititzen dienean, zahar horri rol bat emateko joera izaten du, eta naturalki eta ohartu gabe pasatzen du “amamak kontatzen zuen”

esatetik “amamak ikusi zuen” esatera. Norabide berean urrats bat aurrerago eginez, “amamak ikusi zuen”etik “amamari gertatu zitzaion”era igaro daiteke, lekukoa protagonista bilakaraziz. Horrela hurbildurik, sinesgarriago geratzen da istorioa. Hona adibide zenbait.

Aitatxi haurra zelarik. Baxenabarren, Bidarraiko Harpeko Saindia (harrizko irudia) nola heldu zen bere harpera kontatzen zion aitatxik Beronika Karakoetxeari. Gauerdia batez sartu omen zen Saindu hura, hamabi argiekilan; eta sartzen ari zelarik, inguruko etxeetako kabala guztia marrumaka ari izan omen ziren, eta ez ziren isildu Saindia han sartu arte: sekulako abarrots eta mugimenduak izan ziren auzo hartan, mirakulu handia izan zen. Beronikari galdeginik hori guztia noiz jazo zen, erantzun zuen: “Pentsamazu, gure aitatxi zena haurra zen oraino, denbora hartan, hori gertatu zenean”. Bizkitartean, gertakari bera askoz antzinago kokatzen dute beste bidarraitar batzuek, “Jinkoak daki noiz” (Arana 1986: 118).

Gau hartaz oroitzen niz. Diotenez, Harpeko Sainduko bidea hetsi zuten auzo etxeetako, Harrusekoek, eta bidesaria ordainarazten zieten beilariei, baita harpean utzitako sosak hartzen. Eta Saindiak punitu omen zuen hango etxekanderea: arrats batez jarririk zegoenean supazterrean senarraren beha, denbora oso txarra zen eta aire gaixtoa (ihurtzuria) tximiniatik sartu zen, brasa guztia barreiatu zuen eta aztala eraman zion. Emazte hori geroztik maingu ibili zen; Gaxuxa zuen izena eta haren senarrak Joanes “Saski”, saskigilea baitzen. Biak ezagutu zituen Jose Mari Kastantxok zioen: “Ni gau hartaz oroitzen niz orai hementxe (*mahai zapia seinalatuz*) oihal hau bezain untsa zer gau zen hura: izigarri zen ihurtzuria, eta ximista, ximista ximisten gainea. Gero biharamunean berehala barreiatu zen (*Bidarraia*) aire gaixtoak joan (*eraman*) zakola supazterretik aztala”.

Ikusi zuen ekaitz izugarri hark bermatuko zion berriemaileari esamesaren egitasuna, Saindiak zuela Gaxuxa zigortu. Eta zigortzaile jaioa den Saindiaren mitoa berraragitu zen emazte horrengan, oraino bizi zelarik, haren herrentasuna esplikatuz (Arana 1986: 108). Gaxuxaren aztala aipatu zuen Oxobik ere artikulu batean (1923), emaztearen izena eman gabe baina gertakari bera kontatuz eta Harruseko nagusia Joanes zela erranez. Geroagoko berriemaileek, inoren fama ez iluntzeko naski, ongi azpimarratzen dute gaur eguneko Harruseko bizilagunak ez direla Gaxuxa eta Joanesen ondorengoak, orduko haiek Ameriketara joan baitziren, etxea peko errekarara joanda.

Auzo zaharra izan zen heroia. Orozkon, Untzueta mendian bizi ziren jentilek Olabarri Handiko alaba bahitu zuten eta beren gazteluan zeukaten burdinazko ateaz itxita. Neskaren nebak burdinazko palankakaz joan ziren atea apurtzen, jentilak hil zituzten eta arreba askatu. Eta herriak, mutilak sariztatzeko, Hierro-Palankos deitura eman zien (ikus “Azkena” kap.). Gertakaria egiaztatzen duten armarren irudia daukate orain Hierro-Olabarria sendikoek Gorigitxiko salan; hartan marraztuak dira nebak -bi gudari kaskodun- jentilen gazteluko bi alboetan, ateari makilez erasotzeko edo. Etxeko jaunak armarren aurrean dio “hau da jentilen kueba”, legendaren bertsio batzuek baitiote Jentil Zulora bahitu zutela Olabarri Handiko alaba.

Gorigitxiko alaba Manolik oso aspaldikotzat dauka jazoera; baina Elbira auzoak uste zuen berak ezagututako Olabarriko Felipe izan zela neska bahituaren neba, eta hala dio: “Untzuetaben esaten eudien (zuten) eukiela (zeukatela) kastilloa (jentilek), eta han esan eudien Feliperen arreba edo... kuxu eutsien (zioten) eta jentilak eukiela han sartuta”. Manolik zehaztu zigun Felipe “hor goian bizi zan agure bat” zela eta, bide batez, ohartarazi zuen bahitua ez zatekeela Feliperen arreba, baizik eta haren aurreragoko batena, familiako bat (ikus Arana 1996: 255).

II. KONTALARIA ETA PROTAGONISTA

Mehea izaten da kontalaria eta lekukoa bereizten dituen marra, eta ez da lodia kontalaria eta protagonista banatzen dituen. Hona hemen biak hurbiltzeko joeraren adibide batzuk.

Gure aititak entzunda pasatu jakonari. Santos Bernaola orozkoarrak kontatu zigun Orozko Nafarrondoko ama-alabak Jentil Zulora joan zirela behin eta han orraztuten zeuden laminek aiantzia utzi zuten orrazia eroan zutela etxera. Gero, gauean, laminak teilatu gainera etortzen zitzaizkien gedarrez: “Maria, ekarri egizu nire orrazia, ezpabere nik egingo (galduko) zure askazia”; harik eta Nafarrondokoek orrazia hartu eta bota zieten arte. Hori kontatu ondoan, Santosek zehaztu zuen: “Begitu, kalkuletako gitxi gorabeheran horreek kontuok zelan zertuten izan zirean: gure abuelo defuntuak kontatuta, eukin dauz berak entzunda pasatu jakonari, bera mutiko txikia izate orduan” (Arana 1996: 225).

Segitu ginuen. Iratiko Salbatoreko Saindiaren legendarekin batera, berriemaileei buruzko ohar zenbait eman zituen Barbierrek. Hauxe da kondaira:

Baxenabarreko Bithiriñan, Inhurri etxean, artoxuriketan ari zirelarik, gauaz, mutila ohartzen da haitzurrotxa alorrean ahortzi duela; parioa egiten du hamar sos eman liezazkiokela tresnaren bila doanari. Neskatoak baietz, eta diruagatik joan zen. Baina mutilak, bere sosen doluz, biraoa bota zion: “Deabruak eraman baleza”. Orduan berean izpiritu gaixtoak hartu zuen neskaxa eta airetik eraman. Auzoek orok segitu zuten haur gaixoa, beti airean zoala Garaziko bortu aldera. Salbatoreko kaperaren parean pasatzean, neskaxak Salbatoreri otoitz egin zion: “Salbatore, salba nazazu!” Eta hantxe pausatua izan zela, kaperaren aitzinean. Barnean ezarri zuten haren irudia, eta kanpoan ttattola bat egin zioten. Geroztik Saindia deitzen dute eta, beila egunean, mezak eskaintzen dizkiote, baita otoitzak, loreak eta sosak bere ttattolan (laburtua, Barbier 1931: 126).

Hirurogei urte zituen Maria Beltxa bithirindarrak kontatu zion Barbierri legenda, aitari entzun bezala. Eta ez dela segur nola erran zuen aitak, “*segitu zuten*” ala “*segitu ginuen*”, ea hura ere ibilia zenez bithirindarren artean neskaren giblean. Barbierrek ongi oroitzeko kemen bat egiteko eskatu zion Maria Beltxari. Eta biziki ongi oroitzen baitzen aita zein hunkitua zen gertakari tragiko hori aipatzerakoan, pentsatu zuen seguraski “*segitu ginuen*” erran ziola. Hara nola oroimenaren lainoak, hunkidurak lagundurik, partehartzaile bat lotu dion Saindiaren mitoari. Ez da ezinezkoa gizonak “*segitu ginuen*” erran izana, baina oso litekeena da aldaketa alabak egin izana, ohizkoa den prozeduraz (Barbier 1921).

Amamaren amari gertatu ote. Orozkon berriz ere, Aizetzako Maria Luisaren amamak bere amari entzun eta bilobari kontatzen zion laminak tximiniatik etortzen zirela urdai eske (ikus Arana 2000: 65). Eta ulertzen ahal da lehen kontalari hura, gure berriemailearen birramama, izan zela protagonista, berari etortzen zitzaizkiola laminak. Horrela esan baitzuen Maria Luisak: “Nik entzunda nire amamari zelan etorten zirean... - bere amak kontetan eutsena: ba, bajatuten zirean (laminak) tximiniatik behera, bera egoten zenean beti, ba, urdaia frijitan, ezta? Zartanean.” “Bera” amamaren ama ote zen? Hala ulertzen da, behintzat.

Entzulea kontalariaren xederan. Kontalariak bere istorioa ongi girotzen duenean, haren xarmak harrapaturik gerta liteke edozein entzule, sineskor ez izateko baldintza guztiak betetzen baditu ere. Hori jazo zitzaiola aitortzen du Dorothy Carrington-ek, Korsikan ikerketa egiten zuenari. Hango *mazzeri* oso pertsonaia bereziak dira: gauaz “ehizara” jaigutzen dira eta topatzen duten lehen animalia hiltzeko obligazioa dute, haren aurpegian ezagutzeko herrian hilko den hurrengo pertsonarena. Horrelako istorioek eragin zioten hunkidura azaltzen digu idazleak:

Cesari-tarren etxean egon nintzenean eta hango arrats ilun eta usaintsuetan mazzerien kontuak lehen aldiz aditu nituenean, entzun baizik ez nuen egin, gogoetarik batere egin gabe, hainbestearino liluratua nindukaten istorio bizi eta koloretsu haiek. Xehetasunak hain ziren esanguratsuak, dramako protagonistak hain ongi margotuak non ni neu ere, entzule baino areago, haien abenturen lekuko sentitzen bainintzen. Baiki, zoragarriki kontatzen baitzuen Jean-ek... (Carrington 1999: 63).

Esatariak horrela biltzen badu ikerle bat, pentsa daiteke zer egingo dion tradizioko testuinguruan murgilduta dagoen norbaiti; eta norbait hori kontalari bilakatzen bada, lekukoari entzunda balitz bezala konta lezake.

Mintzalari onek biziki ongi dakite beren burua protagonistatzat agertzen: Xahok ohartarazi du nola euskal kontuzaleak, esplizituki esan gabe, ulertzera ematen duen berak zuela Basajauna topatu. Ipuinek erakusten dute norbera nola istorioan sartu, amaierako formuletan aldarrikatzen duenean protagonistak ezagutu dituela, haien berri badakiela: “Lorietan banindagon haien ezteietara joan beharrez...”, “Iragan asteen kurutxatua dut oraino” (Kaltzakorta 1989: 24). Bestela, “Patakon lapurra”ren kondaira bat hasten da “Andratxu bat joan zen”, eta segitzen “joan nintzen” (Etxebarria 1995: 275). Inor engainatzeko asmorik gabe, naski.

III. MITOA BIZIBERRITUA: KRIADA BAT

Aurreko kapituluak ikusi ditugun familiaren mitoak oso ezagunak ziren Orozkon XX. mendearen bukaeran, eta hitzetik hortzera aipatuak bai Axpuruko abadea eta bai familiaridun hurbilagoak ere,

kasik garaikideak. Angela Bilbaok, Axpuruko kridaren istorioekin batera, bere amaren hestutasunak gogoratu zituen:

Neure amak bere dauka kontatuta... Etze baten krida egoen (zegoen) bera, Gallartun. Eta esaten euan (zuen) holan, ba, San Pedro eta, hasi zala etzea konponduten, armarioak eta horreek gauzok. Eta holango baten, holango botila baten bolaren batzuk “rrraaa...” urten ei eutsien (zioten). Bola batzuk, kanika batzuk urten ei eutsien. Ba, merkurio izango zan... baia haik sailtu egiten eutsien, hurrean.

Eta nire amak hartu ei euan poza biribildu euazanean (zituenean) katxarrook bere lekura! Esaten euan: “Ene!...”

Eta nire ama hil zan atzenean bere (pentsatuz) haik zireala, ba, beste mundukoak, parte-txarrekoak.

Eta harrezkero nik askotan esan dot - nik ez dakit, baia neure eritxia, e? – “haik izango zirean merkurio edo izango...” Nik orduan, hori amak kontaten eustanean (zidanean), merkurio zer zan bere ez nenkien. Baia haik nire eritxian izango zirean hori, ezta? Eta haik mobiduko jakozan (zitzaizkion) nire amari eta egingo euan: “Honeek mobitako, honeek beste munduko holango gauzaren batzuk diraz” (1986an kontatua).

Angelaren koinatak, ongi ezagutzen dituen Axpuruko neskamearen peripeziak eransten dizkio Gallartukoari; hortaz, ugazaba apez izan zen eta bolatxoak euli (ikus “Familiariak” kap.).

Eta niri, ba, koinatak (Angelak) kontatu eustan zelan haren amak... Ba ez dakit ba zer lekutan (...) egon zan krida abade baten ganean eta ibili zan garbitzen armarioa eta holan eta; abadea meza emoten dagoela zer egin euan? Ba baztarrakaz etzean dabilela kajatxu bat topatu. “Zer ete dauka hemen gure abadeak gordeta?” Eta “rrraaa...!” zabaldu ei euan kaja hori.

Eta “rrraaa!” zabaldu euan orduan, hiru moska urten eutsien “zzzii”, holan. Eta kostatu ei jakon sartzen barriz kajara berari. Eta abadeak igerri euan meza emoten dagoen lekutik haik ez egozala (zeudela) ondo. Ez deust (dit) niri esan zelan egin euazan, ezpabere kostatu jakola sartzen, pentsetan euala bertan jan behar eudiela moskook: arpegitik auxika, bestetik auxika, danetik auxika eta ezin sartu kajara.

(*Galdera*: Zertarako zituen abadeak euliak?)

- Ba, eukin euazan behar egiteko: mokorrak ekarri, txondarra kargatu eta gero ba betegarri emon eta ikatza egiteko. Berak behar egiteko eukiten euazan abadeak (Eulali Bilbao).

Gallartuko gertakariak mitoa bermatzen duela uste du Eulalik. Alderantziz, gertatua desmitifikatzen du Angelak; ez arras, ordea, familiaren ahaidea baita alkimisten Merkurius: bere arrautzan sartuta, “homunculus” itxura du eta laguntzaile “familiaris” izan daiteke, “servus” edo “cervus fugitivus”, hau da, ireltxo iheskorra, alkimisten etsigarri eta oposatuen iturburua den izpiritu maltzur eta bikoitza, deabruaren eitekoa (Jung 1970: 90). Gallartuko bolatxoak familiariak izan zein merkurioa izan, interpretazio arrazionalista ez da eskapatzen mitoaren xederatik.

IV. SAN ANTOLINGO ZEZENKATA

Gogoangarria da Orozkon Gorbeia Itzingotiko artzaina. Pablo Aramendi eta Eulali Bilbao senar-emazteek ezagutu zuten, baita Jose Mari Aramendi eta Angela Bilbao senar-emazteek ere. Haren ez-ohiko indarrek harriturik zeuzkaten herrikideak eta askok uste zuten familiariak zeuzkala, “ajilidade eukiteko” batez ere. Axpuruko eta Bargoutako apezen antzera zezenketa zalea zen eta, behin, ez airetik baina goiko bidetik sartu zen plazara jauzi batez.

Orozkon gizon batek eukazan (zeuzkan) horreek sorginok, berak manejetan euazan (zituen).

San Antolin jai batzutan, hemen, Orozkon, zezen plazeak atea, ba, sabai hau baino altuagoa, eta Itzingoitiko artzainak goiko barreratik pasatu: karreran joan eta saltu egin, eta oraindo beste aldera buelta eginda paratu zan ganean, (*Herriko Etxeko balkoiari adi, presidentzia agurtzeko moduan*). Eta ei eukazan beste zerok... demonio edo deabru: lamin edo deabru (Pablo).

Ajilidade eukiteko eukazan (Eulali).

Ha gizona ezagutu neuan neuk. Urigoitin bizi zan hori pastoreori. Eta gero bizi zan Orozkoko Plazea baino goratxuagoan, Jauregian.

Ni, artzain egon orduan, beragaz txabolan egona naz. Nik urte asko egin dut artzain Gorbeian, bai. Campa de Arrabaren entzuterik badaukazu? Ba, Arrabako Landa akabaten (*den lekuan*), Itzingoitin: Itzingoitin txabolen lekua (Pablo).

Eta ba... Txakurrak joaten dira Gorbeira igoal ardi jaten, ez? Eta hak txakurra kuxu ardiak jaten, bertan lo, tripea beteta. Eta arrimatu txakurragana eta txakurrak karrerari emon. Eta txakurrak zelan karran, berak ostean segidu eutsen San Juan eta horra gora (*Mendiolaraino, 10 bat km*), nongo txakurra zan jakiteko ardia jan eutsena. Segidu etzeragino txakurrari egin eutsen. Hori egia da, e? Hori beridikoa, hori ikusia. Ni orduan gaztetan nengoan, nigaz zahar eginda egoan (Pablo eta Eulali).

Zeredozer baeukan (zeukan); harena ez da dana guzurra, zeredozer baeukan. Egun baten esan eutsien (zioten):

- Zu, horreixek basabehiok ez doguz inoiz kuxu (bildu) bere egin. Zu, Tomas, etorriko zara? Basabehiak daukaguz kuxetako.

- Ba, infernuko deabruak ez badozak (dituk), kuxuko joadaz (ditiat) nik! esan eutsen berak. Eta basabehiak joan zirean errekatik alde. Berak palua ipini munatik errekaen erdian, eta bestaldean plantatu zan eta basabehiak kuxu egin euazan. Egin euan erreka-muna batetik bestaldera saltu, Uxuluzen, Jauregi ondoan. Eta esan eutsien:

- Hik infernuko deabruak ba eukiko dozak eta!

- Hau infernuko deabruak ez dok, hau dok ajilidadea (Eulali).

Basajaunak barreiatutako ahuntz batzuk “infernuko deabruak bere ez leukez biribilduko”, esan zuen Arratiako artzain batek (Azkuek 1959: 356). Eta oker zen, deabruaren atributua delako arintasuna, eta jauziak.

(Zuberoako pastoraletako) satanek, dantzari onak izateaz gain, deabruzko jokaera zerbait izan behar dute. (...) Larraineko Coltat satana (1860an gutxi gora behera) hil eta berrogeita hamar urte geroago oraino aipatzen zuten: “Hoi eztük zelilako” (Hori ez duk zerurako), esaten zuten hartaz, bere sinestezinezko jestu zaluetan deabruetasuna adierazten zuelako (Idiart 1987: 113).

V. AHUNTZARI EMAN

Itzingoitiko artzainaren jauziak eta lasterrak ikusi zituztenentzako esplikazio sinesgarriena zen parte-txarrekoak zituela, eta kontu horrekin zirikatzen zuten lagun gazteek:

Esaten eudien (zuten) eukin euazala (zituela) deabruak aldean. Eta zahar egin orduan, batera egoten gintzen pastore txabolan, han Itzingotin. Eta geuk esaten geuntzen (genion):

- Tomas, zuk lehen eukiten ei zenduzan parte-txarrekoak eta.
- Nork esaten jok hori?
- Ba, jenteak esaten dau.

Eta hasarre eginda egoan, ja sano-sano eginda:

- Orain behar ñeunkazan (neuzkaan) nik parte-txarrekoak, orain, ez lehen! Lehen berez ñeunkazan nik!

Zer, asmena eukan eta kostetan jakon ibilten eta: “Niri parte-txarrekoak orain falta egin jeustien (zitzaidaan), nik orduan neureak ñenduezan (nitian)! Neure ajilidadea.” (Pablo).

Alferrik ukatzen zuen, ez zioten sinesten:

Hain ajila eta hain... izaten zan, zer, ba danak, ba, parte txarrekoak! (Angela).

Zelan izan ajilidadea palua errearen erdian helduteko (eta bestaldera jauzi egiteko)? Jentea ez zan izan hain leloa. Behi okerrera basoan karraka joan eta txakurrak ezin kuxu (harrapatu), eta berak “rrra!” harrapetan ei euan (zuen) adarretik.

- O sea que, zeozer baeukan.
- Harena ez da dana guzurra, zeozer baeukan (Eulali eta Pablo).

Mitoe errealitatea ulertzeko gakoa denean, zaila da hortik aldatzea; artzainak argudiatzen zuenean zahartutakoan behar zituela parte-txarrekoak, besteek kontra-argudiatzen zuten esanez ez zeuzkala gehiago, haietaz gabetzen jakin zuelako eta ahuntzari eman zizkiolako, txarto paratu zen orduan.

Hak ikasi euan (zuen) haren batetik nondik despedidu (*familiariak*).

Hil egiten egon zan orduan, txarto egon zan eta hil ezin eta hil ezin. Eta gero, apurtxu bat hobetu paratu zan orduan, jagi zan eta kortan eukazan ahuntzak. Eta ahuntz bateri arranean

(joarean) barruan sartu egin eutsezan (zizkion) (“eperdian sartu eutsezan”, *esango zuen Pablok ondoko aldi batean*). Eta arranean barruan sartu eta, ahuntza urteetan asmetan zan: klink, klink, klink, klink, klink, klink (*txilin-hotsa*), segun. Arrana entzuten ei zan, baia ahuntza ez ei zan gehiago ikusi (*barre*). Airan ibiltzen zan ahuntza, baia ez ei zan gehiago ikusi (Eulali eta Pablo).

Istorio honek aurrekaria badu, 1923an Pedro Mari Sautua orozkoarrak kontatu zion Barandiarani.

Las personas que poseen enemiguillos van al infierno. (*Saltzen ahal dira, erosi baino garestiago.*) También pueden ser donados. Así una vieja los donó a una cabra y ésta saltó al instante por la ventana de la cuadra donde se hallaba y huyó velozmente por los campos. Otra los donó al cedazo que se usa para cerner la harina de la artesa (azpiriko bayari) y al instante el cedazo, rompiendo el techo de la casa, se escapó por los aires (Barandiaran 1973b: 57-59).

Kontua da gure artzaina osatu zela, tradizioaren arabera hil behar zuelarik, horretarako ematen baitira familiariak. Mitoek esaten dutena bizitzak egiaztatzen ez duenean, onartuak dira lerrada batzuk; eta beharrezko dute malgutasun hori, osterantzean oso gutitan berraragituko lirатеke. Gero beti zuzentzen ahal dira kontraesanak eta gauzak beren forma mitiko-kanonikora ekarri. Artzainaren kasuan, familiarien kondena bete dadin-edo, gaineratzen da “txarto hil” zela, Uxuluzeko zubitik bota zuela bere burua, uraren gainean jausi handia egina zuen leku berean. Bi jauzien simetria hain da kausitua eta gertakaria mitoari hain doitua, non propio pentsatua ematen baitu.

VI. JAKOA, ANBOTOKO ANDEREAREN URRATSETAN

Ahuntzari sartu baino lehen, alabari eskaini omen zizkion Itzingoitiko artzainak familiariak, eta hark ez nahi. Eulalik ezagutu zuen neskatxo batek, Jakoak, bai onartu zituen aitarenak eta, ahuntza legez, airean joan zen.

Lehenago baztar guztietan egoten zirean sorginak. Nik daukat ezagututa bat, andra bat sorgina, bai. Zeberiokoa zan, eta ahizta bat eukan Orozkon. Jakoa geituten jakon, oraindo urte gitxi hil da. Bere aita, uste dot, hil ezinik egon zan: txarto dagoela eta txarto, egunak daroazela (daramatzala). Eta Jakoa egon zan krida Bilbon - hori neska gaztetxua zan -, etorri zan etzera. Etxekoak bere ei ekien (zekiten) gitxi gora behera edozerbere eukala aitak. Eta Bilbotik etorri zan orduan, aitak esan ei eutsen (zion):

- Alaba, zuk hauxe gura dozu, nik hemen daukadan kaja bat?

Eta:

- Baai.

- Hori zuretzako izango da.

Orduan entsegida hil egin zan aita, eta hai neskatxea egundaino ez zan paretan inon bere ez. Basoan egoten zan, eta ira baten (biltzen) gu joan eta “ai...!” egiten euan, eta “...rrra”, ikusi bere ez zan egiten nondik joaten zan.

Hori neure begiakaz ikusia da, e?

Hementxe, Aranguren, horren gizonaren familiakoa zan. Ni hor egon nintzan gero krida. Eta egun baten Arangunera etorri zan; eta emoten zeuntsen (zenion) jana, dana izaten zan, ba, gazia, eta txarra.

Eta hantxe egoten zan, “ai...!” egiten euan, eta ikusi bere ez genduan egiten nondik joaten zan. Hori neuk ezagutu dot, e? Jakoa. Neskatxea zelangoa zan! Beti ikusten genduan airan. Ez euan kalterik inori egiten. Ibiltan zan, ibili, airan.

Egotezan hemen, ba, Epaltzen: han bizi da nire tia bat, eta hantxe ondoan, goragoan ahiztea eukan. (...) Ni neskatxea nintzen, ba, zortzi urte edo zazpi edo holangoren bat eukin neban nik ezagutu nenduan orduan hori.

Eta hortik ibiltan zan Antonio kapadorea. Eta egun baten esan euskun (zigun):

- Gaur urten deust (dit) Jakoak. Eta egin deust kaballo ganetik bajatu, eta daukadazen ogerlekoak danak emon arazo deustaz (dizkit) beretzako.

- ¿Eta zertarako dozuz, andra hau, zertarako dozuz honeek ogerlekook?

Eta.

- Honeek daukadaz idiari jaten emoteko.

Urrea jaten eudielako (zuten) haik bitxook, horreek bitxook eukazanak (*familiariok*); berak esaten eutsen “idiari jaten emoteko”.

Lehen urrezkoak ziren ogerlekoak (*urre zurizkoak, zilarrezkoak*), haik handiak - zuek ez dozue ezagutu izango. Euliak jaten eudien (zuten) hori: “Nire idiak jaten dabe urrea”. Eta urrea jateko ogerleko zuriak emoteko esan eutsen Antoniori.

Eta emongo eutsen, ba, horrelako papela - gerra aurretik zan hori, e? - eta esan ei eutsen:

- Ez, nik papela ez dot gura, nire idiak jaten dabe urre zuria.

Esanekoa Jakoak Antoniori. Eta zelango ikaragarritzko bildurra emon eutsen. Eta Antoniok guri kontatu, Larran. Nire ama eta nire aita bere han egon zirean, eta Benito defuntua, hor dago seme bat.

Eta gu etzera sartu eta urten bere ez, Jakoa datorrela entzun orduan. Inoiz etzera joateko amak bere esaten euskun:

- Etorri arin etzera, e? Zer gero Jakoa etorriko da hortik.

Ba, airan etzera. Bildurra genduan, bildur (Eulali Bilbao).

Jakoa egiazki airean ibiltzen ikusia zuen galdeturik, Eulalik erantzun zuen:

Nik askotan Jakoa airean: “uieu!...” eskapetan, airean askotan joaten, airean, desapareziduten zan aktoan. (...) Eta beti ibiltzen zan airean: hara airan eta hona airan, karraka. Hai ez zan paretan, inon bere ez zan paretan.

Berriemaile berak Anbotoko Anderearen sorrera kontatu zuen eta baliteke hori izatea Jakoarenaren modeloa: bi istorioek eskema berdina dute eta hitz antzekoak neskameen patua deskribatzeko.

Anbotoko Señorea ei zan krida egon neskazaharren bategaz. Neskazahar horrek eukazan (zeuzkan), Axpuruko Axpean kuxuta, “jamerillak” (familiariak) esaten jakon holango eulitxu batzuk, kaja batean: horreek bitxo horreek, “jameril” gorriak, gauza txarrok. Eta hilteko momentuan ezin zan hil, eta egin ei eutsiezan (zizkion) donatu, neskazaharrak neskatzeari, Anbotoko Señorari. Esan eutsen (zion):

- Nik donatuko deutsut gauza bat, hartuko dozu?

Eta:

- Baai, andra, hartuko dot.

Eta orduan emon eutsezan berari - nire amak kontetan euan holan: haik moskak hareri, kajatxu bat.

Eta neskazaharrak esan eutsen krideari:

- Eskerrik asko. Eta bai, beti ibiliko zara airan, esan eutsen señoreak kridari, beti ibiliko zara airan, garra dariola.

Eta holantxe ibili zan, suarekin ibiltzen zan beti airan: Anboton egiten euazan (zituen) zazpi urte, eta horko atxean, Supelegorren, beste zazpi urte, hemen, Gorbeian. Hagaitik egin zan kondenatu, neskazaharrak kondenatu ei euan (zuen). Hai ezin zan gero inon bere paratu... beti airan (laburtua, Eulali Bilbao eta Pablo Aramendi. Ikus Abadianoko bertsioa, Barandiaran 1984: 147).

Anderea airean ibiltzen dela zentzu propioan ulertzen dugu, hala ikusten zuten mendi batetik bestera joaten zenean. Jakoa “airan, desapareziduten zen” zentzu metaforikoan da, berealdiko lastertasuna esateko, “airan” eta “karraka” hitzak elkarren onduan erabiltzen baititu Eulalik. Manu Chao kantariak bezala “El desaparecido” abestian: “Me dicen el desaparecido, que cuando llego ya me he ido, volando vengo, volando voy, de prisa de prisa, rumbo perdido”.

Halere, Jakoa sorgintzat zeukaten zentzu propioan, eta sorginak bai airean ibiltzen dira, inarraren edo familiaren indarrez. Sorginak uxatzen ditu gatzak, eta Jakoak ez zuen janari gazia jasaten. Antonio zikiteroari ogerlekoak eskatu izanak eskale baten jokaera arrunta badirudi ere, marka mitikoa du, txanpon haiek idiei emateko nahi baitzituen Jakoak, urre bazkatzen zuten prakagorriei emateko. Langile karioak, urrea kakegiten duen Mandagot-aren inbertsioa.

Jakoa ezagutu zuen Juli Aramendik uste du neska sorgin egin zela hilezinean zegoen aitaren eskua hartu zuen momentuan. “Familiariak” kapituluan azaldu da sorgingoaz gabetzeko eta transmititzeko modua dela eskua ematea. Beraz, zen bezalako sorgin, kalte egin zezakeen Jakoak: behin Larraondon, Juliren ahaide batzuk ukitu zituenean, denak jausi ziren eta goitik botaka hasi; fraide batengana joan behar izan zuten sendatzeko.

Zeberiko kondaira batean, hilezinean zegoen bat (ziur aski sorgingoa donatu ez zuelako) sutan joan zen apeza ikusita, Anbotoko Anderearen moduan:

Uriondon egon ei zan bat sorginduta. Eta sekula ez ei zan hiltzen, eta sekula ez zan hiltzen. Eta eroan (eraman) eutsien abadea, elexakoak, hil daiten-eta; elexakoakaz joan zan abadea eta,

ha abadea ikusi euanean elexakoakaz-eta... bentanako marko eta guztia sutan, garretan urten ei euan (zuen). Eta gero intierrua bere egin behar eutsien (zioten) kajan harriak dagozela (*airan joan ez zedin*) (Etxebarria 1995: 172).

VII. ESPERIENTZIA, MITOAREN ALDATZAILE

Jakoaren kasuan bezala, sorgin askoren baitan mito berraragitu bat kokatzen da; akusazio bat ere, zenbaitetan, eta horren kausa eta ondorioak ez dira inoiz arinak. Industria aurreko baserriko bizitza ez zen idilikoa, ez alde materialetik ez eta sozialetik ere, eta maiz sorginen sinestean gorpuztu dira auzoekiko mesfidantza, beldurra edo, besterik gabe, norberaren frustrazioa. Pobrezia ez baitzen falta, nahiko arrunta zatekeen albokoari lapurtzea, eta horretarako ahal magikoak baliatzea leporatzen zieten sorginei. Errukiz begiratzen bazieten ere jendeek beren auzo behardunei, saihestezina zitzaiekeen haien alderdi durduzagarrien sinbolizatzea irudi esanahitsuen bidez, eta hori gauzatzeko mekanismo bat hau litzateke: gertakariaren eta mitoaren arteko desberdintasuna nabariegia denean, ez jakinarena egin eta mitoaren bertsio moldatua sortu, errealitatearekin bateragarriago izan dadin.

Berriemaile paregabea den Eulaliren solasetan ikusiko da ez-ohiko esperientziak zer zentzu hartzen ahal duen mitoak inbestitzen duenean, nola uztartzen den errealitatea tradizioko bertsioarekin horretarako behar diren aldaketak eginez, bai gertakarian eta bai mitoan. Zaila da asmatzea horrelako ariketak noraino diren pertsona bakar baten lana ala talde batena, ala bienak. Nolanahi dela ere, pentsa daiteke prozedura berdina erabili dela mitoen eraldaketak jazotzerakoan, adibidez, elementu arrotzak mailegatuz bertsio berriak sortzen direnean.

VIII. GIZA KATUA ARANEKO HIL-BEILAN

Kondaira bat aditzen dugunean, komunzki laster ezagutzen dugu zer tipokoa den eta zelan jarraituko den; noizean behin, ordea, arrotz egiten zaigu, ez dugu ulertzen zerik zertara doan, eta hapax baten aurrean ez ote gauden sumatzen dugu. Hala gertatu zitzaidan Eulali eta Pablori entzun nienean Orozko Araneko giza-katuarena.

Hogeigarren mendearen hasieran bizi zen gizon horrek parte-txarrekoak ei zeuzkan eta katu bilakatzen zen, nagusiki lapurretan ibiltzeko. Eulalik eskatuta, hemen Teofilo deituko dugu bere ondorengoen begirunez, leporatzen zaizkion gertakariak larriak direlako; baina informatzailearen amak eta izekok ikusiak. Eulaliren ama, Benita “Handi”, kontalari jaioa zen eta entzuleen zirrara eragiten zuen, bere itxura fisikoa lagun: luze-argala, ile luze zuria eta lamina aire batekin gogoratzen dute ezagutu dutenek. Haren ahizta, Juana Larrea, Etxebarriaren berriemailea izan da eta, istorio kontatzen, ez zion zorrik Benitari. Izeko Juana horri entzun zion Eulalik honako hau (moldatua, ikus Arana 1996: 175).

Aranen andra bat hil zen eta, ohi legez, hurrengo gauean haren etxean bildu ziren auzoak hilbegiran, arrosarioa erreztatzeko eta; haien artean zeuden Juana eta Eulaliren beste izeko zahar bat.

Bat-batean leihoan jo zuten. Juana “nor dan atean joan zan, eta (ikusi ei zuen) periodiko handi bat erretratuakaz, hiru fraile errosariokaz jantzita”. “Hori beridikoa da, e? Hori ikusia”. “Zer ete da hau”, ikaratu zen emakumea. Are gehiago ordu berean entzun baitzituzten “itzelezko zaratak etxean, ohola guztiak zarataka, atea, leiho guztiak jotzen”. Guztiak “sustatu eta uleak lastuta, egon bere ezin zirean etzean bere, eta derrigor egon behar eudien (zuten)”. Ikustera hurbildu ziren leihora, noiz eta gizon bat (hilaren senarra, leihoan jo zuena, hurrean) sartu baitzen gorpua eroaten ohetik, gorpua ostuten. Denak beldurtuta, errezetan edo kurtzeak egiten. Eta bedeinkazioak botetan hasi ziren orduan, gizona katu bihurtu zen, katu handia. Bertan zeudenek inar-makilaz katuari jo, “eta “miaoo!...” holan, garrasi ikaragarri egin euan (zuen), begi gorri-gorrikaz, eta eskaileretatik behera urten egin ei euan kanpoko atetatik, eta joan zan”.

Hona heldu eta, Pablok gaineratu du:

Baina, beste zeozer egin euan katuak joan aurretik: intxaur batetik sobrekama bat atera eta hartaz hilaren ohe guztia estali.

Aldi berean, segitzen du Eulalik, hilaren eta giza-katuaren seme Marcos fraile zegoen komentuan ere zarata handiak entzun ziren: “Ezin ei ziren soportatu han fraileak, edozerbere pasetan zala baten baten familian”. Hurrengo egunean, Marcosen ama hil zelako abisua eman zuten orduan, “imini eudien seguru bere zera zabalik - zelan esaten jakon meza emoten den orduan...? (*Pablok erantzun*: Estolea.) Imini eudien estolea-edo zabalik eta esan eutsien (zioten) (Marcosi): ‘Zuk joan behar dozu etxera, zu ezin segi eta fraile etorri’. Eta halantxe atera eudien fraile hori (*komentutik*)”. Haren aitak parte-txarrekoak zituelako bota zutela, Pablok gaineratu.

Funtsean, meza ondoan apezak ez du zabalik ipintzen estola, liburua baizik, horrela jakiteko elizan sorginik dagoenez eta nor den (ikus beherexeago).

Istoria oso bitxi baitzitzaidan, beste aldi batean berriz kontatzeko eskatu nion Eulaliri. Eta orduan, xehetasun baten kronologia inbertitu zuen: hil-beilara ez zen gizona sartu, katu handi bat baizik, erpekaz gorpua eroan gura zuela; eta beilariak hasi zitzaizkionean jotzen, gizon bihurtu zen eta Teofilo zela ezagutu zuten; bitartean fraileen erretratua ageri zen leihoan. Biharamunean berean bota zuten komentutik Marcos semea.

IX. FRAIDEAK, MEZA-LIBURUA ETA LAMINAREN ESTALGIA

Araneko hil-beilan gertatua hain zen lazgarria non “danak geratu zirala uleak zutunik dagozala”. Istorio horretan ikara bera dela protagonista esan liteke, misterioarekin batera. Bereziki enigmatikoa da egunkariko argazkiaren agerpena, zerbait bitxi hautematen da, ez ote zen isekari baten ziria, non eta noiz jo ondo zekien batena. Bestela, kondairaren logikan, giza katuaren jukutria izan zitekeen: gorpua eskuratu ahal izateko aztoramendu sortzea; non ez ziren hiru fraide haiek komentuko semea eta lagunak; edo arima herratu bat, abitua hilen jantzia baita.

Hobeto kokatzen dira tradizioan istorioko beste elementu batzuk. Aranen eta Marcosen komentuan entzun ziren zaratak seinale ezagunak dira, komunzki urrun dagoen lagun baten kinka larria edo heriotza iragartzen dute. Marcaidak jaso erreferentzian (1923: 31), eri bat hil dela sumatzen dute haren adiskideek beren etxean harrabotsak entzuten dituztenean.

Holako zerbait eta gehiago ere sumatuko zuten komentuan; alegia, fraide baten amaren heriotza inguruan sorginkeria zerbait izan zela eta semeak zerikusi zuela. Komentuko gehienak susmoa egiaztatu nahi izan zuen eta test hutsezina egin zion: meza ondoan liburu zabalik utzi zuen aldarean, sorginik bazenez jakiteko; testak Marcos salatuko zuen eta berehala bota zuten komentutik. Liburu zabalduaren frogak “Abadearen ama sorgina” kondairan azaldu zuen Eulalik berak (“Sorginak” kap.); aldi honetan ez zezakeen ongi gogora frogarako meza-liburu erabiltzen zela eta, senarrak “estolea” iradoki zuenean, onartu zuen; izan ere, liburu hainako baliabidea da estola edozein parte-txarreko uxatzeko, “zabalduta” ez ohi den arren.

Markosen historia asmatzen saia gaitezke: amaren heriotzaren garaian komentutik botea zein bere ber joana, mitoaren gakoak interpretatuko zuten haren egoera berria eta aitaren ustezko parte-txarrekoekin nahasiko, guztia komentuko agintarien bermez.

Gorpua eramateko saioak hainbat interpretazio egin daitezke. Beharbada deabrukeria zen, sinestea baitzen txerrenak ibiltzen direla hil-hurrenaren inguruan, haren arima eskuratu ahaleginetan (“Akelarre” kapituluaz azaldu da), eta Erdi Aroko *Exempla* batzuetan irudikatuak ziren aingeruekin edo apezarekin borrokan; edo Ama Birginarekin, *Cantigas de Santa Maria* edizio baten irudian bezala (Schmitt 1994: 241). Bada, holako deabru batek katu itxura du Sébillot-ek bildu istorio batean (1968 III: 145); Limousin-go folkloean, berriz, katu begi pindartsu handiak hurbiltzen dira gaizkileen gorpua jatera (Van Gennep 1946: 799). Bestalde, sorginei nekromantzia praktikatzeko egozten baitzitzaien, zehazkiago hilotzak jatea edo haiez ukendu magikoak egiteak (Caro 1975: 117).

Ostera, Pablok gaineratu zuen zertzeladak, giza katuak sobrekama ederraz estali zuela hilaren ohea, “Laminaren amorantea” kondairara eramaten gaitu. Motibo honek zentzu aldakorra izan dezake: Orozkoko laminaren bertsioan hila ohoratzekeo jestua dirudi; Zeberioan, asmo zitala, hila harrapatzea eta galtzea (ikus “Ezkontidea” kap.). Ez dakigu zertarako nahi zuen emaztearen gorpua Araneko gizonak, baina haren famak eta testuinguruak ez dute deus onik iragartzen. Halere, konnotazio baikorrak kutsatua dago egintza, onerakoak izaten baitira intxaur barnetik oihaltzen ederrak Europako istorio anitzetan: intxaur oskol batean ekarri zizkion amabitxiak Mari Errauskine dantzaldirako jantzik zituen soineko xoragarriak.

Motiboak zentzu lazgarria zein gozagarria izan, jazoeraren natura-gaineko izaera indartzen du eta Teofilo parekatzen du oihaleria ederra daukaten izaki mitikoekin, laminekin batik bat; baita Ataungo jentilekin ere (ikus “Azkena” kap.), nahiz oihalak pertsonaia femininoei uztartuak izaten diren maizenean. Araneko gizonaren irudian ez dira eskas gauza bitxi anbiguoak.

X. KATU-SORGINAREN LAPURRETA ETA ZAURIA

Sorginen ahalmena da katu bilakatzea. Teofilo, esaten zuen Eulaliren amak, lapurretan eta “hecho txarrean” harrapatzen baldin bazuten, katu bilakatzen zen eta hanka egiten zuen. Behin, basoan zegoela ikatz egiten, ikusi zuen gure gizona ardiei adituten, aurkitzen zuen lodiena eroateko. Andreak egin zion: “Zer pasetan da ba, ardiei adituteko? Eta orduan, “...rrra, ondotik katu bat, ez euan gehiago gizonik ikusi. Eta hori askotan, nire amak askotan ikusi”. Beste aldi batez, katu handi bat etxera etortzen ikusi zuten. Teilatu bajutxo bat bazen eta handik igotzen al zen ganbarara...

Eta han (*katuak*) eskuak iminten euazan (zituen) orduan bentanara igoteko, gure amamak gura eutsezan (zizkion) eskuak ebagi. Eta aititak esan eutsen: Ez. Horrek umeak euezala asko, eta eroan dagiela artoa.

Eta zorroa kuxu (hartu) eta lepoan bajaten ikusi euan nire amak. Eta amama heldu zan ondora eta esan eutsen (lapurrari): "Nora daroazu hori zorroa?" Eta: "Maaauu...!" egin euan katu baltz horrek eta joan zen, desaparezidu zan aurretik." (laburtua, Arana 1996: 183).

Galdetu nion Eulaliri zeren itxuran etorri zen lapurra eta zerenean joan; eta lehen aldikoaren alderantzizkoa erantzun zuen: “Gizon forman igo eta zorroa bere gizon forman bajatu; baina inork ikusten euan orduan, katua izaten zan, handia: katu handia zorroa lepoan dauela, katua.”

Etxeok gogaituko ziren, beraz, eta amamak deiturik abadea etorri zen: “Bueno, esan zuen, bedeinkatu behar dot etxea’ -nire amamarena, Aranen. Eta egin euan santu bat ipini atearen ostean, bera ez dagiela (dezala) inork ikusi sartu orduan, baia santuak berak ikusi dagizala sartuten danak-guztiak. Orain etxea jausi da, baia hantxe egon da bere aldi guztian santu bat untzakaz josia.” Gure herriko etxe ateetan XX. mendearen erdian, eta geroago ere, plaka esmaltatuan azaltzen zen Jesusen Bihotzaren irudia zen, hain segur.

Lapurraren eskua moztea, existitzen den zigor bat bada ere, bere ingurumenean ulertzeko, sineste oso ezagun bat aipatzekoa da. Katu itxurako sorginak tximiniatik supazterrera sartzen

direnean erdi lapur erdi eskale, norbaitek jotzen baditu, zauriturik agertzen dira biharamunean (ikus “Sorginak” kap.). Lekuonak Oiartzungo kasu bat ekartzen du (1923: 76): “Bexamotxa” deitzen zuten andre bat sorgina omen zen; katu bihurturik zebilen batean emakume batek moztu zion zangoa eta orduan galdu zuen besoa; gero ezin hilez ere egon zen, bere sorgingoa beste norbaiti eman zion arte.

Zehazkiago, “Sorgin lapurraren ipuinean” aurkitzen da esku moztuaren motiboa.

Etxe batean bizi omen zen aita bere hiru semeekin. Sagasti handi bat zeukaten etxe inguruan eta gauero-gauero sagarrak osten omen zizkien baten batek. Anaia zaharrena kontu hartzen geratu zen gau batez, baina goizaldean loak hartu zuen eta sagarrak ostu zizkieten. Hurrengo gauean bigarren anaiaren aldia zen, eta berdin gertatu zitzaion. Hirugarrenean, anaia gazteena geratu zen, eskuan igitaia zuela. Goizaldean, sagastiko pareta gainean bultzo beltz haundi bat ageri zen. Jotzen du igitaiarekin mutilak, bai eta lapurra ezkutatu ere. Eguna zabaltzean, hiru anaiek esku beltz haundi bat aurkitu zuten pareta bazterrean, eta lapurraren bidean odol tantak. Odolari jarraikiz lapurraren leizera heldu ziren. Barrura sartu eta katu haundi batekin zegoen sorgina. Han bahitua zeukan printzesa bat atera zuten. Sorgina garaitu eta beste abenturak iraganik, printzesarekin ezkondu zen mutil gaztea (oso laburtua, Barandiaran 1973a: 62-66).

Bada, tradizioan zegoen esku ebakiaren ideia ezin zen Araneko kasuan gauzatu, errealitateak ezeztatuko zuelako: Bexamotxak ez bezala, bere bi eskuak osorik zituen Teofilok, eta amamaren asmoa bururatu gabe gelditu behar izan zen. Mitoa, berrituko bada, ezin da errealitatetik hain nabarmenki urrun geratu.

Horiek hola, eredu kanonikotik aldentzea baimendu zaio giza katuari. Sorginak katu itxuran ibiltzen dira gauaz eta biharamun goizean agertzen beren jende formaz, zauriturik; eta Eulalik kronologia hori alderantzikatzen du batzuetan: Teofilo gizon ibiltzen zen ardiei adituten eta gizon etorri zen artoa lapurtzera; eta berdin Aranen, emaztearen gorpua eramatera. Errealitatearen bortxaz gizon itxura behar zuen, ezagut zezaten biharamunean zauritua ageri behar izan gabe. Baina beste batzuetan tradizioko kronologiara itzuliko da berriemailea: arto lapurreta lehen aldiz kontatzean esaten du “katu bat etortzen” ikusi zutela; orobat “Araneko hilbegira” bigarren bertsioan, Teofilo katu sartu eta gizon joan zen beilariek inarraz jo zutenean. Zalantzak gorabehera,

tradizioko ereduaren iraunkortasunak salatzen du aldaketak aski efimero diratekeela eta bertsio zaharrak nagusitzeko joera duela.

Gertakariaren eta egituraren arteko kontraesanak oztopoak dira baina ez gaindiezinak, eta mitoaren indarrak gainditzen dira. Teofiloren lapur harrapaezin famak katu-mainak gogoraraziko zizkien auzoei. Mattin Irigoienek *Hautsi da kristala!* antzezlaneko pertsonai batez esaten da: “Behin, kasik menean nuen batez... bixt eskapatu zitziakan gatu basa bezala” (1997: 33); eta atsotitzak dio: “Katuak daroan sardinari oratu egion/k”. Konparaziotik metaforara eta metaforatik mitora egingo zuen bidea Araneko gizonaren katutasunak, parte-txarrekoen sinestea lagun. Jakoaren airekotasuna bezala. Eta horrela sor zitekeen irudi harrigarri bat: katu handi bat lepoan zorro bat arto daroala.

XI. NORK BERE BAITAN MITOA HARAGITU

Gehienetan hurkoari usnatzen zaizkio kutsu mitikoak. Zenbaitek, aldiz, beren esperientziak kode mitikoaz interpretatu eta naturaz gainekotzat hartzen dituzte. Eta horiez barre egiten dute beste batzuek, bide batez gogoetatzen gehienak berdin gezurra liratekeela. Hauxe kontatu dute Jose Mari Aramendi eta Angela Bilbao orozkoarrek:

Sikitea (lehortea)... eta San Juango kanposantuan egon ei zan bedarra. Eta Bengoetzean eukiten euan (zuen) Alkate Baltzak tabernea. Hantxe gizon batek esan ei euan: “Bajakiat non dagozan sarankada (saski) bi bedarra! Haiexek ekarri behar joadaz (ditiat) eta...”. Baia besteren bat baegoan (zegoen) baekiena (zekiena) San Juan kanposantuan zala, eta hori entzun orduko egin euan: “A! Hori hara joango dok bedarretan? Hori baino lehenago neuk bere joan behar joat (diat)”. Joan zan aurretik, eta han egoan (zegoen) bedarra ebagiten. Eta bestea (tabernan hitz egin zuena) joan zan geroago, eta zer egin euan? Sarana hartu eta, ba, bota barrura horma ganetik. Eta barruan egoanak ikusi euanean hormatik sarana etorrela... Mekaguendiez! Gizonak pentsatu euan urten eutsela (ziola) arimaren batek: karraka etxera. Eta sarana bota euenak, lasai, bedarra ebakia hartu eta eroan. Gero sinistuko eutsien: “Aditu egizu, urliari arimeak urten egin deutso (dio) San Juango kanposantuan” (moldatua, Arana 1996: 165).

Ez du aspaldi, Domu Saindu arratsalde batez Luiaondoko hilarrietatik etxerakoan, gizon batek kontatu zidan antzeko zerbaite gertatu zitzaiola berari. Hogeita hamar bat urte lehenago, bere haur baten hilobian koroa ederra ezarria zuen; arratsean euria hasi eta, koroa hondatuko zen beldur, joan zen kentzera; hilerriko hormaren azpiko bidera heldu zeneko belarra bota zioten burutik behera; izutu zen gizona, hil batek urten ziola, eta ihesi joan zen korrika. Baina gogoetak egin eta pentsatu zuen norbaitek kanposantuan belarra moztu eta murrutik bidera bota zuela, handik etxera eramateko gero; eta salaketa ere ezarri zuela ustezko lapurraren kontra. Sineskorrez trufatzeko esaten den istorioa, sinetsi eta berriztatua izan da.

Umore erregistrotik kanpo beste bat, Luiaondon entzuna hau ere, Nabarrako lezaundar batek kontatua. Laminen istorioak entzutean gogora etorri zitzaion bere herriko emazte bat.

Lezaun gainean bada mendi bat, Iturgoiengo Trinitatea, eta handik behera haran sakon bat Allozko urtegiraino: Arbioz du izena. Oso malkorra da eta inguru osoan badira itzelezko harri solteak. Eta gure haurretan, xaharrek esaten ziguten: “Begira, hau duk gizandien bolatokia, eta hauek dituk bolak”. Eta bazen harri bat zulatua eta hura ere: “Ikusten duk han, haitzulo forma duela? Bola jaurtitzen zutenean, ba hantxe jotzen zian...”

Leku hori pasatu eta ibarrean behera, ezkerrean, bada harpe bat. Herriko andre bat, Dolores - burutik joana izango zen -, egoten zen han.

Goizean abiatzen zen etxetik, besopean saskitxo bat eta barruan traputxoak; erre kara joaten zen, zapitxoak ikuzi eta gora jo, ezkerreko magalean zegoen harpera; hango sarreran oihalak eguzkitara hedatu eta bera harri batean jarrita bere burua orrazten eta orrazten. Halako iletxo txikiak zeuzkan, baina orrazten eta orrazten. Eta gu joaten ginen haren nardatzera, hura ohartu gabe traputxoak kentzera eta hola, ezta? Eta orduan harpera sartzen zitzaigun. Uxatzen gintuen, baina asko ginenean barnean ezkutatzen zen. Eta guk pentsatu ere ez barnera sartu: beldurra! Gero, ateratzen zenean, alde guztietara begiratzen zuen ea inor ote zen bazterretan, eta atzera ere orraztera, edo erre kara traputxoak, xukatuak zirenak igual, berriz garbitzera - ezpela bada han, eta han hedatzen zituen.

Egun batez gaixo egon zen - haren iloba bat gure adinekoa zen eta hari galdezka segurtatu ginen ohean zegoela - eta lagun bat eta biok joan ginen haitzulora, bi kilometro etxetik; sartu ginen, oso sakona zen eta, kandelak eraman genituen, ez zen fisik barnean (laburtua, Dionisio Argandoña, 1999).

Dionik ez zuen inoiz bere herrian laminek edo antzeko izakien konturik entzun, baina Doloresek bazukeen haien oroitzapena – non ez zen Ama Birginarena, hura ere ur bazterrean ikuzten edo orrazten irudikatzen baita herri kantetan. Sinestea sintoma bilakatua, lamin-konplexua edo.

XII. ERABILPENA

Miguel Angel Asturiasek, *Hombres de maíz* nobelako pasarte batean, azaltzen du nola etengabe eta tragikoki elikatzen den mito bat, emazteak utzitako senarrek María Tecún deitzen den haitz batera jotzen dutenean.

Escapan en busca de la “tecuna”, agasajados siempre por la esperanza de encontrarla, agasajo que se convierte en lágrimas, por la creencia popular que, traídos a la cumbre de María Tecún, ven reproducirse a sus ojos, en aquella piedra que fue mujer, la imagen de la mujer que les abandonó la casa, la cual empieza a llamarlos, todo para que el enamorado, ciego de amor, se precipite al feliz encuentro y no vea a sus pies el barranco que en este mismo momento se lo traga. (...)

- Estos seres se sacrifican para que viva la leyenda- apuntó el bávaro.

- Inconscientemente -dijo doña Elda- porque ninguno de ellos sabe que es movido, imantado por una fuerza oculta para tal fin.

(...)

- Nada importan las víctimas ¿verdad Deferic?, con tal que se alimente el monstruo de la poesía popular. Un hombre que dice fríamente que son seres que se sacrifican para que viva la leyenda, es detestable.

- Si no diciéndolo dejara la leyenda de exigir sus víctimas, lo callaría, pero es así, Elda, y hay que reconocerlo fríamente, aunque parezca detestable. Desaparecieron los dioses, pero quedaron las leyendas, y éstas, como aquéllos, exigen sacrificios; desaparecieron los cuchillos de obsidiana para arrancar del pecho el corazón al sacrificado, pero quedan los cuchillos de la ausencia que hiere y enloquece (Asturias, *Hombres de maíz*, 198-200 eta 236).

Sinesteak erabiliak izaten dira, artetan zitalkeriaz. Agian nahi gabe Asturiasen legendan. Beharbada krimen bat estaltzeko, Lukuren “Bertzetan” ipuinean (“Basajauna” kap.). Edo interes arruntagoaz: Salman Rushdie-k *The Ground Beneath Her Feet* eleberrian gogoratzen du *The Man Who Shot Liberty Valance* filmean, egunkari zuzendari batek dioena: legenda gertakari bilakatu denean, legendak duela lehentasuna (“When the legend becomes fact, print the legend”). Publikoak gustuko duena argitaratzeko lehiatik informazioa manipulatzera bide laburra da. Madrilen 2004ko martxoko atentatuaren ondoan eman zen bertsio ofizialaren harira, *Libération* egunkariak Talleyrand-ek formulatu zuen printzipio bat ekarri zuen harira: “Politikan, zinezkoa baino garrantzitsuago izaten da sinetsia”.

XIII. ARIKETA EZ HUTSALAK

Eulali eta Pablori eskatu nienean “atxinako kontuak kontatzeko, sorginenak-eta”, laminak eta gogoratu zituzten lehenik. Gero, Araneko katuarena heldu zenean, Eulalik esan zuen amak ikusia zuela Teofilo katu bilakatzen: “Hori egiazkoa, ez atxinako sorginen kontuak eta horreek, ez, hori ikusia”. Eta berdin Araneko beilari buruz: “Hori da beridikoa e? Hori ikusia”. Orduan, Pablok ohartarazi zuen: “Hori ez da atxinakoa izan”.

Hitz hauetatik bi ondorio ateratzen ahal dira, bata sinesteri buruz eta bestea mitoaren denborari buruz. Pablori ulertzen zaio lehenik kontatu zituzten istorioak (laminenak) antzinakoak direla, ez gertatuak, ez lekuko sinesgarri batek ikusiak. Lekukoen bermea ez dutenak gezurra lirатеke, funtsean edozeinek bere bizipenez egin ditzakeen interpretazio oker eta barregarriak bezalaxe. Mito sinesgaitzak lirатеke antzinakoak; benetakoak haien arraberritze garaikideak.

Nola dela ere, eszeptizismoa sustatzen duen ingurumenean, esperimentatu izana beharrezkotzat jotzen da - baina ez nahikotzat - erligio nagusitik kanpoko sinesteak aintzat hartzeko. Mitoa, hitza sortu zuten antzinako grekoen iritziz, *logos* edo hitz egiaziaren iruntzia zen, eta gaur egunean ere horixe da haren esanahi ohikoena; hortaz, berezkoa da mitotik at ezartzea norberak sinesten duena. Eta hori ere ez da aski besteek onar ditzaten, Eulalik dioenez: “Nire amak askotan ikusia. Eta nik hori kontetaketatzat bere ez dot eukiten, zer esango dau jendeak: ‘Hori burutik dago, zoratuta dago hori andra hori!’”.

Mitoen berritzearen eragina ezin da hutsala izan: aire gaiztoak zigortua zela Gaxuxa, Itzingoitiko artzainak parte-txarrekoak zituela, Araneko gizonak katu itxuran lapurretak egiten zituela, Jakoa aitarengatik sorgin bilakatu zela... Iritzi horiek, multzo sozial batek partekatuta, larritasun aski zuten auzo harremanetan ondorioak izateko; eta ez ziratekeen horrela eratu mitoen aurrekaritza gabe. Sinesteak ematen dituen irudikapenek indar aski dute pertzepzioa baldintzatzeko eta gertakariak fagozitzatzeko. Aldi berean, aski malgutasuna ere badute errealitatetik sobera ez urruntzeko.

Moldaketa gehienek eragileen oroitzapenak baino luzeago irauten ez bazuten eta mitoek gutxieneko egonkortasuna izan atxiki badute ere, beren historian aldaketak jaso baitituzte, eta zilegi da pentsatzea arraberritzeek dutela gertakari historikoaren eta egituraren arteko giltzadura ahalbidetu, haiek izan direla mitoen bilakaerako gauzatzaile; ikusi ditugun kontakizunetako motibo uztarketek eta inbertsioek eraldaketak sor ditzakete, Lévi-Strauss-ek ematen dien zentzuan. Difusio prozesuan, jende talde batek beste baten mitologiako elementuak bereganatzerakoan egokitu egiten dituenean, arraberritzeko prozedurak ibiltzen dira lanean, pertsonaia berriei kondaira zaharretako pertsonaien rolak betearaziz. Horrela sartu dira tradizio paganoko kondairetan Deabrua eta Ama Birgina, antzinako izaki mitikoen ezaugarriak hartuz - eta oraintsu arte atxikiz. Hurrengo kapituluko gaia izango da hori.

DEABRUA ETA AMA BIRGINA

eraikitzaileak eta teknika emaileak

Gure mitoek ez dute kontatzen mundua nola sortu zen, ez nork egin zituen eguzkia eta ilargia. Bai, aldiz, ilargiko orbanak gizon baten irudia direla, Jainkoak hara punituta elorri azao bat bizkarrean, igande batez hesia moztu zuelako. Beste istorio batek esaten du Zazpi Izarrak direla etxe bateko bi idiak, idien bi lapurrak, haien atzera atera ziren morroia, neskamea, txakurtxo eta, azkenean, nagusia; Jainkoak han goian ezarri zituen denak, nagusiak egin zituen madarikazioengatik (Cerquand 2017: 12, 13 zb.). D'Huy historiagileak daraman mitoen ikerketa filogenetikotik ondorioztatzen du Zazpi Izarren kondaira sar daitekeela, menturaz, paleolitikotik datozen “ehiza-kosmiko” mitoen multzoan. Holakorik!

Hain gora jo gabe, munduko hainbat gauza nondik datozen edo nola hasi diren azaltzen digute mito etiologiko zenbaitek. Eraikin, ondasun edo jakintza batzuk naturaz gaineko jatorria dutela esaten dute, batez ere eder, bitxi edo garrantzitsuak direnak, ezin pentsatua bailitzan jendeek eginak direla. Beharbada beste munduarekin zordun sentitu izanak ustearazi die artoa Basajaunari hartu ziotela, mairuek edo laminek dolmenak eraiki dituztela, baita zubi eta eliza batzuk ere. Non ez dituen deabruak egin, edo Ama Birginak.

Bi izaki hauek ongi ezagutzen ditugu, hemengo erligio nagusiko pertsonaiak baitira. Baina kristau teologian duten eitea eta mitologian dutena ez dira berdinak: kristautasunean ezin elkartuzkoak dira; herri kondairetan, berriz, alderdi amankomunak dituzte. Izaera sinkretiko horretara nola iritsi diren aztertzea da ondoko lerroetako xede nagusia, hasi eraikitzaileen kondairetan, eta gero jakintza eta tekniken emaileenetan.

I. DEABRUAREN ZUBIAK

Deabruak eraiki dituen zubien artean ezaguna da Kastrejanakoa. Haren istorioa honela kontatzen dute Orozkon:

Neska batek, esne saltzaile, erreka zeharkatzen zuen esnea banatzeko eta, urak igo egiten zuenean, buelta handia egin behar zuen. Halango batean esan ei zuen:

- Ez eta sikieran deabru batzuk zubia egiteko hemen, batetik bestera pasetako hori buelta hori egin barik!

Deabrua presentatu eta bai, zubia egingo zuela haren arimagaitio. Eta hasi ziren deabruak lepoan harriak ekartzen, Gorbeitik. Bat ei zegoen koxo, eta hark harri txikerragoak ekartzen zituen, baina aurrerantza zihoan lana eta laster bukatuko zen. Eta neskatoa larri; abadeengana joan eta, azkenean, fraileren batek esan ei zuen:

- Ba, hemen kantarazo beharko zaie oilarrei.

Orduan jendeak joan ziren liburuak eskuetan eta haiekaz pla-pla-pla jotzen hasi, oilarrek egiten duten legez, kantarazoteko, deabruak ez zezala neska eroan. Eta orduan oilarrak ere pla-pla-pla egin, eta gero kukurruku. Deabruak galdetu: “Qué gallo canta?” Jendeek: “El blanco”. Eta deabruak: “Cal y canto!” Eta siga. Gero oilar gorriak jo zuen, eta deabruak “Siga” berriz. Eta hirugarren kukurrukuagaz: “Qué gallo canta? - El gallo negro”, jendeek erantzun. Eta deabruak: “Todos los demonios al infierno!”.

Eta joan ziren harri bat falta zela, zubia ezin bukatu.

Gero euren artean hasarretu deabruak, dena zela koxoaren errua, haren harria zela eskas. Eta panadera koxo horri.

Eta harri horren faltan geratu zela Kastrejanako zubia (moldatua, Sofi Etxebarria; ikus Arana 1996: 364).

Barandiaranek bildu dituen istorio honen bertsio gehienetan (1973a: 456-464) hargin batek du deabruarekin tratua egiten, batzuetan neska batek. Gatzaga Urkulukoan (Gipuzkoa), amak salbatu zuen alaba: galbahe baten azpian kandela piztu zuen eta gainean oilarra ipini, eguna zelakoan jo egin zezan. Zeberion (Bizkaia), abadeak neskatoari aholkatu zion “martian arraultza eta martian txita izan den oilar bat” topatzeko eta kantarazteko (Etxebarria 1995: 162 eta 243).

Larrabetzuko bertsioan, harginak etsitua zuen zubia, egunez egiten zituen lanak gauez norbaitek botatzen zizkiolako, eta onartu zuen deabruak egitea (Mikolas edo Nikolas izenekoek); gero beldurtu zen eta, abaderen aholkuz Marti oilar bat hartuta, gaueko hamabiak jotzerakoan esan zion: “Marti oilartxu gorria / Orain balia, balia / Orain balietan ez bazara / Joan da nire bizia”. Oilarrak hegalei pla-pla-pla eragin, kukurruku egin eta Mikolasak tximista legez joan ziren ihes, zubia harri baten faltan utzita (Barandiaran 1973a: 463).

Kortezubiko bertsioan, Oizmenditik ekartzen zituzten deabruak harriak; abadeak, bere neskameak abisaturik eta deabruak oilar guztiak geldituta zeuzkatela igarririk, oilaloka bati hiru arrautza hartu zizkion, banan bana hautsi eta, hirugarrenean zegoen “gallo blancok” jo zuenean, Mikolasek beharrari utzi eta koxoari errua bota (ibid.).

Azelaingoan (Andoain), harginak zubia eginxea zeukanean, blaust! erortzen zitzaion behin eta berriz (Azkue 1966: 381). Arrosakoan (Baxenabarre), bere odolez izenpetu zuen harginak ituna eta, inork ikusi gabe, hasi ziren lanean deabruak, “to Gillen, hartzak Gillen, emak Gillen” elkarri erranka; harginaren emaztea gauerdia baino lehentxeago oilategira joan zen, eskuetan argi bat: oilarrak kukurruku jo zuen eta deabruak lana utzi zuten harri bat ments (ibid.: 377). Modu bertsuan eraiki zuen deabruak errota bat Belgikan, Amblève ibaian: errotariaren emazteak oilarrari kantarazi zionean, deabruak dena desegin zuen, eta ubidera erori ziren harri alimalekoak besterik ez da lanetik geratzen (Sébillot 1968 II: 332).

Bertsio batzuetan azaltzen diren hiru koloreko oilarretatik, beltzak du irabazten Orozkon, eta zuriak Kortezubin. Koloreen esanahiaz espekulatu gabe, gauza aski sinple litzateke: beltza kolorerik eza da, zuria kolore guztien batuketa, eta gorria kolore antonomasikoa, “colorado” hitzak adierazi duena. Haietarik gorria da ospetsuena Bizkaitik (Larrabetzu, Amorebieta) Baxenabarreraino (Arrosa), bereziki “martxoko oilar gorria” (“martikoa” Bizkaieraz), Arestiren koplek goraipatua.

Deabruari eratxikitzen zaizkien eraikinak ugari dira, Thompson-en katalogoko motiboeak erakusten dutenez: G 303.9.1.1: “Devil as builder of bridges (England, Wales, US., Lithuania, Japan)”. G 303.14: “Devil's unfinished work cannot be completed by human hands. One stone missing church”. G 303.14.2: “Devil builds bridge except for one stone. No one dares to add the final stone (England)”. K 1691: “Devil is deceived of his reward by premature crowing of cock”. M 211.2: “Man sells soul to Devil in return for devil's building house”.

Kriseiluko genioak Aladinoren jauregia bukatu gabe utzi zuela azaldu da “Laminak” kapituluan. Bada, gau batez bururaino egindako etxeak egiazkoak ziratekeen, arautuak ere, dio Varagnac-ek:

Frantziako Bresse eskualdeko ohidura zahar baten arabera, herri-lurretan etxea egiten zuena etxearen eta inguruko lurren jabe bilakatzen ahal zen, baldin eta eraikina gau bakar batez bururatzen bazuen. Horrela, nomada batek sedentario bihurtu nahi bazuen, (...) jabe

izateko aukera kenezina bazuen (G. Jeanton-en *Habitation paysanne en Bresse* zitatzuz, Varagnac 1948: 175).

Ingalaterrako zuzenbide arruntak *Common law* behartsuei ematen zien gau batez egin etxearen jabegoa, eta auzolanez lortzen zuten (Rahnema & Robert 2008: 111, Vinogradoff zitatzuz). Orain, megapolietako aldirietan bizileku bat baimenik gabe lortu nahi duten etorkinek beren txabola eraikitzen dute egun batetik bestera, gauaren anparoan; “paracaidistas” deitzen dituzte Mexiko hirian.

II. SAN MARTIN ETA OILARRA

Bretainiako kondaira bateko deabruak zubi bat egin zion San Martini:

Vendée eskualdeko itsas bazterrean, Pont Saint-Martin edo Pont d’Yeu (Yeuko zubia) deitzen da marea behean azaltzen den haitz-kate zabal bat, eta San Martini zor zaiola diote. Egun batez, santua estuturik zebilela txaluparik ez zuelako topatzen Yeu uhartera joateko, Satanen eskaintza onartu zuen, gau bakarrean zubi bat eraikiko ziola. Bukatuxea zen lana oilarrak kukurruku egin zuenean, eta deabruak airean ekartzen zituzten harriak itsasora erori ziren, orain ikusten diren lekura (Sébillot 1968 II: 70).

Beste bertsio batean (ibid.), deabruak ordainaz eskatu zuen ondoan pasatuko zitzaion lehen izakiaren arima; San Martinek katu bat igorri zion, eta deabruak, sumindurik, ostiko batez bota zuen zubia.

Santua debruaren garaile jaioa da, martiko oilarra bezain - 'Martin'/'marti' izenen homofonia ere batzen ditu biak. Euskal Herriko Martinek “Hamabi misterio edo egiak” kantua erabiltzen du txerrenaren aurka, zenbakidun galdera-erantzun bakoitzari egia bana lotuz. Luzaiden esaten dute arrosario bat balio duela: “erratearekin deabru batek infernuko zolan leher egiten omen du” (Azkue 1966: 38; 1959: 196). Bertsio batean, San Martinek erremintari lanetan lagun ziezaion deitu zuen deabrua, eta hark, berekin ez eramateko, “Hamabi misterio handiak” esanarazi zizkion (Azkue 1966: 312). Orozkoko Justo Respaldizak etxeko amamari askotan

entzuna zion legez esan zuen kantua, “Kastrejanako zubia”ren kondairaren amaieran, oilarra lauzkatzeko edo:

- San Martin esan egik bat.
- Gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gaiozak (gaitik).
- San Martin, esan egik bi.
- Erromako altara santuak bi. Gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gaiozak.
- San Martin, esan egik hiru.
- Hiru trinidadak hiru. Erromako altara santuak bi. Gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gaiozak.

(Kantuak horrela segitzen du hamabira arte):

- San Martin esan egik hamabi.
- Hamabi apostoluak. Hamaika mila aingeruak. Hamar mandamentuak. Bederatzi ordenamentuak. Zortziak zeruak. Zazpi sakramentuak. Sei serbillak dira sei. Kristoren bost ilagak bost. Lau ebanjelistak lau. Hiru trinidadak hiru. Erromako altara santuak bi. Gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gaiozak.
- San Martin, esan egik hamairu.
- Ez dozak hamairu:

(Kantuz)

“Oilarrak jo jok munduan,

“Aingerutxo bat zeruan,

“Ama Birginari entragatu dautset arimatxu bat altzoan”

San Martinen kantua Europa osoan ezaguna da, Espainiatik Suediaraino, Ingalaterratik Errusiaraino, eta Latino Amerikara ere heldu da, Aarne & Thompson-en arabera (T 812: “The devil's Riddle” eta T 2010: “Ehod mi yodea. Le dodeci parole della verità. Las doce palabras retornadas. The numbers from one to twelve are brought into relation with various objects, often of religion significance”).

III. DEABRUAK ETA FAMILIARIAK

Kondaira hauetako deabruetan familiariak usnatzen dira. Eta alderantziz. Biok ala biok arin egin dute lan eta laster bururatzen. “Enemigulloek” gau batez eraiki omen zioten etxea Bargoutako Juanisi, eta harri bat falta du (Barandiaran 1973a: 479). Deabruari eta familiariei berdin deitu egiten zaie eta berehala agertzen dira, lanerako prest. “Kastrejanako zubia”ren bertsio batean iturrira joan behar zuen neskak esan zuen: “Ez ete dira agertuko horreek frakagorri batzuk sikanen hemen zubi bat egiteko!” Atoan kaballero elegante bat agertu zitzaion, baina prakagorriek zuten lan egin, haietarik koxo batek harri handiak ekartzen zituela (Etxebarria 1991: 384).

Prakagorrien zein deabruen mitoetan ur-arazoak gogoetatzen dira, alde desberdinetatik. Ur eskasia denean, familiariek ur gehiegi ekarri eta uholdea eragiten dute; ibaian ur sobera denean, deabruak zubia egiten du, neskak iturriko ura ekar dezan. Bi tipoetako kondairak pareka daitezke: lehenean abadearen neskamea eta uraren beharra dauden lekuan, bigarreanean iturrira doan neska eta zubiaren beharra daude. Xehetasun batzuek areagotzen dute elkarren ahaidegoa: Urkuluko zubiaren istorioan, gorago aipatuta, oilarra bahearen gainean ezartzen da, familiariez gabetzeko balio duen tresnaren gainean; eta maltzurkeria erabiltzen da familiariak zein deabruak garaitzeko, hurrenez hurren, bahean ura ekartzeko aginduz eta oilarrari joaraziz.

Alabaina, denak demonioak izan arren, jenio desberdina dute. Lanaren truke deabruak arima eskatzen dute eta lansarik gabe gelditzen dira; familiariek, deus eskatu gabe, azken orduan mendekuz hartzen dute beren jabea. Bien istorioekin barre egiten da, ez ordea modu berdinean: dibertitu egiten da prakagorriekin, iseka egiten zaie deabruiei.

IV. AMA BIRGINA ETA DEABRUA

Elizak eraikitzen ditu Ama Birginak, deabruak ere inoiz...

(Bilbon), Begoñako iskilerak hasten diren lekuan gura eudien (zuten) eleiza egin eliztarrek, behean. Baia eliza egiteko materiala gora eroan (norbaitek). Eta idiakaz hurrengo egunean behera eroan jendeek. Eta atzera barriz gora. Eta esan eudien:

- Ba, guk beherantza hainbeste idi-uztarri behar izateko, gorantza zelan eroango daudiez (dituzte)?

Eta paratu ziren sorosten eta ikusi eudien zuri-zuri-zuririk jantzita bat (aingeru bat), eta esaten ei euan:

- Tira Txuri!

Eta errez-erreza, material guztiak gora. Jendeek idiak behar eudiezan (zituzten) beherantzarako, eta gorantzarako behiek altzatu!

- “Tira Txuri!” - behi izena da “Txuri” - eta behiek gora eroan.

Hori ikusi eta jausi zirela sorosten egozanak (zeudenak) (Sofi Etxebarriak kontatua, Arana 1966: 373).

Kondaira honen bertsio askotan, santu batek edo Ama Birginak berak dituzte materialak garraiatzen gauaz (ikus Barandiaran 1961: 9-41), eta soroslea gogorki zigortzen.

(Bizkaian) Zeanuritar batzuek Andra Mari parrokia Plazara eroan gura izan zutela eta hasi ziren, ormak botata, harriak behera ekartzen. Baia gauean aingeruek-edo atzera eroan. Errekaurreko (Andra Mari ondoko baserriko) batek berak jagongo zuela eta, atezulotik nor dan zainduten paratu ei zen. Eta begira dagoela entzun ei zuen:

- “Aida Zuritxo eta Gorritxo, / Hor begira dagoenari begiak urten balio”.

Eta ez zala han etxean faltako koxo, manku edo itsu. Lehen egoten izan ei dira, orain ez dakit (laburtua, Barandiaran 1961: 17).

Legendak, hain ospetsua izateko, sustrai historikoak izan zitzakeela esan da. Baina gaia folklorikoa da batez ere, berdina leku askotan: Bizkaian, Ibarrurin, Ereñuzarren, Aulestian, Muxikan, Ondarroan, Berriatuan eta Artziniegan aurkitzen da. Zigorra ere antzekoa, gehienetan begiratzea begiaz ordaintzen. Errigoitin begia galarazi zion Ama Birginak begiraleari; Mendatan San Migelek bota zion: “Begira dagoenari, begia atera begio”, eta ordutik aurrera haren etxean bada itsu edo betoker bat. Gipuzkoako Amezketan eta Aian, San Bartolomek eta San Estebanek, hurrenez hurren, aldatu zituzten beren elizetako harriak, eta begiralearen begia atera. Itziarko Amak begia kendu zien zelatariaren ondorengoei ere, eta halaber Arantzazun eta Ezozian.

Zigorrik gabeko bertsiorik ere bada, hala Korsikako Poggio di Tallano-ko Jondone Joane kaperarena:

Poggiotarrek, eliza bat eraikitzeko, harriak garraiatu zituzten landa batera; biharamunean, harginek herriaz beste aldean topatu zituzten materialak, beheko ibar batean. Poggiotarrek atzera ekarri zituzten; eta biharamunean berriz behean atxeman. Orduan ezkutatu ziren eta ikusi zuten ezezagun bat asto gainean harriak ibar aldera eramaten. Zergatik egiten zuen galdetu zioten eta hark erantzun: “Jondone Joane naiz eta nihaurek hautatu dut elizaren lekua, zuena madarikatua delako, orain ehun urte emazte bat eta haur bat hil zituen gizona hantxe baita ehortzia” (laburtua, Sébillot 1968 IV: 116).

Zubi eta eliza eraikitzaileen istorioen zenbait xehetasunek elkarren isla dirudite. Zubia eskatzen duen neskatoak esnea (zuria) garraiatzen du; behi (esnedun) zuriek altxatzen dituzte harriak, aingeru zuri bat behizain dutela. Zerutarra da aingerua eta behiak ere, naski. Haien aurka den sorosleak, begia galdurik, gorputz asimetrikoa izango du, deabru herrenak bezala. Sofiren bertsioan behien eta idien oposizioa agertzen da, lehenak harrigarriki azkarragoak – zerutarrak.

Beste lotura esangarriagoak ere badituzte bi kondairek: *Kastrejanako zubia* eta *Begoñako eliza* tipokoak elkarren eraldaketa dira, haien kontakizunen egiturak alderatzen direnean ageri da elementu zenbait parekoak direla eta beste zenbait alderantzizkoak. Ama Birgina eta deabrua ez dira berdinak, noski, baina beheago azalduko da eraikitzaileak oro baliokide direla eta antagonismoa ez dela beraien artekoa, jendeen eta izaki mitikoen artean baizik.

V. DEABRU ELIZAGILEAK

Deabruak eraiki elizetan adibide ospetsurik bada: Aachen-go katedrala hark egina omen da, horregatik du arraildura bat ezin kendua (Muchembled 2000: 416). Frantzian ere:

Eliza ederren eraikitzaile izateko ohorea partekatzen dute Satanez lamiekin. Meuse departamentuan, Aviotte-ko auzapezaren emazteak eliza bat nahi zuela tinkatzen zuen senarra, hainbestearino non gizonak ituna egin baitzuen Satanez, eskualdeko eliza ederrena egingo ziola gau bakarrean eta oilarrak jo aitzin bururatuko. Satan lanari lotu

zitzaionean emazteak barrandatu zuen eta, eliza bukatuxea ikusi zuenean, bere oilarrari joarazi zion. Satanek ihes egin zuen harri bat falta zela, eta inork ez du lortu haren zuloa betetzen.

Bretainian, Saint-Pol-de-Léon-go dorreari (Kreisker-i) deabruaren dorrea esaten diote: deabruak beretzat nahi zuen eliza bat, jainkoarenak baino ederragoa, eta gau bakar batean eraiki zuen; baina, kanpandorrean oilarra ezarri zuenean, San Paulok benedikatu zuen... (laburtua, Sébillot 1968 IV: 125).

Léon-go oilar horrek ez zuen elizaren bukaera galarazi, aitzitik, puntaraino egina zela adieraziz, benedikazio baten heineko ondorioa lortu zuen. Agian, kanpai dorreko oilar guztien eginkizuna deabruak uxatzea da.

VI. LAMINEN ZUBIAK ETA ELIZAK

Bretainian 'Vieux Guillaume' esaten diote deabruari (Cerquand 2017: 67 zb-nota). Ipar Euskal Herriko zubigileak ere Gillen deitzen dira usu, deabruak izan (Arrosan, gorago aipatu Azkueren bertsioan) zein laminak izan (beherago ikusiko dira); baina laminek ez dute beti arima eskatzen saritzat:

También el puente de Arrosa fue construido por (las laminas) durante una noche. Cuando sólo faltaba colocar una piedra para terminar la obra, cantó el gallo, a cuya señal tuvieron que retirarse precipitadamente todas aquellas nocturnas constructoras. Antes de partir la lamina que dirigía los trabajos lanzó esta sentencia: “Martxoko oilar gorria, madarika ikala mihia” (Barandiaran 1962b: 9-11).

Martxoko oilar gorriari Arrosako laminek oihukatu dioten madarikazio honen simetrikoa da Larrabetzuko harginak oilarrari egindako otoitza deabruaz libratzeko, gorago azaldu denez: “Marti oilartxu gorria / Orain balia...”.

Ligiko zubiaz (ikus “Laminak” kap.), bi bertsio eman ditu Cerquand-ek (2017: 68, 69 zb). Lehenean, laminek herriko neskatala ederrena galdatu zuten eta haren maitea oilategira joan zen zaflak egitera, “oilarrak kantu baino lehenago hegal kaldu emaiten dituenak bezala”; oilarrak kukurruku eginda, laminek: “Dela madarikatua oilar hori, zeinek egin baitu bere oihua tenorea baino lehen” erranez, azken harria bota zuten; eta harriaren ziloa bada oraino zubiaren hegatz zolan. Bigarren bertsioan, gizon baten arima nahi zuten hiru laminek, Jondone Joane gauaz egin zubiaren truke; oilar guztiak enkantatu eta harriak menditik ekartzen zituzten, elkarri ziotsatela: “To Gillen, indak Gillen, hartzak Gillen”; zubia bururatuxea zen, noiz eta “oilo koroka baten petik arrautzaren barnetik txita batek kukurruku egin baitzuen”; Gillenek, “Adio gure pagamentua!” erran eta azken harria urerat aurtiki zuten, eta haren ments dago Ligiko zubia.

Oso ugariak dira laminek elizak. Haiek egin zutela Arrozekoa ikusi dugu “Laminak” kapituluaren eta: ohi bezala, materialak gauaz aldatuz lortu zuten beraiek aukeratu lekuan eraikitzea. Ezpeizen (Zuberoa), zubiak egiteko bezala aritzen dira:

Bestorduz Ezpeizeko eliza laminek gau bakarrean egin zuten. Iraganaraztearekin harriak, laminek batek besteei erraiten zieten: “To Gillen! Hartzak Gillen! Hor duk Gillen! Hamabi mila baginen eta oro deitzen Gillen”. Bainan lehiatukiegi erauntsiz (ihardunez) lanean, murrua egin zuten bidera oker (Cerquand 2017: 67 zk).

Arrosako zubia batzuetan deabruarena eta besteetan laminena den moduan, eliza batzuk laminek edo Ama Birginak eginak dira:

Notre Dame du Castel-ko eliza, Guernesey Kanaleko uhartean, herriko mugan dago. Auzokideek herrian barnerago eraman zituzten materialak, Fuzès-ko landara, baina gau batez denak handik joanak ziren eta Sarrazenoren gaztelu zaharraren tokian agertu ziren goizean. Berriz eraman zituzten lehengo lekura, eta hurrengo egunean berriz gazteluan aurkitu; eta horrela hiru aldiz. Orduan jendeek amore eman eta eliza eraiki zuten gaur ikusten dugun bazterrean.

Xaharrek zioten lamiek zituztela harriak beren mantaletan hartu eta lekuz aldatu, ez zutelako Fuzès-ko landatik ohilduak izan nahi. Beste batzuek diote aingeruek egin zutela lana Ama Birginaren aginduz.

Antzeko legenda bat bada Guernesey-n Forêt-eko elizari buruz: herritarrek *La Roque ès Faïes* (Lamien Haitza) deitu dolmenaren lekuan eraiki nahi izan zuten, eta lamiek galarazi (laburtua, Sébillot 1968 IV: 116).

Ama Birginaren zerbitzuko aingeruek Melusinaren deabrutxo langileak gogorazten dituzte, edo deabruaren familiariak.

VII. JENTILEN ELIZAK

Harginak ziren jentilak, jentiletxe eta jentilbaratzak eraiki zituzten, elizak eta ermitak ere bai. Ez dute saririk edo arimarik eskatzen eta, beraz, ez ditu oilarrak uxatu behar. Aitzitik, Samsonen antzera aritzen dira (ikus “Laminak” kap.), eraikineko harriak jaurtikitzen: Zumarragako elizakoak Aizkorri menditik bota zituzten; Oihartzungokoak Jaizkibel menditik hartu eta, itsasotik lehen, gero ibaian gora eta azkenean aziendekin garraiatu zituzten; Xemeingo elizakoak, Santa Eufemiako menditik abailaz bota-eta aldamiarik gabe hormak altxatzen zituzten lubeten bidez edo besagainka, eta ehun urtez iraun zuten lanek (Barandiaran 1961: 79-80). Bestela, laminen eta Kastrexanako deabruen moduan iharduten dute jentilek Aian, herren eta guzti.

José Antonio Manterola, de 89 años, que vivió en el caserío Elkanobitarte, solía contar que la iglesia (de San Pedro) de Elkano (Aia) la levantaron tres gentiles en una sola noche. Uno de los gentiles era cojo y por ello le llamaban “Kojua”. Comenzada la obra, los dos compañeros del cojo comentaron que aquél les estorbaba. Kojua que tenía el oído muy fino y les había escuchado, ya les aclaró que estorbara o no, cargaba más de 300 kilos al

hombro cada vez. (...) (La frase) pretende explicar la existencia de los bloques de arenisca en el templo de San Pedro de Aya, piedra que sólo se encuentra a notable distancia de esa iglesia, en el monte Garatemendi. (...) Uno de los gentiles tiraba las piedras desde el monte de Garate hasta el lugar de Arbastañamendi. Kojua lo hacía desde Arbastauñamendi. El tercero recogía el material que lanzaba el cojo, y con esas piedras construyeron la iglesia (Peña Santiago 1989: 136).

Ataungo jentilek, laminek eta Ama Birginaren antzera, apeta duten lekuan eraikitzen dute eta zelataria zigortzen:

Plazako elizea jentilek egina dela esan ohi da. Kristauek orain kanposantua dagoen tokian hasi omen ziren eliza egiten. Baino egunez han biltzen zituzten harri guztiak, gero gauez jentilbaratzeko jentilek beheko erreka ondora jeisten omen zituzten, orain eliza dagoen lekura.

Gau baten Zaindiko andra bat etxeko leihotik zelatan jarri omen zan, zeinek gainera beheko harriak jeisten ote zituen ikusteagatik. Jentil bat omen zebilen lanean idiekin, eta Zaindi ondotik zihoala esan omen zuen zer:

- "Aida zuria, aida gorria,

Zelatan dagoen andra horri, ateraiok ezkerreko begia"

Ordutik aurrera andra hura begibakar geratu omen zan.

Geroztik danak jentilen esanera makurtu eta orain dagoen lekuan eliza egitera jarri omen ziren (Barandiaran 1961: 36).

Ziortzako (Bizkaia) jentilak eta herritarrak elizaren tokiagatik borrokan ibili eta gero, gauaz lanak aldatzen zituen norbaitek Ziortzara; eta ipini zuten zaintzailea itsutu zen (Barandiaran 1961: 9). Zumarragako Bisitazioko ermitan, berriz, elkar lanean ihardun zuten jentilek eta Andra Mariak:

Entzuteria da Aizkorritik jentilek harria botata, Ama Birjineak bi idiekin, bat zuria eta beltza bestea, lana egin zuela: aurreraka sartu eta atzeraka lan egin zuela. Landaburuko

mutil zahar bi, begi batekin bat eta bestea birekin, begira gabeen jarri zirela, eta Ama Birjinak esan zuela:

- “Kapio zuloan hor zenteliñan dagon hori itxutu bedi”.

Eta hala gertatu zala (Barandiaran 1961: 34).

VIII. MELUSINA, ERAIKITZAILE MITIKOEN EREDUA

Anizkoitz eta aberats, Melusinak bere baitan biltzen ditu eraikitzaileen ezaugarri gehienak (ikus “Ezkontide” eta “Laminak” kap.). Jean d'Arras-en eleberrian langile tropa bat dauka bere menpean, inork ez baitaki nondik ekarria; herri tradizioan, aldiz, berak lan egiten du, deabruak ohi bezala:

Hiru mantal harriz eta ahotara bat urez eraiki zituen Vouvant-eko zazpi dorreak eta denak hilargi zuritan bururatu, Jean d'Arras-ek erraten ez duena. Argi zirrintako oilarraren kukurrukua ustekabez heldu zaionean, azken harriaren faltan uzten du lana, Ménigoute-ko kaperan, adibidez. Parthenay-le-Vieux-ko elizatik tarrapatan alde egin behar izan zuen, bere zaldiaren herexa utzirik lantzen ari zen azken harrian. (...) Melusinaren eraikinek beti akats bat daukate, deabruaren zubiek bezala. Eta beti gaitzitu zaizkio sorosleak eta sinesgabeak. Pouzauges-en, sasietan ezkutaturik barrandan zegoen kurios bat ikusi eta berehala aienatu zen oihuka, (*eginak zituen gazteluak*) ernegatuz: “Pouzauges, Tiffauges, Mervant, Châteaumur eta Vouvant, harri banaz urrituko al dira urte bakoitzean!” (Dontenville 1998: 217; ikus ere Sébillot 1968 IV: 181 eta Markale 1983: 103).

Tabu da Melusina zelatatzea suge itxuran bainuan dagoenean edo lanean ari denean, eta hori egiteak haren ihesa eta madarikazioa eragiten ditu. Orobat, Ama Birgina, laminak edo jentilak sorosteak haien madarikazioa edo zigorra ekar lezake. Gorago aipatu Berriatuko laminak, hatzemandako gizona utzi behar izan zuenean oilarraren kukurrukuagatik, oihu egin zuen: “A, Okabijoko Marti oilar gorria, eroan deustazu aparittako neukan legatz handia; azeri

gaiztoak galduko al deutso ezkerreko begi gorria!” (Barandiaran 1961: 64). Laminez beldur zen Aezkoko istudiante batek otoiz egin zuen: “Martxoko oilarra, otoi! Balia dakidala”; eta laminak oihukatu: “Madarikatu al zaio oilar gorri(ari) mihia, horrengatik galdu baitut estudiante bilo gorria” (Azkue 1966: 438). Lamina hauek oilarra madarikatzen dute eraikitzaileek soroslea legez. Ea zeinek mutu eta betoker gehiago egingo duen.

IX. DEABRUAREN ARTOA ETA AMA BIRGINAREN PAXA

Eraikinak ez ezik, langintza eta teknika garrantzitsuak heldu zaizkigu izaki mitikoengandik. *Deabruaren artoa* (edo *garia*) istorioa oso ospetsua da Euskal Herrian. Orozkon hola kontatu zuen Sofi Etxebarriak:

Deabruak ei eukien (zeukaten) artoa. Eta San Martinek gura euan (zuen) ba, artoa, ereiteko. Eta zeregaz erosi ez eta deabruairi zelan kendu. Joan zan eta deabruak arto pilo handia eukien. San Martinek esan eutsen (zien):

- Egin behar dogu hemen posturia, aber arto piloa zeinek alde batetik bestera pasatu saltoka.

- Baai, deabruak.

Deabruak taka! bestaldera, ba, saltu egin ei eudien (zuten) arto pilo ganetik. San Martin erdi-erdira. Eta zapatak hauunndiak, erdi-erdira. Eta zapatetan arto-hazia kuxu (hartu) deabruairi, egin eutsiela.

Hori esaten euan gure amak, artoa kuxu eutsiela deabruari. Deabruak emon gura ez baia... San Martin erdira (Arana 1996: 371).

Etxebarria Ayestak bildu bertsioan (1995: 252) Juana Larrea informatzaileak gaineratu zuen: “eta halan dugu guk artoa”. Ataunen berdin jokatu zuen San Martinek, eta “ordutik zabaldu omen zan garia herri danetara” (Barandiaran 1960: 66).

Galda ateratzen ere (burdin soldatzen) bazekiten deabruak edo jentilek, eta sekretua

atera zien San Martinek, Juana Larreak kontatu zuenez:

Han Uxuluseko olean (Orozkon), lehenago egon zireala burdinak egiten jentilak. (...) Eta gero haiek kaldea ateratan eudien eta San Martinek ezin atera. Eta hango baten batek esan ei eutsien San Martineri:

- Joan hadi horren jentilen aurretik (*eta kantu egik*): “San Martinek kaldea atera jok (dik)”.

Eta “San Martinek kaldea atera jok” kantatu ei euen, eta:

- Area egin ez balotzak (baliok), ez joan (zian) aterako kaldea.

- Ene -San Martin- Area, area, area.

Orain kaldea edozein errementarik ateretan dau (Etxebarria 1995: 252).

Kortezubin deabruei esanarazi zien San Martinek galda nola lortu (Barandiaran 1960: 152). Oihartzungo Basajaunak, zerra nola egin salatu ondoan amorraturik, hortzak okertu zizkion, eta nahi gabe tresna hobetu zuen: “Así se propagó el uso de la sierra en el mundo” (Barandiaran 1984a: 40). Gaskoiniako Landetan, laminei hartu zieten galdaren sekretua (Arnaudin 1967: 504), eta Britainian mikak azaldu zion arotz bati (Sébillot 1968 III: 161). Aarne & Thompson-en katalogoan agertzen da kondaira, tipo 1163: “The Ogre Teaches the Smith how to Use Sand in Forging Iron”; eta Thompson-en motibo G 651: “Ogre Teaches Smith how to Transform Sand in his Smithy”.

Euskal bertzio hauetako amaierek (holan dugu guk artoa, edo zerra...) azpimarratzen dute izaki mitikoengandik datozela jendeentzat hain garrantzitsuak diren jakintzak - haietarik zenbait aurrehistoriako aurkikuntzak. Desjabetze-mintzaira da, beste munduarekiko zorraren aitortza, eta lehen erligio “puruen” ezaugarria, Gauchet-en iritziz, paganismoen marka (1985: X eta 14). Eta paradoxa da, magiaren bidez jendeek gauza mirakuluzkoak egiteko gai direla sinestea, eta aldi berean ustea ezgai direla benetan egin dituztenak egiteko.

Deabruaren kontrapuntua da Begoñako Ama Birgina. Harekin txantxa gutxi, minbera da eta gogorki zigortu zuen sorbaldatik behera zeharka daraman paxa (zinta) eskaini zion debotoa.

Begoñako Ama Birjinak milagro haundia egin eutsen (zian) bati, eta gura euan (zuen) eskertu. Erregalu bat enkargatzera joan zen zapateru batengana, eta hark galdegin:

- Esplikatzen daustazu, ba, zelangoa egingo dautsut, ba, erregalateko Ama Birjina horrerri?

Eta besteak erantzun:

- Holango tamañoko bat: astoaren paxearen tamañokoa.

Eta “astoaren paxea” esateaz nahastean, mutu paratu ei zan. Ama Birjinari erregalu bat astoarena. Astoak azpiti daroana. Eta holangoxe tipoan dauka (uhala) Ama Birjinak, eukin bere. Baia astoarena esan eutsen letxe, ez euala berbarik egitek hak, astoarena esatearren (Orozkon, Sofi Etxebarria, moldatua, Arana 1996: 373).

Ezbai gabeko logikan, hitza kentzen dio Ama Birginak hitzezko hobendunari, begiraleari begia bezala. Sumatzen ahal da nondik hartua duen jaidura. Orozkoko jentilek neska bati urrea eman eta gero bahitu egin zuten, gehiagoren bila berriz itzuli zelako; madarikazioa ere bota zioten, etxean beti izango zutela ero eta zoro bat. Txindokiko Damak bahitu zuen neskaren etxean ez dela “txangoa edo mangoa” falta, esaten zen Abaltzisketan (Gipuzkoa) (Barandiaran 1962b: 114). Funtsean, dibinitateen naturan dagoke neurri gabeko suminkortasuna, eta ez paganismoan bakarrik, Bibliako Yahveh-en ira gogoangarriek erakusten dutenez.

Kontuak aterata, ikusi ditugun kondairetan deabrua da izaki kaltegabeena, nahigabe bada ere, balio handiko ontasunen iturria. Haren etsaia den Ama Birgina kopetilun ageri da eta mendekos, Elizaren doktrinako bekatarien salbatzaile eta ama bihozberatik urrun (*Virgo clemens, Advocata nostra, Mater misericordiae*). Bi izaki horiek beren jatorri kristauan etsaiak dira, ikusmolde semantikotik. Kondaira mitikoen egituran alde berean dira.

X. ANTAGONISMOAK

Elizegileen eta zubigileen kondairen egiturak alderatzen badira, bi tipoen elementuak aurrez aurre ezarritik, paralelismoak eta aurkaritzak azaltzen dira:

* Herritar-harginek egunez egin zubi lana bertan behera erortzen da gauaz. / Eliztarren materiala egunez ekarria, gora eramana da gauaz.

* Deabruek, laminek, jentilek, Ama Birginak gauaz iharduten dute, herritar beldurtuen / kurioso baten begiradapean.

- * Deabruari arima saldu dionaren herrikideek ikusten dituzte zubigileak harriak ekartzen menditik behera. / Eliztar batek ikusten du Ama Birgina (edo laminak edo jentilak) materialak garraiatzen (gehienetan) gora.
- * Arima saldu duenaren lagunek zubigileak engainatzen dituzte, eta hauek koxo hobenduna zigortzen. / Ama Birginak eta Ataungo jentilek soroslea zigortzen dute.
- * Herritarrak deabru eta lamina zubigileei nagusitzen zaizkio. / Ama Birgina, Ataungo jentilak eta Arrozeko laminak eliztarrei nagusitzen.
- * Zubiak harri baten faltan geratzen dira. / Soroslea begi baten faltan.

Lehia horietako pertsonaien antagonismoak hauek dira:

- * deabrua vs herritar-harginak (Kastrejanako zubia).
- * laminak vs ligitarrak (Ligiko zubia).
- * laminak vs eliztarrak (Arrozeko eliza).
- * Birgina eta jentilak vs eliztarrak (Zumarragako eliza).
- * jentilak vs kristauak (Ataungo eliza).
- * Birgina vs eliztarrak (Begoñako eliza).

Antagonismo horiek ez dira izaki zerutar onen eta infernutar gaiztoen artekoa, baizik eta izaki mitikoen eta jendeen artekoa eta, ikuspegi horretatik, deabrua eta Ama Birgina alderdi berean daude. Beren jatorrian elkartezinak diren zeruko Erregina eta infernuko Printzea elkarren pareko bihurtzeko, eragile azkar bat behar da, eta horixe dateke bikoiztasuna, herri mitologiaren oinarri bat. Horrek du ahalbidetu Ama Birginaren erabateko ontasuna eta deabruaren gaiztakeria kamustu izana eta, lamin-jentilekin asimilatuz, biak semantikoki bikoitzak bilakaraztea, hein batean baliokide. Horrela, edozein lamina bezain zigorlea da Ama Birgina eta edozein melusinak bezain monumentu ederrak eraikitzen ditu deabruak.

Europako folklorea bere ikaragarritasuna galdu samar duen deabruak; Mefistofeles aire zerbait badu ere arima bat erosi nahi duenean, bere hatzaparretatik onik eta osorik joaten utzi behar du saltzailea. *Deabruaren Zubiak* eite handiagoa du Erdi Aroko kondaira onbidekoekin

Goethe-ren eta Marlowe-ren *Faust*-ekin baino. Hamahirugarren mendeko Rutebeuf-en eta Berceoren “Teofiloren mirakulu”etan, Ama Birginak suntsitzen du deabruarekin izenpetutako ituna, eta bekataria salbatzen. Are optimistagoak dira oraingo bertsio herrikoiak, haietan mendera baitaiteke deabrua zeruko laguntzailerik gabe (biak alde bereko izanki). Txerren desdramatizatua, kondena saihestua, eta herri kondairetako akelarrean azaltzen den infernuaren irudi alaia zentzu berean doaz, kristianismoak sakatzen duen infernuaren beldurra jabaltze aldera.

XI. SINKRETISMOA ETA BALIOBITASUNA

Usu entzuten da kristianismo nagusitzearekin mitologia zaharreko pertsonaiak beren zintzotasuna galdu dutela eta onak izatetik gaiztoak izatera pasatu direla, Elizak deabruarekin identifikatu dituelako, honen funtzio ezkorrak haiei betearaziz eta baikorrak dibinitate kristauei eratxikiz, San Martini adibidez. Baieztapen horrek, nire ustez, zeraren erdia baizik ez du azaltzen. Kristianismoak lamin-jentilak deabrutu dituela egia baldin bada, ez da gezurra paganismoak Ama Birgina eta deabrua “lamin-jentildu” dituela. Eta horixe ikusten da kondairei berei aditzen zaienean, ez bakarrik kristau ikusbidetik.

Bi erligioek, elkarren ondoan bizi izan diren mende luzeetan elkarri eragin diote, eta ondorioz izan dituzten aldaketak nolakoak diren antzemateko galdegin behar da alde batetik zer baldintzekin bereganatu dituen paganismoak elementu kristauak eta, bestetik, nola jokatu duen kristianismoak pertsonaia edo elementu paganoak elizetara sartzen utzi dituenean. Ibilbide konbergente horiek bateratu egiten dira jendeen gogoan, modu eta aldi berean sinesten baita zubiak egiten dituen deabruan zein Salbatoreko Saindian, bata jatorri kristauko pertsonaia delarik, bestea paganokoa (Arana 2008). Hortaz, zaila da erabakitzea izaki mitiko batzuek - elizen eraikitzaileek esate baterako - zein erligiotatik daukaten kutsu gehiago.

Antzinako jentil eta laminek, oraingoek bezala, ez zuketen Elizaren beharrik txarrak izateko; jitez zeuzkaketen ajeak, eta bertuteak ere bai. Hain da konstantea bikoiztasuna mitologian, aspergarri egiten baitzaigu. Hargatik, funtsezkoa da, dibinitateari doakion *coincidentia oppositorum* egituraren molde bat eta orotasunaren adierazlea (Eliade 1975: 351).

Printzipio horretan arabera, akatsa baikorra izan daitekeela azaldu zuen Lévi-Strauss-ek:

Itsuak, herrenak, betokerrak eta besomotzak ugari izaten dira munduko mitologietan; eta durduzatzen gaituzte, haien egoera ajetzat jotzen dugulako. Baina nola sistema bati elementu zenbait kenduta diskretu bilakatzen den, eta horregatik aberatsago ere logika aldetik (nahiz kopuru aldetik pobretu den), halaber mitoei esanahi baikorra ematen diete maiz eriei eta elbarrituei: haiengan haragitzen dira artekaritzaren moduak. Eritasuna edo elbarritasuna, izatearen eza eta gaitz bat balira bezala irudikatzen ditugu. Haatik, baldin bizitza bezain erreala bada heriotza eta, ondorioz, izatea baizik existitzen ez bada, egoera guztiak, patologikoak barne, baikorrak dira beren moduan. Eta izate-gutxiagotu horrek eskubidea du sisteman dagokion leku osoa hartzeko, bi egora beteren artean pentsa dezakegun pasabide bakarra delako (Lévi-Strauss 1964: 61).

Narria bertute bihurturik, deabru herrenak besteek baino harri gehiago ekartzen zituen *Kastrejanako zubia* eraikitzeko; orobat Vélez de Guevararen *El diablo cojuelo* ez da lagunak baino traketsago, alderantziz, eta hots handia izan zuen XVI. eta XVII. mendeetako Espainian:

“El diablillo cojo sabe más que otro” enseñó el refrán. (...) “El diablo cojuelo que es el más ligero”. (...) Una fórmula de hechicera dice: “con el diablo coxo que corre más que todos” (Rodríguez Marín 1952: 19).

Edozelan ere, kristianismo ortodoxoko pertsonai erabat onak edo tzarrak baino ulergarriagoak dira mitologia herrikoiko izakiak eta sainduak, noiz onuragarri eta sendatzaile, noiz kaltegarri eta eritasun emaile. Hortik ikusia ulergarria da “Kandela bat Jainkoari eta beste bat deabruari” eskaintzea, egiazki egin izan dena (Delumeau 1978: 61), baita hemen ere eta ez oso aspaldian: lagun baten amatxi baxenabartarrak zerbait galtzen zuenean San Antoniori eta deabruari otoitz egiten zien, eta argudiatzen zuen, biak indartsuak izanik, ez zuela arrazoirik ikusten baten mesedeei uko egiteko.

Hobe batuketa kenketa baino. Lévi-Strauss-ek ohartarazten du (1991: 259) elementu arrotzak ez direla pasiboki mailegatzeko, hartzaileek aldatu egiten dituztela beren tradizioari egokitzeko; non ez diren hartzen norberaren sistemak falta dituenak betetzeko. Ikertu ditugun maileguak ez dakigu osagarri gisa sartuak izan diren ala arrotz sistemak sakatuak; dena dela, badirudi ez dutela tradizio zaharra sobera inarrosi. Aski da arraberritzearen bidez kristau jatorriko pertsonaiei paganismokoen ezaugarriak itsatsi, aurreko kapituluan azaldu moduan, figura berriez

betetzeko mito zaharren edukia. Sinkretismo giroan, dogma gutxi eta askatasun aski handia izan zitekeen modelo ortodoxotik aldentzeko, izaki mitikoei ontasun gehiago ego gutxiago esleitzeko.

XII. ERLIGIO-ORDEZKAPENA ETA NAGUSITASUNA

Jendeen eta izaki mitikoen arteko indar harremanetan, lehenak dira irabazle batzuetan (zubiak, teknikak, artoa... irabazten dituztenean), bigarrenak besteetan (elizak lortzen dituztenean nahi duten lekuan). “Biok berdin” esan genezake. Bada, ez: berdintasun hori izaki mitikoen bizkar egin ohi da eta, batez ere, beti petzero den deabruaren kaltetan. Salbu Ama Birgina inork ez duela engainatuko, inork ez garaituko, hark inoiz ez ditu jasango besteei egiten zaizkien laidoak, erligio berria gailendu da.

Herri tradizioak bi muturreko pertsonaiak hurbildu ditu, baina bururaino joan gabe; kristautasuna nagusi den ingurugiroan ezin baita zerutar / infernutar etsaigoa ezabatu eta bi aldeetako pertsonaiak arras berdinak bilakatu. Horrela, Ama Birginak ez du arima bat saritzat eskatzen - motibo hau izaki mitikoek egiten dituzten bahiketen ordeztu kristautua izan daiteke - , eta deabruak ez ditu materialak aldatzen eliza bat egiteko. Mundu honetakoek, beste mundukoekin duten zorra aitorturik ere, zerutarrei diete begirunea agertzen: haientzat izaten dira kristauen esker onak, eta deabru tzarrarentzat maltzurkeria eta trufa.

Ekarria izan denetik, antzinako erligioen eremua okupatuz joan da kristianismoa, Euskal Herrian Europa osoan bezala eta, sinkretismoa gora-behera, azkenean erligio ordezkapena gertatu da eta kristianismoa bizi da mitologia autoktonoa hila delarik. Halere, honek iraun dueno bere nortasuna atxiki duela ohartarazteko da.

Paganismo biziarekin lehian, kristianismoa saiatu da bere nagusigotik izaki mitiko paganoak deabrutzen. Nagusigo horrek eraman du tzarren aurkako borroka eliz gizonen eskuetan maiz uztera. Baina hor ere baliabide paganoekin lehian; tradizio zaharreko baliabide asko baitituzte herritarrek maltzurtasunaz eta oilarraren kukurrukuaz gain, ez santu eta ez apez, eta haiek baino zaharragoak. Ondoko kapituluko ikergaia da hori.

BALIABIDEAK ETA ARMAK

Beste mundukoek egin ditzaketen kalteen aurrean baliabide zerrenda luzea izan dute eskura jendeek, batzuetan haietatik babesteko soilik, noizbehinka haiei erasotzeko eta suntsitzeko. Beren natura eta printzipio eragileengatik desberdinak izaten ahal dira arma mitikoak, batzuk sinbolikoak, besteak fisikoak, hauek ere sinbolikoki baliatuak usu. Ahalaz, erabiltzaileak finkatzen ditu haien jomuga, ibilmolde eta ondorioak.

Baliabide magiko-sinbolikoetan, kristauak eta ez kristauak elkarren ondoan ibiltzen dira arazorik gabe, logika bertsuan oinarrituta, eragina ere berdina dutelakoan. Ikusia dugu elizgizonek edo San Martinek bezain ongi badakiela ama edo emazte batek deabruari nola aurre egin, eta Elizaren benedikazioa jadanik arma zirenei gaineratzen zaiela askotan. Denen eraginkortasuna zertan datzan ulertzen saiatuko gara, beren kulturaren logikan kokatuz eta hartan gakoak bilatuz, misterioen bila ibili barik eta alferrikako hermetismoetatik at.

I. ARGIA ETA ZEINUAK

Argia, berez arma izan gabe, leku nagusia du baliabide sinbolikoetan, babesle biziki azkartzat kontsideratua da. Etengabe erakusten du mitologiak egunaren balio baikorra, maiz gauaren kaltetan, bata ona bezain txarra delarik bestea. Balio hori axiomatikoa da Euro-Asiako kultur ingurumenean, eta berezkoa dela iruditzen zaigu.

Goizargia da, eguzkiaren ateratzea bereziki, egunaren muina: gauari jarraitzen eta aurre egiten dion lehen argi horrek ditu gauezkoak atzera eginarazten eta beren harrapakina askarazten. Mendibeko Salbatoren (Baxenabarre), Basajaunak ezin izan zuen atzeman ganderailua lapurtu zion artzaina, ekia ageri zelako (ikus “Basajauna” kap.). Lapurdin, Mondarrain mendiko Basanderea eguzkiaren lehenbiziko inharretara bere zulora sartu zen, orrazia kendu zion gizona libre utzirik (Barbier 1931: 25); Lapurdi berean, Atxuri mendiko lamina batek, gizon bat “trikarazi” nahiz eta ezinez, hala erran zion: “Baliatzen zaik altxatzera baitoa eguzkia, bestela hireak egin zian” (Kaltzakorta 1997: 208). Luzaiden (Nafarroa), lamina batez trufatu zen mutikoa, eguzkitara jauzi eginez joan zen ihesi - baina andereak orrazia aurtiki zion eta aztalean sartu (Cerquand 2017: 81 zb).

Argiaren inguruan elementu isomorfoen konstelazio handi bateko sinboloak txertatzen dira, elkar gaineratzen eta indartzen; horregatik goizargiari lotuak direnak oro, oilarra, kanpaiak eta beste, bereziki baliosak dira “parte txarrekoak” menderatzeko: Basajaunaren ganderailuaren istorioetan eguzki-zirrintaren ondorio bera du goizeko zeinuak; eta zenbatezinak dira euskal mitologian ezkilak uxatu dituen gauezkoak, hark jo orduko denak beren lurpeko egoitzetara sartzen baitira (Barandiaran 1972: 438). Zeberion (Bizkaia), “jentilak kanpai hotsa entzuten ez zan lekuetan urteten eudien (zuten), eskapulario edo kandela bedeinkatua eroan ezik” (Etxebarria 1976: 61).

Goizaldeko kanpaiei (“Albakoei”) arratseko “Abemariak” oposatzen zaizkio, hauek markatzen dutela gauezkoak aske herratzen ahal diren unearen hasieran. Zeanurin (Bizkaia), “Santagedako bezperan kanpaiak jo eta jo egoten zirean ilunkeran hasi eta gaberdirarte. Kanpaia entzuten egoten ei zirean laminak hatz-puntetan” (Manterola & Etxebarria 1979: 67).

Kanpaien bertutearen sinestea oso zabaldua da kristau munduan eta Thompson-en G 304.2.4.1. motiboan aurkitzen da: “Trolls cannot endure Church Bells”; halaber D 2141.1.1 motiboan: “Church bell rung as protection against storm. To Thwart Devil”.

Harri erauntsia galarazteko zeinuak indarra duela adierazten du Gasteizko katedralekoaren idazkunak, “Huid elementos del rayo y de la tempestad” (Barandiaran, 1961: 86), “Fugite partes adversae”, kanoneko konjuruen hitzak. Horrelako inskripzioak aipatzen ditu Sébillot-ek (1968 III: 142). Van Gennep-ek dioenez (1947: 1214; 1949: 1816), Frantzia osoan “ekaitzaren, oinastuaren eta bereziki babazuzaren aurkako erremedio ahaltsua ikusten du herriak kanpaietan”, eta, XVI. mendeko *Tractatus de Superstitionibus* liburuan idatzia denez, Jondone Joanez jotzen zituzten, sorginen eta ekaitzaren kontrako borrokaren testuinguruan. Muskerraren ausiki tinkoa askatzeko bide bakarra omen da zazpi herritako kanpaiak batera jotzea, Markinan, Ataunen, Usurbilen, Funesen, Durangon eta Bedian, Barandiaranek jaso duenez (1961: 86) eta Luiaondon ere entzun dudanez. Muskerra herensuge ekaitzegilearen miniatura ote da...

Lehen kanpai ezagunak Burdin Aroko Hallstat-koak dira, eta VII. mende arte ez ziren monasterioetan sartu, ez eta dorre gainean ezarri VIII.a arte (Van Gennep 1947: 1209). Baina geroztik nonahi daude. Euskal Herriko gurutze batzuek txilinak daramatzate besoetan zintzilik, talismanaren eragina azkartzeko Kristoren bertuteri zeinuena batuz.

Gainerantzean, berezko bertutea daukate kanpaiek, harrabotsa bera eragingarria delako: Proventza-ko Ventoux (“Haizetsu”) mendiko santutegi zahar batean adarrak eta turutak aurkitu dituzte eta, Van Gennep-en ustez, ez dira eskaintzak, mistral haize bortitzaren aurkako tresnak

baizik (1951: 2150). Barbierren “Haxko” ipuinean, zeinuekin atabalak erabiltzen dituzte basajaunetik begiratzeko (1931: 129); milurteko azken eklipse ospetsuan, Turkian besteak beste, lapiko jo eta tiroak bota zituzten eguzkia bahitu ei zuen izpiritu gaiztoen kontra (*Libération* 1999-VIII-11).

II. OILARRA ETA LIBURUA

Gauekoen menperatzaile jaioa da oilarra eta kanpaia bezain azkarra, kanpandorreko gailurrean ez dagoenean ere. Shakespearen *Hamlet* antzezlanean esaten da, gau guztian kantatuz Eguberri aroan, izpirituen jalgitzea galerazten duela eta arriskugabeak direla gauak oro garai sakratu horretan.

Erdi Aroko *Roman de Renart*-ko oilarrak duen izenak (“Chanteclair”- “Argikanta”) ongi adierazten du haren ahotsak argiarekin duen lotura. Hori jadanik antzinako Iranen:

Oilarraren kukurrukuak sorginkeriak deusezteko eta gauezko izpirituak uxatzeko bertutea duelako ideia oso zaharra da eta haren zantzuak atxematen dira Avesta liburuan, oilarraren joaldia eta demonioen ihesa aldi berean gertatzen direlarik. (...) Frantzia osoan sinesten da seinale horretara arima herratuak beren hobietara sartzen direla. Sorginen akelarreak ere oilarraren lehen kukurrukuaz amaitzen ziren, dena aienatzen zen. Ipuinetan, deabruak haizatzen ditu oilarrak (Sébillot 1968 III: 223).

“*Post hoc, ergo propter hoc*” arrazoibidean oinarritua da argia eta oilarra batzen dituen metonimia, eta esaera hitzez hitz ulertua izan dela derasa XVI. mendeko kontu trufari honek:

Mutil batek fortuna egin zuen bere oilarrari esker. Holako hegaztirik ezagutzen ez zuten eskualdera heldu zen eta, bertakoak orgekin joaten baitziren goizero egunaren bila, sinestarazi zien aski dela oilarrak jotzea eguna etor zedin; eta biziki garesti erosi zioten oilarra (Sébillot 1968 III: 253).

Gauaz egina denean ere, goizargia balio lezake kukurrukuak deabru zubigileak uxatzeko. Baina destenorez jotzen duenean gerta daiteke arriskuan jartzea hartaz fidaturik etxetik ateratzen direnak, gauezkoak oraindik libre dabiltzalarik. Sofi Etxebarria orozkoarrak, “Kastrejanako Zubia” ere kontatu zuenak, esan zuen zer gertatu zitzaion auzo bati, zelan engainatu zuen ontsalaz babesa ematen duen oilarrak:

Hemen, Egurrigartun, Behekoetzean ei egoan andra bat, eta beherago den Epaltzakoak esan ei eutsen (zion):

- Etorri handik gero goizean, Laudiora joateko oinez - merkatua hilaren lehenengo domeketan Laudion eta.

Eta (Behekoetzekoa) joan ei zan hortik, oilarrak kukurruku eginda: erlojurik ez etxean eta oilarra. Baia oilarrak goizeko ordu bietan edo kukurruku egin, eta berak pentzatu euan (zuen) egunsentia zala, eta hortik behera joan. Ba, San Sebastianen egon zirean ume negarrak eta zaratak... itzelak! Sasiak bere egon ei ziren, lehen ermitea egon zan han; eta handik pasatu behar Epaltzara joateko. Eta terriblezko zaratak: gehiago ez ei euan harek inora urten gauetan, hurrean. Eta gure amak esaten euan koplako enbrea ez zala, ondo enbra arteza zala (moldatua, Arana 1996: 148).

Nolanahi ere, goizeko salbatzaileen baliokidetasuna ageri du oilarrari eta Mendibeko Salbatoreri egiten zaizkien otoitzen antzekotasunak: “Martxoko oilarra, otoi! Balia dakidala”, “Jondone Salvatore, otoi balia zazkit”, azken honek zeinua joarazten duela (Cerquand 2017: 52 zb).

Nabarmentzekoa da, deabruen edo laminen zubien istorio zenbaitetan, kandelako argia ikustean oilarrak “pla-pla-pla” egiten duela hegoez kukurruku jo aitzin. Ligin eta Orozkon eskuzaflak egin zizkioten herritarrek, “oilarrak kantu baino lehenago hegal kaldu emaiten dituenak bezala”. Zehaztasun horrek oroitarazten digu oilarra hegalduna dela; eta hegala, argiarekin batera, zerutarren atributu dira:

(Bachelard epistemologoak) “ptero-psikologia” bat marrazten du, hartan biltzen direlarik hegala, goratasuna, gezia, araztasuna eta argia. (...)

Gorantzako tresna hauta da hegala eta, (...) paradoxa bada ere, hegazia ez ohi da animaliatzat hartu, baizik eta hegala osagarri huts gisa. (...) (Laudetak bezala) beste txori

anitzek ere beren animaltasuna galdu dute: arranoak, beleak, oilarrak, saiak, usoak (heraldikan hain erabiliak). (...)

Hegalak zeruko gudarosteen galoiak dira, eta hori adierazten dute Isaias profetaren ikuspeneko sei-hegaldun serafinek (Durand 1969: 144-148).

Hegalek plus bat daukate Orozkoko bertsio batean: oilarrari kantarazteko, liburuez egin zuten jendeek pla-pla-pla (ikus “Deabrua” kap.). Eta ez dateke datu hutsala, horrela eragindako hegala-zaflak orri-zaflen irudikoak direlako eta, oilarraren bertuteari liburuarena gaineratuz, parte txarrekoen aurka bien indarrak biltzen dira.

III. ARGIA ETA HITZA

“Hasieran bazen Hitza” hasten da Joaneren ebangelioa, eta handik laster: “Hitza zen egiazko argia”. Argiaren eta hitzaren isomorfismoa Joaneren platonismoa baino zaharragoa eta zabanduagoa dela gogorarazten du Durand-ek (1969: 173): *Upanishad* liburu sanskritoek argia, sua eta hitza uztartzen dituzte, eta antzinako Egiptoko legendetan, juduetan legez, hitza zegoen unibertsoaren sorburuan. Orobat kultura horien eremutik urrun diren herrietan, Afrikako Banbara-n adibidez, hitzari lotua da zeruaren ahalatasuna. Hitzaren indarra unibertsala da; haren ahal gauzatzailea ongi adierazten du “izena duenak izana du” esaerak. Deabruak ere gogotik erabiltzen dute hitza beren alde: *Kastrejanako zubian*, bi aldiz baliogabetu zuten oilarren kukurrukua (“Gallo blanco - Cal y canto”...), nahiz hirugarrenean porrota aitortu zuten: “Gallo negro - Todos los demonios al infierno”.

Berdin eragingarriak dira birao eta madarikazioak, hitz salbatzaileen alderantzizkoak. Etsaiei zuzentzen zaizkie, edo auzoei, norbera babesteko, hala nola Nafarroan ekaitza uxatzen duen Otxagabiko konjuru hau: “Fundica la Francia, Valcarlos también, libérame Aezkoa y Muskilda también” (Satrustegi 1980: 106); edo Gipuzkoan, Orendaineko etxandere batena: “Carga Murumendi, pasa Orendaindi, descarga Gorrimendi” (Caro 1962: 325). Beharbada arrotz samar ziren ele horiek herritarrentzat eta hortaz azkarragoak, huts semantikoak agortezina egin dezakeelako zentzu birtuala.

Otoitzei eratxikitzen zaien bertute magikoa ere handiagoa dateke latinaren ulertezina gehitzen zaienean Elizak ematen dien indarrari. Baina zerbait hermetikoago bilatzen zuten konjuratzaile heterodoxoek, 1529an Fray Martin de Castañegak salatu zuenez, beren konjuruetan grekoa erabiltzen baitzuten hebraierarekin nahasirik: “Eli, Eli, Lamazabathani, agla, aglata, tetragrammaton, adonay, agios, otheos, ischiros, athanatos, eloim,” eta holakoak (*Tratado de las supersticiones y hechizarias* 1994: 59).

Konjuruak, paganoak zein kristauak, aginduak dira maiz (“Fugite...”, “Fundica...” “Carga...”). Larderiazko hitz edo erantzunak eragingarriak izan ohi dira, eta nahikoak arima herratu batzuen agerpena amaiarazteko: mugitu zuen zedarria bizkarrean ibiltzen denean “Non sar? Non sar?” galdezka, agindu behar zaio: “Atera dukan tokian sar”, eta ez da gehiago azaltzen (Barandiaran 1962b: 87; 1960: 75).

IV. JESUSEN IZENA

Kristau munduan “Jesus” izena dateke hitz eraginkorrena. Garai batean hain zen kartsuki erabilia, non pagano aire bat sumatu baitzioten.

Andrea Biglia agustindar humanistak (...) ohartarazi zuen Padovako Bernardinok 1427an zabaldu zuen Jesusen izenaren debozioak nahasmendu sakrilegoa zekarrela, sinboloa eta errealtate sinbolizatua batzen zituelako, aztieki, sorginek eta inkantatzaileek egin ohi zuten moduan (Ginzburg 1992: 272).

Nafarroa Garaian diote laminekin dabilenak ez duela “Jesus” erran behar, eta erran baleza ihesi joango zitzaizkiola (Azkue 1959: 367). Akelarrea barreiatzen du “Jesus” hitzak, zapatariaren eztenak legeztatu (ikus “Akelarre” kap.). Alpeetan, gauaz sabbat-en ondoan pasatu zen bidaiari bati sorginek katilu bat kafe eskaini zioten; gizonak egin zuen: “Jesus eta Maria, hauxe da katilu ederra!” Instantean “goga” aienatu zen eta gizonak katilua atxiki zuen; baina gero, eskatzera etorri zitzaizkionean, atzera eman behar izan zuen (Abry 1988). Gipuzkoan, berdin gertatu zitzaion plazentziar bati, eta haren etxean oraindik daukate urrezko basoa (Barandiaran 1960: 89).

“Ezkontidea” kapituluan aipatu da Anbotoko Andereak ez zuela bere urrezko basoa atzera hartu nahi izan, penitentzia handituko ziolakoan, olagizon batek hartan edan aitzin “Jesus” esan baitzuen. Beste bi kondairatan ere uko egin behar izan zion Andereak bere basoari: “Orain hori eurea dok, esan zuen, kurtzea egin deusak eta guk holangorik ezin geinkek hartu”; edo: “Urten egizu hemetik eskuetan daukazun eta guzti”, eta eskuetan urre gorrizko basoa zeukan... (Etxebarria: 219, 156 eta 211). Modu berean bereganatu zuten Orozko Ibarreko olagizonek laguntza eman zien deabruaren basoa, haren aurrean “Jesus” esanda, Sofik kontatu zuenez; eta gaineratu zuen bere aititak beti “Jesus” egiten zuela edan baino lehen.

Horrelako ohiduraren berri eman zuen Azkuek (1959: 263-64): “Erreketako urak gaitzik ez egiteko, umeek hiru kurtze egin eta hau kanta: Andra Santa Luzia, puskat artileria, (...) Jesus mila bidar!” Zuberoako artzainek gogoratzen dute ura garbitu behar zela edan aitzin (Arana 2000: 84), eta Ahüzkiko bortuan nola egiten zuten kontatu zuen Battitta Etxebarnek, bere 80 urteetan:

Ur biltzaileak, pegarra pausatu baino lehen, behar zuen *benedicamus* bat erran, bestela ura ez zen garbi; honen egitea ahaztu egiten bazitzaion, behar zuen berriro uraren bila joan.

Ohidura hau, zaharren denboran errespetatua izan zen, baina gero emeki-emeki galdu egin zen (*Euskaldunen Egunkaria* 1995-IV-18).

Alustizak usadioaren zergatia azaldu du: iturritik gauaz ekarri urak zerbait gaizto duelakoan, edan aurretik, ilinti bat sartu behar dela bertan (1985: 65). Suak, beraz, “Jesus” balio du, edo alderantziz.

V. HITZ IDATZIA: LIBURUA

Hitzez egina da liburua, haien indarra du eta gehiago ere, idatziari esleitzen zaiona, beharbada elite baten monopolioa izan zelako. Ez horregatik bakarrik:

Formula magikoak idazten eta irakurtzen ditu sorginak maiz, buruz dakizkienean ere. (...) Sorginkeria arloan idazkiak erdiesten duen maila sinbolikoak badu eragina ahalmenaren irudikapenean. Idazkiak ikusgarri bilakarazten du ahalmena eta, aldi berean, haren sekretua

zigitzen du, hotsa eta hitza baztertzen baititu, hau da, komunikaera arruntenak eta erabilienak (Camus 1988: 53).

Ahozko hitzak falta eta idatziak duen gorputz materialaz kutunak egiten dira, Ebangeliozko zatiez adibidez (Barandiaran 1984a: 105), edo Koranezkoez. Ohitura hori jadanik V. mendean dokumentatua dela diosku Azkuek (1959: 193). Funtsean, baliteke idazketaren lehen helburuetarik bat magikoa izatea.

Irentsi ere egin daiteke hitz idatzia, barnetiko babesle bilaka dadin: XX. mendeko azteik formula apotropaiakoak izkiriatu, uretan gesaldu eta ur hori edatera ematen diete beren bezeroei (Camus ibid.). Ideia ez da berria, Ptolomeotarren Egiptoko “Satni-Khâmoïs” ipuinak kontatzen du nola egiten zen liburuaren bertuteaz jabetzeko. Protagonistak, liburu magiko bat asko kostata lortu ondoan, haren formulak irakurri zituen eta naturaz gaineko ikusmena erdietsi zuen munduko gauza guztiak ezagutzeko: eguzkia, hilargia, izarrak, ureko arrainak, zeruko txoriak eta lurreko animaliak oro ikusi zituen. Anaia idazlaria baitzuen, eskatu zion papiro berri batean izkiria zitzala liburuko hitzak; gero perfumeak gaineratu zituen eta azkenean urean sartu; dena urtu zenean edan egin zuen, eta hola jakin izan zituen liburuan zeudenak oro (Maspéro 1988: 45-82).

Gure mitologian apeza da hitz idatziaren nagusia, hark dauka meza liburu edo brebiario miresgarria, formula magikoen kutxa, eta bertan aurkitzen ditu hodei, sorgin eta deabruak haizatzen dituztenak. Sofik gogoratzen du Orozkon sarritan ikusten zituztela apezak irakurtzen paseatzen ari zirenean eta, hala zebilen batek liburua Supelegorren ahantzi zuenean, ekaitzegilei barrura sartzen galarazi zien (ikus “Familiariak”). Ez da apezik liburu gabarik, nahiz bien arteko harremana aski anbigua den:

Sorginkeria-liburuak pertsegitzen dituen apeza izan da, beste elementu sinbolikoen artean, “apez sorginaren” irudia sortu zuen eragile bat (sorgin onarena ere bai). Horrelako apeza ez da sorgin-liburuaren beldur, berak suntsitzen dituelako. Bere ofizioarengatik manipulatu egiten ditu, eta haiek dizkiotela ahalak ematen pentsatzen du (Camus 1988: 57).

VI. ENIGMAK ETA AZERIKERIAK

Deabrua haizatzen duen San Martinen kantuen ale anitz bildu dira Euskal Herrian (Barandiaran 1973b: 401; “Deabrua” kap.). Cerquand-en bilduman (2017: 47 zb), Jondone Petrik ihardesten dizkio ohiko hamabi galderak deabruzko Jaun Gorri bati, haren zordun zen gizon pobre bat salbatzeko, eta bi lehiakideen arteko elkarrizketa berezi honetaz amaitzen da kontua:

Jaun Gorri: Etxe huntan idi eder-ederrak ditie.

Jondone Petri: Behi ederren umeak ditie.

J. G.: Etxe huntan akulu eder-ederra die.

Jdn. P.: Urritzaren umea die.

J. G.: A Petri, Petri, hi ere hemen?

Jdn. P.: Bai, bai, eta hi ere bai?

J. G.: Errak, errak: hortxeko ur hori goiti ala behiti doa?

Jdn. P.: Badoa goiti, badoa behiti: habil hi ere hori behera.

Hori entzun eta, Jaun Gorrik lasterra hartzen du eta handik galtzen da. Gisa hortara gizon pobrea izan zen libratua.

Aginduaz gain, akuiluaren aipamenak ere sastatuko zuen etsaia, idien aurkako begizkoa desegin duen moduan (ikus beherago). Hamabi egien profilaxia ez dator beti kristau misterioetatik, zerrenda batzuetan bestelako gaiak azaltzen baitira (ikus Tipo 2010, “Deabrua” kap.). Ez da zenbaki zehatz baten bertutea ere. Hamabiak, hiru eta lauaren multiploak, orotasunaren esanahia izan lezake (Thompson-en motibo D 1273.1); baina adierazgarriak dira beste zenbakiak ere, eta Britainiako druida batek hiru galdera egiten dizkio haur bati (Cerquand 2017: 47 zb-nota).

Enigma asmatzea da funtsa. Hiru egia asmatu behar izan zituen Haxerihargaitzek, Basajaunak libre utz zezan: “Eguna gau ederrena baino argiagoa da; ogia beti artoa baino hobea da; jakin izan banu hemen izanen zinela, ez nintzateke etorriko” (“Basajauna” kap.). Antzekoak izaten dira azeriak txalupariari esaten dizkion egiak, ibaia dohainik pasatzearen truke, salbu hirugarrena: “Txalupadun, txalupadun, galtza txarrak badituk, eta txarragoak izango dituk ni bezalako asko pasatzen baduk” (Azkue 1966: 414). Azken egiak aurkaria barregarri utzi ohi du, erridikulua ere arma da. Hargatik, serioa da jokoa, Basajaunari esandako egia baten adina: “Belea herioa bezain beltz dela erraten baitute. Ez sekula” (Azkue 1966: 415). Beren irrigarrian durduzagarriak dira galdegileak, Caronteren itzala sumatzen da barkeruaren atzean. Izan, hain da

larria enigma non zuzen erantzuteak ere ez baitu salbatzen, Otxandianoko (Bizkaia) istorio honetan:

Gorulari batzuk, gaubegiritik urtenda argi bat ikusirik, “ezetz eta baietz, inor ez zela haraino joango eta ler-adar bat ekarriko”, hogەرleko bat tema egin zuten. Mutil bat joan zen eta zakur ikaragarri bat aurkitu zuen: “Adar hori eroan dagikek, baina lehenago hiru egia esan behar daustazak”. Eta esan zion: “Gaurik argiena baino argiago da egunik ilunena; amaizun ona baino hobea norberaren ama txarra; hogeita lau urte eta hiru hilabete daukadazak eta inoiz ez joat hi baino txakur handiagorik ikusi”. Eta zakurrak: “Beste behin ez egik holako temarik. Eguna dok hi lakoentzat (bezalakoentzat) egina, gaba neu lakoentzat”. Argia ahotzarraren sabaian dingilizka zeukan txakurrak. Mutila etxera joan, ogean sartu eta ez zan inoiz jagi (laburtua, Azkue 1966: 189).

Basajaunaren hiru egiak Esfingearen hil ala biziko enigmari alderatu dizkio Cerquand-ek (2017: 49-50 zb): Edipok, erantzun zuzena kausiturik, Tebas osoa ikaran zeukan munstroa garaitu zuen eta hiria salbatu. Hau zen galdera: Zein izaki egoten da lau zangotan goizean, bitan eguerdian eta hirutan arratsean? Jendekia: haurrean lau pataka, helduaroan bi, zahar aroan hiru, makilagatik. Eta azeri baten erantzunek Ediporenak oroitarazten dituzte “Learning to Fear Men” deitu T 157 ipuinean, Sébillot-ek horrela bildurik:

Lehoiak agure bat topo egin du eta ea gizona denez galdegin du; lukiak erantzuten du gizona izan dela baina ez dela gehiago. Haur bat topatu eta, azeriak dio gizon gaiaz egina dela. Eta egiazko gizona aurkitu dutenean lehoiak harekin neurtu nahi du. Gizona ados da eta, mehatxuak urrundik egin behar direnez, aldentzen da eta tiro bat botatzen dio lehoiari bekokira. Horren ondoren, lehoiak ez du gehiago lehiaketarik egiteko gogo (Sébillot 1968 III: 63).

Maltzuraren arketipoa da azeria Europako kulturetan, eta ildo berekoa Haxerihargaitz mutila. Koiotea izaten da maiz amerindiar mitoetako “trickster”, demiurgo ospetsua; eta San Martin jukutrilaria heroi zibilizatzailea da, jendeei ekartzen baitizkie jakintza baliosak. Kaldarenaz jabetzeko santuak erabiltzen duen gezurra hamabi egien kontrapuntua da, baina deabrua garaitzeko indar halakoa badu. Berriz, arto hazia eskuratzeko baliatzen duen amarrua *ezinezko betebeharraren* inbertsioa da: bete ezin duten atazaz garaituak ohi dira izaki mitikoak; egin ezin duen jauziaz garaile da Martin. Lukiaren paradoxak.

VII. LIHOAREN NEKEAK

Laminei aurre egiteko, lihoaren nekeak kantatzen zaizkie, haiei adi egon daitezen eguna argitu arte:

Baten, (Zeberio) Estefana Ugertekoaren aita joan zan goizean goizetik solora ganaduakaz, lauterdiak inguru edo. Eta halangoren baten laminak etorri jakozan (zitzaizkion) Manualdeko txarkoan (oxinean). Eta gizon horri goratu eutsien (eutsi zioten) eta bera bildurtu:

“Zer egingo dot nik? Zer horreek indar handia daukie eta kanpaiak jo arteraino... Ba, kanta bat kantaduko deutset, linoaren kantea kantaduko deutset”.

Eta hasi zan linoaren kantea kantetan, eta akabatu egiten jakon arin, baia atzera barriz hasten zan eta holan eukin eutsan hainbat denporan kantetan. Eta halangoren baten ba jo euan harri kanpaiak eleizan, eta hasi ziren laminak ostenduten. Baia berak egin euan bat kogidu eta ekarri euan etxera (*Lamina horrek salatuko du nola gal daitezkeen laminak: ikus “Azkena” kap.*) (laburtua, Etxebarria 1995: 158).

Oilarraren kukurrukuarekin bukatzen da “San Martinen kantua”, goizeko kanpaiekin “Linoaren kanta” luzea. “Linoaren atsekabeak, amai gabeak” esaten da: zortzi bat zenbatu dituzte Zeberion (Etxebarria 1995: 176); hemezortzi Liginagan (Barandiaran 1974: 177); Orixek andana bat aipatzen ditu *Euskaldunak* poeman; baita Caro Barojak ere (1974: 184); *Peru Abarka*-k hamasei bertsotan azaldu du “zeinbat neke eta arazo hartu behar direan hazi-ereitetik alkandora bat jantzi artean” (Mogel 1966: 90-100). Hona han-hemen hartutako batzuk:

Eskuz lurretik atera; gabikoak egin eta jo, hazia kentzeko; urean sartu, beratzeko eta azala ustel dadin; zelaian zabaldu edo labean berotu, lehortzeko; trangatu edo garbatu, harigaia azaletik bereizteko; txarrantxatu edo orraztu; irun; mihiz eta ezpainez haria berdindu “txori-lepo bage” atera dadin; matazak edo astalkoak egin; bogadan zuritu; harilkatu; eta azkenean ehun.

Ez dira bakarrik lihoak ematen dituen nekeak, baizik eta berak jasaten dituenak ere: “tris-traska dirautsagu erruki bagarik, isten ez deutsogula guk hazur osorik” diote Mogelen liburuko langileek, Kristoren nekaldiko hitzak iradokiz (Joanes 19, 36). Alabaina, lihoa ez da landare arrunta, ereitetik ehuteraino neskatilek lantzen ei zuten, gizonik gabe, eta zenbait tabu eta erritoren objektua zen: luze haz zedin, dantza jauziak egiten ziren haren inguruan inauteriz, irutea debekatua zen garaia.

VIII. SUA ETA ARGIZARIA

Suak errealitatean dituen ahal zenbait arlo sinbolikora iragan dira, batez ere suntsitzekoa eta argitzekoa. Bestelaz, irudimenean duen balioaz ohartzeko aski da erreparatzea etxe saltzaileen publizitatean zer leku duten supazterrek eta grisilek.

Argia eta beroa bizi emaile direlako, ausaz, mito batzuetan printzipio ernagile maskulinoa da sua, hala Izpiritu Santuaren garra nola Romuloren ama izango zen vestala ernarazi zuen brasa. Hortik eratxikitzen diokete jainkotasuna autore batzuek, euskal mitologian holakorik argi adierazten duen testurik aurkitzea zaila den arren. Zentzu horretan, Alustizak (1985: 65) argudiatzen du lurrera erori den ogia garbitzeko suari erakusten zaiola, eta iturriko urean ilinti gorria sartzen dela edan aitzin. Jestu horiek, ordea, suaren jainkotasuna baino areago, haren indar arazgarria erakusten dute, beherago ere aipatuko diren zenbait erritoetan bezala.

Argizaria egun-argiaren ordezkia da, oilarrari kantaraziz gauezkoak uxatzen dituenen; haren garra, Pazkoko xirio handian isiotua, ilunpea argitzen duen Kristo berpiztuaren sinboloa da. Ezkoz eginga da, gai garbiaz garbirik bada, erle birgin hegalariek lore “aratzetan” biltzen baitute (Delort 1998: 462) - aratzak loreak, sexu-organoen ohandia izan arren. Berez duen bertute horri bedeinkazioa gaineratzen zaiolarik, beste ororen gainekoa izaten da argizaria:

Bi mutiko bortulat joaiten, bata meza entzunik eta bestea ez. Ahuzkiko ibar zolan ikusten dizie (dute) zamari xuri eder bat. Meza entzunik zena gainera igoiten ziozun (zitzaion), baina zamaria ez ziozun ibiltzen. Bestea igo eta “Arri diable!” erran zion. Zamaria airatu zuzun Lexarregibelera buruz. (...) Mutiko ez baitzen ageri, jenteak joan ziren txerkatzera eta Lexarregibeleko lezean ikusi zien (zuten) hilik. Gero apez bat joan zen motikoa elki (atera) nahiz, zerbait otoitz egin zizun (zuen) eta ur benedikatua igorri; baina mutiko ez elkiten ahal. Hamasei urteko motiko bati amak ezarri ziozun (zion) hiru ezko (argizari) benedikatu inguru gerrikoan eta erran zion:

- Hik esteka lezeko mutiko hura, eta ordian elkiko die (ditek).

Eta mutikoa lezean sartu eta esteka zizun hango gorputza eta elki zizien (zuten). Eta etzun zizien boz bat:

- Madarikatu, gerriko korda horiek eramaiten ditae (ditek), ez ur txapasta horiek, ez eta kantore eder horiek (Barandiaran 1962b: 109).

Leku askotan kandela benedikatua pizten zen hodeia zekarrenean, ortzitik babesteko (Azkue 1959: 178-179); eta kandela-negar batzuk isurtzen ziren etxeko atean, baita abereen eta jendeen gainean ere, ekaizpean arriskurik gabe ibil zitezen. Xorta den-mendreena aski izan zen, behin, hegazti ekaitzegileei beren haitzuloko atea ixteko:

Gorbeia Itzineko artzainek mutikoa agindu zuten Sorgin Zulon (edo Supelegorren) kandela bedeinkatua ipinten, hodeiagatik itxura. Hango beleak edo saiak kanpoan ziren, eta gero ezin ziren barrura sartu; orduan artzainen txabolara joan eta, gaineko zohiak kenduten, dana apurtu behar zutela. Beldurtuta artzainek mutikoa atzera bidali zuten, kandela kenduten. Eta joan zan, baia kandelaren negar apur bat han itxi, eta saiak ezin pasatu, berriz ere artzainei mokoka. Eta:

- Mutila, ondo kendu deutsek (diek) kandela?

- Baai.

- Ba, joan hadi eta hobeto kendu egiotsek (ezaiek), hor jausi dok kandelaren tantakadaren bat eta hemen hil behar gaituzak.

Joan zen mutikoa, haizto bategaz ondo arraskatu, eta gero bakea egin zuten (moldatua, Arana 1996: 296-300, Etxebarria 1995: 257).

Beste batean, Supelegorren konjurua egin zuen apez bati sotana erre zitzaion eta hesturaz hil zen handik laster (Barandiaran 1973b: 340).

IX. SU SUNTSITZAILEA ETA KEA

Askotan agertzen da mitologian suaren indar bortitza eta, oraingo berriemaileek zein testu zaharrek diotenez, ahal hori baliatua izan da bai errealki eta bai sinbolikoki. Ustezko sorginak egiazki erre eta hil izan direla gogorarazten dute errito batzuek, bereziki Inauteriz eta Jondone Joanez egiten diren alamartxoek, eritasuna eta gabezia eragiten dituzten sorgin edo beste kaltegileetatik begiratzeko asmoan pizten zirenean.

Jondone Joane bezperako gauaz, Euskal Herriko leku anitzetan sorgin itxurako panpina bat erretzen zuten, baita “apoak eta sugeak erre, artoak eta gariak kaxan gorde” abestu ere. Holako koplak kantatuz eta zuzi piztuak eskuan, sororik soro joaten ziren bi zotzez egindako gurutzeak landa bazterretan sartzera. Garra ilunpean batetik bestera ibiltzen ikustea zein ederra zen gogoratzen dute orozkoarrek, zein pozik eta atsedendurik itzultzen ziren gero etxera, ohidura ondo beteak ekaitzetik eta beste gaiztoetatik herria babestuko zuelako eta uzta ugari bilduko zutelako (Arana 1996: 431-450).

Erritua kristianizatua da, naski, baina gurutze haien indarra sutik zetorrela pentsatzeko arrazoiak badira, Frantziako leku askotan ziri soilak ezartzen baitzituzten lurrean, ez gurutzeak:

Laborariek garretan pasatzen zuten hurritz-zaharo bat eta soroetan sartzen zuten, harri erauntsitik begiratzeko eta zaharoa bezain gora haz zedin kalamua. (...) Modu berean eta beti helburu magikoan baliatzen ziren Jondone Joaneko suaren ilintiak eta ikatzak. (...)

Hauek sute arruntetik eta zeruko sua den oinaztutik babesteko ahalmena zutela uste izaten zen askotan, arrazoinamendu analogikoan finkatuz: sakratutzat jotzen den suaren hondakinek (*pars pro toto*) beste suak edo haien ondorio kaltegarriak deusezten dituztela (Van Gennep 1949: 1880, 1421 eta 1624).

Urruñean (Lapurdi) XX. mendearen erdian, gizon batek sua pizten zuen herensugetik begiratzeko, zeruan pasatzen hautematen zuenean (Arana 2000: 81). Belgikako Maspelaer herrian, herensugeak ohiltzeko egiten zituzten udako solstizioko sugarrak (Frazer 1984: 115). Aspaldiko praktika dela diosku Van Gennep-ek, testu zahar bat zitatuz:

Jean de Belethek 1165ean argitaratu zuen *Tractatus* liburuan Jondone Joaneko suak eta herensugeak uztartzen zituen, garai hartan hedapen handia zuen doktrinarekin bat eginez: alegia, udan airea betetzen duten herensugeak urean igerika eta lur gainean ere ibiltzen direla, eta beren espermaz kutsatzen dituztela patineko eta erreko urak, urte tzarrak eragiten. Horregatik egoki dela hezurak erretzea, keak ohil ditzan piztia nazkagarri horiek (Van Gennep 1949: 1815).

Mende bat geroago, testu bera aipatuz, *Legenda Aurea*k esplikatzen du abere-hezurak erretzen direla infidelek Jondone Joanerenak erre zituztelako, eta zuziak pizten direla santua zuzi bizia izan zelako (Varazze I: 409).

Herensugearen odola ongarriztat hartua izan da (Frazer 1981: 358), menturaz arrazoibide analogikoaz berriz ere, inork ez diolakoan bera bezalakoari erasotzen. Arrazoi horregatik oinaztarri deitzen diren harrizko aizkorek oinaztutik babesten dute (Barandiaran 1973b: 488).

Suaren indarra gar eder garbietan omen datza, edo, alderantziz, ke lodian, hartaz jendeak, kabalak eta gauzak keztatzen baitziren. Soroetan gaindi erabiltzen ziren zuzien onura keari eratxikitzen ziotela uste du Van Gennep-ek (1949: 1906).

(Fumigatzeko) ohitura honek magia eta zientzia batzen ditu, garren eta kearen eragin suntsitzailea benetakoa baita, bereziki lastoa erretzen denean; aldiz, kantatzen den leloa, arao magikoa da, hitzen indarrean oinarritua (“Alde hemendik saguak, zoazte oihanera”,

etab.). Bestalde, fumigazioak berak ba omen du indar magikoa, jadanik Antzinate klasikoan ezagutua (Van Gennep 1947: 1042).

Kea kiratsago eta azkarrago baita, galipota erretzen zen kaltegarri guztiak uxatzeko. Batzuetan euria ekartzeko egiten zen, imitazio-magia gisa (Van Gennep 1947: 1802). Euskal Herrian, ke-sundaz uxatzen ziren ogigaztaiak (erbinudeak), sugeek bezala “beneno handia eukien” ustea baitzen.

(Zeanurin) axuriari ogigazteak ikutu ez dagion, abarka zaharrak kortan erre eta ganera ogia eta gaztaia orma zuloetan eta kutunean axuriari ipintzen jakoz (Azkue 1959: 45).

Orozkon zapatak erretzen zituzten, baina edozein gomak ere berdin balio dezakeela dio Santos Bernaolak, nahiz bere etxean bortzegi iltzedunak erretzen zituzten. Zitzadunarekin zapata, hodeiaren aurka bezala; tuaregek sandalia zahar bat zintzilikatzen dute oihal etxolako hagan, begizkoaren aurka (Lhote 1984: 205). Mari Ereño orozkoarra, ordea, eszeptikoa da: “Nik ez dakit (abarkak errez ogigaztaia) joaten bazan edo ez. Nork daki hori? Edo gehiago etorri, igual... Ez da egia?” Mendekati fama baitute inguru horietan erbinudeek, eta hobe bake ematea: txerriak hil egin omen zizkioten eraso zien bati, eta Luiaondon zioten ez direla zapatak erre behar, ogigaztaiak haserretzen direlako...

X. MAKILAK, LANABESAK, SU-ARMAK

Izaki mitikoak ez dira gorputz gabeko izpiritutzat hartuak eta armaz kolpatuak izan daitezke, hilak ere noizbait. Ezpata, nobleen arma antonomasikoa, gutxitan atxemanen da euskal mitologian. Aldiz, ugariak dira berezko armak izan gabe haien funtzioa bete dezaketen tresnak edo lanabesak, eta su-armak ere etengabe aipatzen dira. Denak elkarren trukagarriak izaten dira: gauaz agertzen diren katu sorginak berdin makilaz edo eskopetaz kolpatzen ahal dira, Thompson-en F 404.2 motiboan bezala, “Spirit Driven off by Knife-thrusts and Pistol Shots”.

Hil kondenatu batzuk oihuka agertzen dira, ehortzeko jantzi dieten abitua erantz diezaietela eskatzeko, soineko horrek infernuko oinazeak areagotzen dizkielako; orduan kako edo

gurutze batez kendu behar zaie, hila ez ikutzearren; guztiarekin ere, hori egiten duena “odolak pasaturik”-edo hiltzen da (Azkue 1966: 364; Arana 2000: 157).

Nekazariak eta artzainak deabru, tartaro edo beste izaki mitikoei aurre egiteko laborantzako tresnez armatzen dira, matxinaden irudietan bezala. Makila eraman ohi dute aldean, eta erabili egiten dute topaketa tzarretan: Orozko Gallartuko Txomingorri borrokaria zen eta, feriatik etxerakoan, pago baten gainean plantatu zitzaion gau-argia jo zuen makilaz; baina “besteok” ageri, Txomini atzetik jarraiki eta gizona, arineketa batean, topatu zuen lehen etxera sartu eta hantxe egon zen eguna argitu arte (Etxebarria 1995: 217). Heroi herrikoiek burdinazko palankakaz garaitu edo hil zituzten Untzueta mendiko jentilak Orozkon (ikus “Azkena” kap.).

Burdinari sua gaineratzen zaionean, are indartsuago bilakatzen da arma: sorginduaren behiek esne guti ematen badute sorginak “urrundik deitzen” dituelako, haizto gorria sartuko du esnean sorgingabetzaileak eta sorgintzaileak sentituko du erredura, hari eragiten diolako esnari egiten zaionak, kutsaduraz (Camus 1988: 212).

“Lamina zauritua” istorioan (“Sorginak” kap.) tximiniatik datorren lamina kolpatzeko, etxeko gizonak morokil edo urdai irakina ematen dio ahora, edo burruntzi goritua sartzen dio; Gotaineko bertsioan (Zuberoa), labeko pala sutan gorritua erabiltzen du; eta okinaren labean berotutako palankaz menderatu zuen herensugea gizon batek Arrasaten (Gipuzkoa) (Barandiaran 1973b: 431). Holako tresnak baliokide egiten ditu esaera honek:

(Arotz bati galdegin zioten): “Zer ari haiz jo eta jo, zer egingo duk burdin horretatik?” Eta arotzak: “Zuzena ateratzen bada, burruntzia; zabala ateratzen bada, pala; eta okerra ateratzen bada, igitaia” (Garmendia 1991: 15).

Arotzak burdinan eta suan adituak dira, ez alferrik. Gorago azaldu den lehoi kuriosoari gizonak bala sartu zion antzera, beste bertsio batean sudurra kurrikez oratu zioten olagizonek (Azkue 1966: 228). Barandiaranen aldaera batean (1961: 129), berdin egin zioten jentil bati, geroztik jendeen beldur baitira guztiak. Ber-maneran tormentatzen ditu Patxi Errementariak deabruak eta jentilak (Barandiaran 1962: 44). Hain da berezia arotzen indarra non haien beharra baitute apezek deabrudunen gorputzetik kalterik gabe demonioa aterarazteko:

Norbeit debriak hartia zelarik, arotzak eta apezak elgarretaratzen zitzun (ziren) errekeritzeko (exorzisatzeko) presuna hura. Eta gero, ordian eta, apeza otoitzean ari eta debria artzen zuzun

(aritzen zen) presuna haren mihitik eleka. Eta ordian apeza otoitzean ari eta hark, deabriak, erraiten:

- Mihitik joanen nuk, mihitik joanen nuk eta mihitik joanen nuk.

Eta erraiten arotzak:

- Ez. Zangotik joanen hiz, zangotik joanen hiz eta zangotik joanen hiz.

Eta besteak, deabriak, beti: “Mihitik joanen niz”. Eta arotza azkarrago. Eta azkenean Satan partitzen, zapata errrrotik (*enfasis*) kenduz.

Voilà. Eta mihitik joaten bazen, mihia kenduko baitzakon (zion) errotik (Maddi Casaubon, Izura, 1998).

Burdina eta suaren batuketari etekin garbia atera diote su-armek eta mitologian ere islatzen da haien garrantzia. Arnegin tiroak botatzen zituzten ekaitzaren kontra (Satrustegi 1980: 84), eta halaber Heletan Jondone Joaneko suaren ondoren. Bolbora hutsa ere erabil daiteke, lehergai gisa: urte hasierako jaietan botatzen diren petardoei izpiritu tzarrak uxatzeko helburua aitortzen zaie Txinan. Zuberoan, euskaldunek armarik ez zeukatenean Altzaiko herensugearen kontra, Musde Zaro ausartak akabatu zuen, armadan ibilita bolbora ezagutzen baitzuen (ikus “Azkena” kap.). Eta Bizkaian diote Galdakanoko bolbora lantegia edo Eibarko arma fabrika eginez geroztik ez dela gehiago laminarik eta holangorik.

XI. BURDINA, ZORROZTUNAK ETA ZIZTAK

Laborantzak Ama Lurraren gorputza zauritzen duen sinestean finkatuta, Indiako Baiga-ek uste dute bekatua dela “beren amaren sabela goldeaz urratzea” (Eliade 1975: 213). Estatu Batuetako agintariek amerindio ehiztari ibiltariak laborari sedentario bilakarazi nahi izan zituztenean, Wowoka-k, erligio sinkretikoa predikatzen zuen profeta paiute-ak, hitz ospetsu hauetaz erantzun zien 1880.etan Washington-tik zetozkien aginduei:

Lurra laboratzea eskatzen didazue. Beharko al dut, ba, haizto bat hartu eta nire amaren sabelean sartu? Hiltzen naizenean ama horrek ez dit pausalekurik emango bere sabelean (Radin 1980: 291).

Frazer-ek ematen dituen adibideen arabera, burdina jasan ezin dute izpirituek:

Polonian, burdin-hortzeko goldea sartu ondoan, uzta txarreko urteak etorri ziren; dena golde berriari leporatu zioten laborariek eta baztertu zuten, antzinako zurezkoak erabiltzeko berriz. (...)

Dibinitatek hastio baitute burdina, (...) metal hori balia daiteke mamu eta izpiritu kaltegarrien aurka. Eskoziako Goi Herrietan, elfoen kontrako erremedio hauta da, are gehiago altzairua. Metal hori bere forma oroetan da ahaltsua: espata, haizto, eskopeta kanoi... Lamia baten harpean sartu aitzin, komeni da atean iltzatzea altzairuzko zerbait, haizto, orratz edo amu, horrela elfoek ezin izango dute atea itxi eta barnean atxiki bisitaria. (...) Sakelan ganibet edo iltze bat aski da lamiak geldiarazteko. Emazte erdi-berria eta haren haurra babesteko iltzeak ezartzen dira ohe aitzinean, edo hobeto lisa burdin bat ohe azpian, eta igitaiak leihoan. (...) Marroken burdina daukate deabruen kontrako onenentzat, eta haizto edo labana bat ezarri ohi dute eri baten burukiaren azpian (Frazer 1981: 617-619).

Ezpataren lehengaia da burdina eta, metonimiaz, haren sinonimoa hizkuntza batzuetan. Hortik bide du izaki mitikoetatik begiratzeko ahala, bere edozein formatan. Thompson-en 384.3 motiboak jaso du sinestea: “Iron Powerful against Fairies (Heartland, Irish, Finnish, Swedish)”. Euskal Herrian, “trumoiagatik oiloari, arrautza ganean ezarreran, burdina bat bere ondoan ipinten jako”, arrautzak gal ez daitezen (Azkue 1959: 167; Sébillot III: 229).

Hodei eta elementuen kontra arma zein beste objektu zorrotz erabili izan dira askotan:

Peruko Yucaré-ek geziez mehatxatzen dute ortzi-jainkoa eta desafio egiten diote ortzantza ari denean. (...) Borneoko Kazan-ek, berriz, ezpatari eusten diote ortotsa entzuterakoan, haren deabru egilea ohiltzeko xedean (Frazer 1981: 268 eta 838).

Alpeetan, kanpaiak lagundurik aurre egiten zion ekaitzari apezak, eskuetan arrosarioa, igitia eta pioleta zituela. Arriskutsua zen, ordea. Behin, gizon azkar batek elausoa geldiarazteko haiztoa jaurtiki zion, eta ahots batek hots egin zuen: “Atzera egik kolpea! - Maisu onak ez dik inoiz atzera egiten”, erantzun gizonak; etxera itzuli eta hirugarren egunean hil zen (Abry 1988).

Munta handia dute ziztadunek magia ihardueran, bai erasotzekoan zein defendatzekoan; iltzez eta sardatxoaz sastakatzen dira argazkiak, kandelak edo abere-bihotzak, irudikatzen duten pertsona kaltetzeko; eta berdin haiztoa erabiltzen da (Camus 1988: 132 eta 150).

Ustez sorginduak diren objektuak zuzenki ez ukitzeko, puntan iltzea duen makila baliatzen dute sorgin-gabetzaileek sorgin tzarren kontra. Begizkoaz zamatuak dauden gauzei akuilua sartzen zaie, eta begizkoari berari ere akuiluaz buru egiten zaio:

Dos vecinos de Ataun iban en cierta ocasión con sus yuntas de bueyes (...) cuando, de súbito, uno de ellos vio venir a un hombre de los que hacen el aojo sin quererlo. Separose al instante del compañero, se colocó delante de sus bueyes, que iban los primeros, y opuso el aguijón a la mirada del aojador. El aguijón no pudo resistir la fuerza del adur y se hizo pedazos. Gracias a esta diligencia de su dueño y al sacrificio del aguijón, se libraron los bueyes de una segura desgracia (Barandiaran, 1984a: 42).

Txikiak direnean ere eragingarriak dira miztoak. Akelarreko deabruaren kontra nahikoa izan zen zapatariaren eztena – bere ofizioko zapata lagun, menturaz. Orratzak elementuei aurre egiteko balio du, hodeiari botatzen dio apezak; orratzaz lehertu zuen arrantzale batek sorgin-uhin gaiztoa “Hiru uhinak” ipuinean (Barandiaran 1960: 98), beste bertsio batean arpoiaz (Vinson 1960: 98). Sorginek ere erabiltzen dituzte ziztadunak: buruan orratz bat sartuz hil zituen zazpi haur Liginagako (Zuberoa) belagile batek (Barandiaran 1984b: 44).

Baliteke landare batzuen bertutea beren arantzetatik etortzea, aldeaz bederen; horietan ospetsuena elorri zuria da: atean ezartzen dute Tirol-en Walpurgis gauean, sorginetatik babesteko (Frazer 1983b: 517), eta ospe handia du Jondone Joaneko belarren artean, besteak beste ihurtzurretik begiratzen duelako (Azkue 1959: 293-310; Garmendia 1987). Frantzian ere:

Elorri zuriari eransten zaio gehien bat gerizatzeko ahala; ortziak jotzen duenean, diote Bretainian, babes osoa ematen dio bere adarren pean jartzen denari, eta bertute hori du Jesusen pasioko koroa izan zelako. Gaskoinian, ortziaren kontrako otoitz bat hola hasten da: “La Vierge Marie / S'est endormie / Sous un aubépin / Depuis le soir jusqu'au matin” ... (“Ama Birgina loak hartu du elorri pean, arratsetik goizerraino”).

Belgikan, Dinan aldeko zenbait jendek diote elorri zuriak babesten duela infernuan dituelako erroak eta oinaztura egiten duen deabruak ez duelako nahi bere zuhaitza jo (Sébillot 1968 III: 381).

Parte txarreko indarra elorriarena, nahiz onerako balia gero. Orozkon, Olarteko elizateatik apeza hodeia bedeinkatzen ari zelarik, ortzileek beretterra eroan gura zioten eta arantzazko itxituraraino hurbiltzen zitzaizkion behin eta berriz, baina handik aurrera ezin ziren pasatu (Arana 2000: 88). Elorrizkoak ziren Jondone Joane bezperan soroak babazuzatik begiratzeko ezartzen ziren hainbat gurutze. Eta elorriarekin beste puntadunak sartu ohi dira Jondone Joaneko lore sortan, arrosak eta beren forma edo izenagatik ezpata aire dutenak (*iris* eta *gladiolus*, adibidez). Nafarroan, arantza zuriaz gain alkaratsa (basarroa) ezartzen dute atean ihurtzuriaren kontra; eta Arbizun eguzki-lorea:

Los ancianos solían decir que las brujas se entretenían contando las puntas de (sus) hojas, (...) por lo que no les quedaba tiempo para entrar en el domicilio (Satrustegi 1980: 75).

Eguzki izenak eta itxurak gaineratzen diote bertutea landareari, baita eguzki-santuarekin duen antzak ere, menturaz. Osterantzean, lapar eta oteak ausarki erretzen dira Donibaneko suetan (Garmendia 1987, II).

XII. LANDAREAK ETA URA

Sendabelar anitz biltzen dira Jondone Joane goizean, gehienak arantzarik gabeak. Batzuek beren propietate farmakologikoez eragin dezakete, eta orduan botikak dira; besteek, eritasuna ematen duten gaiztoak indargabetuz, eta orduan kutunak dira. Praktikan bi printzipioak elkarrekin ibiltzen diren arren, hemen azaldu diren landareak babesle magiko gisa baliatzeko joera ikusita, uler daiteke haien eraginkortasuna, tradizioan, sinboloan bermaturik pentsatu dela maiz. Garmendiaren bilduman ikusten da belar onek berdin balio dutela gaixoak sendatzeko, hilotzak garbitzeko, tzarrak eta ortzia urruntzeko, baita Anbotoko Anderea uxatzeko (1987: 11). Antzeko moduan erabiltzen zituzten Proventzan, Martin Arles-ekoak 1544an bere *Tractatus de*

Superstitionibus liburuan salatu zuenez (Van Gennep 1949: 1816). Hurritza eta lizarra atetan babesle gisa ezartzen dira, batzuetan argizari bedeinkatuarekin. Orozkon, feriara eroaten zituzten abereak begizkotik babesteko, begibedarra (*aster* bat segur aski) ezartzen zieten uztarrian (Barandiaran 1984a: 106). Zeanuriko (Bizkaia) batek hodeiari nora jo behar zuen agintzen zion eskuin eskuaz, ezkerre inguratua zuela uztai-bedarraz (*rumex crispus*) (Barandiaran 1984: 158). Laminetatik begiratzeko landareen berri jakin zuen Murelagako (Bizkaia) gizon batek, gauaz bidean zihoala elkarrizketa hau entzunda:

- O, Karatxekoa!
- Zer gura dona, Arlabangoa?
- Hor bidean datorren gizon horrerik bota egiona lakioa.
- Zelan botako deusñat? Emazteak ipinita jaukara gabon-haria eta apioa (Azkue, 1966: 428; Barandiaran 1961: 63 eta 1984a: 105).

Azkuek dio “apio” hori serpol dela (*Thymus serpyllum*), usai oneko belarra eta oreganoaren antzekoa, hau ere laminek ezin jasana, Orozko entzun nuenez:

Andratxu eder-eder bat etortzen zen askotan Orozkoko etxalde batera, bertakoen adiskidea zen. Halako batean ez zen gehiago azaldu eta, denbora luzearen buruan berriz itzuli zenean, baserritarrek galdetu zioten ea zergatik ezkutatu zen. Eta hark erantzun: “Egun batean belarrarekin nahasita oreganoa sartu zenuten ganbarara: han egon zen, eta gero behiek jan eta bekorotzera pasatu zen. Oregano hori hor egon da, behien azpia aldatu eta satsa kortatik atera arte, eta bitartean ni ezin etxe honetara hurbildu” (Arana 1996: 223).

Istorio honek jende eta laminek adiskidantzako garai zoriontsua azaltzen digu, abagune arraroa gure kondairetan, gehienetan jendeek nahitara erabiltzen baitituzte belarrak laminek aurka. Sébillot-ek kontatzen du Aostan laminek haurrek lapurtzen zuten ogia miluz “pozoindu” zutela, eta geroztik ihes egin zutela (1968 I: 453).

Baliabide garrantzitsua da ura, suaren antzera sinbolo aberats eta anitza, baikorra zein ezkorra. Tzarra da Heraklitorena, eten gabe isuriz itzuli gabeko bidaiarako gomit hilgarria. Baina ur ilun eta zikinaren eretzean bada ur onuragarri xahua, funtzio garbigarria duena. Holako urak

berezko balio morala dauka; haren eragina ez da ikuzketa kuantitaboa, aitzitik, araztasunaren beraren mamia da eta haren tanta batzuk aski dira mundua garbitzeko (Durand 1969: 104, 194).

Ur garbi xortak jaurtikitzen ditu apezak isipuz, hodeia eta izpiritu gaiztoak oro konjuratzeko, edo belar onak hobeak egiteko, hala Erramu eguneko ereinotza nola Jondone Joaneko lore sortak. Eta ur bedeinkatzaile horrek, Elizak bedeinkatu ondoan, bertute handiagoa dauka. Ez beti, ordea, ez baitzuen lortu izpiritu gaiztoak Lexarregibeleko leizera bahitu mutikoa ateratzea.

Sakralizatuak izaten dira ur sendagarriak, frankotan santu edo kapera bati lotuak, pagano samar segitzen badute ere batzuek, Bidarraiko Harpeko Saindukoa, adibidez, Baxenabarren. Bestela egun seinlatu batek sakralizatzen ditu (Urtebarrik, Jondone Joanek...). Garmendiak Jondone Joaneko sineste anitz bildu ditu Euskal Herrian, haietarik anitz kristautasunak markatuak: leku zenbaitetan diote goiz horretako ibai ur guztiak bedeinkatuak direla, Joanek Jesus bataiatu zuelako Jordan ibaian (1987 II: 15-31, 129). Ez bakarrik urak:

(Jondone Joaneko) “aparteko bertutea”, euskaldunek dioten moduan, orduan biltzen diren gauza guztiei itsasten zaie, eta orobat ihintzari, urari edo egintzei, baita debekatuena den lapurretari ere (Van Gennep 1948: 1734).

Ur aratzen paradigma da goizeko ihintza, goraipatua edo arbuiatua jadanik V. mendean:

Jondone Joaneko bezperan edo goizean ihintzean bainatzeko ohitura oso hedatua da (...) eta kristianismo aurrekoa da; paganoa zelako salatu eta debekatu zuen San Agustinek (Frazer 1983a: 343).

Erritua biluzik egin behar dela diote batzuek; besteek, aski dela atorra hutsean eta ortozik. Bereziki buruko minarentzat omen da ona (Garmendia 1987 II: 53). Orozkon, 1980an, mediko naturista batek buruko minaz sufritzen zuen paziente bati goizeko ihintzean ibiltzea aholkatu zion, botikak errezetatu barik; pazienteak botikariari komentatu zion: “Mediku barria berde, ez? Orozkokoak berdeago gara bai, eta zoliko da; eta ez bada zoliten... karretera, Bilbora!”

XIII. PARADOXAK ETA AHO BIKO ARMAK

Izaki mitikoetatik begiratzeko estrategiak eta tresnak ez zaizkigu arrotz, ezagutzen ditugu armak, ohikoak dira. Baina ez betikoak, etengabe berritu baitira arsenalak ugarituz joan arau; horrela, makila edo burdinazko tresnen ondoan bolbora eta su-armak heldu dira mitologiara.

Halaber berritu dira baliabide sinbolikoak: antzinakoei (hitzei, argiari, harrabotsari...) indar berria ekartzen die Elizak, berak erabiltzen edo bedeinkatzen dituenen. Jatorri desberdina duten ihardunbide paganoak eta kristauak baliokideak eta trukagarriak dira herri tradizioan, eta helburu berdinetan erabiliak. Ura edangarria egiteko, berdin da hartan sua sartzea zein “Jesus” esatea. Donibaneke zotz keztuak zein gurutzeak, biak onak dira soroak gaitzetatik begiratzeko. Estola ere etsaia estekatzen duen lakioaren aldakina izan daiteke, Tarasca herensugea lotzeko Santa Martak erabili zuen xingolaren parekoa. Finean, gutitan aurkituko ditugu kristau hutsak diren ahalbideak.

Talismanak edonondik datozela ere, paradoxa nabarmenak azaltzen dituzte. Egunaren argiak laminak ohildu arren, eguzkitan orrazten egotea laket zaie. Eta, batik bat, armak aho bikoak izan daitezke, edo bikoitzak eta zalantzak, non ez diren erabat indargabeak. Estolaren ahal miresgarria galgarria ere da: apezak konjuratu bitartean bereterrak oratzen badio, hodeian dauden ekaitzegileak ikusarazten dizkio - telebistako antenak legez, dio Moises Larraondok; baina arriskuan jartzen da mutikoa, eta gutxi egin zuen ekaitzegileek eraman ez zutenean (Arana 2000: 88 eta 146). Talismanak eta armak hartzeak ordaina ekar baitezake noizbehinka: kandela bedeinkatuak eta liburuak haitzuloa hesten die ekaitzegilei, bai eta haien haserrea eta eraso bortitza eragiten; Alpeetako elausoari haiztoa bota zion gizona hil egin zen; eta orobat Musde Zaro, Altxaiko herensugea akabatu zuena. Objektu eta jestu profilaktikoek ifrentzuzko ondorioa izan dezakete. Goizegi jo zuen oilarrak parte txarrekoen eskura eraman zuen merkatura zihoan emakumea; beste munduan laguntzeko hilei jantzi ohi zaien abituak, infernuko oinazeak areagotzen dizkie kondenatuei; gainera, habitua kentzen diena, horretarako gurutze bat erabilia ere, ez da heriotzetik libratzen.

Horiek aski ez eta baliabide kristauak izaki mitikoak uxatzen ahal badituzte, sortu edo birsortu ere egiten dute. Anbotoko Anderea airatu eta ekaitzegile bilakatu zen senarrak elizara bortxaz sartu nahi izan zuenean; eta kondenatua denez, penitentzia areagotzen dio gurutzearen seinaleak. Herri mitologian optimismoa atzeman liteke, eszeptizismoak eta zalantzek oztopatzen ez balute.

LAMINEN ETA JENTILEN AZKENA

Gure tradizioko mito batzuek jentilen akabera kontatzen dute, eta haien funtsa gertakari historikoa dela esan ohi da:

La introducción del cristianismo y la consiguiente desaparición de los mitos gentílicos forman el tema central de una leyenda muy difundida en el pueblo vasco (Barandiaran 1984a: 103).

Oro har jazo den erligio ordezkapenak mito paganoen bilakaeran eta akaberan utzi dituen lorratzei begiratuko diegu, jadanik aurreko bi kapituluetan ikertu diren arraberritze mekanismoetan bermatuz, beti ere jendeek izaki mitikoei egin ohi dieten borroken ildoari jarraika. Mitoetan gertatu diren moldaketa asko testuinguru ekonomiko edo sozialeko elementu garaikideak kondairetan sartuta gauzatu direla ikusia dugu, pertsonaiak berraragituz eta gudukarako baliabide zaharrak berriez ordezkatzuz, besteak beste.

Moldaketa horietako zenbaitetan jentilen azkena kristianismoari lotzen bazaio ere, elementu eragile bat baizik ez da hori, ez bakarra eta ez baitezpadakoa. Erligio berriak mitoak noraino ezabatu dituzten hautematea da ondoko lerroen asmoa.

I. KRISTO AURREKO JENTIL ZAHARRA

Jentilen akaberaren bertsio anitz bada, Barandiaranek hamar bat aurkitu ditu eta horietakoak dira hemen aipatuko diren anitz. Oso ospetsua da Balenkalekuko dolmen batean kokatua dena, Ataun, Altsasua eta Idiazabalgo mugan:

Cuentan que antes de la venida de N. S. Jesucristo vivían los gentiles en el collado de Balenkaleku. Entonces no llovía ni se veían nubes en el cielo.

Cuando allá en lontananza apareció la primera nube, se asustaron todos. Había entre ellos un anciano de cuatrocientos años que vivía retirado en su cabaña. Sacáronle de allí para que

observase el extraño fenómeno; mas él no lo veía porque no podía abrir los ojos. Entonces los suyos separáronle los párpados con unas palancas.

Cuando el anciano vio la nube dijo: “Será perdida nuestra raza”. En efecto, desde entonces se propagó por todo el país el Cristianismo, y desaparecieron los jentiles.

Dicen que el nombre de Balenkaleku procede de haberse hecho uso de sus palancas para abrir los párpados del anciano jentil (Barandiaran 1960: 45).

Palankak Orozkoko jentilak suntsitzeko erabiliak aurkituko dira beste kondaira tipo batean.

Ataun Leizadiko bertsioak ere hots handia du (ibid.: 45). Jentilak hango koba baten bizi zirela, sekulako izar eder bat agertu zen, eta erdi itsututa zegoen jentil zaharrak ikusi orduko deiadar egin zuen: “Ai ene umeak! Kixmia jaio dek, galduak gaituk oraintxe. Bota nazazue ni gain beheara”; eta malloak beheara amilka bota zuten. Jesukristori deitzen zioten Kixmi, esan nahi baita tximua. “Gero kristandadea munduan zabaltzen hasi zanean jentil danak sakabanatu eta berehala galdu emen ziren”.

Orozkon hau esaten zuten 1923an:

Cuentan en Olarte que antes andaban por aquellas tierras muchos gentiles. Una vez vieron aparecer en lontananza una neblina (lañu marismea). Había entre ellos un anciano sabio que, a causa de alguna enfermedad, tenía cerrados continuamente los párpados, y no veía. Abriéronselos con horquijas de madera, y al ver la neblina, anunció el próximo advenimiento del cristianismo (Barandiaran 1961: 82).

Murritzagoa da Zeberion (Bizkaia) 1979an jasotakoa: Jentilak Untzuetako gainetik Mandoikora “pelotan egiten eudien (zuten)”, eta gero “lañoak urten eutsiengan (ziengan)” esan zuten: “Gureak egin dau, akabatu dau”, eta orduan azkendu ziren jentilak (Etxebarria 1995: 204).

Oihartzungoan, Jesukristo iragartzen zuen lehen lainoa ageri eta ondoan ezkutatu ziren mairuak (Barandiaran 1960: 46). Zaldibiakoa 1917an kontatu zioten artzainek Barandiarani: Aralarko jentilek laino misteriotsu bat gainera zetorkiela ikusita, ihes egin zuten izuturik eta Arraztarango harripilaren azpira sartu ziren: bertan daude betirako lurperaturik, eta dolmen horri Jentilarri deitzen zaio orain (ibid.). Azkuek ere bildu du Arraztan Jentilharriko legenda, baita Goldarazko sorginena, azken honetan lehenbiziko elurra dela akaberaren seinalea (1966: 373 eta 393).

Elurra azaltzen da Hernaniko eta Etxarriko bertsioetan ere. Eta, Ataunekoan bezala, izar bat Aranokoan, Idiazabalgoan eta Urdiain Jentilehiokoan (Barandiaran 1984a: 103-104).

Kondaira hauen 1960 eta 1961ko argitalpenetan Barandiaranek ez du batere aipatzen Olentzerorik edo beste “azken jentilik”.

Pirinioetan, Bigorren, badira tipo bereko kondaira oso antzekoak (Ravier 1986: 45-56): Elurrik egiten ez zuen aroan, Estaubé gainetan, Gavarnie aldean, garitza ederrak lantzen omen zituen 900 urteko Mulat-Barbe gizandiak; zazpi seme zituen eta itsua zen; lehenengoz elurra egin zuenean, gatza ari zuela uste izan zuen seme gazteenak eta galdezka joan zitzaion aitari; agureak elurra ikutu eta esan zuen: “Kristianismoa heldu duk, hemendik joan behar diagu”; orduan sutan igitaia goritu eta hartaz bere buruaz beste egin zuen - bertsio batzuek diote semea gerlan hil zela jakin ondoan suizidatu zela, edo semeari eskatu ziola berak hil zezala.

Beste bertsio batean, mila bat urte zituen Millaris zaharrak behiak eta ardiak alhatzen zituen Béliou mendian, Lesponne gainean. Lehen elurra egin zuenean jakin zuen bere ordua heldu zela; hil aitzin semeei esan zien bertan ehortz zezatela eta gero behien atzetik joan zitezela beherantza, iturri beroetaraino (Bagnères de Bigorre). Millaris berehala hil zen eta semeek hark esan bezala egin zuten; Béliou mendian dago haren gurutze hilarria (Ravier 1986: 68-75).

Kondaira guzti hauen bertsioetan desberdintasunak badira, noski. Hirutan bederen (Zeberiokoan, Aranokoan eta Zaldibiakoan) Kristo edo kristianismoa falta dira. Orozkon eta Zaldibian (Arraztan) hodeia ez da lehenbizikoa, izarra inoiz ez. Baina guztietan agertzen da ez-ohiko meteor bat, elementu horrek mitoan duen garrantziaren seinale.

Bestalde, bertsio zenbaitetan, erdeinuzko izena ematen zaie garai berriko jendeei. Ataungoan “Kixmi” (tximua) deitzen diote Kristori. Urdiaingo jentil zaharrak iragarri zuen: “Akabatu da jende humanoa eta heldu da jende perrua” (Barandiaran 1961: 82). Azkueren Arraztangoak, berriz: “Ernaga (jentilen bizilekua) ernega dadila; Pilistindarrak sortu dituk eta sekulako galduak gaituk”. Bibliako Filistiarrek Israelen etsaiak dira eta gaiztoen rola daukate Samsonen bizitzan; haietarikoa zen Goliath gizandia, David gazteak abailaz hil zuena. Mitoak, filistiar tzarrekin lerrokatzen dituen kristauak, *a contrario*, onen aldean ezartzen ditu jentilak, kristauen aurkariak diren ber.

“Jentil” izenari dagokionez, gogoratzeko da lehen kristauak, israeldarren ildotik, “gentiles” deitzen zietela arbuiaitzen zituzten paganoei; latinez, aldiz, ‘noble’ esan nahi du hitzak. Eta badirudi gure mitoek ere, hitzaren latinezko zentzuari eutsiz edo, noble izaera ematen dietela aro zaharreko jentilei, perruenetik bereiziz.

II. INTERPRETAZIO HISTORIKOA

Kondaira horietan Kristoren etorrera azpimarratu da.

La significación histórica del relato aparece clara, puesto que todo él tiende a conmemorar dos acontecimientos históricos: la venida de N. S. Jesucristo y la destrucción del gentilismo. Son frecuentes los casos en que la leyenda se inspira en la historia. Ellos permiten estudiar las leyes según las cuales la tradición deforma los hechos históricos, y nos hacen vislumbrar importantes conclusiones en el campo de la psicología (Barandiaran 1960: 47).

Kristoren etorrera eta jentilismoaren ezabaketa ukaezineko jazoerak dira. Berriz, mitoen jatorria horiek direla nahi duen teoria evhemeristak ez dirudi egokiena jentilen azkena ulertzeko: a-historikoa den meteoruari pertinentzia kenduz eta historikoa den Kristori emanez, bertsio batzuetan falta den elementua lehenesten da. Bi elementuak bereiziak dira, segur asko, noizbait elkartuak izan badira ere. Logikoa litzateke pentsatzea meteoroa izan dela lehena, gertakariaren antzinatasunaren adierazlea, ausaz, eta geroago itsasi zaiola kristianismoarena.

Horiek hola, interpretazio historikoak alde batera laga eta, mitoetan baikaude, haien arlora itzuliko gara, ikuspegi horretatik begiratzeko bai jentilen akaberari eta bai beste izaki mitikoenari ere. Mitologia sistema oso bat izanki, hobe da bere osotasunean hartzea, kondairak alderatuz eta elkarren argitara aztertuz. Kondaira anitzek esaten dute kristautasunaren sinboloek eta erritoei haizatu dituztela jentilak, laminak eta gaineratikoak.

III. APEZAK, ERMITAK, LITANIAK

Aurreko kapituluan ikus daitekeenez, kristianismo abstraktuari bezain bat, haren alderdi edo osagarri zehatz batzuei egozten zaie izaki mitikoak borrokatu edota akabatu izana. Horra nola galdu ziren, Baxenabarren, Otsozelaiko laminak. Landesetara joaten ziren, Akizeko ur-onetan beren minak sendatzera; eta han ere hainbeste gaiztakeria egiten zituzten non bertako santu batek Jainkoari eskatu baitzion bazterrak laminetatik garbi zitzan; orduan Akizeko urak irakiten hasi

ziren, laminak ez baitzitezkeen handik goiti bainatzera joan; hori jakitearekin, Arbelek (arberotarrek?) beren apezai otoitzak galdegin zizkieten, eta Isturitzen, Donamartirin eta Donostirin otoitzean hasi zireneko, laminak itsasoan suntsitu ziren eta Dorre Mendi behiez estali zen (Oxobi zitatuz, Kaltzakorta 1997: 68).

Nafarroan, apezaren konjuruak ohildu zituen Ezkurrako jentilak eta sorginak (Garmendia 1994: 53). Zuberoan, Larrainen, apezak uxatu zuen Basajauna, larunbat guziz Salve Regina kantatuz (Cerquand 2017: 61 zb). Eta orobat Lapurdin, Larrun mendiko herensugea:

Haroztegiko larrekietan omen zen herensugea. Eta zazpi buru formatzearekin altxatu omen zen egun batez goizalderat, sutan, zazpi buruetan argia zuela, eta itsaso barnean sartu omen zen. Batzuek erraten zuten apez batek madarikazionea egin omen ziola eta handik kasatu omen zuela itsasgorrietara (Barandiaran 1973b: 416).

Ezagunago da ermiten eta errogatiben eragina.

Según creencias de algunos ancianos de Olarte (Orozko), las laminas desaparecieron a consecuencia de la letanías o rogativas anuales que se hacen en las ermitas. Esto mismo me refirieron también en Kortezubi (*jarraian eskopetak aipatzen ditu informatzailek, ikus beherago*) (1922an entzuna, Barandiaran 1961: 67).

Euskal Herriko ermitak, lehen lainoa bezain zaharrak izan gabe, ez dira herenegungoak. Hargatik, laminen istorio asko beren amama-aititen garaian kokatzen dituzte oraingo berriemaileek: laminak urlia etxera joan zirela behin, eta berendiak beren zulora sartzen ikusi zituela. Arrabako Landan (Gorbeia mendian) txabola zuen Zeanuriko Basilio Etxebarriak Lekandako maldan den Laminategietaz gogoratzen zen 1977an:

Gure gazte denporan entzuten zan gehiago laminen kontua. Hori esaten eustan gure amomak: “Ez zatizie joan, laminak dagoz gero hor goian... Karkabetara alderdira ez joan! Laminak jango zatizie-eta...” Holango kontuak.

Aspaldian ez da entzuten holangorik. Laminak hondatu zirean. Sustatu egingo zirean. Ermiteak bere, entzutea daukat, laminak gatik edo ete egozan iminita, bakea egon daiten edo... Ermita asko dago gero... Ez dakit ba nik hainbeste ermita zertarako egin ete eudiezan

(zituzten)... laminak eta egoten zireala bai eta... Horreexen anparurako edo egin ei zirean (Etxebarria & Manterola 1978: 119).

Hots, makina bat aldiz hauteman dituzte laminak Zeanurin eta hainbat tokitan, herriak jadanik ermitaz josiak zirenean. “Tradizioak jazoera historikoak deformatzen dituen” ideia bururaino eramatekoa da. Mitoek aski indarra badute jazoera, kontatu baino areago, erabili egiteko beren gisan. Ikusia dugu aurreko kapituluan kristianismo barik, eta hurrean hura baino lehenago, bazirela baliabideak eta tresnak izaki mitikoei buru egiteko, esan nahi baita izaki horienganako etsaigoa ere lehenagoko zela. Testuinguru gatazkatsu horretan kokatzen den laminek galtzea ere apezten eta ermiten aurretikoak ziratekeen; Elizak historikoki eskua sartu badu borroka horretan, ez du berak asmatu, landu bai, hain segur, gure ezaupideko mitologian duen gordintasunera eramateraino. Dena dela, mitoek kontaktzen dituzten akaberen eragileetarik bat baizik ez denez kristianismoa, ikus dezagun nolakoak diren ondorio berdina ekarri duten beste faktoreak.

IV. BOLBORA, ARMAK ETA ARMADUNAK

Baliabide eta arma gehiago ezagutu, eta aukera handiago kontalarientzat nahi dutenari protagonismoa emateko. Eta eskuarki, armak hartu zein otoitzak egin, bertsua izaten da emaitza:

Pero al lado de esta leyenda (*errogatibek laminak uxatu zituztela*) existe hoy otra más generalizada, según la cual las laminas, las sorginas y otros seres legendarios fueron desterrados por Eibar, dando a entender con estas palabras las armas de fuego que se fabrican en este pueblo (Barandiaran 1961: 67).

Trena ere (burdin bide suak mogitua) txarra da bai laminek eta bai basa-piztientzat:

Gero, ba, (Bizkaian, Usansoloko) laminok martxatu eudien (zuten) seguramente letania edo tranbiagatik. (...) Urduñako trenbidea egin zanean galdu zirala otsoak (Etxebarria 1995: 240 eta 273).

Arrazolan esaten dute: “Lehen dana zuan laminea. Eibarko pistola fabrikak agertu ziranean, danak desaparezidu ziran” (Gorostiza 1978). Berdin Amorebietan (Etxebarria, JM. 1987: 167), eta Orozkon:

Horreek kontukaz gure gazte denporea izan zan. (*Txarto portatuz gero*) gure amamak edo esaten euan (zuen): “Hi, akordatu hadi, e? Laminairi esango jautsiet (zieat), e?” Laminairi. Eta gure bildurra zan lamineen kontuak. Klaro ez genduzan (genituen) guk ezagutu, ez genduzan guk ikusi, eta honeek kontuok, gero polborea funditu zanean, akabatu zirean danak. (...) Haik ziren bibo batzuk, egiten eudiezanak (zituztenak) horreek gauzok. (...)

Orain ez dabil, orain pentsetan dot horreek guztiok akabatu euezala zerak, pistoleak eta barruko zerak, polboreak. Orain ez dira agertuten holangorik. Lehenago Zaloan Katu Baltza... (E. Bilbao, Arana 1996: 188, 491).

Zuberoan, Altzai Azalegiko herensugea akabatu zuen Musde Zaro ezkutariak.

Xüberuako bortietan, Azalegi maxelan bada harpe handi bat. Hara bestorduz gure aita ez ziren ausart hüllantzera (hurbiltzera), zeren eta harpe hartan beitzen süge bat, seküla gizonak ikusi izan den handiena, eta jenteak ikaran ziren. Üdan bazoan erre kara edatera, büztana lau harri-kaldüren bidean zen. Artzainek ikusi nahi zienean (zutenean), bazoatzen beste gaintiko maxelala eta hantik izitürik ikusten süge horrek behi, behor, arres, kabale guziak, hatsaz beragana biltzen eta osorik iresten zütiela.

Euskal Herri orotan jakintü haren berri, baina nola ausart berrehün ür hats baino hürrütiago guziak xehatzen dütianagana? Ordünko euskaldünak zalhe ziren egüngoak bezala, bena ez zütien oraiko armak, ez eta ezagützen polbora.

Huna heltzen armadetarik Musde Zaro Altzai, esküier eta gizona koraiez betea. Egün batez badoa zamariz (zaldiz), aratxe larrü bat polboraz beterik eta, mitxa bat ezarririk, eramaiten dü süge horren zilo hegi alaino. Badaki sügea lo dela tenore hartan eta ez dila arrixkatzen. Gero galopaz badoa beste gaintiko hegiala, tiro batez sügearen iratzartzera. Sügeak altxatzen dü büria eta iresten aratxe larria, Zarok desira zian bezala. Hantik landa entzüten dü harpetik lotsagarriko (beldurgarriko) zapartü bat eta ikusten sügea airean partitzen, sü zirriztaz bazterrak oro betatzen: büztanaz egoizten dü pago oihan gazte bat osoa lurrera eta

gidatzen da Baionako itsasoalat urez hasetzera, nondik landa zapartü izan beitzen. Aldiz, Musde Zaro handik denbora llabür gabe hil zen lotsariatik, baina euskaldünak libratü süge madarikatütik (laburtua, Cerquand 2017: 109 zb).

Beste bertsio batean (Cerquand 2017: 108 zb), Athagi etxekoa zen gudaria, Xibalie izenekoa (“Chevalier”, zaldun); armadetan ikasia zukeen bolbora nola erabili eta ez zen apotoroen beldur; halere, hil egin zen, “herensügearen hüxtiak (listuak) eta herotsak odola ur bilhakarazirik”.

Gerlaria zen Arrolan ere eta hots handikoa. Basa-ume bat zen, Orreagako behi bat izan zuen inude eta haurrean, Herakles greziarraren edo Cuchulainn irlandarraren antzera, sekulako balentriak egiten zituen: pagoak errotik erauzi, otsoak harrapatu eta borda batean zerratu; Euskal Herri guztian hedatu zen haren ospea eta Baxenabarreko mairuak ohiltzeko eskatu zioten:

Heskual Herri guzia mairiek ikaran zaukaten, sustut Izpura Laustaneko, Azme Latsagako, Jutsi Larramendiko eta Lartzabale Donamariako. Arrolan kargatu zuten heier gerla emateaz eta haien kasatzeaz (uxatzeaz). Hartu zitien laguntzat Olivier eta Samson. Gerla handi bat irabazi zuten eta kasatu mairiak bortietan aitzina, Espainian barna. Arrolan biziki akitia (nekatua) egarri handi batek hartu zien Orreagako ondoan. Bere ezpata handiaz ukaldi bakar, arroka bat erditik egin zien eta iturri bat zen. Arrolanek hur hartarik anitz edan zuen. Infrendidura (hotzitu) batek hartu zien eta han berean hil izan zen. Beraz, Arrolanek hil lekutzat uken zien sor leku bera. Handik hunat urtean behin Arrolanen zamaria (zaldia) agertzen da Espainiako hiri batetako zubi baten puntan, eta han irrintzi handi bat. Ordian mairiak tarrapata sartzen dira bere leizeen barnean (Cerquand 2017: 104 zb).

Iturri anitzetan edan du istorio honek. Arroka erdibitu zuen “Chanson de Roland” poemako Roldan-ek; Moisesek kolpeaz sortu zuen iturria desertuan; eta Santiagoren zaldia Espainiako “moro”en ikara zen. Beste bertsio batek dio (Cerquand 2017: 104a zb) Arrolanek harrika eho zituela laminak oro, berdin emazte edo haur; geroztik ez omen da gehiago laminarik Pirinioetan. Kaliforniako amerindioen sarraskiaren aditzea ote zeukaten euskal artzainek?

Ataunen, gudariak izan dira izaki mitikoen garaileak; hango basoan bizi ziren jentilek gazteak eta umeak harrapatu eta jan egiten zituztela esaten zen herrian, eta beldurtuak ziren denak; azkenean, indar armatua ekarri zuten jentilak garbitzeko, eta bazterrak lasaitu ziren (Garmendia 1994: 43).

V. AKABERA GAURKOTUAK: ERROGATIBETATIK BONBA ATOMIKORA

Pedro Mari Sautuak 1922an esaten zuen bere aitak eta artzain lagunek, 1860ean gutxi gora behera, laminen oin arrastoak ikusi zituztela Gorbeiko Supelegor haitzuloko zoruan, eta gaineratu zuen: “éestas ya no existen, pues fueron desterradas por el evangelio. (...) Quedaron enterradas siete estadios bajo tierra, desde que fueron organizadas las rogativas en iglesias y ermitas” (Barandiaran 1973a: 481). Alta, Sautua Olarteko (Orozko) sakristaua zen eta ezin zuen ez jakin bere aitaren garaian ebangelioa zabalduxe zela eta errogatibak ez zirela gauza berria.

Ohar berdina egin daiteke armen eta bolboraren antzinatasunaz. Galdakanoko fabrika, ‘S. A. Española de la pólvora dinamita’, 1872an sortu zuten, eta oso ezaguna izan zen XX. mendearen hasieran. Eskopetei dagokienez, haien fabrikazioa hedatua zen XVI. mendean Eibar eta Durango aldean (Intxausti 1985: 395). Beraz, jadanik aski zaharrak ziren eskopeta lantegiak “antzinako xaharren” garaian, Basilio Etxebarriaren amamak esaten zuenean Laminategietan laminak bazirela.

Orozko Fermin Pikaza oroitzen da, haurra zelarik, Nati Elexpuruko zaharrak esaten ziola laminek urteten ziotela Ugalde aldean. Santos Bernaolak dioenez, 1950garrenatan, bere umetan, bizi-bizia zen laminen sinestea: “Gurean esaten eudien, ‘ez fidatu neskato polit bat ikusita, zer izan liteke laminea’”; aititak debekatzen zion laminen kontuak apezari aipatzea eta kontuz ibiltzeko ere esaten zion askotan, txitxi-burruntzi hartzera etor zitezkeela eta. Santos berari auzoak kontatu zion Anbotoko Anderea nola ikusia zuen (Arana 1996: 215, 514, 211, 279). Eta Urigoitiko Rosa Olivaresek ere ikusia zuen, 1996an esan zidanez.

Orozko Araneko giza katuaren gora-beherak XX. mende hasierakoak dira, eta beste agerpen batzuk, Zaloako Katu Baltzarena, kasu, mendearen erdikoak, Eulalik dioenez; eta berak baieztatu zuen Galdakaoko bolborak denak akabatu dituela (ikus “Bizirritze”). Anakronismo arazo hori saihestu daiteke, oraingoak diren armei leporatuz izaki mitikoen ezkutatzea: “Orain erretiratuak dagoz horreek, bonba atomikeak edo...” dio 1985an beste orozkoar batek. Tradizioko prozedura horrek mitoak moldatzen eta gaurkotzen ditu: sua eta burdina ziren behiala, gero eskopetak, eta orain arma nuklearra.

Elurraz, armaz edo litaniaz, etengabe suntsituak izan dira laminak eta jentilak. Galdu direla kontatzeak, ordea, ez du galduenganako sinestea galarazi, orain arte bederen; aski zen arrazoitzea “gaur ez dira, baina atzo arte bai”; kondaira gehienak, oso urrunak izan gabe, iraganean kokatzen baitira, haien berraragitzea oraindik sinesgarria izan daitekeen unean. Sorginen leloa baldin bazen “ez garela baina bagaitun”, berriemaileena izan liteke “ez direla baina bazitunan”.

VI. AREZKO SARRASKIA

Laborantzako tresnak izaki mitikoen etsaiak direla aipatu da “Baliabide” kapituluak, eta Euskal Herriko hainbat kondairaren arabera, laminak galtzeko erabili ziren. Kapitulu berean ikusi da nola Zeberioko gizon batek laminetatik libratu zen lihoaren nekeak kantatuz. Hona istorio horren segida:

(Goizeko lauetatik lihoaren kantea kantatzen egon ondoan) jo euan (zuen) harri-kanpaiak eleizan eta orduan hasi ziran laminak ostenduten, baia berak bat kogidu eta ekarri euan etxera. Eta etxean eukien (zeukaten) baia ezin berba eginarazo, eta egon ziran ea berbaz ete ekien (zekien). Eta egun baten ipini eudien (zuten) esnea egosten eta egin eutsen (zien) esne horrek gora igon eta hasi zen jausten. Eta orduean lamina horrek, esnea asko gustetan jakon moduan, alperrik galdu ez daiten, ba, hasi zen:

- Txuria gora! Txuria gora! Eta:

- Beno honek badaki berbaz.

Hasi ziran berba eginarazoten. Eta aber eurok (laminak) zelan galduten direzan - gura eudien galdutea, zer gauetan gerra handia emoten eutsien. Eta esan eutsien:

- Bueno, ba, gu galduteko, San Juan egunean behar daudie (dute) jaio herri-zekor bikotxak. Eta horrekaz zekorrokaz, intila (golde, are) bat hartu eta ilargi betean erreka goitik behera pasatu, eta urtengo dau odolak.

Eta topatu zituezan San Juaneko herri-zekorrak eta Manualdeko txarko hori gora eta behera pasatu eudien. Eta urten ei euan odolak. Eta intilleak aginetan batu ei zituezan seguru ulleak (ileak) eta, laminenak.

Eta holantxe galdu ei zituezan laminok eta gehiago bakea eukin eudien laminokaz (Etxebarria 1995: 158).

Antzeko triskantza dugu beste kondairetan ere, eta bereziki odoltsua da Zeberiko bertsio hau.

Lehenago, erreka txarkoetan egoten zirean laminak. Eta erreka munera urteten eudien orraztuten. (*Neska batek orrazia kendu eta laminak etxera joaten zitzaizkion orrazi hori erreklamatzeko: supazterrean egoten ziren "Txuria gora" esaten. Batek, tripa bete esneagatik salatu zuen zelan gal zitezkeen laminak*). Esan eutsien (zien) San Juan egunean jaioko zekor modeloak erreka tragaztuteko (areatzeko, goldatzeko).

Eta hazi eudiezan (zituzten) San Juan eguneko zekor modeloak eta erreka-txarkoak tragaztuten hasi zirean. Eta metxatetik dandarrak laminak eroaten euazan tragazak, tragaz aginekaz agarratuta: eta sokorro baten eta odoletan txarko guztiak. Eta orduan akabatu zirean laminak (Etxebarria 1995: 190).

Azkuek Igorren bildu duen bertsioan mehatxuka datozenean laminak, lapurtu dieten orrazia eskatzera; haietarik bat harrapatzen du gizonak eta etxera eraman; gero "pizti hareri" mintzarazteko, "gogor hartu" zuten, laminak zelan galdu zitezkeen aitorrarazi arte; hark aitortu moduan, narrak erabili zuten erreka, eta geroztik ez da "inguru haretan laminarik batxo bere arean azaldu". Bukaera honetan ez da odol aipamenik, Azkuek xukatu ote zuen... (1966: 217).

"Laminaren amorantea"ren Dimako bertsio batean, mutilak, andregaiaren ahate oinak ikusi arren, ez zuen berehala harekin hautsi, eta neskak, konfidantza harturik, aitortu zion nola gal zitezkeen laminak; eta San Juan egunean itailatu (areatu, goldatu) zuten Manariko errotoako andaparea, "eta ene! Itailak soloa ibiltzen daudien moduan, dana ulea eta odola seguru... Eta orduan debildu ei zirean laminak" (Etxebarria 1995: 288).

Baxenabarren ere badira laminak lurretik erauziak:

Jesukristo jin baino biziki lehen, laborari batzuek beren larren arhetzen ari zirelarik, sentitzen dute hortzak lotuak zirela finki lurrari. So egin eta hatxemaiten dituzte arhearen zolan armak hortz bezein beste haur ttipi negarrez hurtua. Eta jende hek, pietatez beterik infortunatu gaxo heiendako, handik libratzen dituzte eta ekartzen etxerat. Han bere haurrak bezala hazi eta altxatu zituzten beren erlijionean. Haur horiek igorriak ziren laminez, lurraren azpitik gainerat,

zeren eta heien burasoek nahi beitzutien egun batez heien kasta heda zadin lurrean. Gero haur haiei aitek eta amek egin ziotzen gauaz palazio batzu magnifikoak, oraiko harginek ez baitlirokete (lezakete) halakorik egin. Haur hek denek deitzen zuten elgar Gilen. Norbaitek galdegiten zietenean non zuten aita eta ama, errepostu emaiten zuten:

- Gu laminen haurrak giutzu (gaituzu), aita gurea eta ama gurea ari dituzu guretako, gu handitu gireneko, urre eta zilar fabrikatzen (laburtua, Cerquand 2017: 66 zb).

Kondaira honetaz ohar bat: Greziako mitologian Kadmos-ek, Tebas hiriaren sortzaileak, herensugea kalitu eta, haren hortzak erein zituen eta bakoitzetik gudari bana jaio zen. Bestela, aurrekoen alderantzizkoa da: bietan lur azpitik ateratzen dituzte laminak, baina asmo eta ondorio oso desberdinez. Baxenabarren, Kristo aitzineko jende errukitsuek etxean babestu zituzten lamina txikiek esan zuten aitamen jauregietan biziko zirela etorkizunean. Arratian, lehenagoko jende batzuek bortxaz eraman zituzten laminak etxera eta, beren galtzeko manera esanarazi ondoan, galdu egin zituzten.

Kaltzakortak (1997: 52) laminen orraziarekin lotzen du Baxenabarreko area. Eta lotura horrek ankerragoak egiten ditu Bizkaiko kondairak, ilea ere aipatua delarik: “Uleak kendu eutsiezan danak horreek areok” (Etxebarria 1995: 259).). Laminen ikurrak diren adats ederra eta orrazia zitalki bihurrikatuz, haien jabeak goldeaz “orraztu” eta odolustu zituzten jendeek. odoleztatzen dituztenean burdin aroa da, laminak eta jendeak adiskide ziren urre arotik urrun.

VII. BURDINA BURDINAREN AURKA

Deabruren aurka arotzek duten indarra azaldu da aurreko kapituluan. Arotz batek garaitu zuen Gavarnie aldeko Isabit-eko sugea ere, ingude goritua jatera emanez (Ravier 1986: 85; Sébillot 1968 II: 401). Webster-en bertsioan, ola bat eraiki zuten herritarrek, herriko burdin guztia goritzeko; eta herensugeak dena irentsi eta beroagatik inguruko erreketako ura edan ondoan, lehertu egin zen eta barruan zeukan urak Isabit-eko aintzira sortu zuen (1887: 20).

Arotzen ahalak eta Amezketako jentilek beren harpeak egur makilez zulatzen zituztela ikusita (Garmendia 1994: 42-43), uler liteke izaki mitikoek ez dutela metal hori ezagutzen. Baina ez: jentil, Basajaun edo deabruei hartu zieten arotzek kaldaren teknika (ikus “Deabrua” kap.); eta

Anbotoko Andereak aholkatzen zuen nola berriz abiarazi burdinola matxuratua, bai Orozkon (Etxebarria 1995: 156), bai Iraetan eta bai Zubilagan (Barandiaran 1984a: 153). Beraiek irakatsitako teknikez akabatuak ote dira izaki mitikoak, erreflexibitatez, nonbait? Orozkoar batzuek burdinazko palankez menderatu zituzten burdinako atiaz gotortuak ziren jentilak.

Axpuruko Jentil Zulon (edo Untzuetapikuko gazteluan) bizi ziren jentilek neskak bahitzen zituzten eta Orozko osoa zeukaten ikaran. Behin Olabarriandiko alaba ardiekin basora joan zen eta jentilek hartu zuten, baita gaztelura eroan eta han itxita eduki, burdinazko atear ipinita. Nebak arrebaren bila joan eta gazteluko atetara hurbildu ziren. Neskak esan zien halako orduan lo egongo zirela jentilak, etzanaldian, eta orduan palankakaz etortzeko. Etorri ziren ba, burdinazko palankakaz atear apurtu zituzten eta neska atera. Jentil guztiak hil ziren edo ihes egin zuten beren zuloan barrurago sartuz. Eta ez dituzte gehiago Orozkon ikusi.

Orozko salbatu zutelako burdinazko palankakaz, Hierro-Palankos abizena eman zien herriak anaiei edo, bertsio batzuetan, arrebak jentilengandik izan zuen haurrari. Oraindio badira Orozkon haien ondorengoak, Hierro-Olabarria deitura dutenak (moldatua, Arana 1996: 236-250).

Palanken garaipena, burdinatik ez ezik, beren formatik ere datorkieke, sinbolo erasokorra atearen esanahi intimista baino azkarragoa izan zen. Bertsio batean, halere, irudi barnetiarra bideratzen dute palankek: laborantzako laien gisa erabili zituzten nebek, gazteluko harresia botatzeko, eta haren azpian lurperatuak gelditu ziren jentilak, hau da, ernatuko den hazi ereinaren moduan (Arana 2000: 51-52).

VIII. ITSUAK ETA ITSUTUAK

Izen emaileak dira palankak Orozkon, eponimoak, eta jentilei lotuak, Balenkalekun bezala. Han zaharrari betazalak altxatzeko erabili zituzten, eta beste tokietan ere, Thompson-en F 571.1 motiboaren arabera ("Old Man with Hanging Eyelids. So Old that the Eyelids Hang down to his Chin and Must be Lifted up" - British, Indian)

Alderantziz, begia lehertzen da Aarne & Thompson-en T 1137 tipoan ("The Ogre Blinded - Polyphemus"). Motiboa jadanik aurkitu dugu "Lamina zuritua" kondairan, baita Basajaunari edo jentil batzuei lotua ere, eta bereziki Tartaroari (Barandiaran 1973b: 390; Cerquand 2017: 94-98 zb; Azkue 1966: 335; Barandiaran 1960: 40-44; 1984a: 193; Kaltzakorta: 70-80). Hona Tartaroarena Eskiulako bertsioan:

Tartaro züzün (zen) gizon handi bat bezala. Begi bat baizik ez zizün (zuen) eta hura borontearen (bekoki) erdian. Indar handi bat bazizün eta ez ziozün (zitzaion) jatekoetan deus ere kristikia (kristau-haragia) bezain hunik, haren urrina senditzen zizün hürrüntik. Bortian zizün beren egongia, oihan baten bazterrean. Gai (gau) batez gizon gazte azkar bat agitü (gertatu) züzün haren etxera alojamentü galtatzen. Tartaroa paseiun beitzen, emazteak erreizibitü zizün eta erran ziozün (zion): "Bordan lo eginen düzü ardien artean.

- Bai, gogo hunez, ezi einherik (akiturik) nüzü.

Hantik laster heltü zen tartaroa eta erran ziozün:

- Assi qu'ey a car de christia (kristikia bada hemen).

Baina jada ardi bat janik beitzen, erran ziozün gizon gazteari:

- Hi biharko, ahoaren xahatzeko ("ahoa garbitzeko": postreko gasna jaterakoan esaten da).

Eta sütondoan etzan bezain sarri lo zurrunka hasi züzün.

Ordian kristiak, sütondoan gerren (burduntzi) bat beitzen, gorriarazten dizü (du) eta begian sartzen diozü (dio) Tartaroari. Arrama bateki jeikitzen düzü (da) erraitetz:

- Hau kristiaren kolpia, bena pakatüren deitak (zidak).

Berehala onduan joaiten ziozü, bena gaztea gordetzen ziozün ardi saldoaren artean; orduan tartaroak bortatik kanpo igortzen ditizü (ditu) ardiak bere zangoen artean bedera-bedera iraganaraziz. Gizonak ardi larrü bat ezarririk bizkarrean, lau hatzetan ardien artean badoazü.

Tartaroen emazteak erraiten diozü gazteari:

- To erhaztün hau, ezar ezak erhi (atzamar) batetan eta edirenen dük bide huna.

Bena erhaztüna hasten düzü oihüz:

- Heben niz, heben niz!

Mutikoak idoki (atera) nahi dizü erhaztüna, bena ezin. Muzten dizü erhia eta bere erhaztünarekin urtukitzen baxa (amildegi) bat behera. Hantik ere erhaztüna mintzo züzün:

“Heben niz, heben niz”. Eta tartaroa hari jarraikitzen joaiten düzü baxa behera eta han larrützen (laburtua, Cerquand 2017: 96 zb).

Begiari ikusmena kentzen dion gerren goritua, jentil zaharraren ikusmena ahalbidetzen duen palankaren inbertsioa da. Bestalde, jentil itsuan zein lamina edo tartaro itsutuetan, bihurkaritza molde bat den suizidioaren ideia hautematen da, noiz norberak gauzatua, noiz beste bati eskatuta. Hil dezaten eskatuko die Ataungo jentil zaharrak lagunei, eta Biarnoko Mulat-Barbek bere semeei; tartaroa amildegira joango da bere eraztun propioari jarraikiz; laminak, “Neure buruk” zauritu duela aldarrikatuz, suizidioaren plantak egiten ditu eta, Orozkoko bertsio batean, lagunak hori entzunda, hilko dute, hil ere. Odiseoren “Inor ez” izen aizuna baino azkarragoa izan da “Neure buru”.

Elementu horiek gehienak Irlandako kondaira batean bilduak dira, izaki mitikoen akaberaren testuinguruan: “Fomore” eta “Tuatha De Danann” endak elkarren aurka ari dira Mag-Tured-ko borrokan eta, une gogorrean, aurrez aurre gertatzen dira askazi bakoitzeko gizon bana, Balor eta Lug; aitita-bilobak dira, eta etsaiak. Balor-ek bazuen begi bat zitala: soilik borrokan zabaltzen zen eta hari begiratzen zion armadak ezin zuen atxiki, atzera egiten zuen; begi hori irekitzeko, lau gizonak kako leun batez betazala altxatu behar zioten. Balor-ek, bere iloba Lug aurrean izan zuenean, betazala jaso ziezaiotela agindu zuen, “mintzatzen ari zitzaion kalakaria” ikusteko. Altxatu zioten, ba, baina Lug-ek harri bat abailaz aurtiki eta begia burutik atera zion. Balor-en begia Fomore-en gainean erori eta hilketa handia egin zuen bere armada propioan. Bikoitza da hemen suizidio-iradokizuna: Balor bere askaziko batek hil (jentil zaharra, Mulat-Barbe eta lamina itsutuaren antzera), eta berak bere gudariak hilarazi.

Fomore-ak garaiturik, astitaren lekua hartu zuen Lug-ek, eta bizia barkatu zien etsai batzuei; haietarik batek, Bress-ek, garailei agindu zien haren magiari esker Irlandako behiek beti emango zutela esnea, eta uzta biltzeko lurra nola landu ere erakutsiko ziela (jentilek zerealak zelan landu erakutsi zuten). Irlandan, berriz, Morrigan lamiak jendeen etorkizun iluna profetizatu zuen, eritasun, gerla eta herioaren menpe biziko zirela (Markale 1971: 28-30) (Urdiaingo jentil zaharrak jende “perruaren” etorrera iragarri zuten).

IX. URRE AROA

Jentilen akabera seinalatzen duen lehenbiziko lainoa edo elurra ez da debaldeko elementua, oso garrantzitsua baizik; garai mitiko urrunean kokatzen du gertaera, mundua mundu ez zeneko aro a-historikoan.

Ez ohiko meteorokoak zorigaitz baten iragarle diren ustea aski hedatua da; gerlen bezperetan hauteman dira, eta lainoak izurria garraiatzen duela ere sinetsi izan da (Barandiaran 1984: 119). Jentilen akabera, endekatzearen hasiera den neurrian, hondamendia da, urre aroaren bukaera. Aro zoriontsu horren aztarnak badira istorio batzuetan, mendiak uzta ematen zuen eta izaki mitikoak jendeen adiskideak zirenekoetan.

Ataunen, Jentilbaratzeko jentilak askotan Agerrera jaitsi eta jokoan aritzen omen ziren han, egunsentian oilarrak kukurruku jo artean. Behin Agerreko nagusia gaixotu zen eta elizakoak egitera zihoan. Jentilek jakin zuten eta, kristauak ez izanagatik, urrezko sobrekama jaitsi omen zuten Agerrera eta berarekin gaixoaren ohea estali. Agerrekoek sobrekama eskuratu nahiz, iltzez josi zioten oheari, baita gero oilarrari joarazi ere. Jentilek oilarra aditu zutenean, heldu zioten sobrekamari eta berehala abiatu, baina sobrekama zati bat ohe ertzari josita geratu omen zitzaien. Orduan deiadar egin omen zuten, Agerren ez dela eririk edo makorik faltako (laburtua, Barandiaran 1960: 37).

“Laminaren amorantearen” kondairan aurkitu dugu ohe estalgia, maitasunaren adierazgarri. Herri horretan laminek jendeak bisitatzen zituzten - oreganoak galarazten ez zienean (ikus “Baliabideak”); baserrietan labekada egiten zenean ere hurbiltzen ei ziren laminak, eta aski zen ogi zatitxo bat ematea pozik joan zitezen (Arana 2000: 65 eta 70). Opari txiki horiek eskaintzak ziratekeen eta, uztatik atxikitzen den erein-hazia eta ogi-oretik gordetzen den legamia bezala, etorkizuneko elikagaien bermea.

Laminek joritasuna eragiten zuten, haiekiko adiskidetasuna bortizki etena izan zen arte: “Lamina zaurituaren” bertsio batzuetan kebidetik zetorren laminak soro lanak egiten zituen etxekandereak ematen zion janariaren truke; baina senarrak zauritu ondoan peko errekarara joan zen etxea (Barbier 1931: 26; Arnaudin 1966: 40 zb.; Arana 2000: 66). Bertsio hauen zentzua ez da nola jendeak libratu ziren lamina bizkarroietatik, baizik eta nola hautsi zen elkarren harreman ona, eta zer izan zen horren ondorioa.

Laminak et jentilak, agidanez, ederki asko bizi ziren:

* Aberatsak ziren, urreria eta oihal ederrak zeuzkaten.

* Jentilak luzaz bizi ziren: jentil zaharrak lau ehun urte zituen, Mulat-Barbek bederatzi ehun, Millaris-ek mila.

* Mulat-Barbe elur (negu) bariko garaian bizi zen eta garitza ederrak zituen mendian, oraingo udako alhagietan; lur hura hain zen emankorra non, lekutik mugitu gabe, zazpi azaokoa moztan ahal baitzuen. Ataungo Basajaunak eta jentilek ere galsoro politak zituzten mendian (“Basajauna” kap.) eta teknika garrantzitsuak ezagutzen zituzten.

* Jentilak olgetan eta jokoetan agertzen dira Zaldibiako kondairan. Orozkon, menditik mendira pilota jokoan, edo beren gazteluan etzanaldian.

* Lan egiten dutenean ere ez dute nekerik ezagutzen: Arrolako jentilak Arabatik idinarru bat gari bizkarrean zekarrenean, bide erdian atsedean hartzeko esan zion alabak, eta aitak erantzun, jakin izan balu atsedean hartzea bazeukala, bi idinarru hartuko zituela (Barandiaran 1960: 39).

* Satrustegiri (1980: 141-147) berriemaile batek esan zion ez zuela inoiz deus txarrik entzun jentilengatik eta oraingo jendeak baino hobeak zirela: “Gure aurrekoak baino txarragoak gara gu, eta gure atzetik datozenak baino hobeak”.

Jentilen ezaugarri horiek aldera daitezke Pottier-ek “Hasierako mitoei” eransten dizkien hiru elementuekin (1994: 94): antzina-antzina jendakiak oparo bizi ziren, gero oker bat egin zuten, eta orain egoera latza jasaten dute. Jentilen eta laminek kondairek ez dituzte elementu horiek esplizituki eta batera azaltzen urte aroaren mito bat osatuz; baina haien lorratzak somatzen dira, batez ere “Jentilen akabera”. Aldi berean suizidio ideia errekurrentziak iradokitzen du izaki mitikoen bukaera haien nolabaiteko adostasuna izan daitekeela (Arana 2000: 40).

X. HISTORIA ALA MITOA?

Jentil zaharra hila da eta haren ondorengoak harrespil baten azpian ehortziak; baina istorioek ez dute beti zehazten erabat eta betiko galduak diren ala soilik ezkutatuak. Orozkoak beren zuloan barrurago sartu eta lurperatuak izan ziren, edo ihes egin zuten. Hango laminak ere, errogatibengatik, zazpi estatuz lur azpian geratu ei ziren, eta geroago bonba atomikoagatik “erretirata dagoz”; Arratiakoak ez dakigu errekatik erausiak izan ondoan suntsitu ala debildu ziren. Benetan akabatu nahi ez?

Aldenduak edo lur azpian ostenduak daudenak, zergatik ez dira berriz azalduko? Parusia ez da ezezaguna herri tradizioan: Altzaiko herensugea, bolbora zartatu ondoan airean joan eta Baionako itsasoan ito zena, lurpeko bidetik itzuliko dela Zuberoara entzun zuen Casenavek (1994). Britainiako xaharrek uste zuten itsas labar zuloetako lamiak beren egoitzak utzi eta alde eginak zirela XIX. mende “ikusezinean”, baina XX. mende “ikusgarrian” itzuliko zirela; eta lehen turistak begiztatu zituztenean - andre dotoreak automobiletan - zenbaitek pentsatzen zuten lamiak berriz jinak zirela, ea beren herrialdea lehen bezain gustukoa zutenez (Sébillot 1968: 111). Irlandako harrespiletako barne ganbarak, historikoki hilobiak, hilen eta dibinitate frankoren egoitza ziren; mitologiako *Konkisten Liburu*-aren arabera, “Tuatha De Danann” jainko-andereak, Gaellarrek garaituak izan ondoan, harrespilen azpira sartu ziren; hargatik, maiz jalgitzen ziren lur azalera, jendeekin harreman iraunkorrak lotzeko (Markale 1971: 25).

Kristianismoko Luzifer, menderatua eta infernuko zulora egotzia izan arren, lur gaineko jendeak tentatzera ateratzen da; eta Jesukristo, zerura igo-eta, kristauen artean egoten da. Ez da harritzekorik, beraz, laminek eta jentilek agertzen segitzen badute garaituak edo deserriratuak izan ondoan. Euskal mitologian ez dugu ahozko tradizioa arrazionalizatuko duen druidarik ez teologorik, baina saratar batek garbi azaldu zuen nola banatu ziren lur-eremuak eta denbora-uneak jendeen eta izaki mitikoen artean:

Gizonak badu lur bat beraren bizitzeko eta beraren ehorzteko. (...) Lurrazpiko eremuetan, aldiz, deabruak dira nagusi. Deabruak lurgainera ateratzen dira batzuetan, animalez jantziak eta animale gisan. (...) Behi gorri, zaldi zuri, aker beltz, zerri zuri, ahari eta suge izigarrien irudiko monstroak dira debruak. Lehengo mendeetan arrunt nagusituak zabiltzan munduan; orai guttiago, elizak eta kaperak eginak direnez geroz. Sarako kaperak ere munstro horiek kasatzeko eginak omen dira. Geroztik deabruak lurpeko eremuetan omen dute bakarrik beren indarrak handiena: gainean gutti. Baina oraino, gabez bederen, etortzen dira gure arterat, leize, oxin eta beste zokoetarik aterata (Barandiaran 1962b: 107).

Lehen hodeiaren garaian zein bonba atomikoarenean, izaki mitikoen akabera mitoen berezko gaia da, ez erligio-gerla baten historia. Historikoak dira izaki mitikoen akabera eragin omen duten baliabide fisikoak edo sinbolikoak. Sinbolikoetan, Kristianismoaren eraginak duen garrantzia kondairetan islatua da, eta haren aipamen errepikatuak adieraz lezake, sartu zenetik eta industria aroraino, ez dela antzeman hari itzala egingo zion arma magiko-izpiritualik. Aldi berean jazo diren asmakuntza teknologiko azkarren inpaktuek jendartea markatu dute: Hiroshimakoa

gertatuz gero nuklearrari leporatu zitzaizkion naturan sumatzen zen edozein nahasmendu; ez zuen harridura tikiagoa sortuko bolboraren asmatzeak edo su-armen zabaltzeak. Eta mitologia arloan aurkitzen ditugu denak, izaki mitikoen kalte.

Atzerago joanez, metalezko arma eta lanabesek, edo burdinazko goldeen erabiltzeak, aldaketa sozial eta ekonomiko handiak ekarri zituzten, eta pentsa daiteke laminetan eragin zuten triskantza laborarien mozkinen igoera bezain handia izango zela. Burdinbideak ez zituen soilik laminak uxatu, nekazariak ere durduzatu zituen eta haren kontra oldartu ziren, beren garraio sistema tradizionala hondatuko zielako.

Kristianismoak ere galdu omen zituen jentilak, bai, baina ez jentilen mitoak, mitoek baitute jentilen akabera kontatzen. Mitoek aspalditik esaten dute nola galdu ziren beren protagonistak eta, haien galtzea kontatuz, bizirik iraunarazi dituzte galduenganako sinestea eta atxikimendua. Duny-Pétrék (1960) dio argindarrak deserriratu zuela Garazitik “Basajauna” deitzen zuten mamua (barnean kandela piztua duen kuia). Hazkundera, beraz, bonba eta kristianismoa baino deuseztagarriagoa izan da. Baina nork du azken hitza? Moises Larraondo oroizkoarrak, antzinakoa eta oraina lotzeko duen trebeziaz, dio: “Anbotoko Señorea entzutea daukat, ba, dala lamina bat edo estraterrestre bat edo holango elementu bat”. Asmagaitzak dira mitoen bideak, eta trenak galdu zituen otsoak Urduñako Atxera itzuli dira berriz.

Pellokeria bada ere, gogoratzeko da izaki mitikoek irauten dutela mitoak esaten direno, kontua ez dela akaberaren mitoak, baizik eta mitoen akabera. Sinesteak bizi zituen behinola eta, orduko ingurumenetik at, gaur egun ez dute kartsutasun bera sortzen, bazter utzi ditu halabeharra deitzen dugun soraioak, lehen elurra bezain hotz.

Eta orain zer? Elur agorte honetan kondairak atxiki nahi baditugu oroimen bizian, gure esku da beste era batez transmisioa bermatzea, ahoz, idatziz edo bestez; beti ere errespetuaz, fede eman zietenek pentsatu eta moldatu zituzten bezala; sinesgabeok hobetu eta politagoak egin ditzakegun uste hutsalean alferrik ahitu barik.

BIBLIOGRAFIA

AARNE, Antti & THOMPSON, Stith

1964 (1. arg. 1928) *The Types of the Folktale*, Helsinki.

ARANA, Anuntzi

1996 *Orozko haraneko kondaira mitikoak*, doktorego tesia, EHU.

2000 *Mito hurbilak*, Gatuzain, Baiona.

2008 *Euskal mitologiaz. Jentilak eta kristauak*, Elkar, Baiona.

2015 *Hilak gure artean, agerpenak eta jai-eskeak*, Elkar, Baiona

ARNAUDIN, Félix

1966-1967 (1877) *Contes populaires de la Grande Lande*, 2 tomo, Amis de F. Arnaudin, Bordeaux.

ARRATIBEL, Joxe

1995 *Kontu zaharrak*, Erein, Tolosa

AZKUE, Resurreccion Maria

1959-69 (1935-45) *Euskalerraren Yakintza*, 4 tomo, Espasa Calpe, Madrid.

BARANDIARAN, Joxemigel

1960-62 *El mundo en la mente popular vasca*, I-IV, Auñamendi, Donostia

1972-74 *Obras completas* (lehen V tomoak), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao

1984a *Diccionario de mitología vasca*, Txertoa, Donostia

1984b *Brujería y brujas*, Txertoa, Donostia

BARBIER, Jean

1921 "Chaindia", *Gure Herria*, 1921, 425-428 or.

1931 *Légendes Basques*, Delagrave, Paris (Reprint, Elkar, Baiona, 1984).

BETTELHEIM, Bruno

1976 *Psychanalyse des contes de fées*, Laffont, Paris.

BLADE, Jean-François

1976 *Contes de Gasconha*, 1 tomo, Ed. "A tots"- "Per noste", Institut d'Estudis Occitans Tolosa (Toulouse.)

2008 *Contes populaires de la Gascogne (Gers - Gironde - Hautes-Pyrénées – Landes - Lot-et-Garone)* Ed. Aubéron, Bordeaux.

BOYER, Régis (édit)

1978 *Les sagas islandaises*, La Pléiade, Gallimard.

CAILLE, Alain

2000 *Anthropologie du don. Le tiers paradigme*, Desclée de Brouwer, Paris.

CAMUS, Dominique

1988 *Pouvoirs sorciers*, Imago, Paris.

CARO BAROJA, Julio,

1965 *El Carnaval*, Madrid, Taurus.

1966 *La bruja y su mundo*, Alianza, Madrid 1974 *De la vida rural vasca*, Txertoa, Donostia.

1975 *Brujería vasca*, Txertoa Donostia

CARRINGTON, Dorothy

1999 *La Corse*, Arthaud, Paris (*Granite Island, a portrait of Corsica*, London, 1971).

CASENAVE, Junes

1994 "Azalegiko karbea à Alçay" *Ikuska*, 1994, 1. trim.

CASTANEDA, Carlos

1985 *L'herbe du diable et la petite fumée*, Bourgeois, Paris (*A Yaki way of Knowledge*, 1968).

CASTAÑEGA, Fray Martin de

1529 *Tratado de las supersticiones, hechicerías y varios conjuros y abusiones, y de la posibilidad y remedio dellas*. 1994 Juan R. MURO ABAD-ek argitaratua, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño, 1994

CERQUAND, Jean François

1875-1885 "Légendes et récits populaires du Pays Basque", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*.

CERQUAND, Jean François

2017 *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak*, Gatuzain, Baiona.

CHAO, Agustin (Ikus XAHO)

1979 (1. arg. 1838) *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques (1830-1835)*, Laffitte Reprints, Marseille.

CHARBONNEAU, Henri

1995 *Chapelles et saints guérisseurs basques et béarnais*, Ed. Harriet, Helette (articles apparus en 1936-1937).

COSTA, Jean-Patrick

2001 *Chamans d'hier et d'aujourd'hui*, Dominos, Flammarion, Paris

DELARUE, Paul & TENEZE, Marie Louise

1964-76-85 *Le conte populaire français. Catalogue raisonné, 4 ale*, Maisonneuve et Larose, Paris

DELORT, Robert

1998 "Les abeilles" in Boris CYRULNIK (directeur) *Si les lions pouvaient parler. Essais su la condition animale*, Quarto, Gallimard.

DELUMEAU, Jean

1978 *Le peur en Occident, XIVème XVIIIème siècles*, Fayard

DOUGLASS, William

1973 *Muerte en Murélaga. El contexto de la muerte en el País Vasco*, Barral, Barcelona
(*Death in Murelaga*, University of Washington Press, 1970).

DUNY-PETRE, Pierre

1960 "Basa Jauna, le Seigneur Sauvage, dans les légendes basques", *Bulletin de la Société de Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*.

2011 *Ahozko euskal literatura Garazin* (<http://ahozko-euskal-literatura.over-blog.com/article-22-68155953.html>)

DUVERGER, Christian

1979 *La fleur létal, économie du sacrifice aztèque*, Seuil, Paris.

DUVERT, Mikel

1989 "Maskak", *Dantzariak* aldizkaria, n° 45.

ELIADE, Mircea

1951 *Le Chamanisme et les techniques archaïques de l'extase*, Payot, Paris

1975 *Traité d'histoire des religions*, Payot, Paris (1. ed. 1949).

ERKOREKA, Anton

1986 "Los relatos de milagro de la Virgen de Begoña en el siglo XVI" in *Religión y símbolos (Zainak, Cuadernos de antropología-etnografía, 18 zb.)* Eusko Ikaskuntza.

ETXEBARRIA, Jose Maria

1987 "Zornotzako sineskerak eta ipuinak" *Etniker Bizkaia* 1987, 165-183 or.)

ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel

1995 *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esakuneak*, Labayru - BBK, Bilbao

EVANS-PRITCHARD, Edwar E.

1969 *Anthropologie sociale*, Payot, Paris (*Social Anthropology*, 1950)

FABRE-VASSAS, Claudine

1994 *La bête singulière. Les juifs, les chrétiens et le cochon*, Gallimard, Paris.

FAVRET-SAADA, Jeanne

1977 *Les mots, les sorts, la mort. La sorcellerie dans le bocage*, Gallimard, Paris

FEDERICI, Silvia

2017 *Caliban eta sorgina. Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa*,
Elkar & Jakin.

FERMOR, Patrick Leigh

1999 *Mani. Voyages dans le Sud du Péloponnèse*, Payot, Paris. (*Mani. Travels in the Southern Peloponnèse*, London, 1958).

FRAZER, James George

1981-1984 *Le Rameau d'or*, I-IV tomoak, Laffont, Paris (1911-1915, *The Golden Bough*).

GAIGNEBET

1979 *Le carnaval*, Payot, Paris.

GARCIA DE SALAZAR, Lope

1914 *Crónica de siete casas de Vizcaya y Castilla (escrita en 1454)*, Sucesores de Rivadeneyra, Madrid

GARMENDIA LARRANAGA, Juan,

1973 *Iñauteria, el carnaval vasco*, Guipuzcoana de Ediciones, SVAP, Donostiako Aurrezki Kutxa, Donostia

1984 *Carnaval en Navarra*

- 1987 *Ritos del solsticio de verano*, Kriseilu, Donostia.
- 1991 *Euskal pentsamendu magikoa* I. Baroja, Donostia.
- 1994 *Euskal pentsamendu magikoa* II. Elkar, Donostia.

GINZBURG, Carlo

- 1992 *Le sabbat des sorcières*
- 1997 *Le Juge et l'Historien. Considérations en marge du procès Sofri*

GOIZUETA, Jose Maria de

- 1856 *Leyendas vascongadas*, 3. Ed., Madrid

GOROZTIZA, J. K.

- 1978 "Lamiñak, jentilek eta Anbotoko Señorie (Arrazola)", *Etniker Bizkarea*, III

GRATACOS, Isaure

- 1995 *Calendrier pyrénéen. Rites, coutumes et croyances dans la tradition orale en Comminges, et Couserand*, Privat, Toulouse.

HARTSUAGA, J. Ignazio

- 1987 *Jentilen akabera*, AEB, Kriselu, Donostia.

IDIART, Roger

- 1987 "Réflexions sur la pastorale souletine" in *La pastorale*, Lauburu, Baiona.

IMBULUZKETA Gabriel,

- 1991 "Cencerradas del día de la víspera de Reyes", *Cuadernos de etnología de Navarra*, nE 58, jul-dic. 1991

IRIBARREN, Jose Maria

- 1954 *De Pascuas a Ramos*, Pamplona.

KALTZAKORTA, Xabier

1997 *Lamia, Sorgin eta Tartaroen erresuma ezkutua*, Labayru ikastegia, BBK, Bilbao.

KANTU KANTA KANTORE *Kantu, kanta, kantore* (bilduma) Baiona

1967

LANCRE, Pierre de

1982 (1. arg. 1612, Paris) *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et des démons*, introduction et notes, Nicole Jacques-Chaquin, Aubier, Paris.

LECOUTEUX, Claude

1986 *Fantômes et revenants au Moyen-Age*, Imago, Paris.

LAFEBVRE, TH.

1933 *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques Orientales*, Armand Colin.

LE BRAZ, Anatole

1994 *Magies de Bretagne (La légende de la mort chez les bretons armoricains 1922 / etc)*, Laffont, Paris.

LEVI-STRAUSS, Claude

1952 "Le Père Noël justicié", *Les Temps Modernes*

1964 *Le cru et le cuit*, Plon, Paris

1985 *La Potière jalouse*, Plon, Paris

LUKU, Anton

1998 "Bertzetan" ipuina in *Botoiletan*, Maiatz, Baiona.

MALINOWSKI,

1989 *Les Argonautes du Pacific Occidental* Gallimard, Paris (*The Argonauts of the Western Pacific*, 1922).

MANTEROLA & ETXEBARRIA

1979 "Gorbeia inguruko ipunak eta esakundeak", *Etniker-Bizkaia*, IV.

MARIE DE FRANCE

1973 (XII. mendean idatzia) *Les lais*, publié par Jean Rychner, Honoré Champion, Paris.

MARKALE, Jean

1971 *L'épopée celtique d'Irlande*, Payot, Paris.

MARLIAVE, Olivier

1990 *Panthéon pyrénéen*, Loubatières, Portet-sur-Garonne

1996 *Trésor de la mythologie pyrénéenne*, Ed. Sud Ouest, Bordeaux.

2006 *Magie et sorcellerie dans les Pyrénées. Dictionnaire*, Ed. Sud-Ouest.

MAUSS, Marcel

1993 (1950) *Sociologie et anthropologie*, Quadrige, PUF.

1969 *Oeuvres, 2. Représentations collectives et diversité des civilisations*, Ed. de Minuit, Paris.

MOGUEL URQUIZA, Juan Antonio de

1970 *Peru Abarka* (XVIII. mendearen bukaeran idatzia eta 1880ean argitaratua), edición bilingüe realizada por R. M. de Azkue, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao

MUCHEMBLED, Robert

1979 *Le sorcière au village (XV-XVIII siècle)* Julliard/Gallimard, Paris

1987 *Sorcières, justice et société aux XVI et XVII siècles*, Imago, Paris

2000 *Une Histoire du diable, XII-XX siècle*, Seuil, Paris.

ORMAETXEA Nikolas, "ORIXE"

1950 *Euskaldunak poema*, Itxaropena argitaldaria, Zarautz.

OTT, Sandra

1993 *Le cercle des montagnes, une communauté pastorale basque*, Ed. du CTHS, Paris
(*The Circle of Mountains, a Basque Shepherding*, Oxford University Press, 1981)

OXOBI (Jules MOULIE)

1966 Oxobiren lan orhoitgarri zonbait, *Gure Herria, Baiona*.

PALOU, Jean

1957 *La sorcellerie*, Que sais-je? Paris.

PEILLEN, Txomin

1994 *Herri-sendakuntza eta sendagingoa Zuberoan*, Anuario de Eusko Folklore, 39 zb.

PEÑA SANTIGO, Luis Pedro

1980 *Montañas del País Vasco*, Txertoa, Donostia

PERRIN, Michel

1995 *Le chamanisme*, Que sais-je?, P.U.F. Paris

POTTIER, Richard

1994 *Anthropologie du mythe*, Kimé, Paris

QUPPERSIMANN, Georg

1992 *Mon passé eskimo*, Gallimard, Paris

RADIN, Paul

1980 *La civilisation indienne (The Story of the American Indians)* Payot, Paris

RAVIER, Xabier

1986 *Le récit mythologique en Haute Bigorre*, Edisud, Aix.

REIFLER BRICKER, Victoria

1987 *El Cristo indígena, el rey nativo. El sustrato histórico de la mitología del ritual de los Mayas*, Fondo de Cultura económico. Mexico. (*The Indian Christ. The Historical Substrate of Maya Myth and Ritual*, University of Texas Press, Austin 1981).

RICAU, Osmin

1999 *Histoire des cagots : race maudite de Gascogne, Béarn, Pays Basque et Navarre franco-espagnols, Asturies et province de León*, Ed. Princi Néguer, Cressé

RUGGIERI, Ruggiero

1969 "Avventure di caccia nel regno di Artù" in *Mélanges Rita lejeune*, Genbloux.

SATRUSTEGI, Jose Maria

1980 *Mitos y creencias*, Txertoa, Donostia

SEBILLOT, Paul

1968 (1904) *Le Folk-lore de France* 4 tomo, Maisonneuve et Larose, Paris.

TALAYESVA, Don C.

1982 *Soleil Hopi*, Terre Humaine, Plon (*Sun Chief. The Autography of a Hopi Indian*, 1942).

THOMPSON, Stith

1955-58 *Motif-Index of Folk-Literature (a classification of narratives elements in Folktales, Ballads, Myths, Fables, Mediaeval Romances, Exempla, Flabiaux, Lets-Books and Local Legends)*, 6 tomo, Rosenkilde and Bagger, Copenhagen.

TRUFFAUT, Thierry

2001 "Le Rogations, une pratique processionnaire rituelle, protectrice de l'Espace Communautaire en Pays Basque Nord", in *Antropologia eta erligioa: jaiak, erritualak eta identitateak* Jardunaldia, Eusko Ikaskuntza, Iruña.

VAN GENNEP, Arnold

1937-88 *Manuel du folklore français contemporain*, 8 volumes, A. et J. Picard, Paris.

VARAGNAC, André

1948 *Civilisations traditionnelles et formes de vie*, Albin Michel, Paris.

VARAZZE, Jacobo de

1967 (1264, *Legenda Aurea*) *La Légende Dorée*, 2 tomo GF Flammarion, Paris.

VILLENEUVE, Roland

1983 *Le fléau des sorciers*, Flammarion, Paris

WEBSTER, Wentworth

1897 (1887) *Basque Legends*, London.

1993 *Euskal Ipuinak*, 2 tomo, Txipri Arbelbidek argitaratuak, Klasikoak, Donostia.

XAHO, Agustin (ikus CHAHO)

1976 (1. arg. 1838) *Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos*, Txertoa, Donostia.